


JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

**ZEBERIO HARANEKO  
EUSKARAREN AZTERKETA  
ETNO-LINGUISTIKOA**



HIZKUNTZ GAITASUNA UDALERRIKA (SIADeco)

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

# Zeberio-Haraneko euskararen azterketa etno- linguistikoa

Egilea: **JUAN MANUEL ETXEBARRIA Aiesta**

Urtea: 1988

Zuzendaria: ALFONSO IRIGOIEN ETXEBARRIA

Unibertsitatea: UD-DU

ISBN: 978-84-8428-232-4

# Hitzaurrea

## I-. SARRERA

Doktorego Tesi hau, 1988an defenditutakoa da eta, jakina, hemen agertzen diren datuak ere 1988koak dituzue.

Doktorego tesi hau, K. Mitxelenarekin egin nuen eta defentsa aurretixuan, hil egin zen eta horregatik, A. Irigoienek hartu zidan defentsako ardura, K. Mitxelenarekin eginga neukanari ikuturik ere egin barik.

Deustuko Unibertsitateko "Salón de Grados" edo biblioteka historikoan egin nuen defentsa. Epai-mahaikideak hauexek izan nituen: J. Haritschelhar (Euskaltzainburua), A. M. Etxaide, (I.U.), M. Etxenike (EHE), Gotzon Garate (Euskal Filologiaren Sortzailea) eta I. Turrez (Euskal Filologiako Sailburua).

Kalifikazioa, gorengoa izan nuen, hau da "Ahobatezko Cum Laude".

## II-. DEFENTSAKO HITZALDIA

Euskal Herriko euskara biziaren liburu zaharra zabaldu dudanean, beleak bere haitzera egiten duen lez, Zeberioko orrialdera jo dut geure bertoko euskal altxorren barrurik harako azterketa etno-linguistikoa egin nahian etorkizunera bideratzeko.

Zeberioko herrian darabilgun esaera zahar batez hasi nahi dut oraingo honetako eginbehar hau eta honela dio: "*Min bako arrana ugerra(k)tx(y)aten yok*" (mihi gabeko arrana ugerrak jaten dik). Esaera honek diona egia izaten bada ere, Zeberioko euskeraren "arranak" badaragoio eragon ere oraindik, uertu barik eta gogatsu bere betiko arrantotsean.

Zeberioko euskera, beste euskalki, azpieuskalki eta aldakien ondoan jartzean, Axularren pasartetxo hau datorkit gogora:

*"Badakit halaber ezin eda naitekeiela euskarako mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian... Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere..."*

Axularrekin bat nator eta Zeberioko hizkuntz-prozesu bizia aztertzeraz On Jose Migel Barandiaranen aholku batek bultzatu nau. Izan ere, 1975etik hona, bere zuzendaritzapeko Bizkaiko Etniker taldekidea naiz eta sarri entzun diot Leipziger-eko unibertsitateko Wundt irakasleak berari esandakoa: "*Alferrik zabiltza hemen, zuen problema denak kulturako problemak dira ta. Kultura batere ez duzu konprenituko sekulan, bizi ez baduzu zerorrek. Liburuetatik ez duzu ondo ikasiko. "Bueno ba,-esan nion- (Barandiaranek), kultura ulertzeko, bizi egin behar bada, nik bizi dudana kultura bakarra euskal kultura da eta halaxe abiatu nintzen Euskal Herria aztertzen"*

Ni neu ere, neure Zeberiora abiatu naiz, Zeberioke seme naizelako eta bertoko kultura, hizkuntza barruan dela, inongoa baino **hobeto ezagutu eta bizi dudalako**.

### III-. GAI AUKERAKETA

Arrazoi asko izan ditut hau gai hau aukeratzeko eta denak aipatzea luzeegi litzatekeenez, hona hemen handienak:

1-. Zeberio, hizkuntza bizi aldetik, Euskal Herriaren Mendebaldeko ertzean dago SIADEKOn mapetan ikus daitekenez.

2-. SIADEKOn datuak ikusten badira, ia gehienok gara euskaldunak. Datu hau nik neuk herritik bertatik dakit, herritarrok elkar ezagutzen dugulako. Anekdotak baiezgarri bezala, Zeberion, oraindik ez da mezarik euskeraz baino esaten.

3-. Nire neure baserria etxaguntza eta tronkalekoa izan da. Hiru belaunaldi bizi izan gara batera. Gainera, aitite-amamak auzune ezberdinetakoak, gurasoak ere bai: aita, bertokoa, Ergoienekoa eta ama Elbarrengoa. Hortxe bizi izan naiz 30 urtean.

4-. 1975etik hona, On Jose Migel Barandiaranen Bizkaiko Etniker taldean lanean daniot batez ere, Gorbeia inguruko mitologia eta antzerako ipuin-esaundak batzen. Zeberio, emankor baino emankorragoa izan dut alor honetan.

5-. Borobilduz, eta esandakoaz gain, egon dagoen euskera bizia jaso, aztertu eta etorkizunera bideratzeko **URGENTZIA** izan da batez ere gehien bultzatu nauena. Izan ere, gure "berriemaileak" zahartzen doaz eta euren euskal altxorra eurekin joango da lehen bait lehen ez baditugu behar diren ikerlanak egiten. Gero berandu izango da.

Era honetako lan batek, bere mugak dituen badiakit baina hala eta guztiz ere, ausartu egin naiz, mugaz aparte, etorkizunerako dokumentu aberasgarri bat izango delakoaren asmoz. Euskal Herriko herri-euskera guztiak jaso eta aztertuko balira, hori bai hori aberastasuna etorkizuneko euskararentzat.

### IV-.TESI HONEN HELBURU OROKORRA

Hizkuntzaren komunikabide prozesua psikofisiologikoa izanik, gizarteko elkar komunikazioan era askotako aldaketak sortu dira historian zehar eguneroko hizkeraren berezko lege ekonomiko, eufoniko eta belaunaldiz belaunaldiko transmisio ohiturazkoak bitarteko izan direlarik.

Herri-euskera, jatorrizko sistema idatzitik aldatuz edo urrunduz joan da, herria, analfabeto izan delako, baina hor dago, luzarorako ez bada ere, bizirik eta aberats.



Gaur, euskera baterantz joan nahi da eta horixe litzateke euskeraren bizibidea, baina horretarako ezin dugu dagoen dagoeneko herri-euskera bizia gehiagokobarik baztertu, bizirik dituen edertasunak jaso eta erabili baino.

Horixe berori egin nahi da doktorego tesi honetan. Zeberio-haraneko euskera ahal denik eta zehatzen jaso eta aztertu, etorkizuneko euskeraren lagun eta argibide izan dadin batasunaren bidean.

## V-. TESIAREN KORPUSA

Tesi multidisziplinari honetan, zelako alorra halako inkesta mota erabili dut korpus polibalente hau jasoteko.

Lehenengo eta behin, 340 multzo foniko aukeratu ditut Zeberioko euskera bizitik eta Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoan grabatu espektrogramak aterateko. Euretatik 300, Patxi Etxebarria Arroitari eta 40 Leonor Ayesta Goikoetxeari, azkenengook azentu-entonaziorako beren beregi.

Lehenengo 100 multzo fonikoak, bokalismoari begira aukeratu dira. Azkenengo 40ak azentu-entonaziorako. Gaietiko guztiak beste arlootarako: Diptongazioa, Kontsonantismoa, Kontsonante Multzoen Ahozkerak eta Multzo Fonikoen Laburketak aztertuko.

Bigarren, ahoz-ahozko inkesta zuzena erabili dut batez ere, Deklinabidea, Erakusleak, Aditza... eta Morfo-Joskerak aztertuko.

Hiztegia eta esaerak edo antzerakoak batzeko, lehengoaz gain, "kuaderno" sistema erabili dut; (kuadernu bana eman eta galderen erantzunak idatzi arazi berriemaileari) izan ere, ebokazioak mugarik ez duelako.

Azkenez, etxerik-etxerikako kontaketa-testoen grabaketa esku-magnetofono bidez.

Grabazioen mapan adierazten denez, Zeberioko 18 auzunetan egin dira, batzuetan besteetan baino berri-emaile ugariago agertzen direlarik.

Beste alde batetik, azterketatik kanpo geratu arren, Zeberio inguruko herri bakoitzeko transkripzioak ere jaso ditut, irakurrik harako ezberdintasunak ikusteko.

## VI-. ONDORIOAK

Zehaztasunari begira eta nahastu egin ez egiteagatik, aztertutako alor bakoitzaren azken aldean bere ondorio puntualak agertzen badira ere, oraingo honetan, gainbegirada bat emanaz eta laburbilduz, aikomenzan tesian zehar aipatzen-aipatzen etorri garen ondorio orokorrak.

1-. Norberak aztergai izan duen herri-euskera titirik harakoa izan arren eta metodorik zehatzenak erabilia ere, muga handiak aurkitzen dira ahozko euskera biziaren baliabide mugagabeak jasoteko. Azken baten, pertsona bakoitza, bere berezkotasunez beterik bizi da etengabeko hizkuntz-prozesu baten barruan.

2-. Etengabeko hizkuntz-prozesu horretako ahozko euskera bizian dauden NIBELAK, egon ere badaudelarik, arruntenetik hasi, irudi-topikoz beterikoaz jarraitu eta goi mailako landuenera heldu arterainokoak, jaso beharrekoak dira tokian tokiko eta ahal denik eta zehatzen bizi dugun egoeraren **URGENTZIAK** eraginda, izan ere, euskal literatura idatziak ez duelako jaso euskeraren izate guztia. Horregatik, aldaketa sozio-ekonomiko-kulturalaren eraginez eta belaunaldiz belaunaldi bidean zerbait uztea bidezko denez, ez da erreza ahozko euskera biziaren izate osoa jasotea baina mugaz aparte metodologia egoki bat erabilteaz gain, Euskadi luzezabalean norberak benetan bizi duen lurraldeko euskera mota biziaren altxor-jasoketa egitea behar beharrezkoa da aberastu nahi bada guztiok gura dugun etorkizuneko euskeraren batasuna.

3-. Euskera batuaren proiektua, idatziari begira egin da baina oraindik batzeko dagoen batu horren ahoskera ernari dago proiektu horren sabelean eta ez dakigu noiz eta zelan jaioko den, asko hitzun berri edo ez hain berri, idazkera-ahoskera berdineko zesarea egiten hasita badaude ere. Aztergai izan dudan herri-euskeran, han hor hemen, ikusten dira ikusi ere hitzunen berezko lege Fonetikoak eta euren eraginezko lege Fonologikoak. Herriak, historian zehar, ahoskera bide batzuk egin-egin ditu bere berezko legeon arabera. Zeberioko ondorioak hor dira eta beste herrietakoak ere atera egin behar lirateke eta ondorio guztion batera-bideak erabilten hasi, M. Zarateren Idatz eta Mintz, bikiak izan arren, bakoitzak bere nortasuna duelako.

4-. Euskeraren batasunari deusala, baten baino sarriagotan, zertan ez dela, hainbat mailegukeria ere entzuten da Euskal Herriko haronakoan, Zuberoak duena Zeberioak ez badu, hartu egin behar du eta Zeberioak duena Zuberoak ez badu, beste hainbeste. Horretarako, herriz-herri bizirik dagoena ondo ezagutu behar da eta denok elkar aberastu batasun bide zabalean. Ez-jakinkeriazko "*tabula rasa*"rik inondik eta inora ere ezin da egin. Zeberioko herria ere, Mendebaldeko ertzean egon arren, Euskadi da eta oraindino zorionez EUSKALDUNA.

5-. Hizkuntza bizia, bizitzarekin batera doa eta herri-bizitzak ez du hizkuntza arazoa planteatzen. Herria BIZI da, eta gizarte-harremanetarako, beste tresna batzuen artean hizkuntza darabil. Zelango hizkuntza? Ba, ahalik eta ekonomikoena, eufonikoena eta belaunaldiz belaunaldiko transmisio-ohiturako galbahetik eralgitakoa, leku-denpora aldaketak bitarteko. Azken baten, bizitzako egoera ez berdin bakoitzerako "béharren" duena. Hortxe, bizi bizian da hizkuntzari neurriak hartzea, gero, "*Balizko oleak burdinarik ez*".

Tesi aurkezpen hau amaitzeko, hasieran lez, Zeberio neure-herrira noa beste esaera baten bila: "*Gurasoak dana dotzo sor semeari*" (gurasoak dena dio zor

semeari). Nik neuk ere, euskeraren guraso lez, nire neure gurasoengandik hartutako hizkuntz-altxorra ZOR diot semetzat hartzen dudan ETORKIZUNARI.

"Saar on in daitela" (zahar on egin dadila) (Zeberrioko beste esaera zahar bat).

JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

Euskal Filologian Doktorea  
Euskaltzaindiakoa  
J.M. Barandiaranen Bizkaiko ETNIKER taldekidea  
Idazlea  
(2009-06-02)

**ZEBERIO HARANEKO  
EUSKARAREN AZTERKETA  
ETNO-LINGUISTIKOA**

**JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA**



*Euskararen Etorkizunari*

“Badakit halaber ezin eda naitekeiela euskarako mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzaten baitira euskal herrian... Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere...”

P. AXULAR (GERO).

“Gure sarrak esaten auden  
auren  
audien  
aurien  
saurien  
situen  
aien  
iin les,  
min bako arrana ugerra (k)tx(y)aten yok.”

ZEBERIOKO EUSKERA  
BIZIA

## HELBURUA

Hinkuntzaren komunikabide prozesua psiko-fisiologikua izanik, gizarteko elkar komunikazioan era askotako aldaketak sortu dira historian zehar hizkuntzaren ekonomia, eufonia eta transmisio ohitura bitarteko izan direlarik.

Herri-euskara, jatorrizko sistematik aldatuz edo urrunduz joan da analfabeto izan delako, baina hor dago, luzarorako ez bada ere, bizirik eta aberats.

Gaur euskara baterantz joan nahi da eta horixe litzateke euskararen bizibidea, baina horretarako ezin dugu dagoen dagoeneko herri-euskara bizia gehiagokobarik baztertu, bizirik dituen edertasunak jaso eta erabili baino.

Horixe berori egin nahi da doktorego tesi honetan. Zeberioharaneko euskara ahal denik eta zehatzen jaso eta aztertu, etorkizuneko euskararen lagun eta argibide izan dadin bere batasunaren bidean.

## AURKIBIDEA

Oharrak .....	21
Laburketak.....	22
Mapak.....	23
I.-AZTERBIDE AURREA.....	25
1.-Gai-aukeratzea .....	25
2.-Neure lekukotasuna .....	26
3.-"ETNIKER" taldekidea .....	27
4.-Euskararen espazioa .....	27
5.-Euskararen altxorra .....	28
6.-Grabaketak .....	30
7.-Berri-emaileak .....	31
8.-Berri-emaileak banan-banan .....	32
9.-Notak .....	36
II.-BOKALISMOA .....	39
1.-Azterbidea .....	39
2.-Berri-emailea .....	40
3.-Laborategi Fonetikoa .....	40
4.-"Grupo Foniko"edo Kanpo Sandhiak.....	41
5.-Kanpo Sandhien zerrenda .....	42
6.-Bokaleen Formanteak eta Denpora .....	49
7.-Triangelu bokaliko akustikoa .....	62
8.-Bokale atono-tonikoak "Carta de Formantes"ean .....	66
9.-Bokaleen denpora .....	71
10.-Zeberrioko triangelu bokalikoak beste batzuekin..... konparatuz .....	72
11.-Bokaleen banan banako hots konparaketaz .....	76
12.-Bokalismoa diakronian .....	77
13.-Notak .....	80
III.-DIPTONGAZIOA .....	81
1.-Beheranzkoak.....	81
2.-Goranzkoak.....	85
3.-Diptongo "bereziak" .....	86
4.-Diptongo-desegiteaz .....	87
5.-Bokaleak hiatoan .....	88
6.-Notak .....	89



IV.-KONTSONANTISMOA .....	91
1.-Ezpainetakoak .....	93
2.-Ezpain-Hortzetakoak .....	96
3.-Hortzetakoak .....	96
4.-Bizkar-Hobietakoak .....	99
5.-Goi-Hobietakoak .....	100
6.-Sabai-urrekoak .....	104
7.-Sabaikoak .....	105
8.-Belokoak.....	109
9.-"H"-Aspirazioa .....	111
10.-Taula Fonetiko-Fonologikoa .....	113
11.-Notak .....	114
V.-DEKLINABIDEA .....	115
1.-Gramatikazko kasuen markak .....	115
2.-Bokalez amaitutako "OSO" adjetiboa .....	117
3.-Kontsonantez amaitutako "OKER"adj. ....	118
4.-Artikulu gradu gabekoz mugaturiko "OSOA"adj. ....	119
5.-Artikulu gradu hurbilekoz mugaturiko "OSO"adj. ....	119
6.-Artikulu gradu gabekoz mugaturiko "OKER"adj. ....	120
7.-Artikulu gradu hurbilekoz mugaturiko "OKER"adj....	121
8.-Bokalez amaitutako "UNDURRA" leku-izena .....	122
9.-Kontsonantez amaitutako "BERTZUTEN" leku-izena ..	122
10.-Bokalez amaitutako "MANU" pertsona-izena .....	123
11.-Kontsonantez amaitutako "IMANOL" pertsona-izena	123
12.-Galdetzailea: "ZER-ZERTZUK" .....	124
13.-Galdetzailea: "ZEIN-ZEINTZUK" .....	124
14.-Galdetzailea: "NOR-NORTZUK" .....	125
15.-Izen orde: "NI" eta bere intensiboak .....	125
16.-Izen orde: "HI" eta bere intensiboak.....	126
17.-Izen orde: "GU" eta bere intensiboak .....	126
18.-Izen orde: "ZU" eta bere intensiboak .....	127
19.-Izen orde: "ZUEK" eta bere intensiboak .....	127
20.-Erakusleak .....	128
21.-Birritako erakusleak (ate-ume) .....	129
22.-Galde-hitzak eta erantzunak esamolde .....	132
23.-Deklinabideaz .....	132
24.-Erakueleez .....	133
25.-Notak .....	135
VI.-ADITZA .....	137
1.-Aditz paradigmak: "ZUKA-HITANO" .....	137
2.-Egite Era .....	138
3.-Baldin Era .....	175

4.-Ondoriozkoa .....	184
5.-Subjuntibozko Era .....	189
6.-Ahal Era .....	193
7.-Aginte Era .....	199
8.-Defektiboak .....	204
9.-Zeberiko aditzaz .....	207
10.-Aditz-tratamentuak .....	207
11.-Aditz-morfema pluralgileak .....	209
12.-Datibo bi aditz-forma baten .....	211
13.-Aditz-forma betegarriak .....	211
14.-Aditz nahasketa .....	212
15.-Aditz-joko bikotxa .....	212
16.-Aditz bereziak .....	213
17.-Aditz-forma multipleak .....	213
18.-Aditz-jatea .....	214
19.-Baldinera eta Ondorioa .....	214
20.-Ezagutu bai, erabili ez .....	214
21.-Partizipioak .....	215
22.-Notak .....	216
VII.-JOSKERA .....	217
1.-Esaldi soilaren atalak .....	217
2.-Esaldiaren guna .....	221
3.-Esaldi soilak .....	225
4.-Esaldien arteko joskera .....	233
5.-Menpeko esaldiak .....	239
6.-Galderazko esaldiak: Hitz ordena eta entonazioa .....	257
7.-Harriurazko esaldiak .....	257
8.-Notak .....	258
VIII.-KONTSONANTE MULTZOEN AHOZKERA .....	261
1.-Leherkari gorrak .....	262
2.-Frikari-xistukariak .....	270
3.-Afrikariak .....	273
4.-Sudurkariak .....	275
5.-Albokariak .....	276
6.-Dardarkariak .....	276
7.-Kontsonante bikoitzak .....	277
8.-Idazkera ≠ Ahozkera .....	280
9.-Notak .....	282
IX.-GRUPO FONIKOEN LABURKETAZ .....	283
1.-"INBIU" .....	383
2.-"IXU" .....	284

3.-"ITOTZU" .....	284
4.-"INGU" .....	284
5.-"EKASU" .....	284
6.-"SEINGU" .....	285
7.-"NIBES" .....	285
8.-"NIPES" .....	285
9.-"BITIK" .....	286
10.-Entzute "bereziak" .....	287
11.-Notak .....	288
X.-ZEBERIOKO EUSKARAREN AZENTUAZ .....	289
1.-Bokaleen ahots-denpora.....	291
2.-Azentu-intensitatea .....	291
3.-Azentuaren progresio sintagmatikoa .....	300
4.-Azentuaren fijazio paradigmaticoa .....	300
5.-Azentua, rasgo bereiztzaile .....	301
6.-Fonetikaren eragina azentuan .....	306
7.-Azentua lumeroetan .....	306
8.-Azentua hitz maileguetan .....	310
9.-Notak .....	311
XI.-TRANSKRIPZIO ETA METODOLOGIA .....	313
1.-"ZUKA" tratamentuko transkripzioa .....	314
2.-"HITANO" tratamentuko transkripzioa .....	314
3.-"HITANO" andrazkoen artean .....	315
4.-Esaera edo eta antzerako transkripzioa .....	316
5.-Notak .....	318
XII.-ETNO-TEXTU LABURRAK ZEIN LUZEAK .....	319
1.-Esaera, esamolde, hitz berezi... zerrenda .....	319
2.-Textu-transkripzioak grabaziorikara .....	335
3.-Zeberrioko grabazio-transkripzioak.....	336
4.-Inguruko herrietako grabazio-transkripzioak.....	368
XIII.-BIBLIOGRAFIA OROKORRA.....	397
XIV.-ERASKINAK.....	405
1.-Espektrogramak: bokalismo-kontsonantismorako.....	407
2.-Sonogramak: azenturakoak.....	427

## HITZAURREA

Aurkezten dudan liburu hau Juan Manuel Etxebarria-k eginiko tesi doktora da, hain zuzen ere 1988-garren urteko irailaren 28-an Deustuko Unibertsitatean irakurririkoa "Zeberio hananeko euskararen azterketa etno-linguistikoa" titulupean (1).

Etxebarria, bere Euskal Philologiako studioak Deustun egin bezain laster, Zeberio-ko berbeta-modua biltzeko asmoari lotu zitzaion buru-belarri. Izan ere, bertako seme izanik aukera ezin hobea zuen horretarako, eta gogoan hartzen baldin badugu gure artean hizkeren deskripzio zabal gehiegirik egin ez dela, erraz konturatuko zara, irakurle bihotzeko hori aurrean duzun liburua itsaso zabala bezain handia den arlo honetan agertzen den hutsunea, neurri apal baten behintzat, betetzera datorrela.

Etxebarria-k ez du momentu baten ere aherentzi, inoiz baztertzeko tentaziopean izaiten den printzipio bat: hizkera baten deskripzioa egiterakoan deskripzioa bera dela helburu eta ardatz nagusi, metodologia zuzen eta behar den adinakoa erabilirik, noski, eta ez horrenbeste eskola linguistikoa bati edo besteri zaion atxikimendu izariz landakoa, modan jarri-berri delako, edo beste arrazoiren bategatik. Asken-finean lana ondo eginik egonez gero, eta behar den bezala argitara emanik, etorkizunean autorea bera edo besteren bat edo batzu harzaz (2) baliatuko dirateke bestelako ondorioak ateratzeko, eta, hartan oinarriturik, hala balegokio eta egoki baderizte, teoriaren bat edo bat baino behiago formulatzeko. Eta, izan ere, lan-mota hori *a posteriori* egitea hobe da, ezen ez *a priori*, zeren horrela ez baita deskribatzailea buruan izan ditzakeen aurreko eritziz hain erraz kutsatzen.

Ikerketa-lan onetan autorea egunoroko euskara biziaren alderdi gehienetan murgildurik ibili dela nabari daiteke. Zebe-

---

(1) Tribunaleko izan ziren Jean Haristchelhar, Bordeleko Unibertsitateko irakasle ohia, Ana M.<sup>a</sup> Etxaide, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea, Maite Etxenike, Valencia-koa, eta Gotzon Garate eta Itziar Turrez Deustukoak. Ni neuror zuzendari izan nitzen. *Cun laude* aipamena eman zitzaion.

(2) Eta eginik dauden eta egin daitezkeen beste alderdi batzuetako lanaz ere bai.



rio-ko berbeta-moduak inguruko herrietako informazioz ere hornitzen dituela, ahantzi gabe ethnotextu hizkera arruntezkoak, eta baita ipuin eta mithologia-gaiezkoak ere, eta bertako euskararen lekukotasuna izaiteko ezinbesteko jakingarriak oro. Lan horretan biltzen dira, gainera, esaera, esamolde, hitz berezi edo zaharren zerrenda, joskera-syntasia, verboaren joka-moldea, bai zuka eta bai hitano, kontsonante-multzoen ahoskatze-modua, laboratorioan eginiko sonogrammak, bai vokalismoaz, eta bai konsonantismoaz, azentuaren arazoa ere ahantzi gabe, eta abar.

Bizkaiko euskararen gainean Euskal Herriko beste alderdi batzutan duten ezagupidea urria dela erraitea, kasu bereziren bat edo beste salbu utzirik, Mediterraneo deskubritzea bezalakoa litzateke, eta ezagutzen ez dena ez dela maite izaiten erraitea beste horrenbeste, eta badira ahotik lerdea dariela baileude bezala aukera duten bakoitzean arbuioz mintzaten direnak ere, bakoitzak dakike zergatik (3).

Baina hala ere Bizkaiko hizkeren ikerketari, beste alderdie-takoenari bezala, nolabait ekitea komeni litzateke, barruti tipian hainbat eta hainbat jakingarriekin topo egiten baita, eta guzti hori jakintzaren mundu zabalera ateratzeak gure hizkuntzaren ezagupidearen esparrua handiago egiteaz gainera arrazoirik gabeko attitudeak baztertzen ere lagun baitezake.

Hor dugu, alde batetik, Arratia-ko berbeta-modu Zeberio-kotik hurbil dagoena, bestetik Orozko-koa, Arrigorriaga-Basauri-koa (4), hurrengo Getxo aldekoa, Mungia eta Txorierri ingurukoa, Gernika eta Markina inguruetakoa, Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa hirietakoa ahantzi gabe oraindik gordetzen duten nortasun bereziagatik (5), eta abar, Gipuzkoakoaten segida dutela, eta azen-

---

(3) Behin Gasteizeko Unibertsitate-fakultatean Juan Antonio Mogel Markinakoaren euskara bera ere "iperbizkaiera"-ren barrutian sar zitekeela - grekoz *hyper-* da- itzuri zitzaion irakasle bati tesi doktozaiezko tribunal baten, agian gehiegi pentsatu gabe. Izan ere, hitz desegokiagorik ezin asma zitekeen, zeren edozer gauzaren kontra, nabardurazko bereizkuntzarik batere egin gabe, ari izaiteko arma bilakatu baita, edozein pertsonak "mekaguensots", gauza nabarmenagorik ahotik ez ateratzearen, erraiten duenean bezala. Berbeta-modu arrabazero merke Unibersitaterraino hedaturik dagoena.

(4) Basauri Udalaren laguntzaz hizkera horren ikerketa bidean dator Jon Arretxe-ren eskutik.

Ez da ahantzi behar, beste alde batetik, Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria-k Bizkaiko alde desberdinetako bilketez esku artean darabilen lana, eta ezta ere Iñaki Gaminde-k eginiko zenbait bilketa eta etorkizunerako dituen asmoak. Eta, jakina, Atlas Linguistikorako bildurik dauden gaiak, lehenagoko Euskaltzaindiko Erizkizundiaz gainera, zeinezaz Ana M.<sup>a</sup> Etxaide arduratu baitzen bilduma osoa argitara emanik.

(5) Ondarroa-koaz bada lan bat: Karmele Rotaetxe, *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*, Durango 1978, 715 orr., oraindik zabalago egin alba daiteke ere.

tuan bertan ere hainbat eta hainbat ñabardura aurki daitezke, Hualde Statu Batuetan lanean ari izanik Euskal Herrian itaun linguistikoak egiten dituenak berrikitan Deustuko Uni-versitatean emaniko zenbait hitzalditan erakutsi digun bezala.

Hau bezalako lanak ezagutzera emateak aileza alda edonoiz entzuteko arriskua dugun erdi-isilpeko barbaro-moeta trakets hori, eta aileza ekar jakituriazko giro egokia Euskal Herri osora.

Bilbao, 1991-garreneko martxoaren 25-ean.

Alfonso Irigoien


## OHARRAK:

- 1.—Terminologiari dagokionez, argitasunik behar izan bada, azter tutako arlo bakoitzaren sarreran egin da.
- 2.—Espektrograma bakoitzak bere zenbakia du eta egiten diren aipamenak zenbaki horri begira egin dira. Paginazioa azkenean egin da. Horregaitik ba, espektrograma bakoitzean zenbaki bi agertuko dira: bata espektrogramarena eta bestea orrialdearena. Espektrogramon azterketa originalen gainean egin bada ere, eraskinean gutxiagoraturik agertuko dira laburtasunari begira.
- 3.—Bokalismoaren barruan, bokale bakoitza zehazki aztertu arren, transkripzio fonetikoan ostera ezaugarririk gabe agertuko dira, arlo honetan prudentziaz jokatzeari hobeto legokelako.
- 4.—Argi geratu da tesi guztian zehar, hizketa biziaren mugak ez direla hain errez bilatzen. Horregaitik ba, eta aurrezdik diot, baliteke lan guztian zehar jaso ditudan adibidetariko bat edo beste beti berdina ahozkatu ez egitea, batzutan kanposand hiak berakeskatzen duelako, (“esan doa/ekarri(d)oa”) eta besteetan hizkuntza bizia, aberatsa izateaz gain, azpi-erregistroz beterik dagoelako.
- 5.—Bibliografia orokorra azkenean agertuko bada ere, kapitulu bakoitzaren ondoren gaiari dagokion argitasun bibliografiko eta gainetiko notak jarri dira.

## LABURKETAK

Ask.	=	Askotakoa
Atrib.	=	atributoa
B.	=	Bizkaiera
Bir.	=	Birritan
Dp.	=	Denpora
Espekt.	=	Espektrograma
F1	=	Formante 1
F2	=	Formante 2
Gazt .	=	Gazteleraz
Hz.	=	Hertzio
G.P.	=	Grupo Fonifo
Int.	=	Intensiboa
Lag.	=	Laguntzailea
Lit.	=	Literarioa
Msg.	=	Milisegundo
Partiz.	=	Partizipioa
Plu.	=	Plurala
Sing.	=	Singularra
Suj.	=	Sujetoa
Top.	=	Toponimoa
Zeb.	=	Zeberio
Zbk.	=	Zenbakia





# I. AZTERBIDE AURREA

## 1.-GAI-AUKERATZEA

Beti arrazoiren bat edo beste gai bat aukeratzen denean, eta nire honetan ere badago eta bat baino gehiago egon ere.

Euskal herriko mapa linguistikoa kontutan harturik, (ikus, SIA-DEKOren mapa (1), Zeberio Mendebalderantzako ertzean dago Nerbion ibaiari deusala Ugao aldetik.

Mapa on baten ikusi daitekenez, Zerberioko haranak bere nortasuna du, geografiak berak diolako.

Ugaoko Nerbion ibaiko zubitik hasi eta Ekialderantz bagatoz, argiago dago nortasun hori Sarasolako (Artea-Arratiako lehenengo auzunea) mendi kaskatera helduz batera euskeraren aldaketak entzuteko aukera daukagu batez ere azentu- entonazioan. (Ikus, azentoa).

Hau horrela bada ere eta sailkapen zabalago baten sartu nahi badugu euskera, elbarreneko auzuneren bat edo izan ezik, Arratiakoarekin baterago dator beste inguruetakoko edozeinekin baino, L. L. Bonapartek (2) eta geroago P. de Yrizarrek (3), Mendebaldeko azpi-euskalkion barruko Arrigorriagako aldakian sartzen badute ere (ikus, transkripzio-korpusean alde batetik Arrigorriako ("Arguya", bertakoentzat) Transkripzioa eta bestetik Arratiako edozein.

Orozkoko ere deusala dago, Hegoalderantz, baina mendikate luze bat dago bitartean eta Zeberio joan-etorria Ugaotik Artearako bide bakarretik egin denez, Orozkorekin harreman gutxiago izan da eta jakina, euskeran ere bakoitzak bere bidea jarraitu du. (Ikus, Orozkoko euskeraren transkripzioak).

Zeberio, 47 metro karratu inguru ditu eta mila biztanle gutxi gora behera bertan biziten. Biztanleak gutxitzen doaz eta piramidearen oinarria estuten.

Euskeraren arlori bagoaz, kanpotarren bat izan ezik, denak dira euskaldunak. Baina biztanle kopuruak dinamika berdinean jarraitzen badu, urte gutxi barru hori beste mundura Zerberioko betiko euskera bertako biztanleen eriotzarekin batera eta etorkizu-

neko "Herri-Euskera" gaztelera eta batuaren erdian geratuko da zeozer geratzen bada.

Ni neu, jaiokerarik bizi izan naiz gurasoen euskeran, geroago lantzeko aukera izan badut ere.

Nire euskeraren hagearen zedarrian zutik nago etorkizunari adi eta hotzikarak sartzen zaizkit Zeberio euskera aberatsaz zer gertatuko ote den pentsatzeaz bakarrik.

Eguzkiak lainaberea kentzen duen lez, eta euskeraren eguzkiaz pentsatuz, etorkizunean, gertatzen dena gertatzen dela, Zeberio euskeraren azterkera Etno-Linguistikoa egiten ausartu naiz, alde batetik, belaunaldiz belaunaldi jasotako hagea zutik dagoela adierazteko eta bestetik etorkizuneko euskeraren etxeari eskeintzeko hage hori orain arte lez zutik jarraitu dezan

Euskeraren etxe zaharra, zutik dagoela berriztatu behar dugu eta horretarako Zeberiokoa dela edo beste herri batekoa dela, ezin dugu tabula rasarik egin. Nik zelan zapalduko dut ba neure aitaren euskera? Aurrea egin, agokitu, landu, aberastu... bai, baina zapaldu ez.

Etorkizunerako, euskera batua aipatu ezeze, nik neuk onartu ere egiten dut baina zabaltasunean batzen bada.

Zeberio eta Zuberoa euskeraren ertzetan daude baina bietan egiten da euskera. Horregatik ba, euskera ondo batu behar bada, egoki eta aberatsa den guztia jaso behar da, bestela, batzuk beti galtzaile, nortzuk? Zeberiokoalakoak... baina azken baten euskera bera.

Guzti honegatik ba hartu dut Zeberio euskeraren azterketa-ardura, berandu baino lehen, urak bere erreka ekarri eta etorkizuneko itxaso zabalera bideratzeko.

## 2.-NEURE LEKUKOTASUNA

Herri bateko euskeraren azterketa egiteko, gauza izatetik aparte, bertako seme izateak abantaila handiagoak ditu inork eukitekotan.

Hauxe da nire neure egoera. Ni Zeberiokoa naiz eta bertan bizi izan naiz 30 urterarte neure guraso eta aitite-amamekin batera etxaguntzako baserri tronkalean.

Zorionez eta gehien bat gaztearoan izan bada ere, baserriko berri ondo hartu dut bertako guztia bizi ahal izan dudalako neure aurreko belaunaldi biekkin batera.

Hizkuntza, bizitzaren adierazbide-tresna bat da eta bizitzarekin batera doa.

Nik egin nahi dudan azterketa baterako, zer egokiago niretzat Zeberio bertako euskera baino.



Zeberioako euskeraren espazioa titirik hara bizi izan dut eta barruan daramat.

Oraingo hau ez da besterik, barruko guztia eta jakina, ahal den neurrian oraindik neure etxeko eta herritarren agor ezineko iturritik ikasten ari naizena, ikertzea baino.

Nire egoeraren azalpena borobiltzeko, On Jose Migel Barandiaranek (4) emandako aholkua datorkit gogora: "Norberak bizi duena nork ezagutu lezake norberak baino hobeto?". Edo Ander Manterolak emana (5): "Hik, eure etxean daukagut ITURRIA, nork edango jokin ba ur hori heuk baino hobeto?".

### 3.-"ETNIKER" TALDEKIDEA

Derioko Seminarioan O.H.O.ko irakaslea nintzela eta Euskal Filologia ikasketak egin baino hainbat urte lehenago sartu ninduen Ander Manterolak On Jose Migel Barandiaranek zuzentzen duen ETNIKER taldean eta ordurik hona nabil Gorbea inguruko mitologia edo beste era bateko ipuin eta esaunda batzen beste bizitzako ohitura askoren artean (6).

Ekintza honi daragoiala, Unibertsitatean aztertzen diren testu idatzietatik aparte liburu bat irakurtzen ikasi dut, zein? eta "Herriko euskera biziaren liburu zabal eta agor-ezina".

Euskal hinkuntza ez da idatzia bakarrik, ahozkoa ere bada eta hor dago.

Gorbea inguruko herritxoak arakatu baditut ere, lan honetarako eta zehatzago izan nahian, Zeberioa bakarrik aukeratu dut, batez ere, bertakoa naizelako eta ondoen bera ezagutzen dudalako.

### 4.-ESKERAREN ESPAZIOA (7)

Munduko bizitza honetan, gizartearen aldaketa sozioekonomikoek eragin handia izaten dute arlo guztietan eta hizkuntzan zertan esanik ere ez.

Bizitzan aurrera goaz eta aurrera-bide honetan gauza batzuk galduz goaz, beste batzuk onartuz, baina hagea ez dugu galtzen gizartea bera galtzen ez bada.

Zeberiora etorririk, argi ikusi ahal izan dut fenomeno hau belaunaldi ezberdinak aztertzerakoan.

Bizikera asko eta asko aldatzen joan da lehen esan dudan gizartearen aldaketa sozio-ekonomikoaren eraginez.

Nire aitite-amamen balaunalditik gurasoenera aldaketak egon badira, gurasoengandik gugana askoz handiagoa azken urteotako gizarte aldaketa nabariagoa izan delako.

Baina Zeberioko euskeraren espazioaren oinarrian belaunaldi bat baino gehiago dago.

Gaurko gure aurrera begiratu beharraren begiratu beharraz, atzeko guztia sitsak jandako azpira zahar baten balego lez ikusteko arriskua daukagu.

Baina gu geu bagara, aurrekoekaitik gara eta gaurko euskeraren espazioa aldatuz badoa ere, ezin dugu “tabula rasa” egin lehengoa- rekin.

Egia esateko, gaur egun, lehengo ekintza asko eta euren hizkuntza espresabideak arkaiko egiten zaizkigu baina ekintza fisi-koak galdu arren, euren espresabideak sarri askotan baliagarriak dira gaurko eta etorkizunerako traslazio sementikoaren bidez egokitzen baditugu.

Bide honetatik, hiztegieta jasoten ez diren espresabide ugari dago herriko euskera bizian.

Gaurko euskeraren irakaskuntzari begira, eta euskera oso bat irakatsi nahi bada, derrigorrezkoa da gure aurrekoen altxor linguistikoko eder hori ezagutu eta erabiltzea.

Harrigarri eta negargarria da, herri-euskera zer den eta bertan zer dagoen jakin barik edo jakin gura barik, etorkizuneko euskera projektatzea.

Nire herriko esaera zahar batek dio: “gurasoak dana dotzo sor semeari”. Dena horretan euskera ere bai, jakina, eta nik neuk, seme zintzo lez, “defendidu egingo dut neure aita eta amaren euskerea”. Ez bertanbera geratzeko, osatuz eta aberastuz aurrera egiteko baino.

## 5.-EUSKERAREN ALTXORRA

Nik, neure egoera linguistikoa ezagutuz, gurasoek baino askoz gutxiago dakidala konturatu nintzan aldi baten eta gaur ere, hainbat gehiago jakin erren, egunero-egunero nago gurasoengandik esamolde berriak ikasten.

Nire etxean lez, Zeberioko beste askotan ere berdin gertatzen da eta horregatik, Zeberioko euskeraren lekukotasuna lortzeko hango horko hemengo 50 urtetik gorako herritarren iturrietara jo dut oraindik euskera dariola daudelako.

Urik gehien edan eta edaten nagoen iturria neure etxekoa da eta aspaldiko urteotan eten gabeko batuketa bat izan da izan ere.

Lehenengotan, On Jose Migel Barandiaranen inkesta nuen bitarteko eta galdetuala jasoten nituen erantzunak (8).

Baina egunak joan egunak etorri, nire gurasoen erantzuna haxe izaten zan: “su, atzo auxe t’auxe be aistu in yakun sauri esatea...”.

Fenomeno hau gertatzea normala da galdera bat egiten denean edozeini ez datorkiolako gogora dakien guztia.

Horregaitik, ibili eta ibili, beste bide bat hartu nuen neure gura-soekin: Amari eta aitari, bakoitzari kuadernu eta boligrafo bana erosi.

Amari (9) esan nion: “Ama, autzis kuadernu-boligrafook eta esa-kera edo saure ustes ni(k)tx(y)akin es in naien berban bat bayatort-zu gogora, eskribidistesu”.

Aitari (10): “Aite, autzis sauri be, eta nauk esaten dautzudanari erantzun sauk esotu dosun les”. (Aitaren kasuan, galdera zerrenda neuk egina da bizitzako ekintza, siniskera, ohitura eta abarrak kontutan izanik).

Eta erantzuna? Sinitu ez egitekoa!

Amak, bere erara idatzita, eta ez harritu, dagoeneko 500 esaera-tik gora eta beste hainbeste hitz edo aditz zahar batu dizkit. Inoiz edo behin, solotik ere etorri da etxera soloan bertan gogora etorri-tako esaera idazten zein ahaztu.

Gainera, nire amak, lan hau zertarako den badakienez, ez du izan eragozpenik esaera edo hitz “tabu”ak ere batzeko eta hor dira horiek ere jasorik.

Korpus gisa, zerrenda luze bat agertzen da baina zerrenda hori zabalik dago, izan ere, dagoeneko gehiago ditut fitxeroan neure amaren iturri agor-ezinetik jasota.

Aitak ere, bere erara idatzita, ia-ia transkripzio fonologikoa eginaz, (eta hau diot noizbehinka “eban” edo antzerakoen batzuk idazten dituelako herriko abadeari sermoietan entzunda) neuk egindako galderei euskera aberats baten erantzun die.

Tesis honetako korpusean zatitxo bat bakarrik agertuko da, bestela aitaren erantzunak eurak dira nahiko liburu bat osatzeko.

Adibie lez, hona hemen jarraian, neure aitari egindako galdere-tariko batzuk: “Garia eta artoa ereitetik jaterainokoa”. “Txarri-be-harrak”. “Urte-aroetako andrazko eta gizonezkoen ekintzak”. “li-ñoa”. “Goruetan”. “Ganadu hermandadeak”. “Etxe errearentzat batzea”. “Errentak”. “Etxagunak”. “Lorrak”. “Eskekoak”. “Baye-ruek”. “Pasigerak”. “Legoak eskean”. “Martxanderak”. “Tratan-teak”. “Peregrinoak”. “Afiladoreak”. “Paragueruek”. “Joskilak”. “Buztarri-gileak”. “Promesak”. “Zezina”. “Arrautzak karetan”. “Ganaduen gaixoak”. “Pertsonen gaixoak”. “Neurriak” “San Jua-nak”. “Karnabalak”. “konbitegunak”. “Ezkontzak”. “Zeberioko auzo-ermitak eta usadioak”. “Gabonak”. “Begirak”. “Jaiotza eta ermakariak”. “Begizkoa”. “Karobiak”. “Diruak”. “Zain-tiratua”. “Baso-sabiak”. “etab. (11)”.

Honezaz gainera, beste hamaikatxo galdera egin eta egiten diet neure gurasoei behar dudan edozein lakukotasun lortzeko.

Bide honetan sarritan gertatu izan zaidana hauxe izan da: etxetikedo herritik kanpora entzun hitz edo esamolde inoiz entzun gabekoa eta gero neure gurasoei galdetu:

—“(…) au berba au iños entzun dosue?”

—“entzun esese, erabili be, estauskusu iños entzun ala?”

Hau hoela izanik, zenbat eta zenbat adierazbide egongo ote da adinekoen barruan ebokazio faltan erabiltzen ez dituztela.

Beste alde batetik, neure etxean beste egin ez arren,

Zeberioko beste hamazortzi auzunetan egin ditut grabaketak mitologiako ipuin eta esaundetatik hasi eta eguneroko ekintzeta-rainoko guztia jasoz. Eta halan eta guztiz ere ezin iturriak agortu (12).

Korpusean, grabaketa bakoitzaren zertxobait agertuko da lagin bezala herri barruko aldaketak ikusi ahal izateko.

Zeberioko herrikoak ezeze, inguruko herrietako batzuk ere agertuko dira helburu berdinarekin (13).

## 6.-GRABAKETAK

Zeberio, biztanle gutxi baditu ere, herri zabala da eta zehaztasu-nari begira, grabaketan egikeran beste batzuen artean lau puntu izan ditut kontutan: NON?-NORI?-ZELAN? -ZER? grabatu.

NON?: Zeberioaren luze-zabalean, hamazortzi auzune ezberdi-netan egin ditut grabaketak (ikus, grabaketa-mapa) berri-ematzai-leen arabera auzune batzuetan ugaritasun handiagoaz (14).

NORI?: Ba, aukerakata hau ez da izan erreza. Kasu batzuetan errez aurkitu dut berri-emailea baina beste kasu batzuetan asko kostata, izan ere askok nahiago du kontu zaharrak kontatu ez zeresana edo lotsagatik.

Baina hori bai, adina kontutan izan dut eta ahal izan dudanetan gaztelaniarekin harremanik gutxien dutenekin hasi eta beherant-za baina 50 urtetik gorakoak denak.

ZELAN?: Arlo honetan denerik bizi ahal izan dut. Batzuekin oso ondo eta pozik alde bietatik. Beste kasu askotan grabaketa egin aurretik ondo gertatu eta girotu behar izan dut elkarrizketa.

Sarri askotan, eleiz-portikuetan, txapeldunei galdetuz jakin izan dut berri-emaileen berri baina batzuetan konfiantzarik ez eurenga-na joateko. Honelako kasuetan berri-emaile horren bere eta neurea den lagun edo senide batekin joan naiz eta lortu helburua.

Egia esateko, senitarteaz gain, neure parrokiako organista izateagatik, ezaguna naiz herri osoan eta inorke ez dit ukatu erantzuna.

Arlo honetan bai izan dudala kontutan ebokazioaren mundua. Adinekoak, hagatik edo horregatik, ez dira gogoratzen lehengo kontu askogaz, orduan norberak “zirikatu” behar ditu eta hortik askoren erantzunak: “a..., ori kontu ori entzunde dauket, gure aituek eta amandrek eta kontetoskuesan... an a... supastarreaan...” (15).

ZER?: Berri-emailearen euskeraren espazioa izan dut kontutan. Mitologiatik hasi, ohiturekin jarraitu eta eguneroko ekintzetara heldu arte.

Ezinbestekoa da berri-emailea bere kontextoan jartzea berak bizi izan duen kulturaren berri emateko.

Zehatzago izan nahiagatik, esandakoaz gainera, beste datu batzuk ere izan ditut kontutan.

Herrietan, batez ere ezkontzaren bidez, gurutzaturik bizi da gentea.

Batzuk, Zeberion bizi arren, kanpotik etorriak dira eta Zeberio-ko antzera hitz egin arren ez dute galdu euren gaztetako sorterriko berbaikunea. Alderantziz ere gertatzen da (16).

Beste batzuk, Zeberio-ko herri barruan aldatu dira auzune batetik beste batera ezkonduz edo baserri-aldaketaz.

Baina nik, zehatz jarraitu dut bakoitzaren nondik norakoa eta bere fitxaz argitu, geroago ikusiko duzuenaz, batz besteko eraginak ikusteko.

## 7.-BERRI-EMAILEAK

Berri-emaile bakoitzaren zehaztasunekin hasi baino lehen argibide orokor bat edo beste.

Auzunetan baino berri-emaile gehiago agertuko dira eta abaniku zabal honetan bosteratakoak gutxienez:

- Zeberio barruan jaiotetxean bizi direnak.
- Zeberio barruan aldatu direnak.
- Zeberiotik kanpora joanak, urira edo beste herri batera.
- Zeberiora etorriak.
- Inguruko herrietakoak (17).

Beste alde batetik, erreferentzia bezala 1987 urtea hartuko dut baina grabaketak azkenengo hamarkadakoak dira beti ere 50 urte-tik gorakoak garabatuz.

Berri-emaile batzuk hil ere egin zaizkit baina euren ahotsa hemen geratu da.

Azkenez, grabatuak grabatuta ere, labur geratzen naizela uste dut, Zeberioko hiztun guztiak grabatzea bait litzateke onena.

Dena den, zabal jokatu dut eta besterik gabe hona hemen berri-emaileen berri mapa eta guzti (18).

## 8.-BERRI-EMAILEAK BANAN-BANAN

### PATXI ETXEBARRIA ARROITA

Neure aita. Zeberioko Undurra auzunekoa. 70 urte. Nekazaria bere aldi guztian.

### LEONOR AYESTA GOIKOETXEA

Neure ama. Zeberioko Uriondo auzunekoa baina Undurrara ez-kondua. 68 urte. Nekazari eta etxe-ko-andrea bere aldi guztian.

### JOSE ARROITA BERNAOLA

Zeberioko Undurrakoa. Ezkondua. 64 urte. Nekazaria bere aldi guztian.

### JUANITA ARROITA BERNAOLA

Zeberioko Undurrakoa. Ezkongabea. 55 urte. Nekazari eta etxe-ko andrea. Oso eleiztarra.

### PAULA ARROITA USATEGI

Neure amama. Aitaren ama. Zeberioko Undurrakoa. Nekazari eta etxe-ko andrea. 84 urtekin hil zen orain hamar urte.

### DOLORES BELDARRAI ARTETXE

Zeberioko Ugarte auzunekoa. Ezkondua. 83 urte. Nekazari eta etxe-ko andrea bere aldi guztian eta ia-ia gaztelerarik ez daki.

### JUAN SOLATXI EMALDI

Zeberioko Etzebarri auzunekoa. Ezkongabea. Nekazaria bitarteka, osterantzean lantegi baten ibili da erretiratu arte. 72 urte.

### DOMINGA IRIONDO BARROETA

Zeberioko Gezala auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxe-ko andrea bere aldi guztian. 84 urte.

### KAIETANA GOIKOETXEA

Zeberioko Elexartza auzunekoa. Ezkondua. 83 urte. Nekazari eta etxe-ko andrea bere aldi guztian. Aspaldiko urteotan Etxebarri

auzunera etorririk daude biziten, izan ere Elexartza gaur pinu artean dago. Dena den bere euskera Elexartzakoa da.

#### GREGORIA GOTI SALZEDO

Zeberioko Elordi auzunekoa. Lehenengo Lemoara joana eta gero Bediara ezkondua. 1983an hil zen 82 urte zituela. (Bere iloba Joseba Lekue erabili nuen grabaketa-bitarteko).

#### DOLORES ARTIÑANO

Zeberioko Etxaso auzunekoa. Ezkondu arte nekazaria gero Basaurin bizi izan da urte askotan gaur Galdakaon bizi da. Neure amaxea da. 60 urte.

Kasu hau kontutan hartzekoa da. Basauri erdal-herria da baina nire emaztearen gurasoen etxean euskera hutsa erabili da eta zaindu etorkizunean. Beste batzuk ostera kasu berdinean euskera galdu egin dute, ez eurak baina bai seme-alabak.

#### JOAKIN GOTI

Zeberioko Ametza auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria, hargina eta trikitilaria. 87 urte. Azken urteotan Zubibarri auzunera etorria eta gaur Isasin bizi da.

#### FELIX MAIZ

Zeberioko Zubibarri auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria bere aldi guztian. 92 urte.

#### JUANITA AMORRORTU IPIÑA

Zeberioko Barbatxao auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria eta etxe-ko andrea bere aldi guztian. 86 urte. Areilza auzunera ezkondu zen eta han bizi da.

#### ASENSIO BELDARRAIN

Zeberioko Solatxi auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxegintzako arotza edo zurgina. 83 urte.

#### JOSE MARI LASA BENGOETXEA

Zeberioko Artiñao auzunekoa. Ezkondua. Lantegi batetan lanean. 55 urte. Orozkora ezkondu zen eta han bizi da.

#### TEODORA URIBARRI URKIDI

Zeberioko Areilza auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxe-ko andrea bere aldi guztian. 67 urte.

**MAGDALENA BENGOETXEA ALDEKOA**

Zeberioko Idirin auzunean jaio baina Mintegi auzunean bizi Ar-  
tiñaora ezkondu arte. 80 arte. Gaur Basaurin bizi da bere alabare-  
kin.

**JUAN AKESOLO**

Zeberioko Bertzuten auzunekoa. Ezkondua. Lantegian lanean  
erretiratu arte. 82 urte. Gaur Ugaon bizi da.

**ZIPRIANO ETXEBARRIA**

Zeberioko Bertzuten auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria. 83 urte.  
Gaur Ugaon bizi da.

**DAMIANA ETXEBARRIA**

Zeberioko Bertzuten auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxe-  
ko-andrea. Grabaketa 1979 egina da eta orduan 67 urte zituen. Gaur  
hilda dago.

**TXOMIN ARETXAGA**

Zeberioko Santa Krutz auzunekoa, Olatzarrera ezkondu baina  
berriz Santakurtzen bizi da. 75 urte. Lantegi batetan bere aldian.  
Laguntzaile lez erabili dut grabaketa batzuetan.

**KARMEN LARRONDO LINAZA**

Zeberioko Santakurtz auzunekoa. Nekazari eta etxeko andrea. 64  
urte. Areilzara ezkondua eta bertan bizi da.

**IGNAZIA SALZEDO ARETXAGA**

Zeberioko Uriondo auzunekoa. Nekazaria eta etxeko andrea. 80  
urte. Ezkondua. Gaur Ugaon bizi da bere familiarekin.

**SIMON GOYOAGA**

Izatez, Zeanuriko Ipiñaburukoa. Orozkon kridu egondakoa eta  
Zeberioko Undurrara ezkondua. Bertan bizi zen hil arte. 1979ko  
grabaketan 77 urte zituen. Larogetik gora zen hil zenean. Nekaza-  
ria eta mitologia-ipuin kontatzaile onena. Beronekin hasi nuen  
nire ETNIKER lana.

**ERROSARIO SALZEDO ARETXAGA**

Zeberioko Uriondo auzunekoa. Nekazari eta etxeko andrea. 70  
urte. Ezkondua. Areilza auzunera ezkondu zen eta han bizi da.

**DOMINGO ARROITA**

Orozkokoa. Ezkondua. 82 urte. Garraiolaria. Urte askotan Ba-  
saurin bizi da.



#### JUANA LARREA

Orozkokoa. Ezkondua. Aurrekoaren emaztea. 85 urte. Basaurin bizi arren Orozkoko berbaikunea ondo zaindu dute senar-emazteok. Orain hori bai, erderaren eragina ez da harritzekoa Basauriko giroa ikusirik.

#### TEODORA ABELINA ZUBIZARRETA HIERROLABARRIA

Orozkoko Jauregi auzunekoak. Ezkondua. 91 urte. Etxeko andrea.

#### ESTANIS ETXEBARRIA ZUBIZARRETA

#### M<sup>a</sup> CONCEPCION GOTI ETXEBARRIA

Orozkoko Jauregi auzunekoak. Senar-emazteak. 59 eta 60 urte. Biak batera aipatzen ditut eta arrazoia hauxe da: Estanis bera da ipuinlaria baina eztaeratik operatuta dago eta ezpainak bakarrik mobitzen ditu. Bere emazteak dena ulertzen dio eta jarraian kontatzen du. Beraz, transkripzioa emaztearen ahotsari egindakoa da.

#### PETRA ETXEBARRIA

Orozkoko behepartekoa. Ezkondua. Etxekoandrea. 89 urtetakoa. Lehenago aipatu dugun Jose Mari Lasaren amaxea.

#### JOSE KANALES GOIKOETXEA

Artea-Arratiakoa. Ezkondua. Lantegi baten lanean eta gero artzain Gorbeian. 86 urte. Gaur Areatzan bizi da.

#### MARIA ARTETXE

Artea-Arratiako Iturriakoa. Zeanuriko Lanpreabera ezkondua. 1987an. 101 urte. (Amaia Espinosak grabatua).

#### PATXI BILBAO

Dimakoa, baina Lemonan bizi da. Ezkondua. Nekazaria. Dultzainerua. 79 urte.

#### ANESTASIO LARREA ELEZKANO

Dimako Agustieta auzunekoak. Gaur Galdakaon bizi da. Firestone langile bere aldian. 59 urte.

#### PAULA DUÑABEITIA UGARRIZA

Galdakaoko Erletxetakoa. Ezkondua. Etxeko andrea. 69 urte. Transkripzioa neurea bada ere, grabaketa Eduardo Bizkarra neure ikasleak egina da.

#### AGEDA ZABALANDIKOETXEA

Arguya (Arrigorriaga)ko Bilborantzako azken auzunekoa, Malmasin gainekoa. Nekazari eta etxeko andrea. Ezkondua. 78 urte.

#### ANTONI MADARIAGA ETXEBARRIA

Igorreko, Urkizu, auzunekoa. Etxeko andrea eta nekazaria. Galdakaora ezkondua. 1978an 78 urte. Gaur hilda. Grabaketa bere iloba Asier Astigarragak egin.

#### MARIA URRUTIKOETXEA OLABARRIETA

Zaratamoko. Iragorri, auzunekoa. Etxeko andrea eta nekazaria, urte batzuk Rio Tinto lantegian lan egin. 68 urte.

#### ANTONIA ARZA ZELAIA

Arrankudiagako, San Pedro auzunekoa. Etxeko andrea eta nekazaria Ugaora ezkondu arte. 63 urte. Gaur Basaurin bizi da.

#### MARIA KLEOFE ITURRIAGA GOIARROLA

Miraballesekoa. Etxeko andrea. 94 urte. Zeberiora ezkondua. Gaur be bertan bizi da Bilbon neguak egiten baditu ere.

#### ANSELMO AMONDARAIN

Orozkokoa. Artzain izandakoa. 1983ko grabaketan 82 urte. Zahartzaroan Galdakaora biziten.

#### ANDRES KORTAZAR

Zeanurikoa (Ipiñaburu). Baserritar-nekazaria. Ezkondua. 1982ko grabaketan 68 urte.

### 9.-ARGITASUN BIBLIOGRAFICO ETA GAINETIKOAK

- (1) SAIDECO. Distribución de vascohablantes por municipios, M. T. Etxenikek bere "Historia lingüística vasco-románica, intento de aproximación"eko 102. orrialdean jaso.
- (2) Bonaparte, L. L. in Carte de sept provinces basques... Londres, 1871.
- (3) Yrizar de P. in Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. SS. 1973.
- (4) On Jose Migel Barandiaran ber berari "ETNIKER"eko bileretan sarritan entzundako aholkua.
- (5) Ander Manterola, On Jose Migel Barandiaranen Bizkaiko "ETNIKER"eko zuzendaria lagun nuela hasi nintzen etxeko "iturria" aztertzen.
- (6) ETNIKER aldizkarian. II, 1976; III, 1978; IV, 1979; V, 1981; VI, 1982; VII, 1985. Ins. LABAYRU, Bilbao.
- (7) Sanchez Carrion J. M. "El Espacio Bilingüe". Navarra 1981.
- (8) Barandiaran J. M. Guía para una encuesta etnográfica. Vitoria 1976.
- (9) Leonor Ayesta Goikoetxea. Zeberioiko Uriondon jaio eta hazia. Ezkonduz gero Undurran. 68 urte.

- (10) Patxi Etxebarria Arroita. Zeberioko Undurran jaio, hazi eta bizi dena. 70 urte.
- (11) Galderak berri-emaiaren espazio bizira bideraturik daude. Gaur, euretarko asko atzean geratu dira baina ebokazio bidez jasotea bidezko da.
- (12) Grabaketen mapan ikusi daitekenez, 18 auzune agertzen dira Zeberio herri zabala bait da. Berri-emaielen aberastasunen arabera, auzune batzutan grabaketak ugariagoak dira.
- (13) Ikus grabaketen mapa. Gainera, Zeberiori ikutzen egon ez arren, Arratia barruan daudenez, Dima eta Zeanuri ere sartu ditut garrantziari begira.
- (14) Undurra auzunea izan da emankorrena. Alde batetik geure baserria ere bertan dagoelako eta bestetik kontalaririk onenatarikoa, (Simón Goyoaga) auzoa izan genuelako.
- (15) Ebokazio honetarako On Jose Migel Barandiaranen "Obras Completas"eko ipuindegia, (II.tomoa) Bilbao 1973; eta R. M. Azkueren ipuin bilduma "Euskal-erriaren yakintza" (II.tomoa) Madrid 1966; beste batzuen artean.
- (16) Ikus Simon Goyoagaren euskera. Zeanurikoa (Ipiñaburu) Zeberioko Undurrara ezkondua.
- (17) Zeberio inguruko herriak, batez beste zabalak dira eta Zeberiorako erabili dudan tratamendu zehatza behat lukete. Egin den jasoketa Zeberiotik begira egin da begirada batezko aldakuntzak lekukotzeko.
- (18) Berri-emaielen zerrenda -ikus mapa-, ergoyenetik hasi eta elbarrenera egin da.

## II. ZEBERIOKO BOKALISMOA

### 1.-AZTERBIDEA

Bide asko dago herri bateko edo besteko bokalismoa aztertzeko eta batetik zein bestetik joan, zehaztasunez jokatzeari litzateke biderik zuzenena.

Nik neuk, neure aldetik, neure kezkak eragindako bide bat hartu dut eta ez da besterik hauxe baino: Azeno zein azeno gabeko bokale ezberdinak era guztietako kontsonanteekin konbinaturiko kitz edo grupo foniko zerrenda bat aukeratu Zeberioko euskera bizi bizitik eta gero Deustuko Unibertsitateko Laboratorio Fonetikoan aztertu.

Laboratorio Fonetikoaren barruan be, era askotako joera hartzeko aukera daukagu inkesta bat egiterakoan.

Nik aukeratu dudan berri-emaileak eta nik ez ditugu ahoa eta belarriak baino erabili grabaketa egikeran.

Batzuk, (1) irakurri eraziz egin dute inkesta, beste batzuk gaztelatik euskarara ahoz zein idatziz, (2) baina nik ahozkoa bakarrik erabili dut eta euskeratik euskerara, jakina, zehaztasun eta jatorrian handiena lortu guran.

Nik ondo ezagutzen dut neure herriko euskera eta ezagutza berberori izan da nire grabaketaren oinarri.

Norbaitek pentsa lezake berri-emaileak neuk ahozkatzen ditudan lez ahozkatuko dituela neuk eurretik eta berak jarraian ahozkatzen dituan grupo fonikoak, baina nire kasuan ez da hori gertatzen, aukeratutako grupo fonikoak bizi biziak direlako.

Esandako hau baieztatzeko, hona hemen adibide argigarri bat.

Zeberion, gazteok, bokale batzuk itxiteko ohitura daukagu: "ulloa, uya, uñela..." baina adinekoak ez: "olloa, oya, oñela..."

Nik neuk ere itxi egiten ditut bokaleok baina grabaketa egiterakoan nik neure erara ahozkatzen nituen arren nire berri-emaileak bereari eragoion eta berak beti esaten dituen bezala ahozkatzen zituen. Jakina, fenomeno hau aspalditik ezagutzen nuen eta hainbat eta hainbat aldiz konprobatu ere laboratoriora joan aurretik (3).

Guztiz zehatza izateko, aurreko inkestaren ordez ordu t'erdiko grabaketa batetikako bokale aukeraketa izango genuen biziena, baina, ez neukan gura nituen kontexto guztiak lortzeko esperantzarik.

Zeberio, herri bakarra denez, berri-emaile bat bakarrik aukeratu dut, baina bera ondo. Zeberio herria luzea da eta herri barruan ergoiengoa aukeratu dut, elbarreneko eta erdikoak baino erderaren eragin gutxiago daukalako(4).

Beste alde batetik, informantea, bakarra izan arren aztertutako bokeleen kopurua handia da: 288 bokake, 106 azentodunak eta 182 azentugabeak.

## 2.-BERRI-EMAILEA

Gure baserria, etxaguntzako da eta neure aitite-amamak ere (goian begoz) bertan ezagutu ditut (5).

Aukeratutako berri-emailea, Patxi Etxebarria Arroita da, neure aita. 70 urte eta jaiotzatit bizi da baserrian.

Nekazaria da eta eskolako urte apurretatik kanpo ez du beste ikasketarik.

Grabaketarako, aita aukeratu badut ere, (gizonezkoen tinbrea egokiagoa delako) neure amarengandik hartutako argibideak ere sano kontutan hartzekoek dira.

Nire ama, Leonor Ayesta Goikoetxea da, Uriondoko baina Undurrara ezkondua. Mapan ikusi daitekenez (6), Undurra Ekialderantz dago, Arratiari ikutzen eta Uriondo mendebalderantz dago, Arratiari ikutzen eta Uriondo mendebalderantz. Baina, Uriondo, erdal-mugatik hurbilago dago baina mendian dagoen auzune bat denez, euskera garbi zaindu da (7).

Guzti honegatik ba, nire gurasoen euskera aberatsa da eta eurak izan dira nire berri-emailerik zuzenenak.

## 3.-LABORATORIO FONETIKOA (8)

Grabaketa egiteko Deustuko Unibertsitateko Laboratorio Fonetikoa erabili dut. Bertako magnetofonoa hauxe da: UHER 4.000 REPORT MONITOR.

Espektrogramak, era bitakoak erabili ditugu: 300eko zerrenda, "banda ancha"koak eta entonaziorako "banda ancha ampliada"koak. Biak: TYPE B/65 SONAGRAM (R) KAY ELEMENTRICS CO. PINE BROOK, N. J.

#### 4.-GRUPO FONIKO EDO KANPO SANDHIAK

Jarraian ikusi daitekenez, zerrenda hau luzea da bokalismotik kanporako fenomeno ugari agertzen delarik (9). Bokalismorako, lehenengo 106 grupo fonikoetako bokaleak bakarrik aztertu ditut, 288 bokale aztertzea nahikotzat jo dudalako.

Zerreanda hau, era bitara agertzen da: ezkerrean Fonologian eta eskuman Fonetikan.

Baina zehatzago izan gurean, bokale bakoitzaren formanteak aztertzen ditudanean, Literatura maila ere aipatzen dut, nondik norakoa ikusi ahal izateko.

Badaezpada, (Fonologia-Fonetika-Literatura) izendegi hirukoitz hau argitu nahi nuke tesis guztian zehar agertzen delako.

Fonetikak, bere ezaugarriak ditu eta argi dago. Fonologia dindanean, herriko ahozkeraren biziaren Fonologiari dariot eta Literaturara, ostera, idaztarauei begira.

## 5.-GRUPO FONIKO EDO KANPO SANDHIEN ZERRENDA

abaya	[a <sup>h</sup> baya]
adarra	[a <sup>h</sup> dára]
afáldu	[a <sup>h</sup> fá]du]
agárre	[a <sup>h</sup> gá <sup>h</sup> re]
akarra	[a <sup>h</sup> kára]
ála	[ála]
alléa	[a <sup>h</sup> léa]
lláko	[l <sup>h</sup> áko]
áma	[áma]
ána	[ána]
áñotza	[á <sup>h</sup> no <sup>h</sup> ca]
apála	[apála]
ára	[ára]
arra	[ára]
ásak	[ásak]
atakán	[atakán]
áxa	[á <sup>h</sup> xa]
átxa	[á <sup>h</sup> txa]
atza	[áca]
áye	[áye]
láya	[láya]
ebági	[e <sup>h</sup> bági]
ederra	[e <sup>h</sup> déra]
éfe	[éfe]
léges	[léges]
ekárri	[ekári]
eléna	[eléna]
elie	[elie]
elláko	[e <sup>h</sup> láko]
eméa	[eméa]
éne	[éne]
eñóak	[e <sup>h</sup> no <sup>h</sup> ak]
epéa	[epéa]
bére	[bére]
érre	[é <sup>h</sup> re]
esébes	[e <sup>h</sup> sé <sup>h</sup> bes]
etéda	[e <sup>h</sup> té <sup>h</sup> da]
elexéa	[e <sup>h</sup> le <sup>h</sup> séa]
eléxa	[e <sup>h</sup> lé <sup>h</sup> xa]
étzi	[é <sup>h</sup> ci]
léyoa	[léyoa]

láye	[láye]
ibíli	[ibíli]
íri	[íri] lit. hiri
ifíni	[ifíni]
igítie	[igítie]
ikísi	[ikísi]
ilíntie	[ilíntie]
grillístue	[gríllístue]
imíni	[imíni]
inisitúe	[inísitúe]
iñór	[iñór]
ipíña	[ipíña]
iribási	[iribási]
irribárre	[irribáre]
ofisína	[ofisína]
igítie	[igítie]
ixílik	[ixílik]
ítxi	[íçi]
itzíar	[icíār]
ikisíyok	[ikisíyok]
obósu	[obósu]
odóla	[odóla]
manetofóya	[manetofóya]
ogíe	[ogíe]
gosóa	[gosóa]
okótza	[okóca]
kókoloa	[kókoloa]
ollóa	[ollóa]
solómoa	[solómoa]
gixónok	[gixónok]
óño	[óño]
opórra	[opórra]
soróa	[soróa]
orróa	[orróa]
ótok	[ótok]
goxóa	[goxóa]
otxóa	[otxóa]
otzóa	[otzóa]
óya	[óya]
yóan	[yóan]
sagubúrue	[sagubúrue]
galdudúne	[galdudúne]
úfa	[úfa]
fúe	[fúe]



úger	[úgẽr]
gúre	[gúre] (mus-jokoan)
kúku	[kúku]
ukúsi	[ukúsi]
uléa	[uléa]
ulléa	[u léa]
kúllue	[kú lue]
úmo	[úmo]
úne	[úne]
súñe	[súñe]
lupúe	[lupúe]
burúe	[burúe]
urruséa	[ũruséa]
úr	[ú̃r] lit. hur
úxo	[ú̃xo]
suríe	[suríe]
estútu	[estútu]
uxóa	[ũsóa]
estútxu	[estú̃cu]
burútzu	[burúcu]
úye	[úye]
yúek	[yúek]
érre	[é̃re]
erréta	[ẽréta]
alabéa	[alabéa]
ór	[ò̃r]
orróa	[õróa]
artóa	[ãrtóa]
mendíe	[mendíe]
mendíbet	[mendíbet]
burúe	[burúe]
burúbet	[burúbet]
áye	[áye]
sóye	[‘sóye]
yáyo	[yáyo]
óya	[óya]
yá sé yó	[yáseyó]
óye	[óye]
nau	[nau]
aurri	[naúfi]
odai	[odaí]
sei	[séi]
loi	[loi]
oin	[oin]

gixóna	[giʃóna]
ixéna	[iʃéna]
sasíe	[sásíe]
ésin	[ésin]
ésan	[ésan]
esán etórri	[esánetoři]
yán	[ýan]
yóan	[ýóan]
yákin	[ýákin]
iturrialde	[ituřjalde]
andiandi	[andjandi]
orriendao	[ořjendaɔ]
aspiendao	[aspjendaɔ]
asiordu	[aʃjořdu]
uriondo	[urjořdo]
gariurte	[garjuřte]
gariurune	[garjurune]
iruatxeta	[irwačeta]
sartualde	[sártwa]de]
barruendao	[bařwendaɔ]
galduendao	[ga]dweɔ]
eskuondoan	[éskwoɔdoan]
artuorduko	[ařtwořduko]
bearren	[beářen]
seatza	[séáca]
yoanda	[ýoánda]
goasen	[goásen]
seoser	[séóser]
beosu	[beósu]
ondoestea	[oɔdoéstea]
goikoetze	[goikoéce]
dao	[dáɔ]
gaos	[gáɔs]
osóa	[osóa]
osoandao	[osóandáɔ]
béot	[béot]
beosu	[beósu]
naunok	[naunok]
ñok	[ɔok]
nauñaok	[naunáok]
nauñábik	[naunábik]
nauñoak	[naunóak]
nauñátok	[naunátok]
nauñengoan	[naunéngoan]

éñoak	[éñoak]
ñábilko	[ñábilko]
ñoako	[ñoako]
ñátorko	[ñátorko]
yoyoat	[yoyoát]
yákat	[yákat]
yákiat	[yákjat]
yároat	[yároat]
yaukat	[yaukat]
díñoat	[díñoat]
ñeunkan	[neunkan]
etxákiat	[etxákjat]
soryóat	[soryóat]
sórdok	[sórdok]
sóryok	[sóryok]
soryóztat	[soryócat]
sordótzek	[sórdocek]
soryótzek	[soryócek]
sorñóntzan	[sorñóncan]
sorrauntzan	[sorauncan]
soryótzan	[soryócan]
íngollóztat	[íngolócat]
íngolótzek	[íngolócek]
íngollótzek	[íngolócek]
íngoñaunkek	[íngoñaunkek]
íngoanunke	[íngoanunke]
íngollaukek	[íngollaukek]
gustaukollat	[gustauko]at]
gustaukollako	[gustauko]ako]
gustauko bállatzu	[gustauko]bá]lacu]
afaríe	[afaríe]
agóa	[agóa]
igérra	[igérra]
áñotza	[áñoca]
íyo	[íyo]
láya	[láya]
láyea	[láyea]
bíger	[bíger]
agótza	[agóca]
gigérra	[gigérra]
iñóntz	[iñónc]
aistu	[aistu]
bieti	[bjeti]
mutíle	[mutíle]

opíle	[opíle]
okíle	[okíle]
llát	[lát]
llátzu	[lácú]
lláko	[láko]
nauen	[nauen]
auen	[auen]
aurien	[aurien]
bixérra	[bixérra]
íxerra	[íxerra]
gixóna	[gixóna]
átzo	[áco]
és	[és]
loi	[loi]
óya	[óya]
oin	[oin]
untxeuntxe	[untxeuntxe]
góxa	[góxa]
góye	[góye]
goikótze	[goikótze]
goikíri	[goikíri]
kullárea	[kullárea]
koipéa	[koipéa]
óña	[óña]
óñes	[óñes]
únbardinke	[únbardinke]
úye	[úye]
uñéla	[uñéla]
espáda	[espáda]
estátor	[estátor]
eskára	[eskára]
etxátok	[etxátok]
eñóak	[eñóak]
ellátak	[ellátak]
eleuskio	[eleuskio]
beresdábil	[beresdábil]
beresdátor	[beresdátor]
beresgóas	[beresgóas]
beresyátok	[beresyátok]
beresñoak	[beresñoak]
itzesbásterra	[itzesbásterra]
itzesdírué	[itzesdírué]
itzesgórea	[itzesgórea]
esbéar	[esbéar]

esgausa	[eʒgɑʊsɑ]
esyákin	[eʒyákin]
etxákik	[ečákik]
esyán	[eʒyán]
esyóan	[eʒyóan]
baibaya	[baiβaya]
bosbíder	[boʒβídeɾ]
bosdoséna	[boʒdoséna]
bosgíson	[boʒgíson]
gasbákoa	[gɑʒbákoa]
gasdúne	[gɑʒdúne]
gasgáraue	[gɑʒgáraue]
ikesgíne	[ikeʒgíne]
asbárrue	[aʒbáɾue]
asdaunbadea	[aʒdaʊnbadea]
asgánean	[aʒgánean]
esírean	[esírean]
sosíkubet	[sósíkubet]
bosáku	[bośáku]
gastxárra	[gɑsčáɾɑ]
boslápur	[boʒlápuɾ]
aslúsea	[aʒlúsea]
nipadákit	[nipadákit]
geutákigu	[geʊtákigu]
akároas	[akároas]
estao	[éstao]
bápai	[bápai]
batátor	[batátoɾ]
bakára	[bakára]
átxandau	[áčɑndɑʊ]
bátxandau	[báčɑndɑʊ]
nipolító	[nipolító]
ataukie	[ataukie]
bapárean	[bapárean]
bakarrán	[bakaɾán]
ajentílek	[axentílek]
naulagundúkotzut	[naʊlagʊndúkocʊt]
nibébai	[nibébai]
nikaur	[nikauɾ]

## 6.-BOKALEEN FORMANTEAK ETA DENPORA

Arlo honetan, Formanteak ezeze, bokale bakoitzaren Denpora ere neure da, Hertzioetan eta bigarrenak Milisegundoetan (10).

Jarraian datorren zerrendan eta zehaztasunari begira, grupo foniko bakoitzaren Literatura formaren ondoan bere transkripzio Fonetiko-Filologikoa erabili dut azentua ere ezarriz.

Kasu apur batzuetan bokale bat edo beste neurte barik agertzen da baina espektrogramak ikusten badira errez ulertzeko kontua da, izan ere, ahozkeraren arabera Formante bata edo biak egertu ez egitea posible delako batez ere arin hitz egin edo indar gutxiz egiten denean.

Espektrograma bat aztertzerakoan, fonema guztiak bilatzen hasten gara baina sarritan begiekin entzuten dugu eta ez belarriz, horregatik noizbehinka begi-belarrak ez doaz bat (11).

	F1-Hz	F2-Hz	Dp-msg
abaia [abáya]			
a	550,72	998,18	64
á	619,56	1.067,02	80
a	557,24	1.514,48	92
adarra [adára]			
a	619,56	1.239,12	60
á	653,98	1.307,96	124
a	.....	.....	.....
afaldu [afáldu]			
a	653,98	1.101,44	84
á	619,98	1.135,86	80
u	481,88	1.067,02	64
agarre [agáre]			
a	550,72	1.067,02	76
á	619,56	1.273,54	116
e	516,3	1.686,3	60
akerra [akára]			
a	688,4	1.239,12	80
á	619,56	1.342,38	120
a	619,56	1.204,7	112

ala [ála]			
á	653,98	1.170,28	84
a	619,56	1.170,28	100
ailea [a éa]			
a	550,72	1.850,68	80
é	516,3	2.030,78	120
a	619,56	1.652,16	88
liako [l áko]			
á	688,4	1.480,06	112
o	481,88	929,34	110
ama [áma]			
á	688,4	1.204,7	124
a	619,56	1.239,12	80
ana [ána]			
á	688,4	1.273,54	128
a	585,14	1.342,38	104
ainotza [á̃oca]			
á	688,4	1.239,12	84
o	481,88	1.342,38	92
a	585,14	1.273,54	92
apala [apála]			
a	585,14	1.204,7	52
á	619,56	1.135,86	76
a	619,56	1.307,96	88
hara [ára]			
á	688,4	1.342,38	112
a	550,72	1.307,96	100
arra [á̃ra]			
á	688,4	1.170,28	96
a	585,14	1.135,86	104
azak [ásak]			
á	557,24	1.342,38	96
a	688,4	1.273,54	100

atakan [atakán]			
a	.....	.....	.....
a	688,4	1.307,96	60
á	619,56	1.170,28	104
axa [á <sup>v</sup> sa]			
á	653,98	1.273,54	88
a	516,3	1.376,8	96
haitza [á <sup>v</sup> ca]			
á	722,82	1.342,38	112
a	653,98	1.376,8	96
hatsa [áca]			
á	757,24	1.307,96	92
a	653,98	1.239,12	116
ahia [áye]			
á	688,4	1.411,22	88
e	447,46	1.893,1	84
laia [láya]			
á	619,56	1.411,22	76
a	585,14	1.755,42	84
ebagi [ebá <sup>†</sup> gi]			
e	516,3	1.858,68	76
á	619,56	1.307,96	92
i	447,46	1.996,36	72
ederra [edé <sup>†</sup> ra]			
e	516,3	1.686,58	92
é	550,72	1.548,9	92
a	.....	.....	.....
efe [éfe]			
é	481,88	1.789,84	128
e	447,46	1.824,26	108
legez [lége <sup>†</sup> s]			
é	619,56	1.824,26	96
e	585,14	2.099,62	80



<b>ekarri [ekáři]</b>			
e	413,04	2.062,2	56
á	550,72	1.514,48	112
i	447,46	1.961,94	68
<b>elena [eléna]</b>			
e	378,62	1.858,68	96
é	413,04	1.893,1	92
a	378,62	1.514,48	80
<b>elia [elíe]</b>			
e	378,62	1.789,84	100
í	378,62	2.030,78	112
e	481,88	1,893,1	96
<b>ez liako [eláko]</b>			
e	413,04	2.030,78	68
á	653,98	1.755,42	120
o	481,88	1.067,02	80
<b>emea [eméa]</b>			
e	378,62	1.961,94	108
é	481,88	1.961,94	104
a	619,56	1.755,42	100
<b>ene [éne]</b>			
é	309,78	1.789,84	132
e	344,2	1.789,84	96
<b>ez nioak [eņóak]</b>			
e	344,2	1.996,36	92
ó	413,04	1.101,44	88
a	585,14	1.307,96	100
<b>epea [epéa]</b>			
e	344,2	2.030,78	84
é	516,3	1.789,84	132
a	653,98	1.721,1	96
<b>bere [bére]</b>			
é	481,88	1.789,84	144
e	413,04	2.065,2	80

eré [éře]			
é	516,3	1.893,1	128
e	516,3	1.824,26	104
ezer bere ez [ešébes]			
e	413,04	1.824,26	80
é	481,88	1.755,42	92
e	550,72	1.686,58	96
ete da [etéda]			
e	344,2	1.961,94	44
é	413,04	1.824,26	104
a	585,14	1.342,38	92
eleizea [elešéa]			
e	309,78	1.858,68	76
e	378,62	1.858,68	56
é	447,46	1.893,1	108
a	653,98	1.789,84	120
eleiza [eléša]			
e	378,62	1.961,94	100
é	516,3	1.755,42	88
a	653,98	1.858,68	104
etzi [éci]			
é	378,52	1.893,1	120
e	481,88	1.858,68	100
leioa [léyoa]			
é	585,14	1.927,52	100
o	550,72	1.101,44	100
a	.....	.....	.....
leia [láye]			
á	688,4	1.411,22	84
e	447,46	1.893,1	128
ibili [ibili]			
i	309,78	1.893,1	88
í	344,2	2.030,78	88
i	344,2	1.996,36	84

hiri [íri]			
í	344,2	1.996,36	112
i	344,2	2.099,62	120
ipini [ifíni]			
i	275,36	2.099,62	68
í	309,78	1.961,94	80
i	378,62	2.030,78	72
igitaia [igítie]			
i	309,78	2.030,78	76
í	344,2	2.134,04	84
i	344,2	2.065,2	100
e	.....	.....	.....
ikasi [ikísi]			
i	240,94	2.065,2	60
í	344,2	1.996,36	92
i	344,2	2.065,2	96
ilentia [ilíntie]			
i	344,2	1.927,52	68
í	378,62	1.961,94	96
i	309,78	2.134,04	100
e	.....	.....	.....
grillistua [grīlístue]			
I	378,62	1.858,68	96
Í	378,62	1.961,94	112
u	344,2	.....	.....
e	.....	.....	.....
ipini [imíni]			
i	378,62	1.961,94	84
í	344,2	2.065,2	96
i	344,2	1.996,36	80
inizitua [inísitúe]			
i	309,78	2.030,78	72
i	275,36	1.996,36	52
i	275,36	2.065,2	76
ú	344,2	1.032,6	104
e	447,46	1.376,8	72

inor [ínōr]			
í	309,78	2.134,04	92
o	309,78	860,5	68
ipiña [ipína]			
i	206,52	2.065,2	40
í	309,78	2.065,2	76
a	516,3	1.686,58	112
irabazi [iribási]			
i	275,36	1.961,94	64
i	344,2	1.927,52	64
á	585,14	1.307,96	116
i	413,04	2.030,96	84
irribarre [iribáre]			
i	344,2	.....	44
i	378,62	2.030,78	108
á	585,14	1.376,8	104
e	368,62	1.514,48	68
ofizina [ofisína]			
o	413,04	929,34	68
i	378,62	1.824,26	64
í	344,2	1.858,68	72
a	585,14	1.445,64	76
igitaia [igítie]			
i	309,78	2.134,04	60
í	344,2	2.134,04	104
i	309,78	2.168,46	128
e	447,46	1.996,36	72
isilik [išílik]			
i	275,36	2.134,04	44
í	378,62	1.996,36	76
i	378,62	2.065,2	84
utzi [íči]			
í	344,2	2.099,62	108
i	378,62	2.065,2	104

itziar [icíaṙ]			
i	206,52	2.099,62	36
í	378,62	2.065,2	104
a	653,98	1.376,8	96
ikasi jok [ikisíyok]			
i	.....	.....	.....
i	309,78	2.030,78	52
í	378,62	2.099,62	80
o	516,3	1.204,7	76
hobe dozu [obósu]			
o	413,04	963,76	92
ó	516,3	1.067,02	88
u	378,62	.....	84
odola [odóla]			
o	447,46	1.032,6	60
ó	516,3	1.101,44	96
a	688,4	1.239,12	72
magnetofoa [manetofóya]			
a	.....	.....	56
e	.....	.....	24
o	447,46	1.067,02	60
ó	481,88	1.067,02	76
a	550,72	1.755,42	60
ogia [ogíe]			
o	378,62	585,14	112
í	309,78	2.202,88	116
e	516,3	.....	100
gozoa [gosóa]			
o	516,3	1.101,44	64
ó	516,3	1.135,86	108
a	688,4	1.239,12	72
okotza [okóca]			
o	516,3	1.067,2	84
ó	550,72	1.204,7	84
a	688,4	1.376,8	92

kokoloa [kókoloa]			
ó	585,14	1.067,02	88
o	516,3	1.032,6	68
o	516,3	998,18	92
a	619,56	1.135,86	88
oiloa [o]óa]			
o	413,04	1.101,44	92
ó	481,88	1.204,7	100
a	688,4	1.376,8	96
solomoa [sólómoa]			
o	413,04	1.101,44	56
ó	413,04	998,18	76
o	378,62	963,76	108
a	550,72	1.170,28	72
gizonok [gisónok]			
i	309,78	1.548,9	76
ó	550,72	1.307,96	88
o	516,3	1.101,44	68
oño [óno]			
ó	309,78	722,82	92
o	481,88	1.135,86	112
oporra [opóra]			
o	413,04	.....	68
ó	550,72	1.067,02	84
a	619,56	1.342,38	92
zoroa [sóróa]			
o	585,14	1.135,86	92
ó	550,72	1.135,86	108
a	619,56	1.239,12	88
orroa [oróa]			
o	516,3	1.032	80
ó	585,14	1.067,02	136
a	688,4	1.204,7	96
otok [ótok]			
ó	481,88	998,18	92
o	550,72	1.067,02	112

goxoa [go <sup>ʎ</sup> óa]			
o	413,04	1.032,6	52
ó	516,3	1.067,02	96
a	653,98	1.204,7	88
otsoa [o <sup>ʎ</sup> óa]			
o	481,88	998,18	60
ó	481,88	1.032,6	84
a	585,14	1.170,28	84
otsoa [ocóa]			
o	481,88	1.101,44	68
ó	550,72	1.101,44	88
a	722,82	1.239,12	80
ohea [óya]			
ó	516,3	929,34	72
a	585,14	1.411,22	84
joan [j <sup>h</sup> óan]			
ó	481,88	.....	72
a	619,56	1.204,7	84
sagu burua [s <sup>h</sup> agub <sup>h</sup> úrue]			
a	516,3	1.342,38	76
u	447,46	791,66	64
ú	447,46	1.032,6	92
u	481,88	1.135,86	68
e	585,14	.....	72
galdu doguna [ga]dud <sup>h</sup> úne]			
a	653,98	1.342,38	72
u	413,04	1.170,28	108
ú	447,46	1.135,86	80
e	550,72	1.686,58	84
ufa! [úfa]			
ú	344,2	.....	88
a	585,14	1.101,44	96
fua [fúe]			
ú	516,3	894,92	96
e	516,3	1.755,42	124

uger [úgeř]			
ú	344,2	757,24	80
e	481,88	1.376,8	112
gura [gúre]			
ú	344,2	1.067,02	96
e	447,46	1.789,84	100
kuku [kúku]			
ú	309,78	688,4	64
u	344,2	826,08	124
ikusi [ukúsi]			
u	309,78	.....	56
ú	309,78	998,18	88
i	344,2	1.858,68	88
ulea [uléa]			
u	275,36	.....	104
é	275,36	1.893,1	88
a	550,72	.....	92
ulea [u]léa]			
u	344,2	.....	84
é	378,62	1.961,94	156
a	619,56	1.721,1	112
kullua [kú]ue]			
ú	378,62	1.032,6	88
u	344,2	.....	100
e	516,3	1.273,54	120
umo [úmo]			
ú	378,62	791,66	120
o	378,62	998,18	96
una [úne]			
ú	413,04	860,5	112
e	516,3	1.755,42	104
suina [sú]ne]			
ú	344,2	1.170,36	92
e	413,04	1.996,36	120



lupua [lupúe]			
u	378,62	998,18	64
ú	344,2	963,76	112
e	481,88	1.686,58	92
burua [burúe]			
u	309,78	998,18	80
ú	344,2	998,18	96
e	447,46	1.445,64	100
urruza [uřúséa]			
u	378,62	929,34	64
u	344,2	.....	96
é	481,88	1.858,68	112
a	688,4	1.721,1	96
hur [úř]			
ú	378,62	998,18	104
uxo [úšo]			
ú	344,2	998,18	112
o	447,46	998,18	100
zuria [súrie]			
u	275,36	.....	56
í	309,78	2.030,78	132
e	378,62	1.858,68	80
estutu [éstútu]			
e	344,2	1.824,26	68
ú	344,2	826,08	72
u	344,2	.....	72
uxoa [ušóa]			
u	275,36	.....	80
ó	378,62	1.032,6	100
a	550,72	1.067,02	84
estutxu [éstúču]			
e	.....	.....	60
ú	413,04	.....	84
u	378,62	.....	60

burutsu [burúcu]			
u	378,62	998,18	48
ú	378,62	1.239,12	92
u	378,62	1.067,02	88
oia [úye]			
ú	378,62	.....	124
e	447,46	1.858,68	112

TONIKAK

ATONAK

ERTAINAK

F1:346,01 Hz /í/ F2:2.043,46Hz	/i/	F1:330,43 Hz F2:1.943,71	/i/	F1:338,22 Hz Hz:F2:1.993,58 Hz
F1:474,63 Hz /é/ F2:1.845,99 Hz	/e/	F1:444,18 Hz F2:1.811,3 Hz	/e/	F1:459,40 Hz F2:1.828,67 Hz
F1:647,61 Hz /á/ F2:1.310,60 Hz	/a/	F2:599,64 Hz F2:1.362,78 Hz	/a/	F1:623,62 Hz F2:1.336,69 Hz
F1:496,63 Hz /ó/ F2:1.070,46 Hz	/o/	F1:464,07 Hz F2:1.037,51 Hz	/o/	F1:480,35 Hz F2:1.053,98 Hz
F1:373,70 Hz /ú/ F2:909,75	/u/	F1:362,22 Hz F2:998,18 Hz	/u/	F1:367,96 Hz F2:953,96 Hz

TONIKAK

/í/ = 19  
/é/ = 19  
/á/ = 26  
/ó/ = 21  
/ú/ = 21

ATONAK

/i/ = 35  
/e/ = 42  
/a/ = 55  
/o/ = 25  
/u/ = 2

106

+ 182 GUZTIRA: 288 bokale


## 7.-TRIANGULO BOKALIKO AKUSTIKOA

Aztertutako bokale guztien mediak atera ondoren euren erre-presentazioetara joko dugu.


Horretarako, har ditzagun ertainetako neurriak oinarri lez.

	F1	F2
i:	338,22 Hz	1.993,58 Hz
e:	459,40 Hz	1.828,67 Hz
a:	623,62 Hz	1.336,69 Hz
o:	480,35 Hz	1.053,98 Hz
u:	367,96 Hz	953,96 Hz


Ertainetako neurriak triangulotik kanpo ere errepresentatu daitezke eta jarraian dator aztertutako Formante bien sintesia Zeberrioko bokaleen itxidura-irekiduraren ikuspegi orokor bat eukiteko.




# TONIKOAK



ATONOAK



ERTAINAK



## 8.-BOKALE TONIKO-ATONOAK "CARTA DE FORMANTES" DERITZANEAN ERREPRESENTATUZ

Bokale batzuk beste batzuk baino ugarigoak direnez, "carta de formantes"erako aukeraketa egiterakoan jasoketa proportzional bat egin dut orekarik onena lortzeko.

Honetarako, aukeratutako grupo foniko bakoitzaren transkripzio fonetikotik hasi naiz ondoan literaturako forma ipiniz.

Kasu honetan denpora ez da beharrezko eta ez dut jarri baina grupo foniko bakoitzak, bere zenbakia darama gero errerepresentatzeko.

Hona hemen ba, toniketatik hasi eta atonoekin amaitutako zerrenda:

### TONIKAK

<u>/i/ BOKALEA</u>	<u>F1</u>	<u>F2</u>	<u>zbk.</u>
[íri] hiri	344,2 Hz	1.996,36 Hz	1
[ikísi] ikasi	344,2 "	1.996,36 "	2
[ilíntie] ilentia	378,62 "	1.961,94 "	3
[ipína] ipiña	309,78 "	2.065,2 "	4
[íci] utzi	344,2 "	2.099,62 "	5
<u>/é/ BOKALEA</u>			
[bére] bere	481,88 "	1.789,84 "	6
[éře] erre	516,3 "	1.893,1 "	7
[elešéa] eleiza	516,3 "	1.755,42 "	8
[elešéa] eleizea	447,46 "	1.893,1 "	9
[léyoa] leihoa	585,14 "	1.927,52 "	10
<u>/á/ BOKALEA</u>			
[ánoça] ainetza	688,4 "	1.239,12 "	11
[ára] hara	688,4 "	1.342,38 "	11
[ára] arra	688,4 "	1.170,28 "	13
[ása] axa	653,98 "	1.273,54 "	14
[áça] haitza	722,82 "	1.342,38 "	15
[áca] hatsa	757,24 "	1.307,96 "	16
[áye] ahia	688,4 "	1.411,22 "	17
<u>/ó/ BOKALEA</u>			
[gosóa] gozoa	516,3 "	1.135,86 "	18
[okóca] okotza	550,72 "	1.204,7 "	19

[o]óa] oiloa	481,88 “	1.204,7 “	20
[opóřa]oporra	550,72 “	1.067,02 “	21
[óya] ohea	516,3 “	929,34 “	22

/ú/ BOKALEA

[úgeř] uger	344,2 “	757,24 “	23
[úmo] umo	378,62 “	791,66 “	24
[súņe] suina	344,2 “	1.170,28 “	25
[eštútu] estutu	344,2 “	826,08 “	26
[burúcu] burutsu	378,62 “	1.235,12 “	27

ATONAK

/i/ BOKALEA

[iǐ́li] ibili	309,78 "	1.893,1 "	1
[ifini] ipini	275,36 “	2.099,62 “	2
[igítie] igitaia	309,78 “	2.030,78 “	3
[ikísí] ikasi	240,94 “	2.065,2 “	4
[imíni] ipini	378,62 “	1.961,94 “	5
[ipířa] ipiřa	206,52 “	3.065,2 “	6
[iř́ilik] isilik	275,36 “	2.134,04 “	7
[icíar̄] itziar	206,52 “	2.099,62 "	8

/e/ BOKALEA

[eǒ́agi] ebagi	516,3 “	1.858,68 “	9
[ekáři] ekarri	413,04 “	2.065,2 “	10
[elíe] elia	378,62 "	1.789,84 “	11
[e]áko] ez liako	413,04 “	2.030,78 “	12
[eméa] emea	378,62 “	1.961,94 “	13
[eņóak] ez nioak	344,2 “	1.996,36 “	14
[epéa] epea	344,2 “	2.030,78 “	15
[etéda] ete da	344,2 “	1.961,94 “	16
[eleš́ea] eleizea	309,78 “	1.858,68 "	17
[eléša] eleiza	378,62 "	1.961,94 “	18

/a/ BOKALEA

[aǒ́aya] abايا	550,72 "	998,18 "	19
[aǒ́ara] adarra	619,56 “	1.239,12 “	20
[afá]du] afaldu	653,98 “	1.101,44 “	21
[agáre] agirre	550,72 “	1.067,02 “	22
[akářa] akerra	688,4 “	1.239,12 “	23
[ála] ala	619,56 "	1.170,28 “	24
[aléa] ailea	550,72 "	1.858,68 “	25
[áma] ama	619,56 “	1.239,12 “	26



[ána] ana	585,14 "	1.342,38 "	27
[ára] hara	550,72 "	1.307,96 "	28
[ára] arra	585,14 "	1.135,86 "	29
[ásak] azak	688,4 "	1.273,54 "	30
[áša] axa	516,3 "	1.376,8 "	31


/o/ BOKALEA

[odóla] odola	447,46 "	1.032,6 "	32
[gośóa] gozoa	516,3 "	1.101,44 "	33
[okóca] okotza	516,3 "	1.067,02 "	34
[o]óla] oiloa	413,04 "	1.101,44 "	35
[o]óa] orroa	516,3 "	1.032,6 "	36
[ocóa] otsoa	481,88 "	1.101,44 "	37


/u/ BOKALEA

[kúku] kuku	344,2 "	826,08 "	38
[lupúe] lupua	378,62 "	998,18 "	39
[burúe] burua	309,78 "	998,18 "	40
[u]rúśéa] urruzea	378,62 "	929,34 "	41
[burúcu] burutsu	378,62 "	998,18 "	42

# TONIKAK



ATONAK



## 9.-BOKALEEN DENPORA

Atzeko orrialdeko laburpenean ikusi ahal daitekenez, Zeberio-ko bokale toniko eta atonoen mediak atera ondoren, konklusio batera heltzeko bidean gaude.

Bokale toniko guztiek milisegundu gehiago behar izan dute euren ahozkeran atonoek baino, horregatik, denpora eta azentu-indarra bata bestearen eraginean daudela esan behar (12).

### BOKALEEN AHOTS-DENPORA

TONIKAK	ATONAK	ERTAINAK
/í/=95,76 msg.	/i/=76,43 msg.	/i/=86,09 msg.
/é/=113,33 msg.	/e/=87,36 msg.	/e/=100,34 msg.
/á/=100,32 msg.	/a/=88,29 msg.	/a/=94,30 msg.
/ó/=91,23 msg.	/o/=81,33 msg.	/o/=86,28 msg.
/ú/=95,04 msg.	/u/=77,4 msg.	/U/=86,22 msg.

TONIKAK	ATONAK
/í/=17	/i/=37
/é/=21	/e/=44
/á/=25	/a/=55
/ó/=21	/o/=30
/ú/=21	/u/=20

---

105

---

186 GUZTIRA: 291 bokale

## 10.-ZEBERIOKO TRIANGULO BOKALIKOA BESTE BATZUEKIN KONPARATUZ


Arlo honetan triangulo bokaliko bi izan ditut kontutan:

- 1) Gaztelerarena, Antonio Quilisek bere "Fonetika Acústica de la Lengua Española"ko 175.orrialdean dakarrena (13).
- 2) Pello Salabururena, bere tesis doktoralean Baztani buruz aurkeztutakoa (14).

Badira gehiago (15) baina kasu biok bakarrik aipatuko ditut, gaztelerarena gure herriraino sartu delako eta Baztangoa, Hego-Euskalerrriaren barruan Zeberioaren beste ertzean dagoelako.

ERTAINAK

GAZTELERARENA, (Antonio QUILIS, Fon. Acust. Leng. Esp.)



## ZEBERIOKOA ETA GAZTELERAZKOA ERKATUZ

/U/: Zeberiokoa Gaztelerazkoa baino irekiagoa da alde batetik eta aurrerratuago bestetik.

/o/: Zeberiokoa Gaztelerazkoa baino apurtxo bat itxiagoa eta aurrerratuagoa.


/a/: Zeberiokoa Gaztelerazkoa baino itxiagoa eta aurrerratuagoa.

/e/: Zeberiokoa Gaztelerazkoa baino apur bat itxiagoa eta atzeratuagoa.

/i/: Zeberiokoa Gaztelerazkoa baino irekiagoa eta etzeratuagoa.

Honez gainera, eta geroago ikusiko dugun bezala, /e/ eta /o/ren arteko irekidura-diferentzia txikiagatik, errez diptongatzeko bidean daude auren artean eta bai ta /a/rekin ere.

ERTAINAK  
BAZTANGOA (Pello SALABURU, Tesis Doktorala).





dean daude auren artean eta bai ta /a/rekin ere.  
**ZEBERIOKOA ETA BAZTANGOAK KONPARATUZ**

/u/: Zeberio Baztangoa baino itxiagoa eta atzeratuagoa.

/o/: Zeberiokoa Baztangoa baino itxiagoa eta atzeratuagoa.

/a/: Zeberiokoa Baztangoa baino itxiagoa eta atzeratuagoa.

/e/: Zeberiokoa Baztangoa baino itxiagoa eta atzeratuagoa.

/i/: Zeberiokoa Baztangoa baino itxiagoa eta atzeratuagoa.

## **11.-BOKALEEN BANAN BANAKO HOTS KONPARAKETAZ**

Zeberioko bokaleen irekidura eta itxidurari buruzko teoriarik ez dut emango, izan ere, ahozkeraren mundu zabala ikusi ondoren ez delako hain erreza puntu hau zehaztea.

Laborategi fonetikoak asko langundu dit arlo hau zehazten baina arazoa ez dago hor, hiztunarengan baizik.

Hiztunaren ahozkeramugagabetasuna zehatz aztertzen den neurrian hurbilduko gara lege oinarrietara.

Dena den, jasotako emaitzak hor daude eta erreserba guztiak bitarteko direlarik, hona hemen Zeberioko triangelu bokalikoari gehien hurbintzen zaizkion bokale toniko eta atonoak:

<b>BOKALEAK</b>	<b>ESPEKTROGRAMAREN ZENBAKIA</b>
í	43
i	54
é	98
e	24
á	02
a	10
ó	64
o	29
ú	99
u	105

## 12.-BOKALISMOA DIAKRONIAN

Orain artekoa sinkronia mailako laborategi azterketa izan dugu eta diakronian sartzea beharrezko deritzat hau arlo hau borobiltzeko.

Fenomeno ezagunenetariko bat bokale-irekidura dugu eta adibideak lagun, gatozen kasuistikara.

Goi-hobietako Dardarkari (multiplea) Ozenanaren aurreko bokale-irekidura gertatzen da kasu batzuetan.

Adibideetara joanik hor ditugu: “barri” lit. berri; “garri”, lit. gerri; “txarri”, lit. zerri: etab.

Mitxelenak (16) dioena baieztatuz, “-ER” multzoa “-Ar” egitera heldu da irekiduraz. Esate baterako: “bostar”, lit. bazter; “bastartu”, lit. Baztertu; “agartu”, lit. ageri agiri-tik.

Azken adibide hau, aditz mailan Zeberion “agartu” esaten badugu ere, bere partizipioa “agiri” dinogu. Adibidez: “agiri de”; estagiri” etab.

Badugu “-TU” atzizkidun “agiri” bat: “agiritu” hain zuzen, gaztelera “destapar” adierazteko.

Baditu beste erabilera batzuk ere. Esate baterako “agirian” edo “agiri” huts hutsean animalia batzuen “época de celo” adierazteko. Adibidez: “gure txakurre agiri ok eta estok agiri”.

Toponimiara joanik, badugu “Agarre” izeneko bat eta hor ere argi dago “Agirre/Agerre”ren irekidura bat dena.

Kasu berdineko beste hainbatetan ez da gertatu irekidurarik baina horren arrazoia ez da besterik haxe baino: aurreko silabako bokalea “I/U” delako eta bokale itxiak izatera ez du utzi irekitzen edo garairen baten irekirik erabili badira, berez-berez itxi dira armonia bokalikoaren arabera. Adibidez: “ister”; lit. izter; “bider”; lit. bider; “muzker”, lit. musker; “piper”, lit. piper; “pitxer”, lit. pitxer; “suster”, lit. sustar; etab.

“-R+Kontsonante”kasuan Mitxelenak (17) “I>E” irekidura edo bazilazioa behintzat adierazten digu baina Zeberion era honetara egiten ditugu berak jartzen dituen adibideak: “kirten”, lit. kirten; “urten”, lit. irten (baina ez dira esangura berekoak); “kemen”, lit. kermen; “txiker”, mer. txikir; “agartu”, lit. agirtu; etab.

Antzera gertatzen da “U” bokalarekin, ireki eta “O” egiten bait du. Adibidez: “biortu”, lit. bihurtu.

Zerberrioko alde baten sibilantearen aurrean ere gertatu da irekidura. Kasu bakarra izanik ere aipatzera noa: “nagosié” lit. nagusia. Gehienok “nausie” egiten dugu.

Irekidura “L”implosiboaren aurrean ere gertatu da esate baterako: “baltz”, lit. beltz; baina beste kasu hauetan ez da aldaketarik sortu, Adibidez: “orbel”, lit. orbel; “Aibelabe” (top.).

Beste alde batetik, “beldur/bildur” dela eta, Zeberion “bildur” darabilgu beti. “Bildur, bildurti, bildurkilik, bildurbako, bildursartu”etab.

Hasiera absolutoan ez da gertatu irekidurarik bikote hauetan ikus daitekenez: “erri/arri”; “erbi/arbi”etab.

“R-”z hasten diren hitz maileguetan bokale protetiko baten bidez osatzera jo dugu eta Zeberion “E-” protetikora joan gara, behar bada, asimilazioaren eraginez. Adibidez: “erresoi, erregi, erruda, erresau, ernegau, errepasau, Erramon”etab.

Irekidura fenomenoaren ondoan itxidura daukagu eta Mitxelernari (18) jarraituz, bokale mailegu zaharren iraunkortasunaren ondoan aldakortasuna ere ugaria da.

“A > E” egiten da itxiduraz aurreko silaban “I/U” dagoenean. Adibideak zenbat gura eta harexen beste: “aite, andie, burue, dakisune, ikusie, txori bet, buru bet, etorri de, apurtu de, “etab...

“i/u” bokaleek eragina izan dezakete aurrekoarengan eta itxi. “iguski”, lit. eguzki; “igurdi”, lit. eguerdi; etab.

Itxidura bikoitza ere gertatzen da inoiz. Esate baterako “ikusi”, lit. ikusi. Faktitiboa erabiliz: i-ra-kutzi genuke. Zeberion “irukutzi”esaten dugu.

“O > U” itxidura “N” baten aurrean ezaguna dugu esate baterako Zuberoan, baina Zeberion ere, eta batez be belaunaldi gaztearen artean (30-40) aurkitu ditut kasu batzuk. Adibidez: “untxe”, lit. oraintxe; “undiño”, lit. oraindino; “untzu”, lit. oraintsu; “igun”, lit. igon; etab.

Datozen adibideotan, zahar eta gazte, denok goaz bat. Adibidez: “unbardinke”, lit. oin berdinka; “askunarra”, lit. azkonarra; etab.

Mitxelenak (19) “KEN” erroa dela eta gaztelerazko “hedor” adierazteko Bizkairako “kirats” aipatzen du baina Zeberion “kiretz” darabilgu, Nafarroan bezala.

Itxidura, sabaikari baten aurrean ere gertatzen da eta adibideak ugariak baino ugariagoak: “itxun”, lit. etzan; “itxura”, lit. etxura; “iyo”, lit. eho; “uye”, lit. ohia; “etb”.

Belaunaldi gazteak (30-40) kasu gehiagotan itxiten dugu: “ullo”, lit. oilo; “uñetako”, lit. oinetako; “kullara”, lit. koilara; “uya”, lit. ohea; “guyen”, lit. goian; “luye”, lit. lohia; “uñela”, lit. orinala; etab.

Bokale itxi baten eraginez, batez ere gazteok itxiteraino heldu gara aurreko zein atzeko bokalea. Esate baterako: “kuipea”, lit. koipea; “guitik”, lit. goitik; “guikiri”, (top.); “biusturie”, lit. bioztura; etab.

“I” dun trisilaboetan, lehen zein hirugarrenean badago “E, O, A” bokaleak aldakor bihurtzen dira. Adibidez: “igirri”, lit. igarri; “igurdi”, lit. igordi; “imini”, Ax. ibeni”; “ikisi”, lit. ikasi; “iruntzi”, lit. irentsi.

Lekuko bezala, aipagarria da “izena”rekin gertatzen dena. Gehienok “ixena” [i<sup>v</sup>ɛna] egiten dugu, baina lekuan-lekuan “isena” edo “usena” ere entzuten dira.

Beste kasu baten, “ikusi” hain zuzen, gehienok horrela egin arren, batzuk “ukusi”, “ukustosu” etab. egiten dute.

Borobilduz, “E, O, A”ren artean asimilazioak ere gertatzen dira, batzuetan progresiboak eta bestetan regresiboak: “ete”; “odoloste” etab.

Eta bokale berdin bi elkartzan direnean disimilazioa bitarteko dela bereizten dira.

### “I/U” ALTERNANTZIA

Mitxelenak (20) dinona baieztatzeko ez dago adibidetara joatea baino Zerberioko erabilera ezagutzeko. “U”ren alde egin dugu eta betoz adibideak: “uger”, lit. igeri; “ugelaxue-txubelaxue”, lit. igel...; “ule/ulle”, lit. ile; “untza”, lit. iltze; “urten”, lit. irten; “urun”, lit. irin; “uri”, lit. hiri.

Toponimian eta abizenetan alternantzia gertatzen da. Esate baterako: “Uriondo/Iriondo”; “Uribarri/Goikiri” etab.

“Isen/usen” alternantzia ere badugu Zeberion, gazteok “ixena” egitera etorri bagara ere.

Sudurkari baten aurrean ere “U”ren alde jo dugu adibidez: “umo, umel...”

Lit. zumitz delakoan, Zeberion “simentz” egiten dugu. Hor, “I”ren aldeko asimilazio bat gertatuko zen eta gero artikulua jartzean bigarrena ireki egin da “E” eginaz.

Lit. zumel, delakoan, Zeberion “tximel” egiten da “I”ren alde.

“Silo/sulo” bikotea bizirik daukagu baina “silo” ganaduen jantzia gordetzeko zuloari esaten zaio.

Sabaikari baten aurrean ere “I”ren alde jo da, adibidez “gitxi” lit. gutxi.

Latineko “subsellium” Zeberion “txisilu” edo “txixilu” egiten dugu.

“I”; U > U, U” asimilazioa ere ikus dezakegu esate baterako: lit. ikusi, Zeb. “ukusi”.

“U, I, > U, U” asimilazioa ere gertatzen da adibide hauetan ikus daitekenez: “urrutxa”, lit. urritz; “urrusti”, (top.), lit. urrizti; etab.

Metatesis kausa aipatuz, hor dugu lit. ukutu, Zeberion “ikutu” eta askok “ukutu” eginik.

### 13.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Salaburu, P. in Hizkuntzaren Teoria eta Baztango Euskalkia: Fonetika eta Fonologia; 171.or. Jarraian T. Navarro Tomás, SS. 1.923,49 eta 50 or. ahozkatze aldaketak ere aipatzen ditu.
- (2) Urrutia, H. eta bere taldeak, Deustuko Unibertsitateko laborategi fonetikoan, Patxi Etxebarriari neure aurrean egina.
- (3) 1976an hasita dariot transkripzio-lanak argitaratzen ETNIKER aldizkarian, hortitxik ba fenomeno horren berri.
- (4) Zeberioako Elbarren, Ugaori deusala dago eta erderarako joera handia dago, izan ere, Ugaotik behera erdera nagusitzen ari delako. Ergoienen ostera hobeto gorde da Arratiarako joeragatik.
- (5) Undurra (ga). Zeberioako ergoieneko azkenengotariko auzunea. Kilometro bat gorago Artea-Arratia.
- (6) Ikus grabaketa mapan Undurra eta Uriondoren arteko distantzia.
- (7) Uriondo, goietan dago eta baso artean. Gaur ere argi-indarrrik gabe bizi dira. Auto-bidea egin berri dago. Beraz, hango biztanleek beste batzuk lako joan-erorrik ez dute izan eta hortik zaintze hori.
- (8) Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikora bertara eraman nuen berri-emailea grabazio hobea lortzeko.
- (9) Beste batzuen artean, kontsonante mota guztiak, beheranzko zein goranzko diptongoak, diptongo "bereziak", kontsonante elkarteak etab. luze bat.
- (10) Ikus lehenengo 106 espektrogramak.
- (11) Idazkera literarioa eta ahozkerak ez doazen neurrian, errez gertatzen da idazkera eta ahozkerak bateratzea baina sarritan belarria barik begiak ditugu aurrerago.
- (12) Quilis, A. 1981, 320-326 or. zenbait autoreen berri ematerakoan, D. B. Fry. 1958, aipatzen du esanez: "... a mayor duración vocálica, mayor sensación de acento". Gure kasuan ere horixe berori gertatzen da.
- (13) Quilis, A. 1981, 175 or.
- (14) Salaburu, P. 1984, 223 or.
- (15) Rotaetxe, K. 1978, 53 or.
- (16) Mitxelena, K. F. H. V. 1961. 62 or.
- (17) Mitxelena, K. op. cit. 62 or.
- (18) Mitxelena, K. op. cit. 50 or.
- (19) Mitxelena, K. op. cit. 67 or.
- (20) Mitxelena, K. op. cit. 73-85 ork.

### III. DIPTONGAZIOA

Sarrera gisa eta sailkapen bat egiteko asmotan, euskerazko diptongoak lau sail nagusitan banatuko nituzke: a) Beheranzkoak; b) Goranzkoak; d) Primarioak; e) Sekundarioak (1).

Euskeraren handik honakoan, jatorrizko diptongo askoren era bateko edo besteko aldaketa sortu da, batzuetan diptongoa monoptongatuz eta beste askotan epentesis kontsonantiko batez apurtuz.

Beste alde batetik eta batez ere mintza-mailan, jatorrizko diptongorik egon ez den kasu askotan egin egin dira diptongo bereziak grupo fonikoen barruko mintzajokoan.

Zeberrioko euskerari dagokionez, era guztietako diptongoak entzuten dira eta gehiagokobarik, goazen banan-banan aipatzera:

#### 1.—BEHERANZKOAK (primarioak zein sekundarioak).

1.1.—"AU": Diptongo hau oso ugaria dugu Zeberrioko euskeran:

"gaur		[gau̯r̃]
lau		[lau̯]
gausa	lit. gauza	[gau̯sa]
au"	lit. hau	[au̯]

Ahozkeraren berberetako beste diptongo sekundario asko egiten dira bokale arteko kontsonanteren bat galdu ondoren.

"nausi	lit. nagusi	[nau̯si]
dauket	lit. da(d)ukat	[dau̯ket]
auldu	lit. ahuldu	[au̯ldu]
auntz"	lit. ahuntz	[aun̯c]

Honezaz gainera talde honetan sartu behar ditugu "EU" diptongotik datozen guztiak.

1.2.—"EU" diptongoa jatortasunez erabilten bada ere sarri askotan "AU" egitera etorri da.

Primarioetatik hasita hona hemen jasotako adibide batzuk:

"nau	lit. neu	[nau̯]
naurri	lit. neurri	[nau̯ri]
auskera	lit. euskera	[au̯skera]
daust"	lit. deust	[da̯ust]
etab...		

Sekundarioetara bagoaz, beste hainbeste gertatzen dela ikusiko dugu:

"auki	lit. eduki	[au̯ki]
aun	lit. ehun	[au̯n]
aulea	lit. ehulea	[au̯lea]
etab...		

1.3.—"AI": Diptongo hau ere oso ugaria dugu Zeberiko euskeran.

Primarioak jatortasunez erabiltzen dira jarraian beste bokale bat ez badago:

"bai	lit. bai	[bai̯]
ibai	lit. ibai	[i̯bai̯]
nasai"	lit. nasai	[na̯sai̯]
etab.		

Sekundarioak ez dira bat ere urriagoak:

"bai	lit. bahe	[bai̯]
nai	lit. nai	[nai̯]
aitu"	lit. aditu	[aitu̯]
etab...		

Lehenago ere esan dugunez, diptongo honen jarraian beste bokale bat badago "AI" diptongoaren bigarren elementua ez da hain argia eta espektrogrametan ere horrela agertzen da "Y" balitz bezala.

"nasaya	lit. nasai	[na̯saya]
baya	lit. bahea	[baya]
anaya"	lit. anaia	[anaya]
etab...		

Sail hau osatzeko ezin ditugu ahaztu “EI” diptongoaren ahozkerak aldaketatik datozenak.

1.4.—”EI”: Diptongo hau ere era bitara entzuten da, eta jatorrizkoa gorde gordetzen da:

“odei	lit. hodei	[odei]
sein	lit. zein	[séin]
erein	lit. erein	[erein]
sei”	lit. sei	[séi]
etab...		

Sekundarioak ere gordetan dira:

“bei	lit. behi	[bei]
eisu	lit. egizu	[eísu]
beitu”	lit. begitu	[beitu]
etab...		

Hori horrela bada ere, sarri askotan “EI” > “AI” egitera etorri da primario zein sekundarioetan:

Primarioetan:

“sai	lit. sei	[sai]
erain	lit. erein	[erain]
odai”	lit. odei	[odai]
etab...		

Sekundarioetan:

“bai	lit. behi	[bai]
gaitu	lit. deitu	[gaitu]
bai”	lit. bedi	[bai]
etab...		

1.5.—”OI”: Kasu honetan ere era bietakoak aurkitzen dira.

Primarioak:

“goi	lit. goi	[goi]
gois	lit. goiz	[gois]
koipe”	lit. koipe	[koipe]
etab...		



Sekundarioak:

“oi	lit. ohe	[oi]
oin	lit. orain	[oin]
loi”	lit. lohi	[loi]
etab...		

Kasu honetan ere, “OI” diptongoari bokele bat jarriz gero jarraian, sarritan “I” > “Y” egiteko joera dago.

“OI” diptongoa dela eta, fenomeno kurioso bat ari da gertatzen Zeberio 40 urtetik beherako belaunaldikoen artean.

Hainbat kasutan, eta adinekoek jatortasunez ahozkatu arren, guk beste gazteagok “OI” > “UI” egiteko joera daukagu, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

1.6.—“UI”: Jatorrizkoak ez dira hain ugariak baina hala eta guztiz ere hona hemen batzuk:

“suin	lit. suhi	[suin]
ipuin	lit. ipuin	[ipuin]
kui	lit. kui	[kui]
sagardui	lit. sagardui	[sagaɾdwi]
Arandui”	lit. arandui	[arandwi]
etab...		

Lehen esan dudanez, eta belaunaldi gaztearen “OI” > “UI” egiteko joera kontutan hartuz asko ugaritzen da ugaritu ere sail hau.

“gui	lit. goi	[gui]
lui	lit. lohi	[lui]
uin	lit. orain	[uin]
ui”	lit. ohe	[ui]
etab...		

Adibideok, beheranzko erara transkribitu ditut baina goranzko erara ere aurkitzea bidezko da grupo fonikoaren arabera.

“sagardui”	lit. sagardui	[sagaɾdwi]
“lui”	lit. lohi	[lwi]
etab...		

## 2. GORANZKOAK (primarioak zein sekundarioak).

Goranzko diptongoen banan banakoari ekin aurretik L. Mitxelenak bere F.H.V.n honetaz dioenarekin bat natorrela esan behar dut (2).

Baina beste alde batetik Zeberioiko euskera biziko grupo fonikoak aztertu ondoren hainbat eta hainbat goranzko diptongo agertzen zaizkigu azentu eta entonazioaren eragina bitarteko delarik (3).

Askoren arteko jasoketa bat egin dut eta hor dira espektrogrametan, 139 garretetik 166 garrenerainoko zerrenda zatian (4).

Banoa ba banan banako aipamenera baina ez ahaztu ahozkeraren mugagabetasuna, azken baten, hizkuntza mintzatua bizitzaren tresna da eta grupo foniko berberak ahozkerara bat baino gehiago izan dezake.

### 2.1.—"IA" [JA]

"iturrialde"	[itu <sup>̃</sup> rja <sup>̃</sup> lde]
"andiandi"	[a <sup>̃</sup> ndja <sup>̃</sup> ndi]
"argiargi"	[a <sup>̃</sup> rgja <sup>̃</sup> rgi]
etab...	

### 2.2.—"IE" [JE]

"bieti"	[bje <sup>̃</sup> ti]	(behetik)
"audienean"	[a <sup>̃</sup> udje <sup>̃</sup> nean]	(eudenean-eueenean)
"aspienda"	[a <sup>̃</sup> spje <sup>̃</sup> nda]	(azpian da)
etab...		

### 2.3.—"IO" [JO]

"asiordu"	[a <sup>̃</sup> sjo <sup>̃</sup> rdu]	(hasi ordu)
"Uriondo"	[urjo <sup>̃</sup> ndo]	(toponimoa)
"arriotza"	[a <sup>̃</sup> rjo <sup>̃</sup> ca]	(harri-hotza)
etab...		

### 2.4.—"IU" [JU]

"biune"	[bjune]	(behar doguna)
"gariurte"	[garju <sup>̃</sup> rte]	
"gariurune"	[garjurune]	(gari-uruna)
etab...		

2.5.—"UA" [WA]

"Iruatxeta"	[irwaçeta]	(toponimoa)
"sartualde"	[sartwalde]	(sartu alde)
"eskuartean"	[eskwařtean]	
etab...		

2.6.—"EU" [WE]

"barruenda"	[bařwenda]	(barruan da)
"barruenyaok"	[bařwenyaok]	(barruan jagok)
"galduen dao"	[galdwenda]	(galduen dago)
etab...		

2.7.—"UO" [WO]

"ortuondora"	[ořtwondora]	
"artuorduko"	[ařtwořduko]	
"aistuorduko"	[aiřtwořduko]	(ahaztu orduko)
etab...		

3.—DIPTONGO "BEREZIAK" (5).

Diptongo bat osatzeko bokale silabiko bat eta erdi bokale edo erdi kontsonante bat behar da (6).

Baina Zeberioko euskeran, hainbat alditan, bokale silabiko bi silaba baten egiten dira eta diptongo funtzioa bete arren bokale silabiko biak ahozkatzen dira.

Hona hemen aurkitutako kasuak: "EA, OA, EO, OE, AO." eta Zeberioko triangulo bokalikoa aztertzean esandakoa kontutan hartzen badugu ez da harritzekoa fenomeno hau (7).

Funtzioa,, diptongoarena dela esan dut eta hala da izan ere, kasuan kasuko bietariko bokale bat oso itxia delako eta bokale itxi horrek erdi bokale edo erdi kontsonante balioa hartzen duelako.

Adibideak dira argigarrienak eta goazen kasu bakoitzaren berri ematera.

3.1.—"EA" [EA] (8)

"bearra"	[beāra]	(bearra)
"beada"	[beáda]	(behar da)
etab...		

3.2.—"EO" [EO]

"beosu"	[beósu]	(behar dozu)
"beorrek"	[beóřek]	(berorrek)
etab...		

3.3.—"OA" [OA]			
"osoan yaok"	[os <sup>o</sup> áñ <sup>ñ</sup> yaok]	(osoan jagok)	
"yoan da"	[y <sup>o</sup> ánda]	(joan da)	
etab...			
3.4.—"AO" [AO]			
"yaok"	[y <sup>a</sup> ok]	(jagok)	
"daos"	[dáos]	(dagoz)	
etab...			
3.5.—"OE" [OE]			
"soloerdi"	[sol <sup>o</sup> er <sup>é</sup> rdi]	(solo erdi)	
"ondoestea"	[on <sup>o</sup> do <sup>é</sup> stea]	(hondo-hestea)	
etab...			

#### 4.—DIPTONGO-DESEGITEAZ

Egiten diren diptongoen berri eman ondoren, hawaitik edo horregatik egiten ez direnen berri ematea ere ondo letorke (9).

Euskal Herrian zehar diptongoak apurtzeko joera handia badago,

Zeberion berdin gertatzen da eta labur baino ez bada ere hona hemen adibidez lagunduriko sailkapen hau.

##### 4.1.—Sabaiketaren eragina.

Diptongoaren bigarren elementua "i" denean, askotan jarraian datorren kontsonantea sabaitu egiten du eta fonema-elkartze horretan diptongoa bera ere apurtu egiten da.

* "talletu"	[tal <sup>l</sup> etu] (10)	lit. teilatu/tellatu?
* "ollar"	[ol <sup>l</sup> ar]	lit. oilar/ollar?
"axea"	[a <sup>l</sup> xea]	lit. haizea
"atxa"	[a <sup>l</sup> xa]	lit. haitza
"oñes"	[on <sup>l</sup> es]	lit. oinez
etab...		

Diptongoaren "i" horren jarraian bokale bat doanean fenomeno berezi bat gertatzen da eta bietara ulertu daiteke: aurrekoaren bokale-erdia edo atzekoaren kontsonante-erdia: Adibidez: lit. baina = "baya/baia" [baya]/[ba<sup>i</sup>ia;] eta horren antzean beste kasu asko.

#### 4.2.—Monotongazioa.

Sabaiketatik kanpo, gazteleratik hartutako diptongodun hitzak monoptyongatzera joan gara neurri handi baten.

Gai hau maixuki azaldu du L. Mitxelenekek bere F.H.V.n eta nire aldetik baieztatu baino ez dut egingo Zeberioako adibide batzuk jasoz (11).

“armosu”	(almuerzo)
“merinda”	(merienda)
“soltu”	(suelto)
“gubernue”	(gobierno)
etab...	

Denà den, ez dugu ahaztu behar euskerak latinetikako bokaleak gorde egin dituela eta horregatik kasu batzuk gazteleratik begiratu gero, monoptyongazioa dira baina latinetik begiratu jarraipen hutsa (12).

#### 4.3.—Epentesis bidezko monoptyongazioa.

Hauxe dugu diptongoak apurtzeko beste fenomenoetariko bat. Diptyngodun hitz mailegu asko eta asko epentesis kontsonantika baten bidez diptongo gabe gelditzen dira euskeraz silaba bat gehiago eginaz.

“sugertea”	(suerte)
“biboline”	(violin)
“igeltzo”	(yeso)
etab...	

### 5.-BOKALEAK HIATOAN

Diptongazioan kasuistika ugari aurkitu badugu, hiatoan beste hainbeste gertatuko da. Labur baino ez bada ere, goazen adibideak bitarteko direlarik banan banakora.

1.—“-A+A>EA”. Adibidez: “alabea, ormea, gausea, ankea, sarea, bernea...” etab.

Kasu batzuetan, “EA” bukaeradun hitzak “A” organikotzat jo ditugu: “laba, bela” baina jatorrizkoak, labe, bele dira.

- 2.—"-A+E > AE": Adibidez: "ará es, oná es, orrá es" etab.  
 " > AI". Adibidez: "gastai, kanpai, galbai" etab.  
 " > E". Adibidez: "kantetan, anketan, gausestala".
- 3.—"-A+O > AO". Adibidez: "berá ok, está on, etab".  
 " > O". Adibidez: "bok espok, gauson, etab".
- 4.—"-E+A > EA". Adibidez: "fedea, epea, berdea, etzea...".
- 5.—"-E+E > IE". Adibidez: "sarie, daurie, aurien...".  
 " > EA". Adibidez: "etzeatan, landareatan...".
- 6.—"-E+O > EO". Adibidez: "béot, edéok, erré ok, etab.".   
 " > O". Adibidez: "txixok, idok, etab...".
- 7.—"-O+A > OA". Adibidez: "astóa, estóa, agóa, ollóa, mandóa, lé  
 loa, txúxoá...".
- 8.—"-O+E > OI". Adibidez: "sasoi, erresoi, kamioi...".  
 " > OE". Adibidez: "ondóes, esó es, txartó es".
- 9.—"-O+O > OO". Adibidez: "besóok, artóok, etab...".  
 Batzuetan ez da hain argia baina edozein kasutan  
 "O" luzea da.
- 10.—"-I+A > IE". Adibidez: "txoríe, mendíe, egíe, astíe".
- 11.—"-I+E > IE". Adibidez: "orí es, argi es, gasí es...".
- 12.—"-I+O > IO". Adibidez: "txoríok, garíok, bisí(d)ok".
- 13.—"-I+U > IU". Adibidez: "ikisíu, lit. ikasi dogu; "bíu", lit. behar  
 dogu, etab...".
- 14.—"-U+A > UE". Adibidez: "burúe, mundúe, eskúe, etab...".
- 15.—"-U+E > UE". Adibidez: "galdú es, estú es, gú es...".
- 16.—"-U+I > UI". Adibidez: "estú in, artú in dau...".
- 17.—"-U+O > UO": Adibidez: "eskúok, artúok (hartu dok)".
- 18.—"-U+U > UU". Adibidez: "artúu (hartu dogu) etab...".

Jasotako adibidetan ikusten denez, esandako guztia egia da baina adibide berberok aldakorrak gertatzen dira grupo fonikoaren arabera. Batzuetan hiatook diptongo bihurtuko dira eta inoiz, asimilazioz, bateratu ere.

## 6.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Mitxelena, K. 1961, F.H.V. IV. Kap. 87 or. eta 485 garrenean osatua. 1977.
- (2) Mitxelena, K. 1961, F.H.V. IX. Kap. 167 or. eta 515ean osatua. 1977.
- (3) Ikus azentuaren kapituluko herri-adibideak eta eurei dagozkien espektrogramak.
- (4) Ikus 139tik 166rako espektrogramak eta zerrenda barruan bakoitzaren fonetika-ezaugarriak.
- (5) "Bereziak" deitura hau, nik neuk asmatua da, bokale silabiko teoriko bi silaba baten egiten direnean adierazteko.

- (6) Mellet, A.1965.
- (7) Ikus Zeberioiko triangelu bokaliko gaztelerazkoarekin konparatua.
- (8) Bokale silabiko bi baten egitean, bata itxia da eta hori adierazteko itxi horren azpian (.) jarri dut, bai goranzkoetan eta bai beheranzkoetan.
- (9) Mitxelena, K. 1961, 1977. Diptongos.
- (10) "tellatu" edo "tallatu" ere entzuten da.
- (11) Mitxelena, K. 1961, 1977. Diptongos. IV. Kap.
- (12) Mitxelena, K. 1961. 1977. Diptongos. IV. Kap.

## IV. ZEBERIOKO EUSKARAREN KONTSONANTISMOA

Euskeraz daragoiodan aldetik eta arlo hau aztertzeko infraes-  
truktura lexikoa oraindik zehazki finkatu gabe dagoenez, didakti-  
kari begirako terminologia erabiltzearen alde nago eta hauxe da  
nire bidea (1):

Gaztelerazko “Punto de Articulación” AHOSKUNEA bezala da-  
rabilt eta bere ezaugarria “-KO” izango da, izan ere tokia adierazten  
duelako.

Gaztelerazko “Modo de Articulación” AHOTS MOLDEA “bezala  
darabilt eta bere ezaugarria” -(K)ARI.

Gaztelerazko “SONORA-SORDA” “OZENA-GORRA” izango da.

Beste alde batetik eta kontsonanteen azterketa-ordenari dago-  
kionez, nik neuk jarraituko dudana bidea “AHOSKUNEA” oinarrit-  
zat hartutakoa izango da gero alofono guztietara heltzeko.

Arlo honi hasiera emateko hona hemen Zeberioeko euskeraren  
FONOLOGIAko taula, bere izendegi eta guzti.

FONETIKArako transkripzio Fonetiko-Filologikoa erabiliko dut  
beti ere egokiturik.



ZEBERIOKO FONEMA KONTSONANTIKOAK

AHOSKUNEA -KO

AHOTS MOLDEA	Ezpainetako	Ezpain-hortzetako	Hortzetako	Bizkar-hobietako	Goi-hobietako	Sabaiaur eta sabaiko	Beloko	Glottisko
Leherkari Gorrak	p		t				k	
Leherkari Ozenak	b		d				g	
Sudurkariak	m				n	ñ		
Frikariak		f				y	(j)	
Frikariak Txist.					s	x		
Afrikariak				tz		tx		
Saiheskariak					l	ll		
Dardarkari bak.					r			
Dardarkari ask.					rr			

-KARI

## 1.—EZPAINETAKOAK.

### 1.1 /P/ EZPAINETAKO — LEHERKARI — GORRA [P].

Alde batetik, esandako definizioaren arabera agertzen da fone-  
ma hau Zeberioko euskeran.

Tokiari dagokionez, edozein tokitan agertu daiteke, esate bate-  
rako: “posik, pekatu; apoa; eup!”.

Beste alde batetik, eta L. Mitxelenak (F.H.V.)n (4) azterturik dau-  
kanez, Zeberion ere mailegu zaharretan batez ere, “b-” agertzen da:  
“berna, bake etab...”.

Gaur egun “f” nagusitzen ari bada ere, badira oraindik “f”ren  
ordezko “p” bat edo beste batez ere izen propioetan: “Pilipa,  
Pantxike, Prantzisko; posporo, etab.”.

Jatorritik kanpo ere hainbat bider agertzen da hots hau baina  
“b”ren gorketaz den aldetik /b/ aztertzerakoan sakonduko dut.

Espektrogramak aipatuz, oso interesgarria litzateke alde batetik  
“p” eta “b” konparatzea lehenengoaren gortasuna eta bigarrena-  
ren ozentasuna ikusteko; (ikus 33 eta 34 espektrogramak).

Baina hortik aparte sarri askotan “p” eta “b” biak agertzen dira  
gor bezala (ikus 297, 298, 299... espekt.).

Baina gor bezala agertu arren bada espektrograman bereizgarri  
bat eta haxe da: “p” gorra dela adierazteko aspirazio barra bat  
agertzen da konstante lez eta hortxe bereizten da kasuotan “b”  
rekin. (ikus 12, 33, 297... espekt.).

Hiztunen mundua berezia da eta beti ez bada ere, sarritan jaso  
ahal izan gut neure transkribapenetan “DA” lit. ETArek erabilera.

Kasu honetan “E-” gabe egiten da lokarri kopulativo hau baina  
sarritan ozendurik agertzen da. Nire ustez, aurreratxuago aipatu  
dugunaren arabera, hemen ere “TA” leherkari gorra denez hasiera  
absolutoan ozen egiteko joera zabaldu da eta hortik berri-emaile  
askoren: da... da... da...

Dena den, aurkitu, hiru eratara aurkitzen da: ETA-TA-DA.

### /b/ EZPAINETAKO — LEHERKARI — OZENA [b]

Leherkaritasun hau alde batetik hasiera absolutoan gertatzen  
da eta bai ta “n”ren atzean ere. Ikus, 34 eta 252 espekt. kasu biak  
baieztatzeko.

Mintzaera era askotakoa da bakoitzaren egoeraren arabera eta  
horregatik hasiera absolutoak zati handi baten norberagan daude.

Beste alde batetik, grupo foniko batzuetako kontsonante ahoz-  
katzeak bide bat baino gehiago du batean bestean.

Har dezagun grupo foniko hau: “NIK BAI”. Ba, “nik” horren “-k” ahozkatzen bada, datorren “b-” leherkaria dugu, hasiera absolutoa balitz bezala, bestela zelan ahozkatu?

Beste kasu baten, eta Zeberion hau nagusitzen da, “-k” hori galdu egiten da baina “b-” gortu egiten du “p” eginaz, hau da, “nipai”: ahoskunea nagusitu da baina Ahots Moldeak gortuz.

Berdin gertatzen da “-t + b-”; “-k + -b” eta “(E)-Z + b-” elkar jotzeekin.

Xistukariaren kasuan kontu handia izan behar da, gortzerik ez balego “b-” frikari bihurtzen delako. Har dezagun herriko adibide bat eta era bietara ahozkatu:

	(Zeb.)	“espada”	[eʃpaða]
lit. EZ BADA	(xx)	“esbada”	[eʒbaða]

Batera egin edo bestera egin, asko aldatzen da eta etorkizunari begira, herriko berezko legeetara jo behar genukela uste dut.

“N-”ren ondoko “b-” leherkaria dela esan dugu eta hala da, baina jaso ditudan kasu batzuetan leherkari ezeze gortu eta “p” bihurtzeraino heldu da batez ere grupo foniko eginetan.

Esate baterako:

“aginpide”	[agimpide]
“eskonparri”	[eʃkompaɾi]
etab...	

“1-” kasuan ere berdin gertatzen da:

Esate baterako: “ibilpide” [iβilpide].

Ozentasunari buruz, espektrogrametan argi ta garbi agertzen dira bandak eta agertuko ez balira ere aspirazio barrarik gabe agertzen dira, aurreragoan aipatu dudanez.

/b/ EZPAINETAKO – FRIKARI – OZENA [b]

Gehienbat, aurreragoan leherkarirako aipatu ditugun kasuetatik kanporako guztietan agiten da frikari lez.

Espektrogrametan ere jaso ahal izan dut eta horra hor adibidez: 1, 22, 43, 62, 82... espekt.

Aipaturiko espektrogrametan ere ezberdintasunak ageri dira; eta kasu batzuetan frikari garbiak badira ere beste batzuetan ez dago hain argi eta berriro goaz lehenago esanera: mintzaeraren etenak edo erdi etenak ez dira beti berdinak eta hitz egitearen

jariotasuna nahinon aldatzen dugu eta jakina, espektrogrametan, esana agertzen da.

Esberdintasun honen beste faktore bat azentoa litzateke, bokelea indartzean lehertuago egiten delako aurreko kontsonentea.

Azkenez, indar gutxiko mintzaeran baliteke hasieran ere frikariak egitea eta sarritan espektrograman agertu ere ez egitea. Ikus, adibidez 105 espekt. beste batzuen artean.

Izan ere fenomeno hau ez da harritzekoa. Guk idatziaren kontzientzia daukagu sarritan baina batzuetan fonema batzuk esan ere ez ditugu egiten.

Bide honetatik, eta zehaztuz, “b” frikari hau errez galtzeko joera dago euskera bizian batez ere bokale artean.

### “U”ren Kontsonantizazioa

Bizkaiko mintzaera zati baten eta forma literarioan hain zuzen, “U” > “B” egiten da. Adibidez: “neuan = NEBAN; “gaua = GABA; etab.

Baina Zeberioako euskeran, aditzean behintzat ez da hori gertatu: Adibidez: “neuan = NAUEN”; eta beste kasuan “B” egiten da baina “U” galdu barik: “gaua = GAUBE”.

### “B” alternantzia

Alternantziak aipatuz, ezpainetako baten ordez beste ezpainetako bat egitea erreza da eta hona hemen jasotako adibide pare bat: “bai — mai; banatu — manatu; etab (5)”.

Beste kasu batzuetan, ozena izanik, ahoskune ezberdineko bat edo besterekin gertatzen da alternantzia:

Adibidez:

“suge-suba”; “abe — age” etab...

Lehenago esan dugu “-Z + B- > -P-” egin dezakela eta egiten duela, baina ez beti.

“EZ” proklitikoaren ordez instrumental bat hartzen badugu, ez dago gorketarik.

Adibidez:

“oñes basatos	[o <sup>ñ</sup> ez <sup>†</sup> ba <sup>s</sup> atos <sup>†</sup> ]	lit. oinez bazatoz
“burus bada”	[buruz <sup>†</sup> ba <sup>d</sup> a]	lit. buruz bada

Gortzen ez den kasuetan ezpainetakoa frikari egiten da eta sibilantea ozena.

## /m/ EZPAINETAKO – SUDURKARI – OZENA [m]

Alde batetik jatorrizkoak ditugu eta ez dute aparteko esan beharrik.

Dena den, hemen ere eta “b” fonemara hurbiltzen den neurrian ikusten dira aldakuntzatxo batzuk. Ikus bada 9 eta 50 espektrogrametan “m” biak.

Beste alde batetik, literaturarako “N” onartu arren fonetikan “m” dira “P eta B”ren aurreko “N”ak.

Adibidez: 252 espekt.

Asimilazioa.

Sudurkari bikote hau: “-n + m-” elkartzen direnean ezpainetako nagusitzen da.

Adibidez: “aldamoduen” lit. Ahal dan moduan.

## 2. EZPAIN-HORTZETAKOAK

### 2.1. /f/ EZPAIN-HORTZETAKO – FRIKARI – GORRA [f]

Zeberioko euskeran ondo ikasi da fonema honen hotsa eta oraindino “p” rekin egiten diren kasu apurrak kenduz gero, jatorrisunean darabilgu.

Dena den, eta espektrogrametara joanik, (ikus: 3, 24, 45, 64, 84 espekt.) “f”k ere ehoskera ezberdinak dituela konturatuko gara batez ere azentuaren posizioa zehatz begiratzen badugu.

“F” > “P” egiten diren kasu apurretarako ikus honi buruz 1.1.ean esandakoa.

## 3. HORTZETAKOAK

### 3.1. /t/ HORTZETAKO – LEHERKARI – GORRA [t]

Alde batetik, esandako definizioaren arabera agertzen da fonema nau Zeberioko euskeran.

Espektrogramak ere hor dira eta ez dago ikustea baino: 16, 37, 57, 76... espekt. aspirazio marka eta guzti.

Beste alde batetik, jatorrizkoa ez den, baina gorketa baten bidezko “t” bat ere agertzen da baina “d” aztertzerakoan sakonduko dut.

Kontsonante leherkari gorra galtzea ez da izaten hain erreza baina batzuetan grupo fonikoaren barruko elkar-joteetan galdu ere egiten dira.

Har dezagun grupo foniko hau: “bat parean”: Bide bi daude: edo biak ahozkatu, derrigorrezko eten bat eginaz, edo “-t” galdu “p-” nagusitzeko.

Fenomeno hau ez da kasu honetakoa bakarrik, eta gertatzen den kasuetan hizkuntzaren eufonia eta ekonomian oinarritzen da.

L.Mitxelenak esandakoa baieztatuz (6), Zeberion ere hasieran ozen bezela agertzen da: “denpora, denda, etab. baina gaur egun, geroago eta erderaren eragin gehiago ageri da eta mailegu berrietan gor bezala ahozkatzea ez da harritzekoa.

### 3.2. /d/HORTZETAKO — LEHERKARI — OZENA [d]

Lehenengo eta behin, hasiera absolutoetan aurkitzen dugu leherkaritasun hau.

Hasiera absolutoetatik aparte, “N/L + d-” kasuetan era gertatzen da leherkaritasuna.

Aipatutako kasuetarako adibide asko dago baina nahiko litzateke: 183, 140, 150 espekt. ikustea.

Beste kasu batzuetan, grupo fonikoaren barruko kontsonanteen elkar jotetik “d-” > “-t” egitera etorri da. Esate baterako: “batator” lit. bat dator; “atarak” lit. ha(r)k dakar; “estator” lit. ez dator.

Ezpainetako leherkariaren kasuan esan dugunez, hemen ere bigarren fonemaren ahoskunea nagusitu da baina lehenengoaren gortasunaz gortuta.

Fonemen bikotetasun honetan bada kasu bat euren arteko oreka batera heltzen dena eta hau da: goian aipatu dugun “batator”.

Konstante bezala bigarren fonemaren ahoskunea nagusitzen dela esan dugu baina kasu honetan biak dira ahoskune berekoak eta jakina, gorra nagusitzen da aurrean egon arren. Berdin gertatuko da geroago “-k + g-”rekin.

Gorketa hau ikusteko hor duzue adibidez, 256 espekt.

Berrito aipatu behar dugu hemen indar gutxiko mintzaera eta horrelako kasuetan, ez bakarrik hasierako leherkari ozenak, leherkari gorra ere, ozendurik ahozkatzen dira.

Adibide lez, neure transkribaketetan hainbeste bider aurkitutako bat dakart aurrera: “da” lit. eta, lokarria agertu ere, zein kontsonante zein bokale ondoan egiten da.

Ezaguna bada ere, gogoratu, kasu hau ere “N eta L”ren eraginezko ozenketa barruan dagoela: “andik, Madrildik...”.

### 3.3 /d/ HORTZETAKO – FRIKARI – OZENA [d̥]

Lehen, leherkarirako esan ditugun kasuetatik kanporako guztietan egiten da frikari.

Espektrogrametan ere horrela agertzen da batez beste: ikus, 2, 23, 44, 63, 83... espekt.

“b”ren antzera errez galtzen da hortzetako frikari hau eta fonetikako legeen barruan.

alternantziak ere baditu “r” zein “l” rekin ahoskune berberekoak izan ez arren.

“EZ” proklitikoak “d” gortzeko indarra badu ere, beste kasuetan gortu gabe ere gelditzen da, frikari jarraituz eta sibilantea ozenduz.

Azken kasurako adibide asko dut eta nahiko da 263, 281... espekt. ikustea.

### 3.4. “-TU > -DU > -U” PARTIZIPIO BUKAERA.

Aditzaren arlokoa bada ere, fonetika aldetik hemengoa da eta ugaritasunari begira aipatu beharrekoa.

Zeberrioko euskeran “-TU” partizipioak askotan darabilgu latinetikako jatorria zainduz, baina sarri askotan erromantzearen eraginezko ozendua artu da bokale arteko, Hortzetako-Frikari-Ozena, galduz eta bigarren mailako diptongoa sortuz (7).

Adibideak ugariak baino ugariagoak dira eta hona hemen zenbat gura eta horrexenbeste:

“kantau  
olgau  
erresau  
amatau  
soltau  
amarrau  
nastau      lit. nahastu  
apartau  
sugertau  
sustau  
gustau  
labrau  
akabau...”  
etab...

#### 4. BIZKAR-HOBIETAKOAK

##### 4.1. /z/ BIZKAR-HOBIETAKO – FRIKARI – GORRA [s]

##### 4.2. /z/ BIZKAR-HOBIETAKO – FRIKARI – OZENA [z]

Zeberiko euskerari dagokionez, definizio teorikoaz bakarrik baliatu naiz, Zeberion fonema honen ahozkeria jatorra galdurik daukagulako (8).

Ahaleginak egin ditut espektrograma bidez ere argibideren bat bilatzen baina Goi-Hobietakoak nagusitu direla esan behar dugu. Ikus, 132, 133, 134, eta 135 espekt.

Gaurko ahoskune bizian aipatuko baditugu ere, fonema hau sabaitu egin da “i” baten eraginez batez ere belaunaldi erdiko eta gazteetan.

##### 4.3. /tz/ BIZKAR-HOBIETAKO-AFRIKARI – GORRA [c]

Jatorrizko zein besteko, ugaria da fonema hau Zeberiko euskeran.

Teoria mailan, afrikari baten denpora bi daude, leherketa eta frikatasuna.

Ikusten baditugu, 19, 40, 60, 79, 105... espekt., hauxe ikusteko aukera dugu: kasu batzuetan espektrogramaren goitik beherako horretan argi ikusten dira denpora biak bereiztuta, baina beste batzuetan goi aldean ez dago hain argi leherkaritasun hori.

Kasuistikan sarturik, jatorrizko ez diren hots bat baino gehiago egiten dira “tz” hotsez Zeberiko euskeran.

Ugarienetarikoa “TS > TZ” egitea dogu eta adibideak ia-ia berba-ko aurkitzen dira: Adibidez: “esan dotzut..., indertzu..., otzoa... etab...”.

Badira, kasu aipagarriak ere, esate baterako “ETZE, ITZESO...”.

Jatorrizko fonema “TS” zen eta askok eta askok “TX” fonemaren bidez egiten badute ere, Zeberion “TZ”z egiten da. Ikus, 40 espekt.

“EZ” proklitikoia “Z”z hazten den aditz forma batekin elkartzen denean “TZ” egitea da bidezkoena Euskalerrian zehar eta Zeberion ere oraindik adineko batzuegan horrela da, baina gehienok beste bide bat hartu dugu gaur egun eta hauxe da: sibilante biak asimilatu eta Bizkar-Hobietakoa ahozkatzen ez dakigun neurrian, Goi-Hobietakoa egiten dugu “S” balitz lez. Ikus, 135 espekt.

Jatorrizko “Z”tik datozenak ere ugariak dira eta batez ere toponimo eta izen propioetan agertzen dira.

Bere ahoskunean aipatuko badugu ere, fonema hau “i” baten eraginez sabaitu egiten da.



## 5. GOI-HOBIETAKOAK

### 5.1. /s/ GOI-HOBIETAKO-FRIKARI — GORRA [s̺]

Fonema honen barruan, jatorrizko zein “Z”tik datozen guztiak sartzen dira eta fenomeno hau konstante lez joko nuke Zeberioko euskeran.

Espektrogrametan ere argi ikusten da eta horra hor kasu bieta-koak: 15, 36, 66, 100, 132, 134... espekt.

### 5.2. /s/ GOI-HOBIETAKO-FRIKARI — OZENA [z̺]

Goian aipatutako kasuak, sarritan kontsonante ozen bat daramate jarraian eta elkar-jote horretan bide bi daude.

Bata, gortzea da, hots, jatorrizkoak gor jarraitu eta jarraian dato-  
rren ozena gortu ahal denean, beti ezin bait da: adibidez “-s + n”.

Bestea, biak ozen egitea. Batzuetan lexema bera izango da eta beste kasu askotan grupo foniko luzeagoa.

Adibidez:

“esne”	[eʒne]
“asmo”	[aʒmo]
“beresdabil”	[beraʒdabil]
“esgausa”	[eʒgausa]
etab...	

Espektrogrametara bagoaz, argi ikusten da sibilantearen ozen-  
tasuna, batzuetan beste batzuetan baino argiago.

Horregatik nik neuk, ozenaren ondoan “ozendua” ere erabiliko  
nuke jatorrizko kontsonante ozenek beste bat ozentzeko duten  
eragina kontutan izanik.

Argibide bezala, ikus, 266, 267, 268, 269, 277, 278, 279... espekt.

Goihobietakoez gain “S” irauliren baten bila ere ibili naiz baina  
ez naiz ausartzen baietzik esaten beste norbaitzuk (Txillardegik,  
N'DIAYEk...) horren berri eman arren.

### 5.3 /ts/ GOI-HOBIETAKO — AFRIKARI — GORRA [t͡s̺]

Zeberioko euskeran, fonema hau ez da ahozkatzen eta bere  
ordez “TZ” darabilgu ia beti, noizbehinka “TX” ere entzuten dela-  
rik, batez ere, toponimoetan (9).

#### 5.4 /n/ GOI-HOBIETAKO – SUDURKARI – OZENA [n]

Edozein posiziotan agertzen da fonema hau eta ez du aparteko eragozpenik bere ahozkerak.

Bere alofonoetan sartu baino lehen, fonema hau errez sabaitze-ko joera dago Euskalerrian zehar bere ahoskunean ikusiko dugun moduan.

Baina hori horrela bada ere, Zeberrioko euskeran beste batzuk sabaitzen duten kasuetan guk jatorrizkoa zaintzen dugu. Esate baterako:

“mine”	[mine]	lit. mina
“agine”	[agine]	lit. hagina
“ondakine”	[ondakine]	lit. hondakina
etab...		

#### 5.5 /n/ HORTZETAKO – SUDURKARI – OZENA [ŋ]

Definizioak berak dionez, hortzetako fonema baten aurrean dagoanean gertatzen da.

Beste alde batetik, jatorrizko ahoskunea galtzen bada ere, jarraian datorren fonemarengan izan dezake bere eragina: Ozendu batzuetan eta leherkaritu lehendik ez bada.

Ikus, 114, 140... espekt.

#### 5.6. /n/ BELOKO – SUDURKARI – OZENA [ŋ]

Beloko kontsonante baten aurrean gertatzen da eta hemen ere jatorrizko ahoskunea galdu arren alde batetik ozendu lezake beloko leherkari bat eta leherkaria ez bada leherkaritu.

Ikus, 173, 199... espekt.

#### 5.7. /n/ EZPAIN-HORTZETAKO – SUDURKARI – OZENA [m]

“F” baten aurrean egiten den “n” bat dugu gau eta ez da normalean lexemetan aurkitzen baina bai grupo foniko zabalagoetan. Esate baterako:

“finfin”	[fɪmfin]	lit. fin-fin
“sanferminek”	[sãmfẽrminek]	lit. San Ferminak
etab...		

### 5.8. /l/ GOI-HOBIETAKO – SAIHESKARI – OZENA [l]

Edozein posiziotan agertzen da eta hemen ere hainbat kasutan jatortasunez zaindu dugu beste batzuk sabaitzen duten bitartean.

Adibidez:

“mutile”	[mutile]	lit. mutila
“opile”	[opile]”	lit. opila
“morokile”	[morokile]	lit. morokila
etab...		

### 5.9. /l/ HORTETAKO – SAIHESKARI – OZENA [l]

Hortzetako kontsonante baten aurrean sugertatzen da eta “n” ren antzean, bere atzeko kontsonantean eragina izan dezake, ozenduz eta leherkarituz lehendik ez bada.

Arlo honetan fenomeno berezi bat aurkitu dut Zeberioko euskeran eta hauxe da: “-lt-” agertzen den hitz maileguetan “-ilt-” egiten dela.

Esate baterako:

“sailtu”	[sai <sup>l</sup> tu]	lit. saltu
“ailtu”	[ai <sup>l</sup> tu]	lit. altu
“muiltea”	[mui <sup>l</sup> tea]	lit. multa
etab...		

### 5.10. /r/ GOI-HOBIETAKO – DARDARKARI – OZENA [r]

Dardarkari simplea dugu eta ez du aparteko eragozpenik ahozkatzean.

Errez galtzen da bokale artean zein beste kontesto batzuetan.

Adibidez:

“bere”	>	“be”
“bear da	>	“beada”
etab...		

Espektrogrametan ikusi nahi izanez gero, horra hor: 13, 34, 74, 79..., espekt.

### 5.11. /rr/ GOI-HOBIETAKO – DARDARKARI – OZENA [r̄]

Dardarkari multiplea dugu eta jatorrizkotik aparte, “r” bera ere “rr” egiten da posizioaren arabera.

Fonema honentzat ikus: 14, 35, 55, 75, 98..., espekt. eta interesgarria da “r” dela eta jasotakoekin konparatzea ezberdintasunak ikuteko.

Posizioari dagokionez, eta hasieran dagoenean, fonema hau, “E” edo “A” bokale protetikoak erabiltzen ditugu lehenengoa nagusitzen delarik.

Gaitik epur bat aldentzea bada ere, lekukotasun bat jaso nahi nuke eta hauxe da: “SER”, nola erabiltzen den Zeberion: “ser-A”; “ser bat”; “ser-tu”...; “r” simplea bokalekin bakarrik da, baina kontsonanteak jarraitzen badio, multiple bihurtzen da.

## 5.12. GOI-HOBIETAKOEN DISIMILAZIO-JOKOA

Fenomeno hau ez da Zeberioko euskerarena bakarrik, baina interesgarri deritzat lekukotasun batzuk emateari.

Arlo bietan gertatzen da fonomeno hau: grupo foniko mailegu zein bertakoetan.

Konbinaketa zabala da eta adibideak dira argigarrienak disimilazio mundu hau azaltzeko.

“erretolika”	[ẽretolika]	gazt. retórica
“bereno”	[bereno]	“ veneno
“alimu”	[alimu]	“ ánimo
“arkilau”	[ãrkilau]	“ alquila(r)

Euskerazkoen artean:

“lelengo”	[lenen̄go]	lit. lehenengo
“Elbarren” etab...	[el̄bāfen]	lit. herri barren (top.)

Fonemak bakarrik hartuz, hona hemen jasotako konbinaketa:

“R > L”  
 “N > R”  
 “N > L”  
 “L > R”

Disimilaziotik alde eginik, alternantziak ere badira, bai euren artean eta bai beste ahoskune batzuetakoekin ere; “Hortzetako “d”rekin esate baterako: “ida-ira” etab.

## 6. SABAI-AURREKOAK

### 6.1. /x/ SABAI-AURREKO – FRIKARI – GORRA [š̥]

Espektrogrametan ere jaso ahal izan dudanez, ikus, 17, 39, 58, 77, 103... espekt., jatorrizkoetatik aparte adierazkortasunez sortuak eta “i” bokalearen eraginezkoak ere egeri dira Zeberioko euskeran.

Adierazkorrak ez dira hain ugariak ume txikien tratamentutik kanpo.

Baina “i”ren eraginezkoak oso ugariak eta zenbat eta gaztea-goak ugariagoak. Beste kasu batzuetan lez hemen ere adineko eta gazteen artean aldakuntzak ikusten dira: Adibidez: Adinekoen artean errez antzuten da: “gisona” eta gazteok ostera: “gixona” etab...

Baina esan dudanez, sabaiketa hau zabala da eta hona hemen adibideak:

“axea”	[aš̥ea]	lit. haizea
“ixin”	[iš̥in]	lit. izan
“bixi”	[biš̥i]	lit. bizi
etab...		

### 6.2. /x/ SABAI-AURREKO – FRIKARI – OZENA [ž̥]

Aipatu aipatzen dut hots hau beina egia esateko sabaiko garbia egiten dela esango nuke.

Dena den hemen ere aipatzen dut beti ez delako hain argia geroago ikusiko dugun bezala.

### 6.3. /tx/ SABAI-AURREKO – AFRIKARI – GORRA [č̥]

Ugaria ere ugaria dugu fonema hau Zeberioko euskeran eta jatorrizkotzat hartutakoetatik aparte hor dira adierazkortasunezkoak nahinondik.

Beste sorburu bat aipatzeko “i” baten ondorioz sabaitutakoa dugu, eta ugari izan ere: “atx”; atxur”...

Badugu beste kasu ugari bat eta interesgarria benetan: grupo foniko barruko kontsonante batzuen elkar jotetik sortua. Goazen kasuak ikustera:

Zeberion “j” ozena egiten da gahienbat eta fonema hori aurrean: (E)-Z; -T; -K; direla aurkitzen denean “TX” egiten da argi eta garbi.

Adibideak edonondik atera daitezke eta aikomen baten batzuk:

“etxakiat”	[ečakiat]	lit. ez jakiat
“atxan dau”	[ačandau]	lit. Hark jan dau
“batxan dau”	[bačandau]	lit. bat jan dau
etab...		

Adibide gehiago ikusteko ez dago besterik aditza ikusi eta hita-noko formak begiztatzea baino.

Gutzi honen ezaugarri lez espektrograma jasoketa; 18, 59, 78, 104, 185, 258... espekt.

## 7. SABAİKOAK

7.1 /tt/ SABAİKO – LEHERKARI – GORRA [t̪]  
/dd/       ”                               ”               OZENA [d̪]

Aipamen hau berezia da, hots hau ez dagolako aztertutako lurraldean, ez gorra ez ozena. Norbaitek badirela esan du baina ez da horrela (10).

Aita, “aite” esaten da. Zaitut, “satut”. Egin da, “inde” eta horrela guztiak.

7.2. /ñ/ SABAİKO – SUDURKARI – OZENA [ɲ]

Hots hau, badaukagu Zeberiko euskeran eta ugari euki ere; horra hor, 11, 32, 52, 72, 95..., espektr.

Baina euskera biziaren transkribapenak egiterakoan “Ñ/N” alternantzia batzuk agertzen zaizkigu.

Hitz edo eta grupo foniko barruan jatorrizko zein beste “-i” dun diptongo baten jarraian dagoen “-N” batzutan sabaturik agertzen da. Adibidez: “oñes”, lit. oinez; “soñekoak” lit. soinekoak; etab... joera oso zabala beste lurralde batzuetan ere.

Baina beste hainbat kasutan, Zeberion ez dugu sabaitzen eta adibide lez hona hemen batzuk:

“sentzaine”	[sencaine]	lit. sein zaina
“usaine”	[usaine]	lit. usaina
“eraine”	[eraine]	lit. ereina
“mandasaine”	[mandasaine]	lit. mandazaina
“noseapeinean”	[noseapeinean]	lit. noizean behinean
“oinarte”	[oinarte]	lit. orain arte
“oines”	[oines]	lit. orain ez

“beinena”	[be̞i̞nena]	lit. behinena
“nainon”	[nainon]	lit. nahinon
“sein/SAINEK”	[s̞ai̞nek]	lit. zeinek
“edosinek”	[ed̞o̞s̞i̞nek]	lit. edozeinek
—ei—	[—ei—]	
—ai—	[—ai—]	
etab.		

Jasotako adibideak deklinabide osoan erabiltzen ditugu sabaitu gabe; esate baterako: “sainek, sainenizat, saineri, etab...; “nainon, nainora, nainondik. etab...”.

“N” sabaitu ez egiteko beste bide bat; monoptongatzea da, “i” galduz. Adibidez:

“gane”	[gane]	lit. gaina
“sana”	[sana]	lit. zaina
“espana”	[espana]	lit. ezpaina
etab.		

Diptongaziotik aperte, “i+n” fonemen elkartea suertatzen deanean, beste hainbeste gertatzen da Zeberioke euskeran. Aldebate-tik “Ñ” egiten bada ere, adibidez: “ondiño” lit. oraindino; “badiño” lit. badino; “kamiño” lit. kamino etab...; bestetik “N” gorde egin dugu eta ugari gainera. Esate baterako hona hemen jasotakoen artetik bat edo beste:

“agine”	[agine]	lit. hagina
“ekine”	[ekine]	lit. ekina
“Amabirjinea”	[amabi̞r̞x̞inea]	lit. Ama birjinea
etab...		

Betegarri bezala. Zeb. “baia” lit. baina, delako hau aipatu nahi nuke.

Gaur egun literaturarako onartu dugun “BAINA” oinarritzat hartuko bagenu, Zeberion bokale arteko “-N-” galdu eta “baia/baya” edo “baye” egitera heldu gara.

Baina Mitxelenak berak, zuzenketa oharretan ez zeukan argi “-N-” horren jatorria eta horregatik azkenean aipatzen dut kasu bakar hau, besterik ez bada behintzat planteaturik geratu dadin (11).

Sabai-aurre edo sabaiko kontsonante baten aurrean sugertatzen den “n” > “ñ” egiten da, izan ere sabaiko horren eraginez ahosku-nea aldatzen zaiolako.

Adibidez:

“antxe”	[a <sup>∨</sup> ŋçe]	lit. hantxe
“an yan”	[a <sup>∨</sup> ŋ <sup>∧</sup> yan]	lit. han jan
etab...		

Borobiltzeko, Zeberioako aditza ikusten bada eta hain zuzen hitanoa, datibo etikoa bitarteko delarik askotan agertuko zaigu: “-n + i-” > “ñ” eginik.

Adibidez:

“bañoak”	[ba <sup>∨</sup> ñoak]	lit. banioak
“bañatok”	[ba <sup>∨</sup> ñatok]	lit. baniatok

Hitanoan ezeze, zukan ere agertzen da datibo etikoaren eragina analogiaz egina bada ere.

Adibidez:

“bañoako”	[ba <sup>∨</sup> ñoako]	lit. banioako
etab...		

### 7.3. /j/ SABAİKO – FRIKARI – OZENA [j]

Hasteko, Zeberioako euskeran “j” fonema ozena egiten dela esan behar dut maileguetariko kasu batzuk gor bezala agin arren.

Hots hau zabala da eta jatorriak bat baino gehiago, espektrogrametan ikusten denez: 20, 41, 61, 80, 106..., espekt.

Hots hau transkribitzerakoan “Y” hartu dut Gaztelerazko “y”ren antzekoa delako, eta hau baieztatzeko horra hor hizkuntza bietako adibideak espektrogrametan: ikus, 118, 119, 120, 121, 122 eta 123 espekt (12).

### 7.4. /j/ SABAİKO – AFRIKARI – OZENA [j̠]

Fonema bera da baina posizioaren arabera afrikatu egiten da hasiera absolutoetan. Baina lehenago ere esan dudadez, indar gutxiko mintzaera baten hasieran ere frikaria aurkitzea ez da harriztekoa.

Posiziotik aparte ere afrikatzen da “N” eta “L” fonemen jarraian doanean.

Hots hau zehaztea erreza ez den aldetik, baliteke kasuren baten Sabai-aurreko-Frikari-Ozenaren balioaz ere aurkitzea fonema hau.

Dena dela, ikus: 81, 136, 137, 138... espekt.



## 7.5. /LL/ SABAIKO — SAHIESKARI — OZENA [l]

Fonema hau erabili, ugari egiten da Zeberioeko euskeran, bere jatorriak ezberdinak badira ere. Ikus: 7, 8, 29, 49, 69, 91..., espektr.

Aipatu berri dugun Sabaiko Sudurkariarekin gertatzen den bezala, honekin ere “L/LL” alternantzia agiri da, kasu honetan “ll”ren aldekoak ugariagoak badira ere.

Hitz edo eta grupo foniko barruan jatorrizko zein bigarren mailako “i”-dun diptongo baten jarraian dagoen “-l” sabaiturik agertzen da gehienetan. Esate baterako: “tella” lit. teila; “ollo” lit. oilo; “malla” lit. maila, etab.

Baina hemen ere badira kazu batzuk sabaitu gabe agiten ditugunak.

Adibidez:

“urtaile”	[u <sup>̃</sup> rtaile]	lit. urtarrila
“sesaile”	[sé <sup>̃</sup> saile]	lit. zezeila
“katuile”	[katuile]	lit. katu-hila

“l” sabaitu ez egiteko beste bide bat monoptongatzea da “i” galduz. Esate baterako:

“sala”	[sála]	lit. zaila
--------	--------	------------

Diptongaziotik aparte, “i+l” fonemen elkartea suertatzen de-nean, beste hainbeste gertatzen da Zeberioeko euskeran.

Alde batetik “ll” egiten bada ere, adibidez: “pillo” lit. pilo; “mille” lit. mila; etab... bestetik “l” gorde egin dugu eta ugari gainera gode ere.

Esaterako:

“mokile”	[mokile]	lit. mokila
“mutile”	[mutile]	lit. mutila
“arile”	[arile]	lit. harila
“opile”	[opile]	lit. opila
“ile”	[ile]	lit. hila
“sile”	[síle]	lit. zila
“morokile”	[morokile]	lit. morokila
“moropile”	[moropile]	lit. morapilo
“okile”	[okile]	lit. okila
etab.		

Esandakoa horrela bada ere, aditzera bagoaz eta hitanoa ikusi, fonema hau sabaituta agertuko da datibo etikoaren eraginez.

Adibidez:

“yango llauek”     [y<sup>^</sup>ango lau<sub>v</sub>kek]     lit. jango leuek  
etab...

Hitanoan ezeze, zukan ere hor dugu bizirik NOR-NORI barruko joko zaharra: “llat, llatzu, llako, llaku, llatzue, llakie”. Ikus aditz paradigmatan.

Sabaiko hots baten aurreko “l” ere “ll” egiten da esate baterako:

“epel yatea”     [epel<sub>v</sub> y<sup>^</sup>atea]     lit. epel jatea.

## 8. BELOKOAK

### 8.1. /k/ BELOKO – LEHERKARI – GORRA [k]

Beste leherkari gorrak bezala ugaria dugu eta ahozkatzeko arazorik gabekoa. Ikus, 8, 26, 47, 67, 89, 257..., espekt.

Jatorrizkoetatik aparte, hainbat bidetik etorritakoak aztertzea interesgarria litzateke.

Goazen grupo fonikoaren barruan kontsonateen elkarjotetik sortzen direnak ikusten adibide bidez:

“-K+g- > “K”	nik gaur	“NIKAUR”
“-T+g- > “K”	bat gara	“BAKARA”
“-T+K-” > “K”	bat karran	“BAKARRAN”

Zibilanteak elkar jote honetan parte hartzen dutenean ere sor daiteke beloko leherkari hau.

“-Z+g-” > “K”	ez gara	“EZKARA”
---------------	---------	----------

“EZ” proklitikotik aparte ez da erreza gortzea baina kasu honetan “-Z” instrumentalak ere gortu egiten du beloko leherkari ozena.

“yoaneskero”	lit. joanez gero
“ibilieskero”	lit. ibiliz gero

Sorrera ez bada ere, azken posizioetako “-K” galdu ez egitearen arrazoia ematea interesgarria litzateke.

Nire Zeberiko transkribaketetan askotan gertatu da fenomeno hau. Beloko leherkari gorra, azken posizio absolutoetan ez da erreza ahozkatzea baina soportezko bokale baten bidez galdu ez egitea lortu da.

Adibidez:

“nik... i...; suk... u...; etab...”.

Bokale arteko leherkari gorrak galtzea ez da normala baina kasu honetan bat aurkitu dut:

“estait, estaipa...” lit. ez dakit, ez dakit ba.

Ozentzea ere ez da normala baina batzuetan kontsonante elkarjote baten galdu beharrean “bigundu” egiten dela esango nuke:

Adibidez:

“sugsauk” lit. zuk zeuk  
“sugnor” lit. zuk nor?

Azken baten, betikora goaz. Fonetikak ez du mugarik eta mugagabetasun hori mugagabetasunean hartzea da biderik egokiena(13).

Kasu honetan ere, eta L. Mitxelenaren bidea jarraituz, Zeberioko euskeran errez da hasieran beloko-Leherkari-ozena aurkitzea:

Adibidez: “gausa, gela galdara...”.

Baina gaur egun erderaren eragina begien bistan dago eta mailu berriak, dauden daudenean hartu eta hartzen dira batez ere gazteen artean.

## 8.2. /9/ BELOKO – LEHERKARI – OZENA [g]

Definizioan esan dugun erara, gehienbat kasu bitan agertzen da: Hasiera absolutoan eta “N” baten jarraian dagonean.

Hemen ere, eta ikus, 66, 87, espekt., ozentasuneren ezaugarriarik gabe agertu daiteke, “b”ren kasuan gertatzen den lez hasiera absolutoetan.

Erdikoetan, ozentasunaren ezaugarria argi dago, 173, 199... espekt. ikusten badira.

## 8.3. /g/ BELOKO – FRIKARI – OZENA [g]

Gortzen ez den beste kasu guztietan egiten dela esan behar dugu.

Beste frikari batzuen antzera galterreza da eta Zeberioko euskeran parra-parra galtzen da, aditz jokoan batez ere.

Hemen ere, eta espektrogrametan ikusi daitekenez, Beloko-Frikari-Ozen guztiak ez dira berdin-berdin ahozkatzen: Ikus, 4, 25, 46, 65, 86... espekt.

#### 8.4. /j/ BELOKO – FRIKARI – GORRA [x]

Fonema hau Sabaiko-ozen bezala egiten dugula esan dut baina Beloko-Frikaro- Gor lez ere entzuten da batez ere maileguetan:

Adibidez:

“jauna”	[xauna]	lit. jauna
“san juanak”	[sáŋxwanak]	lit. San Juanak
etab...		

Kasu bakar bat daukagu euskeraren barruan eta alternantziaz erabilten bada ere hor dago, inguruko herriren batetik etorria seguraski: “anajea” -”anaya”.

Jatorrizko “ANAIA”; anaiaA > anaiea > ana(i)yea > ana(i)xea > ANAJEA azken pausua emanik.

#### 9. “H” – ASPIRAZIOA

Hotsen barruan ez dauka tokirik “H”ak baina halan eta guztiz ere bere tokian beste betegarri batzuk aurkitu ditut Zeberiko euskeran.

Adibide moduen har ditzagun jasotako batzuk:

“ago”	[ago]	lit. aho
“iger”	[igeṛ]	lit. eihar
“iyo”	[iyo]	lit. eho
“layea”	[layea]	lit. lehia
“biger”	[bigeṛ]	lit. bihar
“agotz”	[agoc]	lit. ahotz
“gigerra”	[gigeṛa]	lit. giharre
“aistu”	[aištu]	lit. ahaztu
“bieti!	[bjeti]	lit. behetik
etab...		

Lekukotasun lez, beste kasu pare bat:

“añotz”	[aṇoc]	“ahiotz (n > h)?
“iñontz”	[iṇonc]	“ihintz?

Azkenengo hau ez dago hain argi. Guk Zeberion baditugu “IN” hasierako hitz gehiago ere:

- “INisitue” = relámpago
- “INTzerre” = aire frio de helada

On Jose Migel Barandiaranek, aipatzen du fenomeno hau eta dibinidadearekin zerikusiren bat duela dio (14).

## 10. TAULA FONETIKO-FONOLOGIKUA

Fonemak eta euren alofonoak banan-banan ikusi ondoren hona hemen laburpen gisa Zeberioko euskararen taula Fonetiko-Fonologikua, Ahoskune, Ahots-Molde eta Ozen-gortasunak bitarteko direlarik.

AHOSKUNEA -KO (T. FONETIKO-FILOLOGIKOA)

AHOSKUNEA -KO

	EZPAINETAKO	EZPAIN-HORTZE TAKO.	HORTZEZTAKO	BIZKAR- HOBIETAKO.	GOI-HOBIETAKO	KAKUMINALAK IRAULIAK	SABAI-AURREKO	SABAIKO	BELOKO	UBULAKO	GLOTISKO
LEHERKARIAK	p		t						k		
SUDURKARIAK	m	m	n,		n			n	n		
ARNASKARIAK											
FRIKARIAK	b	f	ɸ					y	x	ɣ	
FRIKARI TXIST.					ʃ		y s (z)				
AFRIKARIAK				c			ʒ	ʃ y			
SÀHESKARIAK			l,		l			l			
DARDARKARI bak.					r						
DARDARKARI ask.					r						
- * GORRA	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
+ * OZENA	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+

-KARI

## 11.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Gotzon Garatek berak emandeko aholkua da eta zuzen zuzenean jarraitu dut. "Ozena-Gorra" delakoan Txillardegiri jarraitu diot. Salaburu, Pellok beste bat darabil: "Ahostun-Ahoskabe". Eritziak eritzi, hor dago nire aukera.
- (2) Quilis, A. Fernandez, J. A. ). edic. 1979, 22 or.
- (3) Malmberg, B. 1954 eta Txillardegia, 1980, 85. or. ere erabili ditut diagrama hau borobiltzeko.
- (4) Mitxelena, K. 1961/1977. 407 or. 583 or.n osatu eta Martineten teoriarekin kontrastatua.
- (5) "mai" Etzaso auzunan jaso da eta "manatu" Undurran.
- (6) Mitxelena, K. 1977, 583 or.
- (7) beti ez da horrela gertatzen, adibidez: "serbidu, kumplidu etab...; eta ikusten denez ez da bokale arteko kontsonante ozena galtzen. Arrazoia, alde batetik azentuan legoke eta bestetik, praktikotasunari begira, ez da hain erreza "iu" diptongoa ahozkatzea.
- (8) Joera nagusia horrela bada ere, nik neuk ez nuke dogmatizatuko, hiztun bakoitza mundu berezi bat bait da.
- (9) Zeberion, "ts"ak egiteko joara dago baina bereizketa beharrezko "TX" ere egiten da, adibidez: "etzebarri = etxebarri" auzune bi bereizteko.
- (10) Zeberioko kontsonantismoa eta Arratiakoa antzerakoak dira eta ez dut uste Txillardegik, 1984, 159 or...; jaso dituen "tt"ak horrela direnik Arratiako-Areatzan.
- (11) "baina" honen "N", Mitxelenak berak zuzenketa oharretan esaten zidanez, ez dago hain argi bere jatorria zein den.
- (12) Zelan edo halan adierazteko "y" grafemaz transkribitzen badut ere, ahoskunea ez da beti sabaiko garbia, sabai-aurrekoa ere entzuten da.
- (13) Ikus sakonago azaldurik "Kontsonante Multzoen Ahaokera"ko Leherkarietan.
- (14) Barandiaran, J. M. 1972. Dic. de Mitología.

## V. ZEBERIOKO DEKLINABIDEA

Deklinabide eta Erakuske arloa asko aztertu da aztertu ere historian zehar Euskaltzaindiak azken arauak argitara eman arte.

Aztertzaileak ugari izan ditugu hau baieztatzeko aipa ditzagun beste askoren artean jarraian datozenok: Azkue, R. M. (1); Euskaltzaindia (2); Gavel, H. (3); Jacobsen, W. H. (4); Lafitte, P. (5); Lafon, R. (6); Mitxelena, K. (7); Rijk de R. (8); Rotaetxe, K. (9); Salaburu, P. (10); Taldeak, A. A.; E. J.; I. JM.; U. J.; (11); Zarate, M. (12) etab...

Baina nire oraingo helburua Zeberiora mugatzea da eta bertako euskera biziaren iraztontzitik zer irazi den ikusi azkenean ondorioak aterateko.

### DEKLINABIDEA

#### 1.—GRAMATIKAZKO KASUEN MARKAK

1.—Nom.	-∅
2.—Part.	-(r)ik
3.—Erg.	-k
4.—Dat.	-eri

#### GENITIBO NOMINALIZATZAILEENAK

5.—Gen. Edut.	-n; -en; -(r)e
6.—Gen. lek-Den	-ko; -tako

#### GAINERAKOENAK

7.—Inst.	-n; -en ganean
8.—Soziat.	-gas; -egas
9.—Motib.	-gaitik; -egaitik; -arren
10.—Destin.	-ntzat; -entzat
11.—prol.	-tzat



## LEKU DENPORAZKOAK

12.—Ines.	-n; -tan
13.—Ablat.	-tik; -tarik; -tatik; -rik
14.—Adlat .	-ra; -tara
15.—Adlak. Buk.	-raño; -taraño
16.—Adlat. B-Z.	-rantza; -tarantza
17.—Aldat. Des.	-rako; -tarako

## ARTIKULU GRADU GABEKOAREN ONDORIK

SING.	PLUR.
1—.-a; -∅	-ak
2—.....	.....
3—.-ak	-ak
4—.-ari	-ari
5—.-an	-an
6—.-o; -ko	-etako
7—.-an ganean	-an ganean
8—.-agas	-akas
9—.-agaitik	-akaitik
10—.-antzat	-antzat
11—.....	.....
12—.-an	-etan
13—.-∅; -tik	-etatik
14—.-∅; -ra	-etara
15—.-∅; -raño	-etaraño
16—.-∅; -rantza	-etarantza
17—.-∅; -rako	-etarako

## ARTIKULU GRADU HURBILEKOAREN ONDORIK

SING.	PLUR.
1—.-au; ori	-ok
2—.....	.....
3—.-onek; -orrek	-ok
4—.-oneri; -orreri	-ori
5—.-onen; -orren	-on
6—.-∅; -ko	-otako
7—.-onen/-orren ganean	-on ganean
8—.-onegas; -orregas	-okas
9—.-onegaitik; -orregaitik	-okaitik

10—.-onentzat;	-orrentzat -ontzat
11—.-.....	-.....
12—.-.....	-otan
13—.-Ø; -tik	-otatik
14—.-Ø; -ra	-otara
15—.-Ø; -raño	-otaraño
16—.-Ø; -rantza	-otarantza
17—.-Ø; -rako	-otarako

## LEKU DENPORAZKO BIZIDUNEN MARKAK

- 12—.-gan
- 13—.-gandik
- 14—.-gana
- 15—.-ganaño
- 16—.-ganantza
- 17—.-ganako

## MUGAGABEA

### 2.—BOKALEZ AMAITUTAKO “OSO” ADJETIBOA

- 1—.oso
- 2—.osorik
- 3—.osok
- 4—.osori
- 5—.oson
- 6—.osoko/osotako
- 7—.oson ganean
- 8—.osogas
- 9—.osogaitik
- 10—.osontzat
- 11—.osotzat
- 12—.osoan/osotan
- 13—.osotik/osorik; osotatik/osotarik
- 14—.osora/osotara
- 15—.osoraño/osotaraño
- 16—.osorantza/osotarantza
- 17—.osorako/osotarako

BIR.

- 12—.osogan
- 13—.osogandik
- 14—.osogana
- 15—.osogañako
- 16—.osoganantza
- 17—.osoganako

## MUGAGABEA

### 3.—KONTSONANTEZ AMAITUTAKO “OKER” ADJETIBOA

- 1—.oker
- 2—.okerrik
- 3—.okerrek
- 4—.okerreri
- 5—.okerren
- 6—.okerreko/okerretako
- 7—.okerren ganean
- 8—.okerregaitik
- 9—.okerregaitik
- 10—.okerrentzat
- 11—.okertzat
- 12—.okerrean/okerretan
- 13—.okerretik/okerririk; okerretik/okerretarik
- 14—.okerrera/okerretara
- 15—.okerreraño/okerretaraño
- 16—.okerrerako/okerretarako
- 17—.okerrerako

BIR.

- 12—.okerregan
- 13—.okerregandik
- 14—.okerregana
- 15—.okerreganaño
- 16—.okerreganantza
- 17—.okerreganako

4.—ARTILULU GRADU GABEKOZ MUGATURIKAKO “OSOA”  
ADJETIBOA

SING.	PLUR.
1—.osóa	osóak
2—.....	.....
3—.osoák	osóak
4—.osoári	osóari
5—.osoán	osóan
6—.osóko	osóatako
7—.osoán ganean	osóan ganean
8—.osoágas	osóakas
9—.osoágaitik	osóakaitik
10—.osoántzat	osóantzat
11—.....	.....
12—.osóan	osóatan
13—.osótik	osóatatik
14—.osóra	osóatara
15—.osoráño	osóataráño
16—.osorántza	osóatarantza
17—.osoráko	osóatarako
BIR.	
12—.osoágan	osóakan
13—.osoágandik	osóakandik
14—.osoágana	osóakana
15—.osoáganaño	osóakanaño
16—.osoáganantza	osóakanantza
17—.osoáganako	osóakanako

5.—ARTIKULU GRADU HURBILEKOZ MUGATURIKO “OSO”  
ADJETIBOA

SING.	PLUR.
1—.	osook
2—.	.....
3—.	osook
4—.	osoori
5—.	osoon
6—.	osootako
7—.	osoon ganean

8—.	osookas
9—.	osookaitik
10—.	osootzat
11—.	.....
12—.	osootan
13—.	osootatik
14—.	osootara
15—.	osootaraño
16—.	osootarantza
17—.	osootako

BIR.	
12—.	osoogan
13—.	osoongandik
14—.	osoongana
15—.	osoongaño
16—.	osoonganantza
17—.	osoonganako

## 6.—ARTIKULU GRADU GABEKOZ MUGATURIKO “OKER” ADJETIBOA

SING.	PLUR.
—————	—————
1—.okérra	okérrak
2—.....	.....
3—.okerrák	okérrak
4—.okerrári	okérrari
5—.okerrán	okérran
6—.okerréko	okérretako
7—.okerrágas	okérrakas
8—.okerrágas	okérrakas
9—.okerrágaitik	okérrakaitik
10—.okerrántzat	okérrantzat
11—.....	.....
12—.okerréan	okérretan
13—.okerrétik	okérretatik /-rik
14—.okerréra	okérretara
15—.okerréraño	okérretaraño
16—.okerrérantza	okérretarantza
17—.okerrérako	okérretarako

BIR.	
12—.okerrágan	okérrakan
13—.okerrágandik	okérrakandik
14—.okerrágana	okérrakana
15—.okerráganaño	okérrakanaño
16—.okerráganantza	okérrakanantza
17—.okerráganako	okérrakanako

7.—ARTIKULU GRADU HURBILEKOZ MUGATURIKO  
“OKER” ADJETIBOA

SING.	PLUR.
_____	_____
1—.	okerrok
2—.	.....
3—.	okerrok
4—.	okerrori
5—.	okerron
6—.	okerrotako
7—.	okerron ganean
8—.	okerrokas
9—.	okerrokaitik
10—.	okerrontzat
11—.	.....
12—.	okerrotan
13—.	okerrotarik/-tik
14—.	okerrotara
15—.	okerrotaraño
16—.	okerrotarantza
17—.	okerrotako
BIR.	
12—.	okerrongan
13—.	okerrongandik
14—.	okerrongana
15—.	okerronganako
16—.	okerronganantza
17—.	okerronganako

8.—BOKALEZ AMAITUTAKO “UNDURRA” LEKU IZENA

- 1—.undurra
- 2—.undurrarik
- 3—.undurrak
- 4—.undurrari
- 5—.undurrán
- 6—.undurrako
- 7—.undurran ganean
- 8—.undurragas
- 9—.undurragaitik
- 10—.undurrantzat
- 11—.undurratzat
- 12—.undurran
- 13—.undurratik
- 14—.undurrara
- 15—.undurraraño
- 16—.undurrarantza
- 17—.undurrarako

9.—KONTSONANTEZ AMAITUTAKO “BERTZUTEN” LEKU IZENA

- 1—.bertzuten
- 2—.bertzutenik
- 3—.bertzutenek
- 4—.bertzuteneri
- 5—.bertzutenen
- 6—.bertzuteneko
- 7—.bertzutenen ganean
- 8—.bertzutenegas
- 9—.bertzutenegaitik
- 10—.bertzutenentzat
- 11—.bertzutentzat
- 12—.bertzutenen
- 13—.bertzutenetik
- 14—.bertzutenera
- 15—.bertzuteneraño
- 16—.bertzutenerantza
- 17—.bertzutenerako

## 10.—BOKALEZ AMAITUTAKO “MANU” PERTSONA IZENA

- 1—.manu
- 2—.manurik
- 3—.manuk
- 4—.manuri
- 5—.manun
- 6—.....
- 7—.manun ganean
- 8—.manugas
- 9—.manugaitik
- 10—.manuntzat
- 11—.manutzat
- 12—.manugan
- 13—.manugandik
- 14—.manugana
- 15—.manuganaño
- 16—.manuganantza
- 17—.manuganako

## 11.—KONTSONANTEZ AMAITUTAKO “IMANOL” PERTSONA IZENA

- 1—.imanol
- 2—.imanolik
- 3—.imanolek
- 4—.imanoleri
- 5—.imanolen
- 6—.....
- 7—.imanolen ganean
- 8—.imanolegas
- 9—.imanolegaitik
- 10—.imanolentzat
- 11—.imanoltzat
- 12—.imanolegan
- 13—.imanolegandik
- 14—.imanolegana
- 16—.imanoleganantza
- 17—.imanoleganako



12.—GALDETZAILEA: “ZER” “ZERTZUK”

<u>SING.</u>	<u>PLUR.</u>
1—.ser	sertzuk
2—.serik	.....
3—.sek	sertzuk
4—.seri	sertzuri
5—.sen	sertzun
6—.sereko	.....
7—.sen ganean	sertzun ganean
8—.segas	sertzukas
9—.segaitik	sertzukaitik
10—.sentzat	sertzuntzat
11—.sertzat	sertzutzat
12—.setan	sertzutan
13—.setatik	sertzutatik
14—.setara	sertzutara
15—.sereraño	sertzutaraño
16—.sererantza	sertzutarantza
17—.sererako	sertzutarako

13.—GALDETZAILEA: “ZEIN” “ZEINTZUK”

<u>SING.</u>	<u>PLUR.</u>
1—.sain	saintzuk
2—.sainik	.....
3—.sainek	saintzuk
4—.saineri	saintzuri
5—.sainen	saintzun
6—.saineko	.....
7—.sainen ganean	saintzun ganean
8—.sainegas	saintzukas
9—.sainegaitik	saintzukaitik
10—.sainentzat	saintzuntzat
11—.....	.....
12—.sainegan	saintzukan
13—.sainegandik	saintzukandik
14—.sainegana	saintzukana
15—.saineganaño	saintzukanaño
16—.saineganantza	saintzukanantza
17—.saineganako	saintzukanako

OHARRA: “-AI-” idatzi dudan arren, “-EI-” ere entzuten da alternantzian, baina urriago.

#### 14.—GALDETZAILEA: “NOR” “NORTZUK”

<u>SING.</u>	<u>PLUR.</u>
1—.nor	nortzuk
2—.....	.....
3—.nok	nortzuk
4—.nori	nortzuri
5—.noin	nortzun
6—.....	.....
7—.non ganean	nortzun ganean
8—.nogas	nortzukas
9—.nogaitik	nortzukaitik
10—.nointzat	nortzuntzat
11—.nortzat	nortzutzat
12—.nogan	nortzukan
13—.noingandik	nortzukandik
14—.nogana	nortzukana
15—.noganaño	nortzukanaño
16—.noganantza	nortzukanantza
17—.noganako	nortzukanako

#### 15.—IZEN ORDEA: “NI” ETA BERE INTENSIBOAK

	<u>INT. (I)</u>	<u>INT. (II)</u>
1—.ni	nau	ninau
2—.....	.....	.....
3—.nik	nauk	ninauk
4—.niri	nauri	ninauri
5—.nire	naure	ninaure
6—.....	.....	.....
7—.nire ganean	naure ganean	ninaure ganean
8—.niges	nauges	ninauges
9—.nigaitik	naugaitik	ninaugaitik
10—.nitzat	nautzat	ninautzat
11—.nitzat	nautzat	ninautzat
12—.nigan	naugan	ninaugan
13—.nigandik	naugandik	ninaugandik
14—.nigana	naugana	ninaugana
15—.niganaño	nauganaño	ninauganaño
16—.niganantza	nauganantza	ninauganantza
17—.niganako	nauganako	ninauganak.

OHARRA: “-EU-” intensiboa entzuten de baina “-AU-” zabalago dabil. Horregatik zabalena idatzi dut, hemen eta gerokoetan.

## 16.-IZEN ORDE: "HI" ETA BERE INTENSIBOAK

	INT. (I)	INT. (II)
1.-i	au	iau
2.-.....	.....	.....
3.-ik	auk	ikauk
4.-iri	auri	iauri
5.-ire	aure	iaure
6.-.....	.....	.....
7.-ire ganean	aure ganean	iaure ganean
8.-iges	auges	aiuges
9.-igaitik	augaitik	iaugaitik
10.-itzat	autzat	iautzat
11.-itzat	autzat	iautzat
12.-igan	augan	iaugan
13.-igandik	augandik	iaugandik
14.-igana	augana	iaugana
15.-iganaño	auganaño	iauganaño
16.-iganantza	auganantza	iauganantza
17.-iganako	auganako	iauganako

## 17.-IZEN ORDEA: "GU" ETA BERE INTENSIBOAK

	INT.(I)	INT: (II)
1.-gu	gau	gugau
2.-.....	.....	.....
3.-guk	gauk	gukauk
4.-guri	gauri	gugauri
5.-gure	gaure	gugaure
6.-.....	.....	.....
7.-gure ganean	gaure ganean	gugaure ganean
8.-guges	gauges	gugauges
9.-gugaitik	gaugaitik	gugaugaitik
10.-gutzat	gautzat	gugautzat
11.-gutzet	gautzet	gugautzet
12.-gugan	gaugan	gugaugan
13.-gugandik	gaugandik	gugaugandik
14.-gugana	gaugana	gugaugana
15.-guganaño	gauganaño	gugauganaño
16.-guganantza	gauganantza	gugauganantza
17.-guganako	gauganako	gugauganako

18.—IZEN ORDEA: “ZU” ETA BERE INTENSIBOAK

	INT. (I)	INT. (II)
1—.su	sau	susau
2—.....	.....	.....
3—.suk	sauk	susauk
4—.suri	sauri	susauri
5—.sure	saure	susaure
6—.....	.....	.....
7—.sure ganean	saure ganean	susaure ganean
8—.suges	sauges	susauges
9—.sugaitik	saugaitik	susaugaitik
10—.sutzat	sautzat	susautzat
11—.sutzet	sautzet	susautzet
12—.sugan	saugan	susaugan
13—.sugandik	saugandik	susaugandik
14—.sugana	saugana	susaugana
15—.suganaño	sauganaño	susauganaño
16—.suganantza	sauganantza	susauganantza
17—.suganako	sauganako	susauganako

19.—IZEN ORDEA: “ZUEK” ETA BERE INTENSIBOAK

	INT. (I)	INT. (II)
1—.surok (13)	saurok	surosaurok
2—.....	.....	.....
3—.surok	saurok	surosaurok
4—.surori	saurori	suorisaurori
5—.suron	sauron	suonsauron
6—.....	.....	.....
7—.suron ganean	sauron ganean	suonsauron ganean
8—.surokas	saurokas	suokassaurokas
9—.surokaitik	saurokaitik	suokaitisaurokaitik
10—.surontzat	saurontzat	surontzasaurontzat
11—.....	.....	.....
12—.surongan	saurongan	surongansaurongan
13—.surongandik	saurongandik	surokandisaurokandik
14—.surongana	saurokana	surokanasaurokana
15—.surokanaño	saurokanaño	surokanasaurokanaño
16—.surokanantza	saurokanantza	susurokanantza
17—.surokanako	saurokanako	suronsaurokanako

20.—ERAKUSLEAK (SING.)

au	ori	a
onek	orrek	ak
onen	orren	aren
oneri	orreri	areri
onegas	orregas	aregas
onetan	orretan	aretan/atan
onetako	orretako	aretako/atako
onetara	orretara	aretara/atara
onetatik	orretatik	aretako/atatik
onen ganean	orren ganean	aren ganeran
onegan	orregan	aregan
onegana	orregana	aregana
onegandik	orregandik	aregandik
onegaitik	orregaitik	aregaitik/agaitik
onentzat	orrentzat	arentzat
ona	orra ara	
onango au	olango ori	alango a
onen ganean	orren ganean	aren ganean
onan	olan	alan
onango	olango	alango
emen	or	an
emengo	orko	ango
emetik	ortik	andik

ERAKUSLEAK (PLUR.)

onik	orrik	aik
onik	orrik	aik
onin	orrin	ain
oniri	orriri	aieri/airi
onikas	orrikas	aikas
onitan	orritan	aietan/aitan
onitako	orritako	aitako
onitara	orritara	aitara
onitatik	orritatik	aitatik
onin ganean	orrin ganean	ain ganean
oningan	orringan	aingan
onikana	orrikana	aikana
onikandik	orrikandik	aikandik
onikaitik	orrikaitik	aikaitik
onintzat	orrintzat	aintzat
onin ganean	orrin ganean	ain ganean

21.—BIRRITAKO ERAKUSLEAK (SING.) (ATE-UME)

au ate au  
onek ate onek  
onen ate onen  
oneri ate oneri  
onegas ate onegas  
onetan ate onetan  
emeko ate onetako  
ona ate onetara  
emeti ate onetatik  
onen ate onen ganean  
onegan ume onegan  
onegana ume onegana  
onegandi ume onegandik  
onegaiti ume onegaitik  
onentzat ume onentzat

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (SING.) (ATE-UME)

ori ate ori  
orrek ate orrek  
orren ate orren  
orreri ate orreri  
orregas ate orregas  
orretan ate orretan  
orke ate orretako  
orra ate orretara  
ortik ate orretatik  
orren ate orren ganean  
orregan ume orregan  
orregana ume orregana  
orregandik ume orregandik  
orregaiti ume orregaitik  
orrentzat ume orrentzat

**BIRRITAKO ERAKUSLEAK (SING.) (ATE-UME)**

a ate a  
ak ate ak  
aren ate an  
areri ate ari  
aregas ate agas  
an ate an  
ango ate ko  
ara ate ra  
andik ate tik  
aren ate an ganean  
aregan ume agan  
aregana ume agana  
aregandi umea gandik  
aregaiti ume agaitik  
arentzat ume antzat

**BIRRITAKO ERAKUSLEAK (PLUR. ) (ATE-UME)**

onik ate ok  
onik ate ok  
onin ate on  
oniri ate ori  
onikas ate okas  
onitan ate otan  
onitako ate otako  
onitara ate otara  
onitati ate otatik  
onin ate on ganean  
oningan ume ongan  
onikana ume okana  
onikandi ume okandik  
onikaiti ume okaitik  
onintzat ume ontzat  
onin ume on ganean

**BIRRITAKO ERAKUSLEAK (PLUR. ) (ATE-UME)**

orrik ate ok  
orrik ate ok  
orrin ate on  
orriri ate ori  
orrikas ate okas  
orritan ate otan  
orritako ate otako  
orritara ate otara  
orritati ate otatik  
orrin ate on ganean  
orringan ume ongan  
orrikana ume okana  
orrikandi ume okandik  
orrikaiti ume okaitik  
orrintzat ume ontzat  
orrin ume on ganean

**BIRRITAKO ERAKUSLEAK (PLUR.) (ATE.UME)**

aik ate ak  
aik ate ak  
ain ate an  
airi ate ari  
aikas ate akas  
aitan ate atan  
aitako ate atako  
aitara ate atara  
aitati ate atatik  
ain ate an ganean  
aikan ume akan  
aikana ume akana  
aikandi ume akandi  
aikaiti ume akaitik  
aintzat ume antzat  
ain ume an ganean



## 22.—GALDE-HITZAK ETA ERANTZUNAK ESAMOLDE EGINIK

Deklinabideko kasuei jarraituz, baina ia ia esaera antzeko egin dira galde-hitz eta euren erantzunak. Adibide bezala era ezbardinetako batzuk jasoko ditu Zeberioako auskeratik.

“ser? eta bera”  
“segas? eta beragas”  
“nor? eta Urлие”  
“nointzat? eta Urlientzat”  
“nondik? eta andixik”  
“nora? eta bertara”  
“sainbet? eta onenbeste”  
“nos? eta orduxeian”  
“nos arte? eta orduxerarte”  
“sergaitik? eta axegaitik”  
“etab... etab...”

Galde-hitzaren erantzuna aldakorra da behar den kasuan erara datorrena esateko baina aurrean esan dudanez “esamolde” egin dira: Galdera + eta + erantzuna aparteko bizitasun eta adierazkortasuna emanaz eguneroko hizketari.

## 23.—DEKLINABIDEA KOMENTATUZ

Fenomeno ugari dago aipatu nahi izanez gero, baina batzuk bakarrik azalduko ditut luzatu ez egiteko.

1.—Aipagarrienetariko fenomenoak haxe dugu: aldaketa fonetiko batzuen ondorioz, Singular eta Plural bikote ugari berdinean egiten direla, baina azentoz bereizturik.

Azentoa, errasgo bereiztzaila da kasu askotan eta kasuok errepikatzen ibili ez egiteagatik, ikus azentoaren kapitulu barruko deklinabide jasoketa (14).

2.—Zeberioako euskeran, oraindino sano gorde dugu Ablatiko zaharra: “-(R)IK”.

Adibideak nahinon aurkitzen dira eta hemen datoz batzuk:

“nosik ona etorri barik!”  
“oirik ara yoak ardagoa edaten”  
“atzerik ara etxatak etorri ba?”  
“goxerik etorri ok itaurren”

“atzorik ona yaona musturturik”  
“atxinerik ibili ok yakatzu”  
“yayokerarik ixin de bepuru-astune”  
etab...

3.—Instrumentalari buruz eta kasu guztietan ikusi daitekenez, Zeberion “-(R)EN GANEAN” nagusitu da. “-Z” instrumentala erabilten da baina beste kasu batzuetan.

4.—Bizidunak eta bizigabeen arteko nahasketa batzuk ere agertu dira, esate baterako: “etzeko tellatue -etzean tellatua”, “errien basoak-erriko basoak”; etab...

Abereak aipatuz gero, eta adibide bat imintearren, ardiak, Zeberion: “ardietara yoan” esaten dugu. Ahuntzak badira: “auntzetara”. Behiak badira: “bayetara” etab...

5.—Lekukotasuna adieraziz, artikulurik itsatsi gabeko hondarrak ere badira Zeberioko euskeran:

Esate baterako:

“bearren”  
“atxurren”  
“itaurren”  
.....  
“ogiginen” -  
“egurginen”  
“ikesginen”  
“yatekoginen”  
“umeginen”  
etab...

Sustantibo berbalak ere hor dira “-TEN” nagusitzen delarik. Eta harira datorrenez gero, “-TU” atzizkiaz sorturiko aditzetan ere, “-TUTEN” egiten da. Kasu batzuetan aurkitu dut “-TZE(A)N”: “baye(k) P (b)atzean yabik”; “axeak artzean yoai” etab...

## 24.—ERAKUSLEAK KOMENTATUZ

Jasoketan ikusi ahal izan denez, Zeberioko euskeran erakusleen errepika-bidea aberatsa dugu baina badira han, hor, hemen, fenomeno aipagarri batzuk.

Erakuslea izenaren aurretik eta atzetik erabilteko joera daukagu baina Genitiko Leku-denporazkoa, Adlatiboa eta Ablatiboa egi-

terakoan, aurreko erakuslea, “emen, or, an” lit. hemen, hor, han, adberbioen bidez egiten da jasoketan ikusten denez (15).

Pluralera bagoaz, hor ere fenomeno kurioso bat gertatzen da eta oraingoan bigarren erakuslean.

Bigarren erakuslearen ordezt, plural hurbila darabilgu konstante bezala.

Egia esateko gogor egiten da sarritan erakusle biak ahozkatzea eta baliteke ekonomiaz edo, bigarrena plural hurbilez egitea. (Ikus, jasoketa).

Kasu batzuetan eta adierazkortasuna bitarteko delarik, singularrean ere bigarren erakuslearen ordezt artikulo hutsa entzuten da:

“au gixona”  
“ori gizona”  
“auxe gixona”  
etab...

Kasu hauek, irakurkera baten gogor egiten bazaizkigu ere, entzutean ez dira hain gogorrak balio adierazkorra kontutan hartzen badugu eguneroko bakoitzaren mintzaeran.

Adibidez:

Au gixona... esta gausona gero!”  
“ori burua... nos garbitukosu ba?”  
“au txarrie... irusi de urrean!”

## 25.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Azkue, R. M. 1923, M. V.
- (2) Euskaltzaindia. 1979. Bergarako Erabakiak, III. kap. "Deklinabideaz".
- (3) Gavel, H. 1929. G. V.
- (4) Jacobsen, W. H. 1972. ASJU.
- (5) Lafitte, P. 1944.
- (6) Lafon, R. 1943; 1960.
- (7) Mitxelena, K. 1961. 1969.
- (8) Rijk de R. 1970; 1981.
- (9) Rotaetxe, K. - Doneux, J. 1971. F. L. V.
- (10) Salaburu, P. 1984.
- (11) Taldeak (A. A.; E. J.; I. J. M.; U. J.) 1983.
- (12) Zarate, M. 1975.
- (13) Bokale arteko "R" eta guzti jaso dut eta horrela entzuten bada ere, sarri askotan "R" hori galdurik ahozkatzen da.
- (14) Azentuaren kapituluan zehazki jaso dira azentoz bakarrik bereizten diren kasuak.
- (15) Ikus birritako erakusleak. SING.

## VI. ZEBERIOKO ADITZ BIZIA

### 1.-ADIZT PARADIGMAK: "ZUKA-HITANO"

Aurreko kapituluak aipatu ditudan autore batzuk eta gehiagok ere aztertu du aditza, hemen ere Euskaltzaindia azken zehaztzaile izan delarik (1).

Zeberio, Bizkaia barruan dagoenez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailak argitaratutako "Bizkaieraren Idatzizko Arauak: Deklinabidea eta Aditza" (2) erabili dut aurrean jasoketa hau egiteko.

Baina ikusiko denez, nire neure helburua ez da idatzia, ahozkoa baizik.

Gainera, lehenago aipatu dudana lanetik aurrerago jo dut. HITANOAN hain zuzen.

"ZUKA"ko taula bakoitzak bere HITANOko pareak du, "ZU eta ZUEK" izan ezik, eta hori ere jaso egin dut bizi bizirik daukagulako.

Aditz forma asko zuriz agertuko dira eta horren arrazoia bikoitza da: edo ezagutu ez, edo ezagutu arren erabili ez.

Ebokazio bidea ondoen erabili arren ere, ez da erreza den dena zehatz jazotea.

Dena den eta herri euskeraren mugak haragoan daudela jakinik, horra hor orain arte jaso ahal izan dudana.

2.-EGITE ERA

EGITE ERA / ZUKA  
ORAIN ALDIA  
NOR  
IZAN, EGON, IBILI, JOAN, ETORRI.

<u>IZAN</u>	<u>ETORRI</u>	<u>JOAN</u>	<u>IBILI</u>	<u>EGON</u>
1. nas	nator	noa	nabil	nao
2. as	ator	oa	abil	ao
3. da	dator	doa	dabil	dao
4. gara	gatos	goas	gabis	gaos
5. sara	satos	soas	sabis	saos
6. sarie	satosie	soasie	sabisie	saosie
7. dire/s dis	datos	doas	dabis	daos

EGITE ERA / HITANO  
ORAIN ALDIA  
NOR  
IZAN, EGON,IBILI, JOAN, ETORRI.

Orainaldiko aditz sintetiko transitiboak hartzen baditugu eta pluraleko hirugarren pertsona ikusi, batzuetan “-E” hutsa daukagu pluralgile bezela, baina beste kasu batzuetan “-de”.

Hona hemen ba, jasotako adibideak lehen esandakoa baieztatzeko.

“aurek	daukie”
“	dakie
“	darodie/darordie
“	dakardie
“	diñudie
“	daudie/-rie... (laguntzailea)

Lehen aipaturiko “-DE” hor dago baina “-E” geminatuak eragindako bokale aldaketaz. Disimilatu egin dira “EE” biak.

Beste alde batetik, “d/r” alternantzia egitea bidezko da eta hor dago laguntzailearen kasua.

#### “-Z” pluralgilearen bikoiztasuna

Zeberion, beste Bizkaiko edozein tokitan lez, “-Z” pluralgilea azken posizioan jartzen dugu baina jaso ahal izan ditudan kasu batzuetan aditz forma berdinetan bikoiztasun bat ikusten da, batez ere singularra “-T” fonemaz bukatzen denean.

Fenomeno hau Hitanoan bakarrik aurkitu dut eta horra hor adibideak:

SING.	PLUR.
“yoat”	“yoadas/yoasat”
“yakiat”	“yakiadas/yakiasat”
“yaukat”	“yaukadas/yaukasat”
“diñoat”	“diñoadas/diñoasat”
“yakat”	“yakadas/yakasat”
“yarabiat”	“yarabiadas/yarabiasat”
“yaroat”	“yaroadas/yaroasat”
.....	
“yotziat”	“yotziadas/yotziasat”
etab...	

Pluralgile bi aditz-forma baten.

Fenomeno hau aditz transitibo zein intransitiboetan agertzen da, bai Orainaldi eta bai Iraganean ere.

Laguntzaile bietan gertatzen da errezen eta hemen dira adibideak:

“yoan dires/dis”	lit. joan dira
“yan ditus ”	lit. jan ditu
.....	
yoan siresan/sisan”	lit. joan ziran
“yan situsen”	lit. jan zituen

## 12.-DATIBO BI ADITZ-FORMA BATEN

Fenomeno hau ere errezman aurkitzen dugu paradigmatan ikusi daitekenez.

Adibidez:

“emoiotzesu”	lit. emoiozu
“esaiotzesue”	lit. esaiozue
etab...	

## 13.-ADITZ-FORMA BETEGARRIAK

Zeberioako aditz-paradigmak ikusten badira, kasilleru asko hutsik daudela ikusiko dugu baina mintzatzeko mailan, forma batzuk erabili ez arren komunikazioko ardatza ez da galtzen aditz-forma betegarri batez osatzen delako.

Nik neuk ez dinot hori bidezkoa denik, betegarri lez erabilten dela baizik.

Sarritan entzun dudana adibide bat aipatuko dut:

- “belu deta, banoa etzera”
- “nasai ba, eroango sara ra”

Hau da, “eroango ZAITUGU” esan beharrean kasu inpersonal bat erabilten da betegarri lez.

- “ser ingu ba aurten buskentakas?”
- “es ikeratu ba, eroango yakos da”

Hemen ere, eroango DEUTSAGUZ” erabili beharrean inpersonala erabiltzen da.

Beste kasu batzuetan, eta forma ia galdua danean, beste era bateko esaldi bidez adierazten dira gauzak.

Esate baterako, “atzo bakarrik ikusi ZINDUGUZAN” esan beharrean honelakoak esaten dira: “atzo bakarrik ibili sintzen” lit. zintzan. Etab... (10).

#### 14.-ADITZ NAHASKETA

“ZER-NORI-NORK” eta “NOR-NORK” jokoan arteko nahasketa ezaguna da eta Zeberion ere ia gehienok jausi gara solezismo honetan, adineko banakaren bat nire antzean alfabetatu eta zuzendu dugunok kenduz gero.

Honen berri paradigmatan dago eta ikustea neke baieztatzeko.

Baina badira oraindik nahasketa hau egiten ez dutenak eta hortxe bertan oinarriturik aditz batzuen lekukotasuna azaldu nahi nuke.

Gaur gramatika golpez jokutzen da sarritan eta batzutan gure belarriak minduten dira honelako aditzak entzutean: “lagunduko zaitut; deituko dugu... etab...”.

Nik neuk ez dinot hori gaizki dagoenik, gutxiagorik ere ez, baina nire herriko adinekoan artean hauxe ikusi dut: aipatutako solezismo horretan jausi ez direnek “lagundu, itxaron, deitu eta hola-koak” ZER-NORI-NORK” jokoaz baliatuz egiten dituztela (11).

Horregatik ba, herriak zergatik hargatik erabili izan ditu era horretara eta herria beste gauza askotan lez jakituna da eta nire aldetik errespetagarria.

#### 15.-ADITZ-JOKO BIKOITZA

Hemen aipatuko ditudan aditzak, bakoitzak bere eginbeharra badute ere, Zeberio euskeran adierazpen ber bera egiteko era biak erabiltzen ditugu eta datiboduna asko erabili ere.

Adibideak zenbat gura eta harexen beste dauzkagu eta hona hemen batzuk:

“lapikokoa egosi ete da?”.

1	2
“bai, onaskero egosi de”	...”bai, onaskero egosi yatzu”
	“urliek esi ete dau idie?”
“bai, sano ondo esidau”	...”bai, sano ondo esi otzu”
	“badakar aspigarririk?”
“es, estakar”...	”es, estakatzu”
	“aurten badoa ala yayetara?”
“bai, aurtan be badoa”	...”bai, aurtan be bayoatzu”
...edo beste hirukote hau:	
	“selan gurasoak?”



1	2	3
“bie(k)p(b)ixi	dire/bixius (doguz) / yakus”	

## 16.-ADITZ BEREZIAK

Paradigmetan jasorik egon arren, interesgarria litzateke eurretari-ko batzuk aipatzea.

ERAGON eta JARIO aditzen jokoak bizirik daukagu (ikus paradig-  
mak) “daragoiot” egiten badugu ere.

Adibidez:

- ”baragoiosue artayorran e?”
- ”bai, baragoiu ba”
- ...
- ”urliek e... bario ba idebateari!”
- ”apakarrik es, naupe bariot”
- etab...

Laguntzaileetara bagoaz hor ere badira kasu aipagarri batzuk:  
Esaterako, IZAN aditzaren iragana: “nintzen, sintzen, san gint-  
zen, sintzien, sirean”.

Bai eta, NOR:NORI kasuko: “llat, llatzu, llako, llaku, llatzue,  
llakie” gaur “LITZAKIT” dena lit.

“EUTSI” ere aberatsa dugu bere erabilieran. Laguntzaitik  
aparte, alde batetik forma eginak: “dautzela...” Lit. deutsalak eta bai  
ta, jokatua ere partizipio gabe.

Adibidez:

- ”su, urlie asarratu in de auntzekaitik”
- ”da, niri ser daust, estauket auntzik eta”
- (hitano) ser yostek, etxaukoat auntzik eta”

## 17.-ADITZ-FORMA MULTIPLEAK

Paradigmak ikusten badira, kasilleru bakoitzean era bat erabil-  
ten da gehienetan, baina batzuetan era bat baino gehiagotara  
agertzen dela ikusiko dugu (12).

Bat aipatuko dut adibide bezala eta hain zuzen laguntzaile tran-  
sitiboa.

Orainaldiko hirugarren pertsona plurala hartzen badugu hor  
dira: “daude, daure, daurie, daudie, daie...”.

Eta iraganera bagoaz beste hainbeste edo gehiago ikusteko  
aukera daukagu: “auren, auden, aurien, audien, saurien, situen,  
aien, iin...”.

## 18.-ADITZ-JATEA

Beste kasu batzuetan ostera, “ekonomiak” eranginda edo, aditz-forma berberak erabiltzen dira tokiz-kanpora.

Adibide bezala eta argiago ikusteko, hor dago “EGITE ERA - ZUKA, ORAINALDIA, ZER-NORI-NORK” paradigma.

Fenomeno hau, gertatzen bada ere, mintzaera maillan kontes-toak laguntzen digu zein zeinetakoa den bereizten.

### 18.1.-FONEMA JATEA

Erara datorrenean, adibidez, ZER-NORI-NORK. Orain Aldian, hasierako “d” hori, Grupo Fonikoaren barruan, bokale artean sugertatzen denean, galdu be egiten da: “doat”: “ekarri oat” baina “esan doat”. etab.

## 19.-BALDINERA ETA ONDORIOA

Lekukotasuna adierazteko baino ez bada ere, Zeberion “BA- eta -KE” biak doaz batera. Bigarrena datiborekin doanean berdin: “BA- eta -KIO”.

Beste alde batetik (ikus. paradigmak) Ondoriokoak diren: “naintzike” lit. nintzake eta “naintike” lit. ninteke, nahastu egiten ditugu eta nahaskera hau baldineraraina joan da: “Banintzike, Ban(a)intike” (13).

## 20.-EZAGUTU BAI, BAINA ERABALI EZ

Zeberrioko aditza batzen ibili naizenean eta aditz-forma batzuez galdetu, hauxe erantzun hau hartu dut baten baino behiagotan: “esotu iten du eta erabili be indu, baye gaur hauxe darabiu”.

Esate baterako, gaur “ÑATZU” -”laguntan yoan Ñatzu” erabilten dena, ezagutu, beste era bitara ere egiten da herrikoen esanetatik: “natxatzu edo nayatzu”.

Herritar batek aditz edo beste hitz asko ez ditu erabiltzen baina ez dakizkienik ezin dugu esan, askotan erabilte ez hori ebokazio falta gatik delako.

Ni neu, hasieratik ohartu nintzen fenomeno honetaz eta nire inkestak egiterakoan gogoan izan dut ebokazioaren beharri-za(14).

## 21.-PARTIZIPIOAK

Lehen partizipioa dela eta Zeberioko euskeran osorik erabiltzen ditugu indikatiboan zein indikatiboz kanpo.

Bigarren partizipioa egiteko “-TEN” atzizkia darabilgu lehenengoari deusala.

Lehen partizipioa “-TU” duna denean era bitara egiten dugu: bata “-TUTEN” eta bestea “-TU” galdu eta “-TAN” erabiliz. Adibidez: “apurtuten edo apurtan; bigunduten edo bigun tan; aginduten edo agintan;...”.

Hau honela bada ere, bisilaboetan beste fenomeno bat gertatzen da alternantzia. Alde batetik “-TEN” egiten da: “galduten; sartuten; batuten; etab.” baina bestetik “-TZEAN” darabilgu “-TU/DU” galdu-rik. Adibidez: “galtzean; sartzean; batzean; etab...”.

Eta fenomeno hau ez bakarrik “-N” bukaeraz, beste kasu batzuetan ere bai. Adibidez: “galtzeako; batzeako; sartzearik; etab...”.

“-TZEAN”, laguntzaile zein sintetikoekin jotzen dugu. Hona hemen adibideak: “bedar sikue batzean yoat; bedar sikue batzean ñaok, bedar sikue batzean yakiat; bedar sikue batzean yostek; etab...”.

Hirugarren partizipioa “-KO/GO”rekin egiten dugu eta ez du aparteko bereiztasunik.

Bigarren partizipioaren barruan, “EGIN” aditzak, “-TEN” ezeze, “-EN” ere egiten du eta ugari gainera: “ikasginen, ongiginen, ume-  
ginen, mediginen, kakaginen, txixeginen, korosginen, egurginen, etzeginen, yatekoginen, abiginen, orrautzaginen etab.”

## 22.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Euskaltzaindia. Euskal Aditz Batua. 1979. Aurreragoan aztertua: ikus Euskera 1973 eta 1977.
- (2) talde lana; Arejita, A.; Eguzkiza, J.; Irazola, J. M.; Uriarte, J. Bizkaieraren Idatzizko Arauak: Deklinabidea eta Aditza. 1983.
- (3) Ikus grabaketa mapan Undurra eta Etzaso. Lehenengoan "daurie/-s" jaso dut eta bigarrenean "daye/-s". Aldaketa nabaria hain kilometro gutxi barruan. Beste alde batetik, pluralak egiteko "-IT-" ezaugarriaren erregistroa ere badarabilgu.
- (4) Konstante bezala, hitanoko femeninoa egiteko "-NA" ezaugarria, "I" edo "U" ren eraginez "-NE" egiten da bokale itxidura baten bidez.
- (5) "E" dirudi eta beste batzuetan ostera ez bata ez bestea.
- (6) "iin" forma hau Etzasoko Anebeko baserrian jaso da. Ikus mapa.
- (7) Andrazkoen hitanoa ondoen Uriondon gorde da gazteak ere artean direla. Adinekoen artean auzune gehiagotan ere gorde da, Etzason esate baterako, baina urrituz doa.
- (8) Undurran bertan nire belaunaldiko neba-arreben artean, gure etxeoak "ZUKA" gabiltza gure artean eta auzokoak (Goyoagatarrak) "HITANO".
- (9) "ZUKA" rajotea erreztasunagatik da baina "HITANO" a hangoa zein hemengoa berandu baino lehen jaso behar da eta irakatsi.
- (10) Etabar horretan hor dira esate baterako: "atzo bakarrik e... serean!" edo "se iten saildun ba bakarrik atzo?" edo "e(s)saunken lagunik atzo ala?" etab...
- (11) Beste aditz zahar batzuk ere kasu bati baino gehiagori begida daude. Adibidez: "ekin, eragon, jario—" batzuetan datiboari begira egiten ditugu baina beste askotan "ZERTAN" kasuari. Esaterako: "bearren dariot; artayorran daragoyo; ekio(k)p(b)edarrebaten..."
- (12) Ikus esate baterako, Egite Era, Orainaldia Zer(nor)-NORK eta ugariago Lehen Aldian.
- (13) Esamolde egin bat darabilgu sarritan gure artean eta haxe da: "gure aituek esan *beistike...*; abadeak esan *beistike...*; gaztelerazko "como(me) decía o dijera"ren pareko. Hemen, alde batetik "beist" daukagu eta bestetik "-KE" bitartean "i" epentetiko bat dutelarik. Jatorrizko esanahia ez dago hain argi baina gaurkoa bai.
- (14) Atlas linguistikoa, isoglosa edo osterantzeko lan bat egitean kontu handia izan behar da inkesta eta abarrekin. Esate baterako, nik neuk, jakinez gainera jaso ditut (12) notan aipatzen ditudan aditz forma ezberdinak. Baina Zeberioko euskera ondo ezagutzen ez duen beste norbait izan balitz jasoko ete zituen forma guztiak? Beste alde batetik, berri-emaileak baliteke inkesta egiterakoan dakizkien forma guztiak gogoratu ez egitera, eta jakina, erazuten duena eta dakiena ez da bat. Horregaitik, nire azterketa barru barrutik egindakoa da eta jakin egin dut nola ebokatu. Laburtuz, gure herrietako hiztunek euskera aberatsa dute eta ekonomiaz edo errezeraz joaz ez digute euren altxor guztia erakusten, gutxiagorik ere ez. Kontuz ba! Eta ez ahaztu: euskera bizia aberatsa bada aberastasunean jaso behar da eta norbaiten galbahea ez bada gauza herri-euskera aberatsa eralgiteko galbahea aldatu behar da eta ez galbahekoa.

## VII. JOSKERA

### ZEBERIOKO EUSKARAREN JOSKERA (1)

Iturri aberats hau agortezina dena jakinez gainera ausartu naiz haronako bat egiten arlo zabal horretatik adolfo Arejitaren “Euskal Joskera”ko sarrerako hitz batzuk gogoratuz: (2)

“Gure hizkuntzak bere barruan, egituran, dituen aberastasun eta ahaltasun guztiak geuganatzea bear bearrezkoa dogu: geure euskera trebe ta zoli erabilteko gauza izan gaitezan beti forma este-reotipatu ta egiñegiak artu barik.”

Horra hor ba, Zeberioko euskeraren joskera barruko hainbat eta hainbat pitxi-lora.

Ikusiko denez, jasotako adibide guztiak transkripzio fonologikoan agertuko dira bizitasuna zainduz (3).

### 1. ESALDI SOILAREN ATALAK

#### 1.1. IZEN SINTAGMA

—Euskeran, marka guztiak, mugatzaile, kasu, lumero... izen sintagma osoari dagozkio.

—Izenordeek izen sintagmaren betekizunak hartzen dituzte.

Deklinabideko kasu batzuetan ez da mugatzailea agertzen, baina berriro agertzen da beste kasu batzuetan: “etzetik, etzera..., baina etzean eta etzea”.

—Izen bereziak berez dira mugatuak baina hartzen dituzte zehaztasun osogarriak:

—”onek (g)ure Txomin onek in dauenalangorik!”

—”ori Patxi ori suronean bixi soan estok?”

—”sein Mireneri lagundu sauntzen ba etzera?”

—Izen bereziak adjetiboarekin izen arrunten erabileran sartzen dira:

- ”suron Julen lotzabakoari seoser esango neuskio!”
- ”edosein ume mokodariok iten dotzu hori!”
- ”gure aitite defuntuepe esatauen ori”

—Bokatiko asko artikulu gabe erabiltzen dira sarri singularrean:

- ”gixon! erdu ona!”
- ”mutil! ao ixilik”

—Senitarteko, aite, ama, osaba, izeko... eta honelako senikerazko berbak artikulurik gabe erabiltzen dira:

- ”amabitxi etorri yakun atzo”
- sauron aitexeak esan oskun”

—Herri edo toki izenak eta pertsona izenak joskera berdintsua daukate:

- ”Seberio erri andie dana argi yaok”
- ”Bilbo sarrean jeneroa merkeago dao”

—Herri izen batzuk artikuluz erabilten dira: Izen arrunten deklinabide mugatuari dagokionez:

- ”arratie da gure ausoa”
- ”Biskaiko lurrek esoatire (esoak dire)”

—Toki izena konposatua eta bigarren osogarria arrunta denean, izen arrunt bezala erabil daiteke:

- ”Seberion be esta faltako sesanik”
- ”Auskelerrien be erdera askotxu entzuten da”

—Baina artikulu gabe ere erabilten dira “Euskalerrria” izan ezik:

- ”Txorierrin txorie(k)p(b)akarrik estaos, sosoapebai”

—Jaiegun izenak egun bakarra adierazoteko egun izenaz lagundurik doaz eta mugatu pluralean jai osoak adierazoteko:

- ”Domusantu ganean dauku”
- ”Domusantuetan elexa(k)p(b)etetan dire”

—Esaera eta atsotizetan mugatzaileak ez dira sgertzen sarri.

- ”umeak Madrilen be ume”

—Ezta zenbaketetan ere:

- ”ardi, auntz, arito eta akar, dana garbitu aurien”
- ”gixon, andra ta ume, danak edan-edanda”

—Atributoa artikulu gabe erabilten da:

- ”Seberiko abade in aurien”
- ”sorribistu biortu yaku oin”
- ”usaba in dalaskoa entzun yoat”

Postua, ogibidea adierazterakoan izan aditzaz eta antzekoekin ere sarritan:

- ”gure aite pastore san aldi beten”

—Askotan ez da mugatzailerik behar aditz lokuzioaren atala denez gero:

- ”mesedetan beste kalte ingotzu lagun orrek”
- ”gari yoten gabis”
- ”ume yagoten ibili de untxarte”
- Baina egiturok aldatu egiten dira askotan
- ”mesede andie ingotzu santiritu orrek”
- ”gixon andie inde”
- ”danon artean yo gaindusen gariek”

—Umeen arteko berbetan:

- ”yan txitxi, lastana”
- ”txatxa yan ingosu gero!”
- ”pupu in dosu esta?”

## 1.2. IZEN SINTAGMAREN ITXURA

### IZENA OSAGARRI GABE

—Izena + mugatzailea:

- ”txorie” -”txori ori”
- ”Txori bet”
- ”txori asko”

—Izena + mugatzaile (1) + mugatzaile (2):

- ”txori biek”

—Mugatzailea + izena:

- ”lau txori”
- ”ainbe(t) txori”

—Mugatzaile (1) + izena + mugatzaile (2):

-”lau txoriek”

-”onik umeok”

—Izena + adjetiboa:

-”txori polite”

-”txori poli(t)p(b) et”

—Izena + adjetiboa + mugatzaile (1) + mugatzaile (2):

-”txori eder biek”

-”txori eder orrik”

—Mugatzaile (1) + izema + adjetiboa + mugatzaile (2):

-”iru txori politek”

-”iru txori ederrok”

## OSAGARRIA + OSATUA

—Osagarria + -ren + osatua. Osagarria konkretua edo mugatua:

-”aman sereginek” (amak dituen zereginak)

-”nire bearrisanak” (nik ditudan beharrizanak)

—Osagarria + -ko + osatua:

-”etzeko tresnak (etxean dauden tresnak)

-”erriko basoak” (herrian dauden basoak)

—Osagarria + (-) + -ko + osatua:

-”egurreko atea”

-”suganako mine”

—Osogarra + -dun + osatua.

-”gangardun olloa”

-”garrikodun abure ori”

—Osagarria + (t)ar + osatua:

-”Oroskoar mutilek”

-”Dimostar sasteak”

-”Seberio star ikesginek”

Baina, kasu batzuetan -(t)ar erabili beharrean, -ko hartzen da:

-”Seberio ko nezkak”

-”Dimeko gasteak”



Osagarria + -bako + osatua:  
-”lotzabako gixona”  
-”susterbako andrea”  
-”gasbako lapikokoa”

Halan eta guztiz ere beste era honetara ere erabilten dira:  
-”gixon ganorabakoa”  
-”ume lotzabakoa”

## 2. ESALDIAREN GUNA

Datu ezagunen gainean jakin edo jakin eragin nahi dena edo batez ere komunikatu nahi dena.

1.—Guna, (ardatza) Itaun-hitza denean: NOR, ZER, NOIZ, ZEN-BAT...

Oharra: Naiz eta guna itaun-hitza izan, ezezko esaldietan ezetza itaun-hitza eta aditzaren bitartean joango da: “nor esta etorri ba?”:

—Itaun-hitza izenordea denean: (itaun-hitza + aditza):

- ”nor etorri de?”
- ”seineri emon dotzesu dirue?”
- ”sainbet (d)akasues ixilean?”

—Itaun-hitza adjetiboa denean: (itaun-hitza + izena + aditza):

- ”se ordu de?”
- ”se barri dakastesue ba?”
- ”sainbet urtean on sara Ameriketan?”

2.—Guna (ardatza izena, aditz izena, agjetiboa, (atributoa) izenordez, (galderazko adjetibo eta izerordeak ezik) adjetiboa denean:

—Izena denean: (ikus esaldi soilaren atalak). (Izena, izen sintagma + aditza).

- ”Peru etorri de”
- ”Otzandioko mutilek in doskue”
- ”ainbet neska mutil yaok arpelik (g)altzean”

—Aditzizena denean:

(aditzizena + aditza)

- ”yateari emon dotzo”
- ”baten esatea da naiko”

(Aditz izenaren sintagma + aditza)

-”umeakas egunero ibiltea(k)t(d)akar ori”

-”edosein gause iteari ez beti ondo eretxi gero!”

—Adjetibo (atributoa) denean:

-”andra ori mamalea da”

-”eskondue da gixon ori”

—Izenordea denean:

a) Izenorde pertsonala (norkia) denean. (norenkiak edo posesi-  
boak sail honetan aipatuko ditut).

—Izenorde indartua + aditza.

—EU markaz. ZEBERION -EU > -AU.

-”nau nas usaba”

-”su sau(k)tx(y)akingosu se indosun”

-”gaurea da eta es beste iñona”

—BER markaz:

-”bera ixin de eta es gu”

-”berari emon dotzu eta es umeari”

-”berea ixingo estau ba?”

Askotan ere askotan -BER marka hau errepikaturik agertzen  
zaigu semantika balioak aberastuz:

-”semea aite berbera da”

-”sauk ikusi osune berbera ikusi ot naupe”

-” orixe berberori ixin de sorotz in dostena”

b) Erakuslea denean:

(Izenordea -indartu gabe + aditza)

-”au de nire maixue”

-”ori de ni(k)t(d)iñodana”

-”a da gure etzea”

(Izena indartua + aditza)

—XE markaz:

-”auxe ixin de”

-”onexeri erosi nontzen”

-”aixе(k)t (d)akie”

—BER markaz:

-”berau de”

-”beronek esan dau”

-”berorreri esan otzen”

Berrindarturik ere sarritan agertzen da:

- ”berberau de “
- ”berberonek esana da”

A- markaz:

- ”aor gure aite”
- ”aikor gure ama”

d) Izenorde mugagabea edo numeralaren denean:

(Izenordea + aditza)

- ”batenbatek in dau”
- ”iñori emon dotzesu ala?”
- ”edoseineri emon leio”

e) Adberbioaren denean:

(erazko: adberbioa + aditza)

- ”sutunik etorri sen”
- ”olan i de”
- ”oker imini osu txapela”

Oharra: Zeberion hiru graduak bereizten dira: “onan, olan, alan”.

–ZENBATEZKOA denean:

(adberbioa + aditza)

- ”gitxi yan dosue”

BER- markaz:

- ”bertan daukosu”
- ”Nongoa sara? Yoan da bertakoa!”
- ”bertara eskondu sen”

–XE eta BER- markaz:

- ”ementxe bertan bixi de”
- ”araxe bertara doas beti yoan be”
- ”untxe bertan aukikosu auki be”

BER- errepikatuz:

- ”berpetan dauku etzea”
- ”antxe berpetan esautu sirean”

ESALDIAREN GUNA ADITZAREN BAIETZA EDO  
EZETZA DENEAN.

BAIETZA DENEAN.

Aditz soilaz:

- "basatos"
- "badakisu urliena esta?"
- "ibili badabil baia danabearrean"

Aditz konposatuaz:

- "etorri de iñor"
- "Patxi etorri de?"
- "Eztaibaidetan: "esta etorri" / "etorri esta in"  
"bada etorri" / "etorri in de"

EZETZA DENEAN.

Aditz soilaz:

- "estator?"
- "yakin be estaki"
- "estoa yoan, badoala esan arren"

Aditz konposatuaz:

- "esta yoango" / "yoan esta ingo"
- "umerik esta egon suronean" / "egon esta in"
- "galdu etxatzue in nik dakidala"

Itaun edo adierazkorretan: "etorriko esta ba?  
"yoango eskara ba?"

GUNA ADITZAREN EKINTZA DENEAN.

Aditz soilaz (bere erroko partizipioa gehituz).

- "ibili sabis de, olango gausak yaso bear"
- "nik esto(t)p(b)ear andrarik, auki dauket eta"
- "egon badago be ekarri dakat bedarra"

Aditz konposatuaz (EGIN aditza gehituz. Baina "egin" honek ez du laguntzailea aldatzen):

- "apurtu in de"
- "yausi in yako"
- "in inbiu ori" (egin egin behar dogu ori).

## GUNA ESALDIA DENEAN.

Osagarria osotuaren aurretik:

- "ixilik oteko esan daust"
- "sarroninsaitiela esan otzuen aititek"

Osagarria Aurkezle Bidez:

- "sera esan oskun: tertzios etorteko"
- "esetz esan osten: bera etzala etorriko"

## EGITURA BANATUAN ETA BATEZ ERE BERBETAN OSAGARRIA OSATUAREN ATZETIK JOAN LITEKE.

Guna aditzaren baietza denean:

- "esa nauntzun ba, es yoateko"
- "badakisu ba suk ori gusurre dana"

Guna aditzaren ezetza denean:

- "yakin daki estatorrena"
- "esan indau estakarrela baia badakar"

Berbetaren jarioari dagokionez:

- "amak esan dau esetz, orrik (g)ausok etxakosela gusetan eta es esateko geao"
- "erosi nausen, ba, domeketarako ta..."

Oharra: berbetako jarioaren ondorioz zer esan eta zer aztertu ugari dago. Herri euskerak sarritan bere bideak egin ditu, nik neuk, neure herriko euskeraren transkribapenetan ikusi ahal izan dudanez.

### 3. ESALDI SOILAK

#### 3.1. ESALDI ENUNTZIATIBOAK.

Esaldi enuntziatiboak: Atributiboak. Aditz atributodunak.  
Predikatiboak. Aditz predikatibodunak.

#### 3.2. ESALDI ATRIBUTIBOAK.

- Hiru ataldunak dira: suj. + atrib. + aditza.
- Izen atal edo sintagma bakoitzak bere mugaketak daramatza.
- Mugaketaren kasu berezietarako ikusi: Isen Sintagma.

—Hitzen ordenarako ikusi: Esaldi soilaren atalak.

—Ordena neutroa: suj. + atrib. + aditza da; baina ordean aldatu egiten da galdegaia edo komunikabideko paradigmen arabera.

—Batzuetan elementuen ordena eta ahozkoaren doinua dira sujetoa eta atributoa zeintzuk diren argitzen digutenak.

—"Patxi erriko alkatea da"

—"Erriko alkatea Patxi da"

#### ATRIBUTUA ZER-NOLAKOAREN PARADIGMAN.

(SUJETOA + atributoa + aditza).

—"umea ederra da"

—"gure soloko bedarrak sano ona(k)t(d)ire"

—"Undurrako etze ostaiko solo barrenean artoa dao"

(Atributoa + Aditza + Sujetoa. Atributoa agiriena):

—"ona yatzu ardao ori"

—"lapur utze san ixin be a gixona"

—"onixek gixono(k)t(d)ire agintariak"

(Atributoa + Aditza. Sujetoa isilpeturik):

—"ederra da"

—"goso da"

(Sujetoa + Aditza + Atributoa):

—"urlie da onen yaubea"

—"Don Jose da gure abadea"

#### SUJETOA NOR-ZER PARAGIGMAN.

(Atributoa + Sujetoa + Aditza):

Gaurko erabileran, sujetoak atributoaren konkordantzia erakartzen du normalean baina kasuren batzuetan jaso daiteke sujetoa eta aditza pluralean eta atributoa singularrean.

—"ederra sauron umea da"

—"onak gaure gurasoak(k)t(d)ire"

—"gure ardurea aurten artoa(k)t(d)ire"

—"piñuek ixingo dire etorririk onena"

(Sujetoa + Aditza. atributoa isilpeturik):

—"Nor da etxagune emen ba? Nau nes"

—"kalenturarako ser da onena? Aspirinea da"

(Sujetoa bakarrik. Atributoa eta aditza isilpeturik):

- "sein txarrikuma gurosu ba? Edozein"
- "nos yoango sara iturrukuretan? Nainos"

### ADITZAREN BAIETZARI EDO EZETZARI DAGOKIONEZ.

Baiezko esaldiaren orden arrunta hauxe litzateke: Sujetoa + Aditz Markatua + atributoa.

- "ori badok lamiñea"
- "batzuk badire sorginek ixin be gero!"
- "su ixingo sara batenbat biger edo edo etzi"

EZEZKOAN: "ori espadok personea"!

"eser ezpotzet esan orreri"!

"orrik espadosak parte onekoak"!

Oharrak: IZAN ez diren aditz batzuekin ere atributo eta sujetoaren arteko konkordantzia zaintzen da.

- "egurdie otza dao"
- "aurten artoak ederra(k)t(d)atos" (5)

Izan iragangaitza ez diren aditzekin (ikusI Izen Sintagma) atributoa osagarriarenekotzat har genezake: kasu batzuetan inoiz adizt lokuzioaren atal hartu arren.

- "semea abade u (dogu)"
- "nor dosu ori ba? Semea dot au"
- "gurasori (K)p(b)ixi dosu?"
- "gurasoak esese aititeape bixo odas undino"

URTEN; BEHAR... aditzekin kasu konkordantzia ere egiten da baina IRUDI aditzarekin ostera ez da kasu konkordantziarik egiten.

- "basabei orrek ona dirudi"
- "larrosea dirudi nezka onek"
- "ardao onek onak urten dausku"
- "intxaurrek sindoak ixin bea dau intxaursaltzarako"

### 3.3. ESALDI PREDIKATIBOAK

Ordena neutroa: Sujetoa + Osogarriak + Aditza da.

- "nik ori amagandi(k)t(d)akit"
- "Txomin atzo Bilboti etorri sen"
- "surok atzo txakoline edan sailduen"

Baina ordena hau aldatu egin liteke galdegai eta komunikabideko paradigmen arabera:

- "amagandi(k)t(d)akit nik ori kontu ori"
- "bart in auen botaka umeak"

Esaldi inbertsonaletan laguntzaile iragankaitza erabiltzen da:

- "gurean bedar asko yaten da"
- "lanari ekin beako yako"

## BAIEZKO ESALDIAK

Hitzen ordena sujeto + osagarriak + aditza edo galdegaia eta komunikabideko paradigmei dagokiena da. (Ikusi Esaldiaren guna).

- "Peru etorri de"
- "semea etorri yaku soldadiskatik"
- "gauri ekarri oskus amak intxaurrek"

## EZEZKO ESALDIAK

(Ikusi Esaldiaren guna).

Ezezko esaldietan ZER izen sintagma nominatiboan (-ZER) edo partitiboan (ZERIK) joan liteke mugatasunaren arabera.

- "sesanik esta faltako gure artean"
- "dirue esta aspaldien sobran daoena"
- "basaurdarik ikusi be eskaindun in"
- "eskaindun bedar arloa akabau"

Izen orde eta adberbio mugagabeak ezezko esaldian, indartuta, be, bere, ere ezaugarriekin edo indartu gabe, batez ere esaldiaren bukaeran:

- "iñope esauen agorik askatu"
- "au estoa iñora be"
- "ser beostesu ba? Esebes"
- "basoas iñora ala? Es, iñora bes"
- "iñosbe esta gurera etorri"



### 3.4 SEMANTIKA JOSKERA LOTURAK

#### 3.4.1. OHITURA ADIERAZTEKO

—Forma soilen oposizioan.

-”au gixon au tertzios etorten da beti”

-”onek estau aukiten orretarako logurerik”

—Forma soilen oposizio gabe (testu inguru bidez).

-”ume au egunero elduten yat belu baño beluago”

-”onek mutil onek aginekas apurtuten daus intxaurrek”

—Forma soilaren prozesuaren puntutasuna neutralizatu egin liteke, ahozkoan behintzat; forma konposatuen balioa ere neutralizatu liteke.

-”one(k)p(b)eti dauke umore ona”

-”egunero dakasus oñetako bustiak”

#### PROZESUAREN JARDUERA ADIERAZTEKO.

—IBILI aditzaren bidez, Batez ere mogimendua, ekintza adierazten duten aditzekin edo luzaroko prozesuan.

(-TEN, -ETAN, -N, -KA, -Z...).

-”musean dabil tabernan”

-”auskera ikisten dabis”

-”ernegetan dabil aspalditxuen”

-”umeakas dabil”

-”auskera ikisten gabis”

-”musean dabil tabernan”

-”txistuke dabil”

-”atxurren ibili gara gautu arte”

-”poses beterik ibili de”

—EGON aditzaren bidez. Batez ere prozesu geldia edo momentukoa adierazteko.

-”lo yaok”

-”sufriduten dao”

-”ure irikiten dao”

–EKIN, behin eta berriro arlo baten ahalegintzea (ZER, NORI, NORK).

- ekin ingo yotzek orrek, baie bereari”
- ”ekiosu itaurreari laster du akabau te”
- ”ekiok bedar ebaten iñontza daoen artean”

ERAGON

- ”surok eragon, gaste sarien artean”
- ”badaragoiosue piperrak sartzean” / sartzeari

–JARIO

- ”ni(k)p(b)ariot gari eraiten” / eraiteari
- ”ak a... bario satz atetan” / ateteari

### 3.4.2. IMPERSONALTASUNA

Aditz iragankorrekin, laguntzailea iragankaitza:

- ”atea berez itxi da”
- ”itaurren galburue(k)p(b)atues iten da”
- ”Murgati Seberio ondo ikusten da”

Aurreko egituraren ondoan aditz iragankorrarekin NORK hirugarren pertsona plurala erabilten da esangura berdintsuan:

- ”gusurre dala diñudie”
- ”or asko kobretan daurie”
- ”Peru kartzelan sartu i daurie”

Aditz iragangaitzekin:

- ”bide orretatik eskoas iñora”
- ”orregas esin laitike yoan”
- ”saratorregas gortu in saintikes”

### 3.4.3. ERREFLEXIBOTASUNA

BURU hitza erabiliz:

- ”saure burue ondo yagongosu suk”
- ”bere buruagas berbas daragoio”
- ”bere burue gordeteak estautzo onik in”

—Laguntzaile iragankaitza erabiliaz:

-”orrastu sara baie txarto”

-”yantzi sates beingo baten”

—Erreflexibotasuna adierazteko beste batzuk: (beti ez dira erreflexiboak).

—Nik nauretara, zuk... eurak euretara.

-”nik nauretara eta suk sauretara esin geinke burutu”

-”eurek euretara majo dabis”

Norenkia + “barrureko”.

“ + “artean”

“ + “kitan” (kautan)

“ + “kolkorako”

-”bera(k)p(b)erekitan asmua daus gururrok”

-”bere artean esan auen ba se...”

ELKARRENARTEKOTASUNA Elkar (B.alkar Zeb. arkal).

—Aditz iragankorra, ZER singularra.

-”suk eta nik arkal ikusi gaindun ferien”

-”esotuko estogu arkal ba, ainbeste urtean!”

—ZER, NORI (sing.), NORK (pl.).

-”guk arkaleri laguntan dotzu”

-”arkaleri asko gurotzie orrik”

ALKAR beste kasuetan:

-”arkalegas bixi dire”

-”arkalegaitik asarratu dire”

BAT... BESTE... erabiliz. (Sujetoa, NOR edo NORK, pl.).

-”bate(k)p(b)estea ikusi be ixin dau in”

-”bata bestearen atzean dabis plageak arturik.

#### 3.4.4. AHALMENA ETA EZINAREN ADIERAZPIDEAK.

AHALMENA adierazteko.

Indikatibo zein ahalera bidez adierazo, aditzaren iragangaitz edo iragankortasuna ez da aldatzen:

- "ekarri geinke"
- "yoan al ixin banintzen"
- "etorri naintike"

Lehen partizipioa + ahal + indikatiboa.

- "sakue eroan al bosu"

Lehen partizipioa + ahalera + (orain aldia galtzen badao ere Zerberion gordetzen dugu oraindik).

- "ni nauk inaike surok on esarren be"
- "in inainke baie estaki(t)p(b)a siur"

EZINA adierazoteko.

Ezin + Indikatiboa + Lehen partizipioa.

- "esin yoat urdairi(k)tx(y)an".
- "urliek esin daus bedarrak sikitu aurten"

Tradizioari jarraituz oraindino entzuten dira honelako esaldiak:

- "esin yan sainke ogie otzitu arte"

Ezin + Ahalera + Lehen Partizipioa.

(Ezin + Partizipioa + Ahalera ere erabiltzen da).

- "esin naitike su barik egon"
- "esin erosi gainke kotxe barria"
- "gaur esin laiteke on bear barik"

### 3.4.5. BEHARRIZANA ADIERAZTEKO.

BEHAR aditzarekin aditz laguntzailea iragankor bihurtzen da.

- "ainbet arto erain beot ondiño"
- "etzera yoan biu (behar dogu)"
- "naupe etorri beakot suronera"

#### 4. ESALDIEN ARTEKO JOSKERA

##### 4.1. KOORDINATUAK EDO ELKARKIDETUAK

###### KOPULATIBOAK

###### ETA, TA, (DA) LOKARRIAZ.

###### 1. esaldia + ETA + 2. esaldia.

-”bearren yoan dok eta sotalbo be etxok in”

-”gastea da ta ikisiko dau undiño”

-”soas sa esaiosu etorteko”

ETA zergaitik kutsuz. (enklitikoa) (ikus. zergaitizkoak).

###### 1. esaldia + ETA + 2. esaldia: edo ETA azkenean.

-”yagi sates ba, belu de ta”

-”emendatu ixini(k)tx(y)aok eta, se ingotze(k)p(b)a”

-”etze gustie yan auen da, eskean asi sen”

ETA esaldi soilaren atalak ugaritzeko:

-”kanponasiñoak eta ikusi yosak orrek”

-”gaubes da ibilten dira orrik”

-”ixikoa ta etorri dires”

Baita... BE

-”aurten asak ona(k)t(d)aukus baite piperra(k)p(b)e”

-”gure Peru ikusi osue? bai. Eta txomin? baite”

-”orri(k)p(b)karrik es, bai gau be gixona!”

EZTA... BE

-”estoste eser in esta ingo be”

-”estauko ardaorik esta uri(k)p(b)e”

1. esaldia + 2. esaldia (ETA) + aditza partizipioan + BE + EGIN  
(edo aditz bera) jokatua.

-”yoan posi(k)t(d)oa eta etorri be posi(k)t(d)ator”

-”olango gausak entzun eta ixildu be iten dire”

-”burdie eroan dau, ekarri be in dau”

1. esaldia + 2. esaldian batzen den esaldi atala + BE...

-”nik esanauen, suro(k)p(b)e esango sainduen”

-”aite etorri de, umea(k)p(b)e etorriko dire”

-”gurea bada, surona be bada”

## BE EZ

1. esaldia + 2. esalsia / aditza partizipioan BE EZ + laguntzailea  
-EGIN partizipioan (edo aditz bera, partizipioan ego jokaturik).

-”estire yoan, yoan be estire sarri iten”

-”estire yoan, yoan be sarri estire yoango”

1. esaldia + 2. esaldia / esaldi atal bat + BE EZ:

-”nik enauen entzun, suro(k)p(b)e esainduen entzungo”

-”a estok etorri, lagune(k)p(b) estosak agartu”

## BE BAI

1. esaldia + 2. esaldiko aditz partizipioa + BE BAI.

-”posi(k) ñoak ortik, etorri be bai”

-”yoan posi(k)t(d)oa., etorri be bai”

-”artu iten dau, emon be bai”

## BE EZ

1. esaldia + 2. esaldiko aditz partizipioa + BE EZ.

-”estaos etzean, soloan bee”

-”esta(t) tx(y)an, yango bes”

## EZEZE... BE

Aditz lokuzioetan: Izen atala + EZEZE + 2. esaldiko aditz partizipioa (edo izen atala).

-”yan esese, edan be sie edango leuke”

-”lo esese, Itxarri(k)p(b)e oten badaki orrek”

-”sera esese, sera be ingaindun”

1. esaldiko edozein atal + EZEZE + pareko atala + BE EZ + aditza:

-”edan esese, yan be estau iten”

-”barrerik esese, negarri(k)p(b)e estau iten”

-”emen esese, an be estao psik”

## 4.2. ELKARKIDETZE DISYUNTIBOA

ALA

EDO

NAHI

ZEIN

(ETE)... ALA

Beti itaunetan edo zeharkakoetan:

- "yoan soas ala etorri satos?"
- "erosi in dosu ala emon in dotzue?"
- "berea dau ala iñona ete da?"
- "bere ala iñona ete da?"
- "ikusi in bear ona ala txarra dan"

Aditz sintagma isilpeturik:

- "etzetik satos ala tabernatik ain berandu"
- "etzetik ala tabernatik satos ain belu"
- "mutile ala neskea da?"
- "selangoa artuku, baltza ala surie?"
- "basatos ala?"
- "aurie da ala?"
- "bagoaxak ala?"

EDO

Esaldi asertiboan.

- "ori buru bakoa da edo estao sano"
- "estaudie entzuten edo estao iñor"
- "sagarra yaixu edo espabere madarie"

Zentzu berdintsuen adierazgarri:

- "asindak edo dirue estauko edosinek"
- "lasiertuna edo errapeko gaxoa dauko bayek"

EDO... EDO

- "edo bata edo bestea"
- "bietari(k)p(b)at, edo yan edo itxi"

Ikusten denez, Zeberion, EDOK;ALAre balioa hartzen du kasu batzuetan. Esakunaren indarrak sementika balioak aberastu egiten ditu.

ZEIN..., NAHI..., NAHIZ...

- "bata sain bestea"
- "ogie sain artoa yango naunke"
- "gaubes nai egunes dabil ortik sear"
- "aurrerikara nais atzerikara egin artayorran"

NAHI... NAHI  
NAHIZ... NAHIZ  
ZEIN... ZEIN

- "nais mutile naiz neskatoa gustauko llata"
- "sain bata sain bestea etorri gabonkariekas"
- "sain goxekoa sain arrastiko mesea entzun"

EDO... EDO

- "edo tertzios etorri edo etzean lotu"
- "edo arre edo iso"
- "edo bata edo bestea derrigor inbiu"

#### 4.3. DISTRIBUTIBOAK

Ezaugarriak esaldiaren hasieran:

- "batean badatorrela bestean estatorrela, beti seoser"
- "bata gastegia, bestea sarregia"
- "bateko han, besteko emen, beti arona"
- "batak au, besteak ori, nori yamon in"

Ezaugarriak esaldiaren bukaeran:

- "negartie da batetik, yatun txarra bestetik..."
- "ateak itxi batean, sabaldu bes bestean..."

Ezaugarriak era gehiagotara:

- "belu de batetik, logure bestetik, banoa lo"
- "bateti berbabidea, sesana besteti, ser egin?"

...LA ...LA

- "badala estala: ixin in de.
- "motza dala estala, genako andrea artu dauen"
- "bateko gastea dala, besteko estala, eskondu in de"

#### 4.4. ELKARKIDETZE ADBERSATIBOIA

BAINA

1. esaldia + BAINA + 2. esaldia:

- "buruko mine dauko baye yoango yatzu"
- "yakin asko daki urrean, baye aistu iten yako"



1. esaldia + BAINA 2. esaldia (BAINA enklitikoa).

-”sarra dala baya, uindo biskor dao”

-”estoala baya, yoan in de”

1. esaldia + 2. esaldia + BAINA enklitikoa (Menpeko kontzesibat-zat ere har dezakeguna).

-”yoango naintike, belu de baye”

-”yaixu gisen ori txarra osu baye”

1. esaldia + 2. esaldia + BAINO.

-”nik estot in, sau(k)p(b)año”

-”buskentza estosu yan, arpelik (g)aldu baño”

-”bedarra estot ekarri batu baño”

Era gehiagotara.

-”estiñotzut txarresean, onesean baño”

-”ara yoan baño lenao moro”

## BARIK, BEHARREAN

(Egitura aldetik menpeko izan arren hemen sartzen ditut esanguraz antzekoak bait dira).

1. esaldia + BARIK/BEHARREAN + 2. esaldia:

-”adinon on barik tirosu laguntan”

-”aiteri esan bearrean amari esaiosu”

-”yausi barik”

-”dana bearrean!”

1. esaldia + 2. esaldia + BARIK/BEHARREAN.

-”ator sutondora, otzakilik on barik”

-”esan iñontzan, ixilik(g)orde bearrean”

1. esaldia + 2. esaldia + OSTERANTZEAN / EZPABERE

-”arean mundu bakoa san, on utze ostaintxean”

-”ao geldi,emongoat espabere”

Beste erabilera bat:

-”ekarri iturrukure, ostaitxean ikusikosu”

-”es atera txitik(g)ero, espabere...”

## OSTERA, BARRIZ

1. esaldia + 2. esaldiko atal bat + OSTERA / BARRIZ + 2. 2saldiko azken zatia:

- ”yan ondo iten daust, lo barres askenean”
- ”olgau iten dau, ikisi, ostera, aiue(k)p(b)es”

1. esaldia + 2. esaldia + OSTERA / BARRIZ.

- ”enas ogiten yoan, yoateko esan dau barres”
- ”suri estotzu yango, gurean bete be ixinde ostera”
- ”txirgorea dalakoa, baye edurre da barres”

## BARRIZ

Esaera edo lokuzio bidez ere erabiltzen da.

- ”Bai barres”

## 4.5. HITANOZKO ESALDIAK ZEBERION.

HITANO era esaldi parataktikoen artean sar dezakegu eta gaur egun ere horrela erabiltzen da Zeberion komunikabideko hainbat kasutan batez ere adinekoen artean guk gazteok esaldi hipotaktikoak erabiltzen baditugu ere.

Adibide argigarri batzuen bidez hobeto ikusi ahal izango dugu:

ERABILERA ZAHARRA: Esaldi nagusia bakarrik HITANOZ.

- ”etorriko dala esan yok”
- ”estakiela esan yostek”
- ”etxakola gustetan esango yotzat”

GAZTEON ERABILERA: Nagusia zein menpekoa, biak HITANOZ:

- ”etorriko doala esan yok”
- ”etxakiala esan yostek”
- ”etxakoala gustetan esango yotzat”

Egia esateko, gaztean erabilera hau nagusitzen ari da eta adinekoan artean ere errez entzun daiteke hitanoa hipotaxisean.

## 5. MENPEKO ESALDIAK ZEBERION

### 5.1. ESALDI OSOGARRIAK

#### ADITZ JOKATUAK

—LA. Nagusia baiezkoa.

- "etorri dala deretxat"
- "buruko mine in yakola esan doste"
- "bene benetakoa dala esaun de"
- "in galkela esan dotzut"
- "apurtu laitekela yakin dosu"

—NA. Menperatuko ekintza hiztunarentzat jakindakotzat ematen denean. Nagusiak jakite edo ziurtasuna adierazten du.

- "basenkien etorriko sana"
- "badakit aurten be yoango sarena"
- "eskerrak etorri sarena"

—NAREN. Izenaren penpean.

- "yan bari(k)t(d)aoenan antza dauko"
- "abadekie ixin danan antzik estauko"

—NIK. Nagusia ezezkoa.

- "estot entzun urten dauenik"
- "enenkien ara eskondu saintzenik"
- "enenkien ixikoa il yatzuenik"

—NIK. Nagusia itaunean.

- "yoandanik edo entzun dosue?"
- "barriri agartuko danik esango ete saunke?"

Menperatuko ekintza hiztunarentzat jakindakotzat ematen denean nagusia ezezkoan zein itaunean egon! -NA erabiltzen da:

- "katutute daoena estosu ikusi ala?"
- baina
- "estot ikusi katutute daoenik"

—LA ren gaineko zehaztasun ezaugarriak.

—LAKO, -LA(Z)KOA, -LAKOAN, -LAKOTAN, -LAKORIK...

- "estaoelakoa esan dostie"
- "olan dalaskoa entzun du"
- "an dalakoan emen"

- ”yoan dalakoan gaos”
- ”etorrilo dalakorik estotzu esan?”

—N. Subjuntiboan. Nagusiak: guraria, beldurra, beharra, ezina, zilegia...

- ”eskolak ikisi daisusen gure gaunke”
- ”bildur nes andra lagunabarra aurkituko estosun”
- ”estao txarto saure ideakoagas eskondu saitesan”

Erabilera batzuk ez dira errezak kokatzen baina hona hemen gaztelerazko “sí, como te va a venir!” eta autzerakoak.

- ”bai, etorri estaiten!”
- ”bai, yoan estakian!”
- “-bai, yan estaitzen!”

Oharra: Baldintzazko esaldien itxurapean osagarrian esanahi berdinekoak erabilten dira.

- ”gurago lauke beragas eskonduko basintzikes”
- ”postuko naintike sauk esango basauskio”

ZE: Egitura banatuan eta batez ere ahozkoan.

- ”esan dau se tertzios yoateko”
- ”esan dau ba se edurre dakarrela”

## ADITZ JOKATUBAKOAZ

—TZE- (-TE-) atzizkiaz eginiko aditz izena.

ZER (nominatiboan). Nagusiak guraria adieraziz gero subjuntibo baina sarriago.

Sujetoa: “gausa ona da daneri(k)tx(y) atea”

Osagarria: “baye(k)p(b)atzea gure naunke”

Atributoa: “legea aurrekoari on itea da”

Halan eta guztiz ere beste bereizketa hau ere egiten da Zeberion:

- ”yan gurot” (nik)
- ”yatea gurot” (nik) edo (gehiagok)

ZERK (ergatiboan).

- ”edur andiek iteak bere kaltea(k)t (d)akas”
- ”ori esateak estotzu lotzeak emoten?”

ZER (datiboan).

- "zer deretxasu goxago yateari?"
- "nik enauskio emongo edateari!"

ZEREZ (genitiboan) Izenaren osagarri.

- "ilberan eraitean kontue dok ernaro txarrau"
- "asko ostuen buruko minek sartzaroan"

ZERIK (partitiboan).

- "ona etortetik estaukosu"
- "urliegas, etzera etortetik estao"

—TZEKO (-TEKO): Nagusiak agindua: (6)

- "bake-bakean itxiteko esan doat"
- "soloko sapatzek erretako agindu nauntzen"

## 5.2. ZEHARKAKO GALDERA ESALDIAK

Adimen-adierazpen, esatea esaldi nagusian.

1.—Itaun berbaz egiten direnak: -N ezaugarriaz.

Esaldi asertiboan:

- "bakit nor ixin den"
- "yakin gure naunke nok in dotzuen"
- "susau(k)tx(y)akingosu ser dabisun"

Esaldi interrogatiboan:

- "estakisu nora yoan dan?"
- "bitu (Begiratu) nondi dabilen"
- "bakik nogas abilan?"

Agintezko esaldian:

- "esayok nos yatorran"
- "esaik onek txal onek sainbe(t)p(b)aio dauen"
- "esaik sainbet erosi oasen"

-N + BAINO + Ez + ADITZA

- "nok in dotzen baño esta"!
- "no(k)tx(y)o dauen baño estok"!
- "sek eroan dauen baño esta"!

## 2.—BAIETZA ETA EZETZAREN EREMUA

-n (ala... -n) (ala ez)

-”estakit etorri den ala es”

-”neskatxie ala mutile dan dabakisu?”

—NIK

-estot entzun emen daosenik”

-”allegau direnik entzun dosu?”

—EA eta -N ezaugarriekin:

-”bitu ia bedarra sikit den”

-”soas ia txakurre kanpoan daoen”

OHARRA: Erderaren eraginez edo, oso zabal dabil BA- aurrizkia zeharka galderetan, batez ere gazteen artean.

-”estaki(t)p(b)adator”

-”ia lapikokoa inde badao”

-”estakiu pelikulea asi bada be”

-”bitiok bedarra yan bayok”

-”etxakiat etorri espok”

## 5.3. BALDINTZAZKO ESALDIAK

Aditz jokatuaz:

BA- da aditz aurretik jartzen den ezaugarria baina halan eta guztiz ere ondorioaren -KE ezaugarria aditz forma berean jartzeko ohitura dago Zeberioko euskeran.

BALDINERAKOAK:

1. Orainaldiko irrealak (baldintza ez da betetzen) eta gerorako baldintzak (gertakaritasuna adierazten dute) bereizteko esanahira jo behar da.

Baldintza baldineran

BA + soila

Partizipioa + -KO + lag.

Ondorioa usteeran

Soila + -KE

-KO + -KE

-”bera balator gau eskaintzikes yoango”

-”saurok ingo basaunkie ai(k)p(b)e ingo laukie”

-”gustauko ballatzu yoango saintikes”

2.—Iraganeko irrealak. (Baldintza ez da bete).

Baldintza baldineran Ondorioa egite eran

Lehen partiz. + BA- + lag.            -KO... -N (ind. iragana)  
Lehen partiz. + BA- + lag.            -KO... -KEAN

-”yakin ixin banau ingo nauen”  
-”emon balotzo auko auen”

Kasu batzuetan iraganeko baldinerari -N bat jartzen diogu Zebe-  
rioko euskeran:

-”yakin banauen enaintzen yoango”  
-”esan botzen ingo auen”

Ondorioa adierazteko egite erako formak nagusitu dira; uste  
erak ez dira horregatik osoan osoan baztertzeakoak erabilera lan-  
duan:

-”yakin balau esauen ingo”  
-”lenago esan basaust enaintzen beren beregi yoango”

## EGITE ERAKOAK

Baldintza betez gero ondorioaren ziurtasuna adierasten da; bal-  
dintza betetzea normala da beste alde batetik:

-”su basoas nau be yoango nas”  
-”auk espadakik nik selan yakingo yoa(t)p(b)a?”  
-”egie esaten bok, gizona ixingo as”

Badira baldintzaz eragıtako egiturak aditza geroan dela helbu-  
rua adierazten dutenak:

-”iñora yoango bagara, urtetako ordue du”  
-”aurrera ingo bu ekin in beakotzu”

Beste egitura berezi batzuk, batetik baldintza esaldia eta beste-  
tik zergaitia edo helburuzko esaldia daukatenak, biak IZAN aditzaz  
loturik doaz. Holakoetan baldintza esaldiak sujetoaren ordezk  
egiten du.

-”etorri bok seregine auki daualako ixin dok”  
-”lau ankan ibili basirean otzagaitik ixingo san”

## ADITZ JOKATU BAKOAZ

-Z GERO Aditz partizipioarekin.

- ”ardao lar edanaskero moskorra seguru”
- ”dirue auki eskero etzaldea erosiko ñaunkek”
- ”ara yoan eskero mesede ingo lostesu”

EZIK, EZEAN

- ”dirurik auki esik esin nainke erosi kotxea”
- ”ikisi esik esaunke burutuko biximoduen”

-TEKOAN, -TEKOTZAT...

Adint sustraiari gehitzen zaizkion ezaugarriok baldintza kutsua daukate sarri askotan. Gerokotasuna adidazten dute.

- ”dana nautzat ixitekotan yoango naintike”
- ”dana yan esitekotan esaunke artu bear”
- ”ardieri emotekotzat erosiko naunke galtzue”

Partizipioa + -AN (BERE) (7).

- ”gordeixu baten batek ikusien be”
- ”baten batek gaituen be sur on sates”
- ”umean batek entzunean be esaixu maldasiñori-  
(k)p(b)ota”
- ”medikue etorrien be iminibus erroga barriek”
- ”baten bat yausien be sikitixu origo au”

“ZEIN” lokarriz.

- ”goardasola eroaik sein busti”
- ”astiro yoai sein mosus aurre yausi”
- ”umea yagoine sein galdu”

## 5.4. HELBURUZKO ESALDIK

Helburuzko esaldietan ondorena lortzeko “asmoa” adierazten da, ekintza “zertarako” den.

Aditz jokatuaz.

Subjuntiboa (-N) atzizkiarekin.



-N

Esaldi nagusi eta menperatuko sujetoa berdina ez denean erabiltzen da: “yan dayan erosi oat”.

Gaur eguneko erabilera -N da aditz jokatuaz erabilten den ezaugarri bakarra helburua adierazteko.

Beste esaldi mota batzuekin bereizteko nagusiaren esanahira jo beharko da “asmoa”, helburua edo xedea” adierazten duen jakiteko.

Helburuzkoetan oraina eta iranaga biak dira erabilgarri “consecutio temporum”aren arabera. Baina hizkuntzarik gehienetan gertatzen denez, gaztelanian eta frantzesean adibidez, iragana galtzen doa orain aldiaren alde. Baina iragana erabilgarria da batez ere hizkuntza landuan.

-”kontuan yausi naiten in dostesu aupada”

-”autzi dote ona posi(k)p(b)ixi saitesan”

Baina honelako esaldiak ere entzun daitezke:

-”dirue emon otzuen baserrie erosi daisun”

-”ederra(k)p(b)ototzusen ixilik on saitesan”

Aditz jokatu gabekoaz.

-T(Z)EKO

-”sesin au yateko aginek sorrotz bea dire gero!”

-”etxagunegas eskontako ni pobrea ñatzu”

-”txoleta darabiu ure edateko”

-TEKOTAN, TEKOTAN...

-”beragas egoteko nao arrastien”

-”saugas etortekotan esta on ala?”

-T(Z)EARREN, -T(Z)EAGATIK, -TZEARRIK

zergaitia

-”arinegi yoatearren/gaiti sasitzara yausi de”

-”lartxu edatearren moskortu ok ori”

helburua

-”diruek itearren txarto yanda bixi de”

-”propiedadera eskontearren burue galduko lauke”

-TEKO: erabilera berezian

-”urlie ixin esiteko!”

- "gure sarrak ixin esiteko!"
- "güre aitue ixin esiteko!"

Adibidez: "batzuk etxakiek eser emoten, urlie ixin esiteko! (urlia emotuna zela adierazteko).

## 5.5.ERLATIBOZKO ESALDIAK

### EGITURA LOTUAN

- N + izen deklinatua
- + artilulua
- + beste mugatzailearen bat.
  - "ikusi dosusen bidaskiek bayeruek ixin dire"
  - "ebagi osun bedarra arpelik ebagi osu"
  - "esan dausen berbak, ba(t)p(b)etxatas gustau"

### EGITURA BANATUAN: (APOSIZIOAN)

- "...ori, Patxin semea dosu, serean bixi dana, elexondora eskondu sana, bai, amaka semalaba dituen eta oindo atxine estala etze barrie iten asi dana.

Egitura lotuan ondokoa kontextoan argi ulertzen denean, sustantiboa kendurik muga eta kasu markak -N erlatibo-markari ipintzen zaizkio:

- "ormau in daurienak arginek ixin dire"
- "yantzan dabisenok estaukie orpoetan arrik"
- "berbakoak estirenakas kontus badaespada"

Aurrean aipatu dudanez, erlatibosko esaldiak deklinatu daitezke nahi edo behar den kasuetan.

- "or daoena naure semea yatzu"
- "ondo doanari itxi bakean"
- "yokoan dabilenak estauko etzera tirarik"
- "seinakio daosenantzat badauket seregine"
- "gauberdien dabisenan ganean obeto ixilik on"
- etab. etab...

Erlatibozkoak berez izan ez arren erabilgarri dira holako esaera adierazkorrak:

- "ser ikusi, a ikisi"
- "umean sentzune etzean entzune"
- "ser erain, a batu"

## 5.6 PARTIZIPIOZKO ESALDIAK

Erlatibozkoen parekoak dira egikera amaitua, burutua adierazten dutelarik.

### 1.—Partizipioa + -(E)KO -TAKO

- ”nik esanekoa estosu in”
- ”dotean emoneko diruek suster bari(k)tx(y)an daus”
- ”suk ekarriko atxurre apurtu etxat in ba”

### 2.—Sustantibo barik partizipio hutsari ezarten zaizkio markak.

- ”nauk ekarrie da ori gero!”
- ”nauk ineri esetz esango ete otzesu ba”
- ”suk erosieri etxoten banao, argie nao”

## 5.7. ZERGAITIA

Esaldi menperatu kausalak nagusiko ekintzaren arrazoia adierazten dute. Komunikazio aldetik mota bitakoak lirateke esaldi kausalak:

### 1.—Zergatia jakin erazi da ondorena ezaguna delarik:

- ”aurie asi dalako etorri gara”

### 2.—Zergatia ezaguna da eta ondorena jakin erazi nahi dugu:

- ”gariiek eldu direnez ebagi ingus”

Beste sailkapen bat ere egin dezakegu:

### 1.—Espezifikokoak, esaldiaren helburua zergatia adieraztea denean:

- ”amea etorri yakielako daos ixilik”

### 2.—Explikatiboak, helburua ondorena adieraztea denean eta bide batez, argibidez, zergatia adierazi:

- ”etzera noa, belu de ta”

## Esaldiak:

Aditz jokatuaz	Izen sintagma eta aditz izenarekin	Elkarkuntzak
-LAKO	-GAITIK	ZE
-ETA, TA	-T(Z)EAGAITIK	ZERGAITIK ZE
-LA (E)TA	-T(Z)EARREN	
-NEZ		

### -LAKO

- ”sauk esan dostesuleko in dot”
- ”doala, estostelako kasurik iten”
- ”gurotelako in dot eta kitu”

### ETA, TA

- ”undiño umea da ta se ingotzesu bai”
- ”saos ixilik, naiko da ta”
- ”noyan etzera belu be bada ta”

### -LA (E)TA

- ”ume asko be badaukela ta lagundu in beayako”
- ”tertzioa be dala ta garie erain beako da”
- ”negue be bakarrela ta egurretan noa basora”

### -NEZ

Atzizki hau ia ez da entzun ere egiten baina bere ordez -N + LEZ erabiltzen da bai zergatia eta bai erazkoak egiteko.

### -N + LEZ

- ”gautu dauan les eskara yoango urriner”
- ”sau etorri saren les estauke(t)tx(y)oaterik”

### -NEZ GERO

- ”plasara soaseneskero istesus errekaduek”
- ”aurie asi daueneskero soltau degusen ganaduek”
- ”barauegune daneskero estaigun yan okelarik”

### -T(Z)EARREN

- ”belu etortearren yo nau”
- ”arinegi yoatearren yausi nas mosus aurre”
- ”etzea itearren diru gustie yoan yat”

-TEARRIK

- ”dana deslai itxitearrik oin dana ankasgora”
- ”sauri emotearrik nau bapebarik”

ZE / ZERGAITIK ZE (hau bigarren hau oso gutxi).

- ”ongo gosak se bayaok ser esan”
- ”bañoatzue se baye(k)p(b)atzeako yaukoadas”
- ”semetxuek! aurreratu ixue oin, segaiti se sartzarorako falta ingotzue(ta).

## 5.8. ALDIZKO ESALDIAK

### ESALDI NAGUSIKO PROZESUA AURRETIK BURUTZEN DENEAN

AURRETIK, BAINO LEHEN, /-AGO), ORDUKO

- ”esaixu yan eser baskari aurretik”
- ”esaixu edan txikitorik yan aurretik”
- ”arpegia garbitu etzetik urten baño len”
- ”gausak itorduko ondo pentzau”
- ”gautu baño lenago in korta bearrak”

ARTE, ARTEAN, BARIK ETA... ARTE (bukaera adierazteko).

- ”antxe on gaintzezan sau etorri arte/artean”
- ”es yoan arik eta dana yan arte”
- ”mundubako utze san arik eta eskondu arte”

-NERAKO

- ”konturetu gaintzenerako aimareak”
- ”etzera yoaten sarenerako danak afaldute daos”
- ”elexara yoaten gaintzenerako, lekuripes”

### ESALDI NAGUSIKO PROZESUA BATERA BURUTZEN DANEAN:

-NEAN

Indikatiboan

- ”solteru egoten saintzenean anakak soltu”
- ”buruko mine daukasunean artu aspirinan bat”
- ”iñor estaukasunean nigana satos”

Subjuntiboan (oso gitxitan)

- ”yoan saitesanean kontus ibili”

-NETAN, -N BAKOTXEAN, -N GUZTIETAN...

- ”tabernara doan bakotxean katutu”

-”gurera datorrenetan posik etorten da”  
-”yoan dan gustietan arpelik”

-LA

-”iketzegosten noala Mari ikusi nauen”  
-”basoan nengoala parte txarrekoak ikusi nituen”  
-”lo daoela be ikusi iten dau orrek”

-N ARTEAN, -N BITARTEAN...

-”tabernara doan bakotxean katutu”  
-”gurera datorrenetan posik etorten da”  
-”yoan dan gustietan arpelik”

-LA

-”iketzegosten noala Mari ikusi nauen”  
-”basoan nengoala parte txarrekoak ikusi nituen”  
-”lo daoela be ikusi iten dau orrek”

-N ARTEAN; -N BITARTEAN

-”gu lo gaosen artean ausokoa atxurrotzean”  
-”errentore on dan bitartean larri ibili de”

-ERAN, -KERAN

-”etorreran ikusi satut”  
-”yoakeran kontus yoan badaespada”

Ikusten denez hemen ere ez da beti betetzen “consecutio temporum”a:

-”etzean naoela etorri sen”  
-”etzera nentorrela ikusi ñok”  
-”etzerantza nentorren ikusi nauanean”

ESALDI NAGUSIKO PROZESUA ATZETIK BURUTZEN DENEAN

-NEAN

Prozesu edo egikera bukatua edo burutua adierazten du aditz edo aditz formaz baliaturik.

-”sorra pagetan dosunean berba ingu”  
-”esanak esan yakosanean txiterdi be es auen atera”  
-”su yayo saintzenean in gairdun au etze barri au”

-NEZ GERO

-”buruen sartu yakon eskero bixi be esta”

-NETIK, -NIK: HONA, ETA GEHIAGO...

- "eskondu danetik esotu be esilai"
- "bearren asi danik ona bestala dabil"
- "asarratu sanik eta geao agartu be esta in"

-NEKO

- "ikusi naueneko mosuke iruntzi bea nauen"
- "agoa askatu aueneko asi yakosan sarataka"
- "eskondu saneko asi yakon agintan"

-Z GERO (8)

- "eskondu eskero estau juergarik in"
- " gautu eskero ekiten autzien kontukonteteari"

ETA GERO, ORDUAN, OSTEAN...

- "in dosune in de gero nori emon arpegie?"
- "asko edan orduen enas ñora be mogitan"
- "afaldu ostaien kartetan ingu"

-RIK HARA

- "iruntzirikara botauen yanekoa"
- "sagarrak laurkindu ixus errerikara"
- "ikusirikara esotu ot"

Izenari loturik ere erabilten da.

- "labarikara yaten du ogie"
- "etzerikara dabil bearren"
- "alborikara ikutu nau pasakeran"
- "atzerikara es in ñori burlerik"

Partizipioa + -ALA

- "aterala yan gauntzen dana"
- "emonala iruntzuko lauke"
- "irebasiala gastetan dau"

Partizipioa + BARRITAN / ZAHARREAN

- "yayoparriten urdin-urdine san"
- "yanbarriten es in ugerrik"
- "yan sarrean lo be obeto iten da"

## 5.9. ADITZ JOKATUAZ

-N LEGEZ, -N LEZ, -N MODUAN, -N ANTZEAN...

- ”gure aituek esayauen les, oin estao lengorik”
- ”nik in doten moduen iten bosu, ondo soas”
- ”aurek esan daurien antzean indot”

BA + baldinera + LEGEZ, LEZ, MODUAN...

- ”nauk in banau les estaust esan ba!”
- ”iñok espaleki letxe yokatu dau”
- ”betiko bagintikes moduen bixide”

-NEZ

Egitura kidetuan.

- ”telebisiñoan ikusi unes, estaipa nora eldu biun”
- ”orti(k)t(d)iñudienes, aurten edur urte aukiku”

-LA

- ”umea apurrin ekarrela ikusi gaindu”
- ”umea besoatan naunkela loak artu osten”

## ADITZ JOKATU GABEAZ

Partizipioa + -(E)KO + LEGEZ, LEZ, MODUAN...

-TAKO

- ”sauk itxiko moduen topau nauen”
- ”aitek esaneko moduen ibili gero!”
- ”sauk entzuneko antzean entzun dot”

Partizipioa + -T(Z)EKO (Helburu kutsuz) + LEZ, MODUAN...

- ”ondo sikituteko moduen sabaldu bedarrak”
- ”umeak artu es iteko moduen iminixu”
- ”barriro topetako letxe gorde gausak”

Partizipioa + BARIK, EZINIK,...

- ”ibili ixinik etorri ok moskorragas”
- ”txapela kendu barik ibiltok ori beti”

Partizipioa + -Z, -AZ.

- ”suñori etzeratues goas”
- ”burue makurtues doa orratiño”
- ”esies daru idi misketu au”



Aditza isilpeturik

Atal biak kasu berean: LEGEZ, LEZ.

-”aite les iten daus gausak”

-”umeari les emototzien yaten”

-”txakurre les yaten dau okelea, ogi barik”

-REN LEGEZ, LEZ, MODUAN...

-”amerikanuen moduen bixi de”

-”eskekoan antzean dabil aterik ate”

-K LEZ

-”su(k) les esineis in bearrak”

-”aite(k) les daro labrantzea”

LEGEZ, LEZ, MODUAN... eta beste sinonimoak izen sintagman ere erabiltzen dira mugagabeko izenaren atzean:

-”gixon les portau de”

-”lagun moduen diñotzut”

Esaldiak izen zintagmaren bidez batzen direnean:

Izan aditzarekin (isilpeturik sarriago).

-N LAKO, LANGO

-”sulangoa banintike oba naunke”

-”txarrie igeskoa langoa bada estao txarto”

-”nilangoa bat on soan da bera txarrie(k)tx(y)an”

BESTE ADITZEKIN

Aditz jokatua + -N + MODUKO, ANTZEKO...

-”iges auki gaindun moduko artotzarik estauku aurten”

-”suri ekarrikitzun antzekoa nau(k)t (d)auket”

Aditza isilpeturik:

-”ire modukoari esin laiok mesederik eskatu”

-”orren antzeko biskorrak etxaosak nainon”

## 5.10. ESALDI KONTZESIBAK

### ADITZ JOKATUAZ

Egia esateko “-N arren eta Nahiz eta... -N” ez dira askorik edo bat ere entzuten, forma enklitikoetan ostera erabiltzen da.

BAINA (enklitikoa).

- ”estaurie aintzat artzen, bere burue seosertzat auki dau baye”
- ”yausi de parauxin bakoa ixin de baye”

BA... BERE (baldintzazko esaldien egituraren oinarrituta).

- ”indertzue bazan be ondo inderga yaok”
- ”belauniko ballatorta be enauskio emongo”

## ADITZ JOKATUGABEAZ

Partizipioa + ARREN (BERE)

- ”asko auki arren dana yan dau”
- ”eskondu arren be esta artestu”
- ”yoan es arren be estaust ardure”
- ” enaoela yakin arren etorri in de”

NAHIZ ETA + Partizipioa.

- ”nai te galdu yokatu in biu”
- ”naite txarto egon in in dau”
- ”naite belu eldu goasen”

Partizipioa + -TA BERE.

- ”esanda be in in dozu”
- ”bixiek bixite be aurrera in dau”
- ”iribasiiek iribasite be geao gure dau”

Partizipioa + -Z GERO BERE.

- ”bere gogoa in eskero be estao posik”
- ”yo eskero be estau negarrik iten”

Partizipioa + EZ TA BERE.

- ”yoan es da be estosu asko galduko”
- ”etorri es da be niri ser?”

Partizipioa + -TEAGATIK.

- ”ara yoateagaitik estosu dana ingo”
- ”lapikokoa yateagaitik esara asko lodituko”

## 5.11. ESALDI KONPARATIBOAK

Gehiagotasuna adierazteko: Nagusitasuna.

Konparaketaren 1. atala + 2. atala + BAINO + -AGO(kasu berean doaz atal biak).

- ”gure soloa surona baño sabalagoa da”
- ”berbas bearren baño denpora geao emoten dau”
- ”lapikokoa sartanekoa baño ohea yatzu”

**Lokuzioz:**

- ”ori gure aldean ondo bixi de”
- ”urliek asko iribasten yok nire ondoan”

**Ordena alda daiteke:**

- ”arpelagoa da agindute ine baño”
- ”ohea da plasarako etzerako baño”

**Aditz gaiak ere sartzen dira konparaketan.**

- ”pentzetan nauen baño gatxagoa ixin de”
- ”eroan saindun baño askos andiagoa dakasu”

**ERREPIKATUZ:**

- ”polito-polito daragoyo bearrari”
- ”eperdie bero-bero in dotzo umeari”

**Mailaketa aditzarekin:**

- ”esanago ta txarrago”
- ”oñetakoak erabiliago eta bigunago”

**MAILAKATZEA ADJETIBOA EDO ADBERBIOAREN BARRUAN**

**Adberbioen bidez:**

- ”sano gixon ona da”
- ”gustis galdute dao”
- ”ondo polite da etze au”

**Atzizkien bidez: -EGI, -TXU. -TO...**

- ”gastegie da sutzako”
- ”iluntxu dao susi barik ibilteko”
- ”a san ixiteko gixontoa”
- ”au dok iditzarra”
- ”mutiko loditua yatzu ori”

**PAREKOTASUNA ADIERAZO**

**ADJETIBOAK KONPARATURIK:**

**-REN BESTE(KO), BESTEAN...**

- ”gurea besteko txakolin ona daukasue”
- ”aiten besteko beargine inde dao”

Adberbioak Konparaturik.

- "estao atzo bestean ilun"
- "atzoko besteko otzik estu esotu"

BESTE, AINA, LAIN

Aurrean genitiboa zein ergatiboa.

- "No(k)t(d)aki su(k)p(b)este?"
- "aren beste estaki edosinek"
- "akaiñe badakixu su saupe"
- "yateko lain iribasten du"
- "bixiteko lain auki eskero!"
- "etzerako beste ingo dau"
- "galdu es iteko beste badaki"

Aditza + -N BESTE...

- "beadan beste be estau in"

HONENBESTEKO, HORRENBESTEKO, HAINBESTEKO (izenari lotuta).

- "norakosu ainbesteko prisea ba?"
- "onenbesteko sasitzarik esta iños on"

(-KO) kendurik:

- "orrenbeste umegas esin lai burutu"
- "ainbeste diruges nora soas ba?"

SUPERLATIBOA ADIERAZTEKO

-EN-

Adjetibo eta adberbio kutsuz:

- "auxe da gasteana eta sarren dao"
- "burdirik ederrena da eta ondoen inde dao"
- "txarri au sarrena da eta argalen dao"

-RIK ERDI

- "solorik erdiek labrau barik, ori de patxadea"
- "loa, yanik erdie dosu"

## 6.-GALDERAZKO ESALDIAK: HITZ ORDENA ETA ENTONAZIOA

Hitzen ordenari dagokionez, esaldi enuntziatiboetako bera da. Ahozkoan entonazioak markatzen du bereiztasuna.

Mugagabea denean, entonazioaz gain partitiboa dugu beste ezaugarrietariko bat.

Dudazkoa edo antzerakoa denean “ETE” partikularekin egiten dira esaldiak.

-”txomin etorri de? Bai, Txomin etorri de”

-”astirik aukikosu?”

-”sainbet iribasten dosu?”

-”estosu ekarri?”

-”aurie ingo ete osku?”

-”yoango ete gara ba?”

Galde-hitzak direla eta batzuk aldatu egiten dira enuntziatiboe-tan:

-”iñor yoan da? Bai, iñor bai/baten ba (t)p(b)ai”

-”eser bakasu? Bai, eser bai/seoser bai”

-”iñon onda? Bai, iñon bai/ainbaten bai”

-”iños on sara? Bai, iños bai/ nosonos bai”

-”etab. etab...”

Ezezkoetan neutralizazio eginak ditugu:

-”esebes / esepes”

-”iñorbes / iñopes”

Era honetara bereizten dira ba Nominatiboa eta Ergatiboa:

## 7.-HARRIDURAZKO ESALDIAK

Ez da bat ere erreza arlo hau aztertzea, bakoitzak bere nortasuna duelako eta egoera bakoitzean bihotzaren bihozkadaz hitz egiten delako.

Mundu aberatsa da izan ere Harridurazko Esaldien mundua eta hizkuntzaren “arima” barruan dagola esango nuke. Horregatik aipatu bakarrak egiten dut joskeraren azken zatian agor-ezinezko iturri bat dugulako hiztunon artean.

- ”au da ixitekoa!”
- ”esan be itea!”
- ”orioketa!”
- ”se ingotzu ba!”
- ”sarroninsaitiela!”
- ”bijon daisuela!”
- ”polite ser da su ume yayoparri au!”

## 8.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Lan honen haronakoa egiteko. Eusko Jaurlaritzaren babespean egindako talde-lan bat —ni neu ere tarteko naizelarik— erabili dut eta lan honen oinarrian erdal zein euskal gramatika ugari ikutu dugu. Denak ez badira ere hona hemen batzuk.
- Altube, S. Erderismos. Bilbao, 1975.
- Añibarro, P. Gramatica Bascongada. ASFJU. SS: 1970.
- Arejita, A. Euskal Joskera. Durango, 1982.
- Azkue, R. M. Morfologia Vasca. GVE. Bilbao, 1964.
- Campion, A. Euskariana II. Pamplona, 1936.
- Etxeberri, J. Lan hautatuak. Lur, SS. 1972.
- Euskaltzaindia. Euskal Gramatika, lehen urratsak. P. 1985.
- Gavel, H. Quelques observations sur le passivite du verbe basque. RIEV. XXI.
- Gili Gaya, Curso superior de sintaxis española. Barcelona, 1973.
- Goenaga, P. Gramatika Bideetan. Erein. SS. 1978.
- Irazola, J. M. Aditza: Konparatua. Durango, 1978.
- Lacombe, G. Hugo de Schuchardt et la Morphologie de la Lengue Basque. RIEV. XXII.
- Laffite, P. Gramaire Basque. Bayonne, Ikas.
- Lafont, R. Le systeme du Verde au XVIeme Siecle. Elkar, Zarautz, 1980.
- Lekuona, M. Sistema conjugacional del verbo vasco. RIEV. XVI.
- Lewy, E. Bosquejo de una Sintaxis Elemental. RSVAP. II eta III.
- Mujika, J. A. Perpaus Bakunaren Sintasia. Bilbo, 1978.
- R. A. L. E. Esbozo de una nueva Gramática de la Lengua Española. Madrid, 1974.
- Salaburu, P. ikaslearen esku-gramatika. Arizkun, 1981.
- Taldeak. Arejita, A.; Etxebarria, J. M.; irazola, J. M.; Uriarte, J.: Bizkaieraren idatzizko arauak, Joskera II. Eusko Jaurlaritzak, 1989.
- Txillardegí. Euskal Gramatika. EV., Bilbo, 1978.
- Van Eys, W. J. Etude sur Lórigine et la Formation des Verbes Auxiliares Basques. Maisonneuve, Paris, 1875.
- Villasante, L. Estudios de Sintaxis Vasca. Aranz. 1978.
- Villasante, L. Sintaxis de la Oración Simple. Oñ. 1980.
- Villasante, L. Sintaxis de la Oración Compuesta. Oñate, 1976.
- Zugazaga, L. Morfojoskera. Derio, Udako Euskal Ikastaroa.
- (2) Arejita, A. Euskal Joskera. Durango, 1982.
- (3) Adibideak era bitara agertuko dira: Batzuetan kontrakzioa eginik eta beste batzuetan, irakurleari argitasuna eman nahian, erresultantea garbian doa eta beste kontsonanteak parentesis artean.

- (4) Ezezko esaldiak egiteko gure lurraldean bizi bizirik daukagu eskema hau: Aditz-partizipioz + EZ + Laguntzailea + Egin; perpausa nagusi zein menperatuetarako.
- (5) Adibideok beste era honetara ere ager daitezke: "egurdie otza dauku"; "aurten artoak ederra(k)tx(y) atorkus".
- (6) "-TEKO" atzizkia osogarri zein helburuzkoa, era honetara darabilgu Zeberion: Aditza bisilaboa denean, "-TU/-DU" atzizkiari "-TEKO" erasten zaio: "sartuteko, landuteko, etab. Trisilaboa denean "-TU/DU" galdu eta "-TAKO" erasten zaio: "apurtako, samurtako, baskaltako, ixiltako" etab. Tretasilabo edo gora-gokoetan ere eurrekoen erara egiten da: armosetako, eskribitako, errebase-tako, erretiretako" etab. Beste kasu batzuetara bagoaz berdin gertatzen da. Esate baterako: lit. lagunduten, Zeb. "laguntan"; lit. lagun (du) te/tzerik; Zeb. "laguntarik" etab...
- (7) Kasu hau adierazteko badugu Zeberion beste forma bat eta zuzenketa oharretan Mitxelenak berak ere ez zidan argitasunik eman. Baina erabiltzen dugunez gero hona hemen adibide batzuk: "gordeixu *sein* baten batek ikusi"; sikitisu origo au *sein* galdu" etab... (-ei- > -ai- sarritan, ikus dipton-gazioa).
- (8) "-Z + GERO" aditzari ezeze beste kasu batzuei ere erasten zaio. Adibidez: "bein neguraskero allabako okerana(k)t (d)ariola gabixek"; "Bilboraskero gabonkariak ekarrisek"; "sartzaroraskero etxune bearri(k) p(b)ear", etab...

## VIII. KONTSONANTE MULTZOEN AHOZKERA

Hitz egiten dugunean, “Kanpo sandhi” edo “Grupo Foniko” en bidez egiten dugu eta era horretara kontsonanteen elkar-joteak sortzea guztiz bidezko da herri-hizkuntzaren eufonia, ekonomia eta artikulazio ohitura bitarteko direlarik.

Izan ere, ez da bat ere erreza “Grupo Foniko” edo osterantzeko kontsonante elkarte batzuk ahozkatzea eta horregatik herriak, berezko fonetika legeak jarraituz, erreztu egin du kontsonanteon ahozkerak (1).

Hiztun bakoitza aparteko mundu bat da eta beste hiztunekin bateratsu hitz egin arren, beti dira bata bestearengandiko aldakuntzak.

Gainera, hiztun bakoitzarengan ere, bizitzako egoera guztiak ez dira berdinak, eta egoera batean egon edo beste batean egon “Grupo Foniko” berbera ez da berdin-berdin ahozkatzen (2).

Nire aldetik, Zeberrioko euskeran aurkitu ditudan “Kontsonante Multzo” en ahozkerak jasoten saiatu naiz, euretariko batzuk, aurreago aipatu ditudan faktorean arabera, beti berdina ahozkatzen ez direlarik.

Metodologiari dagokionez, era askotara azter daiteke “Kontsonante Multzo” en ahozkerak. Nik jarraitu dudana bidea hau da: Ahots-Moldeari dagokion sailkapena hartu eta euretariko kontsonante bakoitza herrian erabilten diren beste kontsonante posible guztiekin elkar-jo erazi banan-banan eta alfabetikoki herriko hiztunengandik jasotako adibideak bitarteko direla (3).

Argibide bezala, komilla artean doan fonologia mailako herri-adibide bakoitzak literatura mailako bere pareak darama gainean, “Kontsonante Multzo” en jatorria ikusi eta ondorioak aterareko.



## 1. LEHERKARI GORRAK.

### 1.1. “-p”

Ez da erreza azken posizioan “p” bat aurkitzea “eup!” edo ez bada.

### 1.2. “-t + b- = “-p-”

- 1) bat bai  
“bapai”
- 2) bat bakarrik  
“bapakarrik”
- 3) ez dakit buruz  
“estakipuruz”

### “-t + d- = “-t-”

- 1) bat dator  
“batator”
- 2) ontzat dauka  
“ontzatauko”
- 3) ez dakit dana  
“estakitana”

### “-t + f- = “-f-”

- 1) bat falta da  
“bafaltada”
- 2) ontzat firmauko dot  
“ontzafirmaukot”
- 3) ez jak falta  
“etxafalta”

### “-t + g- = “-k-”

- 1) bat gara  
“bakara”
- 2) zeuretzat gorde  
“sautzakorde”
- 3) ez jat gustatu  
“etxakustau”

### “-t + j- = “-j-” (4)

- 1) zenbat jan dozak?... bat jauna  
“sainbetxadosak?... bajaune”
- 2) zelan hartu dok ba? ontzat jauna  
“zelan artu opa? ontzajauna”

3) baso bat Juani dotean  
"baso bajuaneri dotean"

"-t + k-" = "-k-"

- 1) bat karran doa  
"bakarrandoa"
- 2) zeuretzat katea hori  
"sautzakate ori"
- 3) ez jat katigatu  
"etxakatigitu"

"-t + l-" = "-l-"

- 1) nik baudaukat laguna  
"nipaukolagune"
- 2) solo bat landu  
"solobalandu"
- 3) ez jak loditu  
"etxaloditu"

"-t + m-" = "-m-"

- 1) emon dot mosua  
"emondomosue"
- 2) neuretzat madaria  
"neutzamadarie"
- 3) ez jat mobidu  
"etxamogidu"

"-t + n-" = "-n-"

- 1) ekarri dot narra  
"ekarrionarra"
- 2) beretzat nabil  
"beretzanabil"
- 3) ez dot neurtu  
"estonaurtu"

"-t + p-" = "-p-"

- 1) bat parean dago  
"baparean dao"
- 2) heuretzat porruak  
"autzaporruek"
- 3) ez jak paratu  
"etxaparau"

“-t + s-” = “-s-”

- 1) jan dot sagarra  
“yandosagarra”
- 2) heuretzat sagardoa  
“autzasagardagoa”
- 3) ez jat sugertatu  
“etxasugertau”

“-t + tx-” = “tx-”

- 1) nik badaukat txakurra  
“nipaukotxakurre”
- 2) merketzat txarria  
“merketzatxarrie”
- 3) ez dot txarrik esan  
“estotxarrikesan”

“-t = x-” = “-x-”

- 1) nik badaukat xaxarea  
“nipaukoxaxarea”
- 2) heuretzat xaxara hori  
“autxaxaxarori”
- 3) etorri jat xaxarea  
“etorriyaxaxarea”

“-t + y-” = “tx-”

- 1) bat jan dau  
“batxadau”
- 2) esantzat joan da  
“esantzatxoan da”
- 3) ez dakit jaten  
“estakitxaten”

“-t + z-” = “-z-” (“s” ahozkatzen da)

- 1) entzun dot zurea  
“entzundosurea”
- 2) beretzat zan  
“beretzasan”
- 3) ez jat zabaldu  
“etxasabaldu”

#### ONDORIOAK:

- a) “-t” fonemak “b-; g-; y-” jotean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: “-p-; -k-; -tx-” hain zuzen.

Fonema berrion izateari buruz, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gorturik.

- b) “-t + d-” kasuan, biak ditugu Ahoskune berekoak eta elkar-jotean gorra nagusitzen da.
- d) “-t + y-” kasuan, gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.
- e) Beste kasu guztietan, “-t” galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

Baliteke “-t” hori galdu ez egitea intensitatearen arabera, baina orduan leherkari gorraren eraginezko eten bat sortuko litzateke eta datorren fonema (5) hitz hasieran balego bezala hartu behar da.

Dena den, herria beti doa errezero eta galtzea da errezena.

### 1.3. “-k + b-” = “-p-”

- 1) nik badakit  
“nipakit”
- 2) biderik bide  
“bideripide”
- 3) etorri dok ba!  
“etorriopa!”

### “-k + d-” = “-t-”

- 1) geuk dakigu  
“gautakiu”
- 2) eurak dabilz  
“auretabis”
- 3) gastatu jok dirua  
“gastauyotirue”

### “-k + f-” = “-f-”

- 1) hark falta dau  
“afaltadau”
- 2) ez dok falta  
“estofalta”
- 3) gauzarik fazilena  
“gausarifasilena”

### “-k + g-” = “-k-”

- 1) hark garoaz  
“akaroas”
- 2) gazterik gangartu  
“gasterikangartu”

3) hortik goaz  
“ortikoas”

“-k + j-” = “-j-”

- 1) hark jentilak  
“ajentilek”
- 2) hik Juan jo dok  
“ijoanyook”
- 3) etorri egin dok Jose  
“etorriindojose”

“-k + l-” = “-l-”

- 1) neuk lagunduko deustat  
“naulagundukotzet”
- 2) ez egin surik labe aurrean  
“esinsurilaburrean”
- 3) ardurak lagunduko deustu  
“arduralagundukotzu”

“-k + m-” = “-m-”

- 1) hik musean ez dakik  
“imusean estakik”
- 2) goizerik mar-mar  
“goxerimarmar”
- 3) jan dok morokila  
“yandomorokile”

“-k + n-” = “-n-”

- 1) pozik nabiltzu  
“posiñabitzu”
- 2) goizerik natortzu  
“goxeriñatortzu”
- 3) astibarik nagok  
“astibariñaok”

“-k + p-” = “-p-”

- 1) nik polito jan dat  
“nipolito yandot”
- 2) zeuok pasatu  
“sauropasau”
- 3) ez nok paratu  
“enoparau”

“-k + s-” = “-s-”

- 1) barruzkiak samur dagoz  
“barruskiesamurdaos”
- 2) ebagi dok sasirik?  
“ebagiosasirik?”
- 3) hik sua egik!  
“isueik!”

“-k + t-” = “-t-”

- 1) hark taukia darabil  
“ataukie darabil”
- 2) urliak taketak egin jozak  
“urlietaketakinyosak”
- 3) erein dok tomatea ez dok  
“erain dotomatea estok?”

“-k + tx-” = “-tx-”

- 1) hark txakurra daroa  
“atxakurre daro”
- 2) goizerik txantxetan  
“ goxeritxantxetan”
- 3) uxatu dok txoria?  
“uxatuotxorie?”

“-k + x-” = “-x-”

- 1)hark xaxarea dauka  
“axaxarea dauko”
- 2) hori dok xaxarea!  
“orioxaxarea”
- 3) jan egik xaxaraz  
“yaixaxaras”

“-k + y-” = “-tx-”

- 1) berak jan dau  
“beratxandau”
- 2) ez dok jan  
“extotxan”
- 3) extotxan”
- 3) pozik joan da  
“positxoan da”

“-k + z-” = “-z-” (“s” ahozkatzen da)

- 1) pozik zatoz  
“posisatos”

- 2) zeuok zarie  
"sauosarie"
- 3) bota dok zozoa?  
"botososoa?"

## ONDORIOAK

- a) "-k" fonemak "b-; d-; y-" jotean, fonema berri bat sortzen da ba koitzarekin: "-p-; -t-; -tx-" hain zuzen.  
Fonema berrion izatea dela eta, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gortutakoa.
- b) "-k + g-" kasuan, biak dira Ahoskune berekoak eta elkarjotean gorra nagusitzen da.
- d) "-k + y-" kasuan gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.
- e) Beste kasu guztietan, "-t" rekin gertatu den bezalaxe, "-k" galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.  
"-k" galdu ez egite bat balitz, "-t" ren arrazoi berberetatik litzateke.

### 1.4. "-k + O"

- a) "-k" plurala zein ergatiboa, azken posizioan agertzen denean bokale berri bat sortzen da, gehienetan "-k" horren aurrekoa la-koa eta era horretara ez da galtzen "-k" hori: (6)

"nik i..."  
"onek e..."  
"guk u..."  
"gixonok o..."

- b) Deklinabideko ablatiko kasuan azkeneko "-k" askotan entzun ere ez da egiten:

"Bilboti nator"  
"soas emeti"  
"etorri munati"

Bokale bat sortuz gero, "-k" hori entzuten da:

"basotik i... sasie dao ugeri"

Esana egia bada ere, batzuetan, eta batez ere belaunaldi gaztearen artean, azentu edo eta ahozkeraren intensitatearen arabera, beste era batera bideratzea ere posible da aipatutako kontsonante elkarte batzuk behintzat. Adibidez:

“badbai”	[bad <sup>†</sup> ba <sub>̃</sub> i]	lit. bat bai
“nigbai”	[nig <sup>†</sup> ba <sub>̃</sub> i]	lit. nik bai
“badsan”	[bad <sup>†</sup> sa <sub>̃</sub> n]	lit. bat zan
“sugsauk”	[sug <sup>†</sup> sa <sub>̃</sub> uk]	lit. zuk zeuk
“nignauk”	[nig <sup>†</sup> na <sub>̃</sub> uk]	lit. nik neuk

Adibideok entzun entzuten dira baina ez da inondik ere Zeberio joera nagusia.

Azken adibideok berriz aipatuz, T. Navarro Tomas datorkit gogora, “Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica” delakoan egiten duen transkripsio fonetikoari ohar batzuk rgiteko.

Hauxe dakar 49 garren orrialdean eta Gernikako gazte batenak direla dio: (7)

	— ¿gaur s̄egun̄da?
— “Gaur ze egun da?”	— ašt̄l̄one
— Astelena	— ʒn̄on̄diḡ d̄akas̄us̄ č̄orīok?
— Nondik dakazuz txoriok?	— b̄il̄bot̄iḡ geīž̄n̄ok
— Bilbotik geyenok	— ¿seuk̄ il̄ dōs̄us̄ den̄ok?
— Zeuk il dozuz danok?	— es
— Ez	— ¿sem̄ad̄ d̄irū d̄aūkas̄u?
— Zeinbat diru daukazu?	— suḡ bešt̄ē d̄irū d̄aūkāt
— Zuk beste diru daukat”	

Berri hauek 1921ean jaso zituen T. Navarro Tomasek eta ni ez naiz inor hori dudan jartzeko, baina Zeberio-joera nagusia eta beste lurralde batzuetakoa ere ezaguturik, ez dut uste zuzen daudenik horko bideratze fonetiko batzuk (8).

Metodologia aldetik ez da berdín irakurtzen agindu edo bizi bizian jaso.

Zeberio-joera bizian, joera nagusia jarraituz jakina, honela egingo genuke:

[gaur̄ s̄egun̄de?]  
 [ašt̄elena]  
 [non̄di d̄akas̄us̄ č̄oriok / non̄ditakas̄us̄...?]  
 [Bil̄boti-geyenak / Bil̄botikeyenak]  
 [s̄auk̄ il̄ dōs̄us̄ d̄anok]  
 [eš]  
 [s̄aimbetirū d̄aūkōsu]  
 [s̄upešt̄ē d̄irū d̄aūkāt]

Nire helburua ez da besterik hauxe baino: zehatz jokatu nahi bada metodo on baten ondoan ondo ezagutu behar dela berri-emai-learn hizketa.



## 2. FRIKARI- XISTUKARIAK

2.1. “-s” fonema ez da oso ugaria azken posizioetan eta gainera ez du ahozkatze arazorik beste kontsonanteekin elkar-jotzean.

2.2. “-z” (“S” bezala ahozkatzen da)

(E) “-z + b-” = “-zp-”

- 1) ez badator  
“espadator”
- 2) ez bedi esan  
“espei esan”
- 3) ez baletor  
“espaletor”

“-z + d-” = “-zt-”

- 1) ez dator  
“estator”
- 2) ez dakit  
“estakit”
- 3) ez deutsu egin  
“estotzu in”

“-z + g-” = “-zk-”

- 1) ez gara  
“eskara”
- 2) ez gabilz  
“eskabis”
- 3) ez gaitu  
“eskatu”

“-z + l-” = “-l-”

- 1) ez leuskio  
“elauskio”
- 2) ez leuke  
“elauke”
- 3) horrek ergingo ez leukenik!  
“horrek egingo ez leukenik!”

“-z + ll-” = “-ll-”

- 1) ez liatak  
“ellatak”
- 2) ez liako  
“ellako”

3) ez liat gustatuko  
"ellatagustauko"

"-z + n-" = "-n-"

- 1) ez noa  
"enoa"
- 2) ez nabil  
"enabil"
- 3) ez naukazu pozik  
"enaikasu posik"

"-z + ñ-" = "-ñ-"

- 1) ez nioak  
"eñoak"
- 2) ez noatzu  
"eñoatzu"
- 3) ez nabik ondo  
"eñabikondo"

"-z + s-" = "-s-"

- 1) ez sagurik  
"esagurik"
- 2) ez sagarrik  
"esagarrik"
- 3) ez sasirik ez otarik  
"esasirik es otarik"

"-z + x-" = "-x-"

- 1) ez xaxararik  
"exaxararik"

**OHARRA:** Zeberion ez dago beste adibide argirik, Euskal Herrian zehar bai, adierazkortasunezko sabaiketak bitarteko direlarik.

"-z + y-" = "-tx-"

- 1) ez jatok  
"etxatok"
- 2) ez jakiak ba  
"etxakiapa"
- 3) ez jautsat ezer egin  
"etxotzat eser in"

“-z + z-” = “-z-/-tz-”

1) ez zan etorri

“esan etorri” (gehientsuenok)

“etzan etorri” (adinekoek)

2) ez zinean joan

“etzinean yoan”

3) ez zaitut ikusi

“etzatutikusi”

#### ONDORIOAK:

Herriko adibideetan ikusi ahal izan dugunez, baditugu fenomeno aipagarri batzuk (E)Z proklitikoaren “-Z” dela eta.

- a) Alde batetik goian aipatu dugun “-z” horrek gortu egin ditu hurrengo “b-; d-; g-; y-” fonemak “-p-; -t-; -k-; -tx-” bihurtuz.
- b) “-z + z-” kasuan, gaur egun adinekoren bat ez bada Goi-Hobietakoa egiten dugu Bizkar-Hobietakoa egin beharrean.
- d) Beste kasuetan leherkari gorra ez badira “-z” galdu egiten da hurrengo datorren fonema nagusituz.
- e) Gorketa egin ez egitea ere posible da eta gazteengan entzun ere egiten da. Adib: “ezgoas” [eʒgoas̺] lit. ez goaz; etab.

#### 2.3. Orain arte esandakoa egia bada ere, badira gorketarik gertatzen ez diren “Grupo Fonikoak”

- a) ez behar = “esbear” [eʒbeaɾ]
- b) ez gauza = “esgausa” [eʒgaʊsa]
- d) ez jakin = “esyakin” [eʒyakin]
- e) ez la = “eslan” [eʒlan]
- f) etab etab.

Gortu ez egitearen arrazoia zabala litzateke baina hipotesi gisa baino ez bada ere, gorketa gehientsuenak aditz jokatuan gertatu dira eta beste kasuok ez dira erabilera berdinekoak. Eta gainera nere ustez kronologiarekin loturik dago gortzea edo ez gortzea geroago ere ikusiko dugun bezala.

#### 2.4 (—)Z instrumentala hartzen badugu ez dugu gorketarik aurkitzen normalean.

- a) berez badabil = “beresbadabil” [bereʒbaɖabil]
- b) berez dator = “beresdator” [bereʒdatoɾ]
- d) berez goaz = beresgoas” [bereʒgoas̺]
- e) oinez jatok = oñesyatok” [oɲeʒyatok]
- f) buruz dakit = “burusdakit” [buruʒdakit]
- g) etab. etab...

Dena dela eta kronologia kontutan harturik kasu batzuetan agertzen da gorketa, esate baterako “-Z GERO” kasuan:

- joanez gero = “yoaneskero”
- etorriz gero = “etorri eskero”
- etab...

Kasu berean eta esakuna eginetan ere agertzen da gorketa hori:

- “arreskero”
- “oneskero”
- “etab...”

### 3. AFRIKARIAK

#### 3.1. “-tx + b-” = “-sb-”

- 1) apatx barrua  
“apasburue”
- 2) apatx burua  
“apasburue”
- 3) gatx barik  
“gasbarik”

#### “-tx + d-” = “-sd-”

- 1) apatx dandarraz  
“apasdandarras”
- 2) gatx daukat  
“gasdaukat”
- 3) gatx dago  
“gasdao”

#### “-tx + f-” = “-sf-”

- 1) apatx formea  
“apasformea”
- 2) gatx fazilera  
“gasfazilera”
- 3) apatx fuertea  
“apasfuertea”

#### “-tx + g-” = “-sg-”

- 1) apatx ganea  
“apasganea”
- 2) apatx garbia  
“apasgarbie”
- 3) gatx gogorra  
“gasgogorra”

“-tx + ...etab. etab...” = “-s + beste kontsonentea”

Ikusten denez, “-tx” afrikaria “-s” frikarira pasatzen da. Hurrengo kontsonantea ozena baldin bada ozendu egiten da, bestela gor jarraitzen du.

### 3.2. “-tz”

“-tz + b-” = “-sb-”

- 1) gatz bakoa  
“gasbakoa”
- 2) hotz bakoa  
“osbakoa”
- 3) berakatz burua  
“berakasburue”

“-tz + d-” = “-sd-”

- 1) gatz dirua  
“gasdirue”
- 2) hotz dabil  
“osdabil”
- 3) berakatz dariola  
“berakasdariola”

“-tz + f-” = “-sf-”

- 1) gatz faltea  
“gasfaltea”
- 2) hotz faltan  
“osfaltan”
- 3) berakatz fuertea  
“berakasfuertea”

“-tz + g-” = “-sg-”

- 1) gatz garaua  
“gasgaraue”
- 2) hotz gara  
“osgara”
- 3) berakatz garaua  
“berakasgaraue”

“-tz + ...etab. etab...” = “-s + hurrengo konts.”

Kasu honetan ere “-tz” afrikaria “-s” frikarira pasatzen da. Ozen edo gorra izatea jarraian doan kontsonanteak dakarkio.

#### 4. SUDURKARIAK

“-n + b-” = “-nb-”... fonetikan [-mb-]

- 1) zain bako  
“sanbako” [sambako]
- 2) hagin bako  
“aginbako”
- 3) jan barik  
“yanbarik”

“-n + z-” = “-ϕs-”

- 1) egiten zan  
“itesan”
- 2) joaten zan  
“yoatesan”
- 3) egiten zirean  
“itesirean”

“-n + m-” = “-m-”

- 1) ahal dan moduan  
“aldamoduen”
- 2) goian mirua jagok  
“goiemirue yaok”
- 3) jan merkea  
“yamerkea”

“-n + n-” = “-n-”

- 1) ahal dan neurrian  
“aldanaurrian”
- 2) aurten nabo gitxi  
“aurtenabogitxi”
- 3) lehen neu joan nok  
“lenauyoanok”

“-nb-” elkartzean eta biak ozenak izan arren, esakuna zahar eginetan bigarrena gortu egiten da:

zain bedar	=	“sanpedar”	[sampedar]
agin bide	=	“aginpide”	[agimpide]
ezkon barri	=	“eskonparri”	[eskompari]
ezagun bide	=	“esaupide”	[esaupide]

“-n + m-” = “-m-” egitea bidezko da eta “-n + n-” asimilatzea ere bai.

Kasu honetan be, “n”ri deusala jarraian kontsonante gor bat badago, “n” hori galtzeko joera daukagu (ikus 7.6).

Adibidez:

EGOTEN ZAN	>	“otesan”
MONJEA	>	“mojea”
etab...		

## 5. ALBOKARIAK

“-l + l-” = “-l-”

- 1) mutil luzea  
“mutilusea”
- 2) mutil-lagune  
“mutilagune”
- 3) burtzil laburra  
“burtzilaburre”

Asimilazio hau kenduz gero ez dago beste problema handirik esakuna eginen bat edo beste ez bada: adibidez:

ibilbide = “ibilpide”

Dena dela, kasu honetan be, “l” baten jarraian fonema gor bat datorrenean, “l” hori galtzeko joera dago. (Ikus 7.4).

Adibidez:DABILZ	>	“dabis”
DARABILT	>	“da(r)abit”

## 6. DARDARKARIAK

“-r”ren jarraian kontsonante ozen bat baldin badago errez galtzen da dardarkaria; eta gorra badatorkio errezago. (Ikus 7.2; 7.3; 7.6).

- |              |   |           |
|--------------|---|-----------|
| 1) behar da  | = | “beada”   |
| 2) ur bidea  | = | “ubidea”  |
| 3) akersolo  | = | “akesolo” |
| 4) dakarzu   | = | “dakasu”  |
| 5) dakargu   | = | “dakagu”  |
| 6) daroardie | = | “darodie” |
| 7) dakart    | = | “dakart”  |
| 8) merzedez  | = | “mesedes” |

Esakuna eginetan gortzeraino ere heltzen da dardarkariaren hurrengo kontsonante ozena:

burdi bide = "burpide"  
arbide = "arpide"

## 7. KONTSONANTE BIKOITZAK

### 7.1. "-ST"

"-st + b-" = "-sb-"

- 1) bost bider  
"bosbider"
- 2) bost baso  
"bosbaso"
- 3) bost barku  
"bosbarku"

"-st + d-" = "-sd-"

- 1) bost doaz  
"bosdoas"
- 2) bost datoz  
"bosdatos"
- 3) bost dozena  
"bosdosena"

"-st + f-" = "-sf-"

- 1) bost firu  
"bosfiru"
- 2) bost falta  
"bosfalta"
- 3) bost farmazia  
"bosfarmasia"

"-st + g-" = "-sg-"

- 1) bost goas  
"gosgoas"
- 2) bost gara  
"bosgara"
- 3) bost ganadu  
"bosganadu"

"-st + etab. etab..." = "-s + beste kontsonantea"



Kasu honetan leherkari gorra galtzen da eta ozen-gor arazoa hurrengo fonemak eragiten du.

Bizkaieraz, ZER-NORI-NORK aditz-erroa "EUTSI"tik hartzen da eta berez "-ts"z bukatu behar luke baina metatesi bidez "-st" egiten du.

Dena den, aditz horren lehen pertsonan "-ST" azken posizioa bada, ahozkatu egiten da baina sarritan hobeto ahozkatzeko edo, bokale bat agertzen da azken "-T" horri deusala:

ekarri deust  
"ekarrioste"

## 7.2. "-RT"

"-rt + b-" = "-rp-"

1) bart bai

"barpai"

2) bart bakarrik

"barpakarrik"

3) bart bakean egon gara

"barpakean on gara"

"-rt + d-" = "-rt-"

1) bart danok

"bartanok"

2) bart dirua galdu dot

"bartirue galduot"

3) bart dana beharrean"

"bartanabearrean"

"-rt + g-" = "-rk-"

1) bart goizetik

"barkoxetik"

2) bart kantzatuta

"barkantzaute"

3) bart kontuz

"barkontus"

"-rt + ...etab. etab..." = ...

Kasu honetan, "-R-" gorde egiten da eta "-T-" fonemak beste kontsonante ezberdinekin jotean aurrean aipatu dudana 1.2. apartaduaren antzera jokatzen du.

### 7.3. “-RK”

“-rk + b-” = “-p-”

- 1) inork badaki?  
“inopadaki”
- 2) nork batu dau?  
“nopatu dau”
- 3) zerk bizi dau?  
“sepisi dau”

“-rk + d-” = “-t-”

- 1) nork dauka?  
“notauko”
- 2) nork daki?  
“notaki”
- 3) zerk daragoio  
“setaragoyo”

“-rk + g-” = “-k-”

- 1) nork garoaz?  
“nokaroas”
- 2) nork galdu jok?  
“nokalduyok”
- 3) zerk galdu jok?  
“sekalduyok”

“-rk + ...etab. etab...”

Bikote honetan “-R-” galtzen da eta “-K-” fonemak beste fonema ezberdinekin elkar jotean aurrerago aipatu dugun 1.3. apartadukoan antzera jokatzeko du.

### 7.4. “-LZ-”

Kasu hau aditzean aurkitzen dugu eta Zeberrioko euskeran “L” galtzen da eta “Z” bakarrik ahozkatu Goi-Hobietakoa eginaz:

Adibidez:

“sabis”	lit. zr. zabilz	lit. zabiltz
“gabis”	lit. zr. gabilz	lit. gabiltz
“dabis”	lit. zr. dabilz	lit. dabiltz

### 7.5. “-LK-”

Kasu hau sugertatzen denean ere, kontsonante ozena galdu egiten da.

Adibidez:

“ñabiko”	lit. niabilko
“sabikos”	lit. zabilkoz
etab...	

- 7.6. “-RS-” lit. \_RZ-  
“-NS-” lit. -NZ-

Kasu hauetan ere kontsonante ozenak galdurik aurkitzen ditugu lehen kasua bigarrena baino argiagoa delarik.

Adibidez:

“dakasu”	lit. dakarzu
“ekasu”	lit. ekarri egizu
“otesan”	lit. egoten zan
“itesaindun”	lit. egiten zendun
etab...	

Jasoak jasota eta joera nagusi bezala harturik ondorio hau atera genezake azken adibideotatik: kontsonante elkarte hauetan bigarrena nagusitzen dela, alde batetik pozizioaren arabera eta bestetik elkarteko ozena, hemen aurrekoa, errezago galtzen delako.

Orokorki aipatuz, beti goaz berdinerara; hiztunak badaki zer behar duen aurrekoak ulertzeko eta logika osoz gordetzen ditu behar dituen fonemak behar duena adierazteko.

Guzti honi deusala, hor dugu ume txikitxuekaz darabilgun hizkuntz-jokoa.

Kasu honetan, sistema edo eta normatik aldatzen gara, Batzuetan geuk, nagusiok gura ta, eta sarritan umeak eurak hizketan ikasi ala darabildien hizkuntza imitatu baino ez dugulako egiten.

Gai honek ba, aparteko tratamendu bat behar luke eta horregatik aipatu baino ez dut egin, baina hor dago, euskera biziaren altxor barruan.

## 8. IDAZKERA ≠ AHOZKERA

Herrian egin ditudan grabaketetan adinekoak izan dira nire berri-emaiak eta argi dago “belarria” dana euren ahozkeraren oinarri (9).

Baina adinekoak ez direnak eta batez ere gazteak alfabetatzen hasi diren neurrian akozkera aldatzen hasi dira idazten den fonema bakotxari bere hotsa emanaz (10).

Idazten den bezala ahozkatzeak bere arriskuak ditu batez ere Fonetika arloan. Har dezagun adibidez:

Lit.	ez dakit
Fonol.	“estakit”
Fonet.	[eʃtakit]

Literaturarako onartu ditugun fonemak idazten diren bezala ahozkatzen baditugu, Fonetika mailan asko aldatzen direla ikus genezake:

Lit.	ez dakit
Fonet.	[eʒdakit]

Ikusten dugunez, ahozkeraren jatorrean edo herrikoian Literatura mailako “-z + d-” Goi-Hobietako frikari Gorra eta Hortzetako Leherkari Gorra bihurtu dira.

Baina idazten den bezala ahozkatuz gero, “-z” Goi-Hobietako Frikari Ozena da eta “-d-” Hortzetako Frikari Ozena.

Beste edibide asko har genitzake jasotako guztiaren arabera baina ez nuke nahi lan hau amaitu 7.3. apartatuko Ergatiboaren kasua aipatu gabe.

Beste fonema batzuk ere bai, baina Ergatiboaren ahozkeraren ez da bat ere erreza “Grupo Foniko”aren barruan ez bada.

Euskera, atzikibidezko hizkuntza bat dugunez gero sarri gartatzen dira ergatibo eta guztizko fonema multzoak.

Herriak ez daki ez gramatikorik ez fonetikorik baina logika onez bideratu du ergatiboaren ahozkeraren Ergatiboa bera galdu gabe.

Gaur oster, batez ere gaztetxuak edo ikasten ari direnak herriak galtzen duen fonema gordetzen eta herriak gordetzen duena galtzen hasi dira baina hori ez da legezko. Konpara ditzagun adibideak:

Herriak: Nork daki hori? = “notaki ori?”

Gaurkoak!: Nork daki hori? = “nor daki ori?”

Hiztunon ohitura beti errezerara joatea da eta gaurko batzuk errezerara jo dute baina oker.

Beste alde batetik, eta hau azentu edo entonazioarekin loturik doa, fonema guztiak ahozkatzen hasten bagara, herri-entonazioa aldatzen dugu eta hemen ere herri-bidetik urrunduta egiten gara.

Beste hizkuntza batzuetan oso normala da idazkeraren eta ahozkeraren bereiztea, frantsesa eta ingelesa adibidez.

Euskeraren kasuan, itxaso zabal eta sakon bat dugu ahozkeraren mundu hau, baina nire ustez, ahal den neurrian errespetatu egin beharko litzateke jatorrizko ahozkeraren berezko laburketa bidez egin diren Grupo Foniko asko eta asko gogorregi egingo liratekelako literatura mailan ahozkatzean.

Hizkuntzaren prozesua Psiko-Fisiologikoa da eta bokale korde-tan hasi eta ezpainetarainoko guztiak zerikusi handia du gure hizkuntza mintzatuan. Horregatik ba, prozesu honen arabera, herriak bide zati bat behintzat eginik dauka eta bide horretan atzerakada fonetiko bat egiteak ez ete du mintzairaren bidea okertuko?

Hizkuntza komunikatzeko da eta gehienbat ahoz komunikatzen gara. Horregatik ba, euskera biziak iraungo badu, ahozkoa eta literaturazkoa, biak dira beharrezko bata bestearen osagarri (11).

## 9. ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK.

- (1) Etxebarria, J. M. Ikus korpusean datozen euskera bizizaren transkripzioak.
- (2) Adibideak amaigabeak dira baina hona hemen bat edo beste. "EGON" hiru eratarata entzun daiteke: "egon"; "eon" edo "on". "EGIN" berdin: "egin"; "ein" edo "in". Egia esateko hizkuntza bizizak nasai jokutzen du jokatu ere.
- (3) Ikus kontsonantismoaren taula.
- (4) Kasu hau abadeari egindako erantzuna da. Guk abadeari "BERORIKA" egiten genion, "jaune" gora eta "jaune" behera.  
Kasu honetan, erantzunean, ergatiboa, galdu da baina galderakoarena da nahiko ulertzeko.
- (5) Herri-hizketa bizian ez da erreza eten hori aurkitzea, gehienetan "astirik" ez daukagulako jatorrizko ahozkeraren egiteko.
- (6) gehienetan, azken bokalea errepikatzen da errezena bera delako baina beste batzuetan aldatu ere egiten da: "nik e..."; "suk e..."; "ak e...", etab.
- (7) T. Navarro Tomás, "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica". 1923, 49 or.
- (8) Transkripzio hau kontsonantismoari begira bakarrik egin dut. Bokalismoan oraindik prudentziaz jokatu behar dela uste dut. Egunen baten helduko gara horra ere.
- (9) Ikus berri-emaileen batez-besteko adina euskeran analfabetoak direla ikusteko.
- (10) Irakaskuntza eta komunikabideetan ahalegin handia egin behar litzateke arlo honetan euskeraren erabilera erreztuteko.
- (11) Bizkaiko hainbat herritan eman dut bide honen berri eta joera hau zabal dabilela esango nuke, "j" ozena edo gorra kenduz gero.

## IX. GRUPO FONIKOEN LABURKETAZ

Herri euskeran, era askotako laburketak egiten dira eta fenomeno horren faktore bezala, hizkuntzaren ekonomia, eufonia eta artikulazio ohitura aipa genitzake (1).

Herri euskera, ulerbideko ahozkeraren minimoetarantz joan dela esan genezake baina berezko fonetika legeak jarraituz.

Kapitulu honetan, Zeberioko euskeratik jasotako laburketa batzuk aztertuko ditut entzuten dena eta bere idazkeraren literarioa konparatuz, nondik norakoa argitzeko (2).

### 1. "INBIU" < EGIN BEAR DOGU

a) egin > "IN":

—Bokale arteko "d" ozena erortzen da bigarren mailako diptongo bat sortuz, gero "i"ren alde monoptongatzeko.

b) BEAR > "BI"

—Dardarkaria erori egin da "d" ozenaren aurreran.

—"EA" bokale-bikoteak diptongo balioa du biak bokale silabikoak izan arren. "E" itxia da baina monopton gazioan nagusitu egiten da, bestela zentzua aldatuko litzateke (3).

—"E" > "I", itxidura bat da, aurreko eta osteko bokale itxien eraginez. Kasu honetan, asimilazioak ez dauka lekurik, beste kasu batzuetan ez delako "i"raino itxiten. "inbeot", "inbeada"... etab... adibidez.

d) DOGU > "U":

—Hasierako "D", "Grupo Fonetiko"ren barruan "r" erori ondoren bokale artean geratu da eta gero galdu.

—Bokale arteko "g" galdu egin da.

—"OU" > "U": Bokale arteko "g" erortzean bigarren mailako diptongoa sortu da eta gero "U"ren alde monoptongatu zentzua galdu ez egiteko.

Monoptongazioak berriz aipatuz, bokale silabikoak baino ohitura zentzuak du indar gehiago. Hau da, "EN"ek ez du zentzurik, "IN"ek bai; "DU" edo "U"k bai, "DO" edo "O"k ez.

Argi dago ba, belaunaldiz belaunaldiko artikulazio ohiturak bere indarra duela.

## 2.-"IXU" < EGIZU.

—Bokale arteko "g" erortzen da.

—"EI" "I"ren alde monoptongatzen da.

—"I"k Goi-Hobietako frikari gorra sabaitu egiten du.

## 3.-"ITOTZU" < EGITEN DEUTSOGU

### a) "EGI" > "I":

Bokale arteko "g" eroriz gero, bigarren mailako diptongo hori "I"ren alde monoptongatzen da, azentoa berak hartuz.

### b) "DEUTSOGU" > "OTZU":

Zeberion ere "TS" "TZ" ahozkatzen da. "EU" diptongoa "AU" ahozkatzen da kazu askotan. Gero "AU"k "O" egiten du (4).

### d) "-N + d-":

"Grupo Foniko" batek elkartzen dituenean errez galtzen dira zein bata zein bestea eta bata galdu ondoren bestea bokale artean geratzen da gero galtzeko.

### e) "-E + O-":

Azentoa hasierako "I"k daramanez, diptongo balioa hartzen dute "O"ren alde monoptongatzeko (5).

## 4.-"INGU" < EGINGO DOGU (6).

### a) DOGU > "U":

"g" bokale artekoa erortzen da. Hasierako "d" ere "Grupo Foniko"an bokale artean dago eta berdín erortzen da. Azkenez "OU" monoptongatu "U"ren alde.

### d) "-GO" + "U" = "GU", beste monoptongazio bat.

## 5.-"EKASU" < EKARRI EGIZU:

### a) "EKARRI"ren azken "I" postonika den aldetik galdu egiten da.

b) EGIZU > "SU":

- Bokale arteko "g" erortzen da.
- "EI" "I"ren alde monoptongatzen da.

d) Monoptongazioko "I":

Hori berriro geratzenda postonika posizioan "Grupo Fonikoaren" barruan berriro galtzeko. Laguntzailea aparte egon balitz "I" ez zen galduko baina "kanpo Sandhi" barruan "ekár" erroan dago azentu nagusia.

e) "ekarsu":

Dardarkari ozena galdu egiten da gor baten aurrean.

6.-"SEINGU" < ZER EGINGO DOGU:

a) EGINGO DOGU > "INGU":

Aurreragoan dago azaldurik.

b) "ZER"en "R":

Azken posizio absolutoan gogorra da baina bokale artean biguna. Horregaitik errez galtzen da.

d) "-E + I-":

Banaturik, biak dira azentodunak baina "Grupo Foniko"aren barruan "E" nagusitzen da "EI" diptongoa sortuz.

7.-"NIBES" < NI BERE EZ.

a) BERE > "BE":

Bokale arteko "R" biguna erortzen da eta gero "E + E" > "E" asimilazioz (7).

b) "BE + ES" > "BES":

Asimilazioz.

8.-"NIPES" < NIK BERE EZ.

a) "BERE ES" > "BES":

Goian azldu dut.

b) "-K + B" "-P-":

Kasu honetan, Ezpainetako Leherkari Ozena gortu egiten du aurreko Beloko Leherkari Gorra. Ordenari dago-kionez, Ahozkunea bigarren fonemarena da baina lehenengoak gortuta (8).

Bikote honen antzekoak gehiago ere badira Zeberioiko euskeran.



Luzatu ez egitearren ez naiz sartuko kasu guztiak azaltzen baina besterik ez bada ere aipatu egingo ditut.

“ESEBES”	≠	“ESEPE”
“IÑORBES”	≠	IÑOPES” (9)

### 9.-“BITIK” < BEGIRATU EGIK.

#### a) BEGIRATU > “BITU”:

Bokale arteko “g” eta “r” erori egiten dira. Gero “EI” > “I” monoptongazio bidez eta “A” postonika denez errez galtzen da.

#### b) EGIK > “IK”:

Bokale arteko “g” erortzen denean “EI” daukagu geroa-ga monoptongatzeko “I” eginaz.

#### d) “BITU IK” > “BITIK”:

“U + I” silaba baten egitean “I”ren alde bideratu da.

Laburketa hau kasu honetan ezeze, beste askotan ere erabiltzen dugu Zeberioako euskeran:

“bitistek	lit. begiratu egistak
“bitiok”	lit. begiratu egiok
etab...	

Adibidelez jasotako “Grupo Foniko”etan, batez-beste silaba bat, bi edo hiru gutxiago ahozkatzen dira eta laburketa proportzio honek arindu egiten du eta ez gutxi, hiztunon arteko komunikazioa (10).

Gaur egun, normalizazioaren barruko euskera idatziaren arabera, idazten dena ahozkatzeraino heldu gara eta horrek herri ahozkerara prestigio gabe utzi du (11).

Gauzak doazen bezala badoaz, ez ete dugu herri ahozkerara galduko eta berria erabili ez?

Egiten dena egiten dela, gaurko euskera idatzia ere, bokale kordeetatik ezpainetara bitartean aldatuz joango da hasieran aipatu ditudan faktoreen eraginez.

Euskera, euskaldunok komunikatzeko tresna bat dugu eta gizarte-bizitza “komodidade”rantz badoa, zelan ulertu euskera normatiboaren ahozkerara-atzerakada?

Euskera errezena eta bigunena eginda ere, erabiltzea lortzen badugu, “Idatz eta Mintz” bizi egingo dira (12).

## 10.-ENTZUTE “BEREZIAK”

Hitz edo eta Kanpo Sandhi baten aldaketaren bat gertatzen denean, errez aurki genezake hizkuntzaren ekonomia, eufonia edo eta transmisio ohiturako fenomenoren bat edo beste.

Baina batzutan aipaturiko fenomenoon kanpoko beste zerbait ere gerta daiteke.

Nik neuk, aurkitu ere egin ditut erabilera berezi batzuk: alde batetik, “betollak” lit. betuleak; “auntzorrie” lit. huntzorria; “Larraboti” top. Larragoiti... eta bestetik “esan ditue” DABE-ren orde; “esan situen” esan EBEN-en orde...

Jasotako erabilerok puntualak dira, ez orokorrak eta aditzaren kasuan sistema aldatze baten ondorioa da, okerreko ordezkatzeko bat hain zuzen.

Beste kasuetan, nire neure ustez, fenomeno bi gertatzen dira: batetik, belaunaldiz belaunaldi oker entzun eta oker horrekin jarraitzea, izan ere, analfabeto izatean, baliteke ondo entzun ez egitea eta jatorritik aldatzea, “betollak” adibidez; bestetik, beste paradigma ezagun batekin lotzeko joera izatea, “auntzorrie” esate baterako. Kasu honetan askok ez daki hitz konposatu honen jatorria eta hasierako “auntz” lit. ahuntz balitz lez hartu da.

Arazo hau, askoz sakonagoa da mailegu-mundura joaten bagara.

Bakoitzak, ondo ikasi arte, ahal duen erara hartzen du eztzuten duena.

Kasu asko jaso ahal izan dut baina adibide gisa, bi aipatuko ditut. Bata latinetik euskerara eta bestea gazteleratik euskerara.

Nire amama defunteak, (Paula Arroita) domeketako meza nagusi ostean sarritan esaten zidan berri hau: “Gaur be abadeak mesas-kenean “ISABEL” esan dau” eta hau domekero. Ni neu zain nengoen abadeari eta ez nion horrelakorik entzuten. Baina, jakina, abadeak ez zuen “ISABEI” esaten “ITE MISA EST” baino. Baina nire amamak ez ekian latinik eta beretzat “isabel” zen.

Nire osaba batek kontatu zidan jazoera hau, zein eta, bere eskolako lehen egunetako.

Eskolara joan zenean, eta maixu erdalduna lista pasatzen ikusi, ikasle nagusiek zerbait erantzuten zutela konturatu zen. Berak ere, nagusiek erantzundakoa bota zuen "esauste" hain zuzen. Eta horrela ibili zan “esauste” gora eta “esauste” behera denpora aldi baten.

Nagusituz eta idazten ikasten joan zen neurrian konturatu zen bere “esauste” “SERVIDOR DE USTED” zela gazteleraz.

## 11.-ARGITASUN BIBLIOGRAFIKO ETA GAINETIKOAK

- (1) Artikulazio ohitura oinarrizko fenomeno bat dugu hizkuntza bizien nondik norakoa ulertzeko. Nik neuk euskera biziza gurasoengandik hartu dut eta hasieraz ez naiz gogoratzen. Baina ni neu guraso egin naizenean, orduntxe konturatu naiz fenomeno horren garrantziaz. Umeak imitatu egiten duena badakigu eta bere berezkotasun misterioitsuaz gain, belarria oinarritzkoa da. Nik neuk probak egin ditut. Esate baterako, gabaz, ilunetan ahozkatu umeak ahozkatzen ez dituen fonema batzuk eta berak berdin errepikatu. Hemendik aurrera ba, entzun eta entzun artikulatzen ikasten da eta jakina, "zer entzun ha ikasi". Baina kontuz, transmisio ohitura bizitzako legea izan arren, lurralde batetik bestera edo etxe batetik bestera aldatzen da. Ondarruko eta Zeberioko ume batek ikasi egiten du baina bakoitzak bere "erregistro"an entzuten du eta hori da normala. Arazoa gero dator, batak bestearen erregistroa erabili nahi duenean. esate baterako, Ondarruko "TT" sabaitua Zeberiokoak ezin du beste barik ahozkatu, ikasi egin behar du. Hona hemen ba labur labur fenomeno honen garrantzia batez ere gure herria analfabeto izan dela jakinik.
- (2) Fenomenologia hau ez da euskerarena bakarrik eta hizkuntza askotan egin dira azterketa sakonak. Hainbat ikerlari aipa genitzake arlo honetan baina birekin geratzen naiz. Gaztelatik R. Menendez Pidalen Manual de Gramática Histórica Española, 16, ed.1980; eta Mitxelenaren Fonética Histórica Vasca, 1961, 1977.
- (3) Ikus diptongazioaren barruan "bereziak" izenaz aztertu ditudanak.
- (4) Ikus aditza: ZER-NORI-NORK paradigmak.
- (5) Ikus diptongo "bereziak"
- (6) "INGU"ren ondoan "INDU" (EGIN DOGU) jartzen badugu hauxe daukagu: laburketetan nahiko da fonema baten ezberdintasuna Lehen Aldia eta Geroa bereizteko.
- (7) "BERE" enklitikoak, Zeberion ia beti laburturik darabilgu baina inguruko herri batzuetan osoan gordetzen da. Adibidez, Orozkon, Zaratamon...
- (8) Ikus Kontsonante Mutzoen Ahozkeran, leherkariak.
- (9) Ezkerrekoak Nominatiboak dira eta eskumakoak ergatiboak.
- (10) Errepika teknikaz egiten ditugun esaldi batzutan ondo baino hobeto dator laburketa. Adibidez: "in inbiu in" < EGIN EGIN BEHAR DOGU EGIN, hau da, hamar silabatik bostera.
- (11) Euskalki edo eta azpieuskalki guztien "norma" ez da berdina baina hainbat kasutan antzera jokutzen du han hor hemengo euskera biziak. Zergati ez onartu gehiengoak egindako bidea gaurko euskalduntzean?
- (12) Zarate, Mikel. "Ipuin antzeko alegi mingotsak" liburuko ipuin famatu baten pertsonaiak: Idatz eta Mintz bikiak.

## X. ZEBERIOKO EUSKARAREN AZENTUAZ

Sarrera gisa eta Zeberioko euskeraren azentuaz hitz egiten hasi baino lehen, arlo honetan orain arte egin denaren berri emateari bidezko deritzat.

Euskal azentuari buruz, testu idatzi batzuetan agertzeaz gainera, asko esan eta idatzi da. Diodan hau baieztatzeko horra hor lagungarri izan dudan autore zerrenda luze bat: Altube, S. (1); Azkue, R. M. (2); Barandiaran, J. M. (3); Basterretxea, J. (4); Gaminde, I. (5); Gavel, H. (6); Holmer, N. (7); Izagirre, K. (8); Jacobsen, W. H. (9); Lafon, R. (10); Larramendi, M. (11); Larrasquet, J. (12); Laspiur, I. (13); Lizarraga, J. (14); Mitxelena, K. (15); T. Navarro, T. (16); Prai Bartolome, S. T. (17); Pujana, P. (18); Rotaetxe, K. (19); Salaburu, P. (20); Txillardeggi (21); Ubillos, J. A. (22); etab.

Ikuspegi orokorrago bat erabili nahian, beste hizkuntza batzuetako autoritateak ere konsultatu ditut, Chomsky-Halle (23); Quilis, A. (24) beste askoren artean.

Aipatutako lan hauetan denerik dago baina nire neure helburua ez da honek, horrekeo hark esan duena aztertzea eta gutxiago nire Zeberioko ikuspuntutik kritika egitea, izan ere dagoena hor dago eta zabal dago.

Orain arte arlo hau aipatu duen bakoitzak bere errezoiak izango zituen esandakoa esateko eta nik neuk errespetatzen ditut eritziok azentuari buruzko mundu laban honetan.

Ni, nire aldetik, beste batzuk esandakoa kontutan izanik Zeberioko euskeraren azentoa aztertu eta ondorioak ateraten saiatu naiz, sarri askotan hiztunen berezkitasunak mugatu arren.

Dударик gabe, belarriz dakigu azentuaren berri baina askotan ez da nahiko, eta beste bide zehatzago batzuetara jo behar izaten dugu.

Nik neuk, Deustuko Unibertsitateko "Laboratorio Fonetikoa" erabili dut, H. Urrutia zuzendaria eta bere taldea lagun izan ditudalarik, arlo honen ikerketa egiteko.

Lehenengo eta behin, bokalismoa aztertzeke egindako espektrogrametatik ia 300 bokalen ahots-denpora neurte dut tonikotasuna eta atonatasuna bereizturik.

Bigarren, herritik bertatik jasotako sekuentzia edo "grupo Foniko" aukeratu batzuen grabaketa belarriz hartutakoa laboratorioz baieztatzeko.

Aukeratutakook, adibide gisa aukeratu ditut baina joera hori nagusia dela esango nuke.

Txaramela langoa dauko barritzu orrek  
Txarrie ilten dan astea ta eskontan dan urtea onenak  
Txarto esateko geao dao itzueri argi iteko baño  
Txarto iten dauena, bera apartetan da bidetik  
Txiteapeste buru estauko  
Txiterdi esanorduko badator  
Txitipe estau atera  
Txorie erramatipotateko moduko beroa iten dau  
Txorie les dao  
Txori errea agora etxatok ain fasil  
Txorixoa burruntzien baño estuago  
Txotxoka in  
Txotxoka eltxoari be bai egas doala  
Txurie goraka lamiñak  
Uda goieneko loreak inder gitxi  
Ukondoa ur baie mosurik esin emon  
Umeak aman magalpe ondoan  
Umeak Madrilen be ume  
Umeak saratatzu... bota bea daus denporeak  
Umean sentzune etzean entzune  
Umeari kordela luse, edosein gause  
Ume es asie  
Ume galdue  
Ume larrie  
Umetik, gixona nekes  
Ume yasoa da ori  
Untxe te untxe be ingo saunke suk  
Untze yoa  
Urdaye katuen atzean  
Urdaiek, Maietz luseataroas  
Urdaieri gardamue baie pernileri eltxarra  
Urek emoten yok orko ixikerea  
Urikoa da ori  
Urlie esta gause esetako  
Urlie estok burutik mankue  
Urliet, begiet itxi orduen, orkoak in dau  
Urliet, bepuruek astun  
Urliet etxaukok askapeko sorginik  
Urlien peseteak sei erreal baligo yosak  
Urliet esan beistike  
Urliet estauko nagiamarrarik

Urliék etzeikusie in dau  
Urlie txartodao, lur gorria atera espalei  
Urliék e... mosubelarriangoatxauko sak  
Ur otzeko sopak  
Urrekurtzealango semea  
Urrinean danak aberatzak  
Urrumen andi baritzabik  
Urteripe etxoako  
Uskaiek urten inik  
Yakatzu dabil gasokarik egones ganera  
Yoskilean etzean erropa sarra kakoan”

“adinon

aitexea

aitue

aldea batera

altzikitu

altziripes

amandre

amañe

amaxea

andabidea

apurrin

arean

arkien

arkiloka

aronakoa

asegune

askarrie

askurea

atxine (batez ere denpora baina bai ta  
espazioa ere)

atzamurrue

atzondoa

aubea

auntegie

—BAKOA: gasbakoa  
susterbakoa  
sanbakoa  
malbakoa  
etab. etab...

barausi

barauskarriek

—BEARRA: in bearra  
yan bearra  
galdu bearra  
bota bearra  
etab. etab...

begiskoa

BERBA-

“ -lotza  
“ -roa  
“ -bidea  
“ -bakoa  
“ -etab, etab...

—BEREA: biosberea  
egarriberea  
goseberea  
minberea  
etab. etab...

berekitan  
beren beregi  
bikuntzan  
bilinbolan  
borrosoa  
dangiño

—DARIO: kakadario  
txixedario  
mokodario  
uskerdario  
etab. etab...

deslai  
denodu  
egin egin  
egondue  
elie  
eltxarra  
ermakariak  
ernegu sartue  
errarie

—ERRE: atzerre  
eperdierre  
kokoterre  
triperre  
etab. etab...

estarie  
estukine  
etexurea  
feturea  
gabonkariak  
garandu  
ganorea  
garbikusie  
gasgine  
gasteloa  
gaulendi  
goiti-beiti  
gosunea

—GUREA: logurea  
ingurea  
yangurea  
betegurea  
etab. etab...

igero  
iaurt!  
idergie  
inisitue  
iñontza  
intzerrea  
irukutzi  
itarin  
itaurren  
itzela  
kaskondue  
kortiketea  
layea  
lanbroa  
lañaberea  
eguzki begie  
axe begia  
odai lañoa

laurkindu  
lexie  
lorra  
lorrindu  
lotxarrie  
lurmen  
llamondu  
mandabidea  
mandasaine  
mantzine  
merroa  
mingor  
moropile  
obarie  
okolue  
orpo gorrie  
ospelak  
ostikopetan  
pukine

—RIKARA: etzerikara  
aurrerikara  
atzerikara  
oirikara  
etab. etab...

saingaldue  
sallea

—SAR: yansar  
insar  
egonsar  
etab. etab...

sarkiloa  
sartzamendie  
satarra (sagu arra)  
sirigotzie  
soldu; soltzaie  
sorrystoa  
sorriketan  
sorrostarrrie  
tautik / tautipes  
txaramela



txerea  
txibixe  
txibiskerie  
txit / txiterdi / txitipes  
txorimaloa  
txotena  
txuxoa

–YOA:	satoryoa	–UTZIK:	bernutzik
	aryoa		mangutzik
	untzeyoa		juboiutzik
	etab. etab.		etab...

#### SEXO EDO INGURUKO TABU-HITZAK

---

ilekoak	(andreak)
naturea	(denak)
susera	(behiak...)
agiri	(katua, txakurra...)
alta	(astoa)
arkera	(ardiak...)
irusi	(txarriak...)

#### ORGANUAK

---

pitxine  
barrabilek  
dandabelak  
potroak  
tutue  
uskaie  
potxolea / -nea  
tarratolea  
usoa  
katxine”

## 2.-TEXTU-TRANSKRIPZIOAK GRABAZIORIKARA

Jarraian, Zeberioko bertako eta inguruko herrietako euskera biziaren transkripzio fonologikoak datoz nahi den konparaketak egin ahal izateko.

Berri-emaile bakoitzak, bere izena darama parentesi artean eta herriz kanpokoa baldin bada, herri-izena ere bai.

Izen buruetan izenik egertzen ez bada, transkribatutakoa lehenago aipatutakoarena da, izan ere, batzuegandik jasoketa ugaria goa egin bait dut.

Zehaztasun gehiago nahi bada, tokian tokiko berri-emailearen fitxa zehatza ikusi sarreran.

Has gaitezen ba Zeberiotik bertatik...

### 3.-ZEBERIOKO GRABAZIO- TRANSKRIPZIOAK

#### ITARGIA-EGUZKIA ETA MUNDDUA (Patxi Etxebarria)

Aldi beten, eguzkie t'itargie andra-gixonak i sirean da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daoela, badiñotzo eguskiek itargieri arrokeris beterik:

—Ikustona Mundue, egunean baño egunean ederrago!

—Bai, ikusiko etxoapa!

—Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker!

—Bai, eta ni naure gaubetako iñontzari!

Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok itargieri eta erreunes bete arpegi gustie. Untxe t'untxe be esaun daus aik erreunak, aitutea baño estao itargieri idergi bete danean.

Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi sen. Eguskie orduen atzerikara gañetu yakon.

Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete ta ilbera gustien eragoyon eguskiek itargie kuxetan da ogeta sortzigarren egunean ie ie kuxetako aukela, estotzo itargiek bere burue gorde-tan!

Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunatxoan egunak etorri itargie atzerikara ikustauen.

Orduen, atzera in esin euen les, arin eragoyon eragon be itargie barrero atzerikara kuxetako da orretarako beste ogeta sortzi egun bear ixin ausen, baye itargiek ostera be bere burue gorde.

...Gaur be undiño or dabis bata bestearen atzean!

#### GARIA ETA ARTOA

Garie eraiten da semendien. Gaur egunetan emen esta garirik ereiten, bere bearra ixiten san lelengo layatu, esan gure dau lurre

boiltau, gero atxurregas kaskau edo areagas pasau ta gero garie erain.

Garia eraitorduko ur epeletara botaten san eta ureri sulfatoa bota urtute bitxo txarra(k) tragetako eta baligo estaudien gari garauek eta galautzek ur ganera atara eta kendu, gero ure kendu eta karea edo surteko autze nastu sikitu eta banatuteko gari garaue eta gero asatzak imini eta erain garie gero areagas nastu eta itxi erne arte. Or akabetasan baserriko urtea.

Garie-eraiten da ba semendien, Lelengo lurre labrau, orretarako aukiten gaindusen erremintak, layak burriñasko erro bikoak eskus lurreri boilta emoteko eta gero agartu sirean golda edo makinak, ganaduekas erabiltekoak. Onik (g)oldok era bitekoak sirean, bata orri batekoa ta txerrinkabakoa, noberak eskuekas autzin bear ixiten yakien eta bestea orri biko eta txerrinka biko, onek es euken setan autzinik, bakarrik bastarrean boilta emon, beratauko palanka bat sakonago edo asalago ta lurre boilta. Onik (g)oldok, bayekas edo idiekas ibiltan sirean, lurreri boilta emon orduen atxurrekas kaskau iten san, edo ganaduekas eta areagas pasetan sirean lurre bardinduteko, eraiten san garie bardinago lotu daiten

Garie goxetikoa eta berandukoa egoten san baie biek sasoi baten ereiten dire.

Garie-erein da gero etxon apur bet asi arte eta bien bitartean beste lan batzuk in; sagar, medari, matz eta beste fruta batzu(k) podau eta atondu, sasi bastarrak (g)arbitu, landari odoldiek-kendu eta satzitu ta txori-satza sabaldu, urrungo urterako basoan egurre etzerako in, andraskoak, kinpullak, berakatzak, letxugak, asak eta beste gausa batzuk imini, porru, piper, tomate ta latxuga-asiek erain.

Marti inguruen, garie erne ta apur bet asi orduen, lurreri sasoi in orduen, lurreri sasoi in orduan gari-mokilek, porreagas edo eskutilleagas edo txilindroiagas bardindu; garie sarratu badao areagas pasau apur bet meastuteko eta eldu arte itxi. Gariak estau bear satzik es abunurik, orri potaten bayakos galtzue lar asi eta lurrera yausten da eta lurrera yausten bada galtzue gari garuerei etxako urunik iten, garaue saien geldituten da.

Onen ostaien baserrien patata-lanean asten da. Patata-lana laburre da alderdi onetan patata gitxi ifinten dalako. Bere lana asten da, lurre layatu edo makinatu al danik sakonen gero areagas, intilleagas, tragesagas edo tratoragas lan ona in. Patateak onura asko bea dau, satza, karea edo abunue eta ondo botaten yako gitxi dalako. Lurre sasoi in daoenean, atxurregas suloak edo potxoak iten dire eta patara-garauek suloan imini. Patata garaue andie bada satitu

iten da sil bi edo iru sati bokatxari itxite, ta gero satza potxora bota, aurreti lurreri nastute espadao, ta gero atxurregas lur apur betegas satza tapau.

Artoa eraiteko lana iten Marti-inguruen asten da, selan soloak naboagas edo beste edosein ganaduen yatekoagas libraues. Artoa eraiteko lana iru eratara eiten da. Layatu, goldatu eta asalean. Layatu edo goldatu eiten diren soloak areakas eiten dire. Lenengo area-ortza txikiekas eta gero ortz andiekas eta asalean iten dan lana intilleagas iten da. Lan ona orduen, satza, karea edo abonue lurren ganean sabalduten da eta intillegas nastu.

Lurre sasoian daoenean atxurregas potxoak ein edo arpelagas markau, artagarau eta indabea erain eta gero ganaduekas ta intilleagas nastu.

Artoa eraiteko sasoia mayatzean da. Erain da gero denporea sikure badoa nar-arpelegas edo mokil porreagas apur be(t)p(b)ardindu iten da lurre sikitu es taiten ta arto-landarea bardinago etorri daiten.

Artoa yorratuteko sasoia etorri arte, patata(k)tx(y) orratuten dire eta landata'ko bedarrak ebagi sikituteko ta lastategien sartu ne-guen ganadueri yaten emoteko. Onik in orduen artoak yorratu iten dire baten edo biten segun bearrisena eta bertan sekulebedarra, alfafa, frantsesa edo beste edosein ganaduen yatekoa bertan erain.

Onik lanok akabau orduko, gariek elduten asten dire, lelengo goxetikoak, bagilearen askenetan eta berandukoak garilaren erditik aurrera.

Nire txiki denporan garie igitiegas ebaten san, lur ganean sabaldu galtzue sikituteko. Sikitu orduen esku-pollak ein eta estu gari estukin esoakas eta gero mutxuriek in, geroagoan gari metak. Meta puntea ideagas tapau sein gari garaue txorie(k)tx(y)an.

Onik lanok in orduen, naboak eraiteko lana eiten asten da egun bero bat etorri arte.

Egualdi beroa datorrenean gariyoten hasten gara. Orretarako meta nausietan daosen eskupullak lurrean banan banan sabaldu in bea dire ta garie ondo berotu. Gero arrien yo gari garaue fasil soltetako. Garie(k)tx(y) oorduen lauortzagas galtzu nausiek, kendu iten yakos, gero galbai andi batetik eralgi gari garaue eta galautze galtzu txikerretik apartetako. Gero galtzue kargak ein eta lastategi-re eroan.

Gero gari garaueri autze eta galautze kendu iten yakos eta orretarako erabilten diren tresnak onitire: artzea ixiten san otzara andi bet eskuekas agarretako sulo biges, bat alderdi bakotxean eta garie galautzerik apartetako gora botaten san eta axeagas galautze lurrera yausten san eta garie artzan lotu.

Ondo garbitu orduen gari garaue naurrire botaten san. Oni(k) naurriok, selemiña, kuartea, anegerdie eta anekea daukie ixena.

Oni pearrok in orduen, patatak atera lurretik eta gero bere lurre ta galondoak labrau naboak erain iteko.

Nabo lana areagas, intilleagas edo tratoragas in leike. Ondo landu orduen sabaldu lurreri satza edo abonue ta nastu. In atxurregas potxoak eta asie erain. Len lurreri satza bota espayako bota potxora satza eta naboia erne ta apur bet asi orduen yorratu.

Onin bearron ostaien, neguen preparauko egurrek, basotik etzera ekarri negue berotan pasetako.

Ida denporan, basora, idebaten. Idak ebagi ta sikitu orduen batu eta idapillora ekarri andik apurka-apurka ganadueri aspiek iteko eta satza iteko.

Urrietan artoak eta indabak eldues-eldues batu eta kamarara eroan. Gero kapaxa kendu eta ganaduentzat gorde negureko. artaburu txikerrak eta txarrak apartau ganadueri emoteko eta onak (g)orde ondo sikitu orduen garandu eta errotara eroan iyoteko, gero txarrieri edakie emon lodituteko eta norberetzattaloea eta artoa in, laban erre ta yateko.

Indababak ondo sikitu orduen palu bategas ondo yo mamiek asaletik urten arte. Asalak (g)anaduentza(t)k(g)orde eta ganetikoa yateko edo asko badao salduteko.

Soloko sarraparra gustiek (g)arbitu orduen, allorbea, garagarra edo beste edosein asi erain neguen askenerantza ganadue(k)tx(y)-ateki berdea auki daiden.

## LABESUA

Labasue, labea gausa askotarako ibiltan da, geyenetan errarie, ogie t'artoa erretako.

Lebea orma barruen iten dan sulo bat (d)a, inguru gustien arearriegas kanpaya inde aurrean sulo bat egurre sartu eta sue iteko, baite errarie erretako sartu eta aterateko. Aspian luresko ladrillue. Labasue iteko lelengo egur sikue ekarri bea da, eta gero labaagotik apurkan selan erre alan sartu eta laba kanpaya suritu orduen labea naiko berotute dao errarie erretako.

Ogie iteko bespera gaubean gari urun apur bet iminten da labadureagas nastute yagi daiten. Urrungo egunean yagite daoen urune beste ogie in bea dan urunegas nastu eta ondo igurdi oreo ondo arrotu arte, gatza ta ure botata itxi barriro yagi arte. Bigarrenes yagi orduen ogiek in eta beste epurbeten itxi. Bien bitartean labeari begitu beroan ondo daoen eta gero laba-sorie ondo garbitu ipiskiegas eta daoen brasea laba bastarrera bota beroa gordetako.

Ogie baño lenago artoa sartu. Bero edo llamea naikoa edo lar badao edo artoa arin gorrituten bada, brasea kendu edo talla batzuekas tapau eta ogiek sartu, al bada arkaleri ikutu barik eta labean agoa tapau. Lantzean bein begitu eta arin gora badoa ogie tapea sabaldu beroa kentzeako se ogiek ondo erretako bere denpo-rea bea dau.

## GAUEKO ARGIA

Martin Astandoa ixin sen e albañel bat, da obra bat akabau Dimen da, etorri sen Billaron bixi sen eta kamiños Iorreti bueltea in barik, etorri sen basos, San Roketi gora. Eta segitotzen argi betek eskoi alderditi.

Da Billaron elexaurreti bueltea in barik, ba, yoan sen elesportaleti artes, da, elesportalean agartu yakon barrerandi bet, d'esin pasau, t'atzera buelta in bear.

Ta buelta in auen orduen atzera yoan san Dimera, d'argiek bardin segitotzen eskerretik orduen. D'atzera Iyorreti bueltea in, da kamiños. oñes, sartu san Billarora elesportalera eldu barik. Da yoan san bere etzera.

## KARAUBIEK (Felix Maiz)

Karea, karaubie, eitauren, esan bea da, inguruen soiek aterata, soiekas da igoal itaurien esta, eta gero itesan, batzuk otea ebateuren da bestobatzuk egurre, egurre be sartzean san askotan.

Karaubiek, beste batzuk, serekoak, kokagas sertzean auresan beste karaubien yasekoa d'iguala, kargau be igoal itauresan esan bea da, sereti. Emen Barbatxaon kokagas itauren se or e ba esegoan inguruen otarik. Koka da iketzari apartetotzien ser bat.

## GASTAÑEA

Gasteñeari gaxoa etorri yakon, es auken ak e sereginik, gaxoa etorri yakon, da dana de reo eroaten san, seinde ba gaxo batek, bateri uyak daroana letx arloan, gaxoa etorri sen.

Lenengo gastañea asko, puf! gastañea emen, gastañea emen, Jesus, Jesus gastañea! Emen egoan etzea, andie, esetu sendun a etze sarra? Esendun esetu? Koño! Terriblea. Aren salan iños ikusi odas nik, sakuepetetan onan gixonan garrirañoko lodi salan botata.

Gastañea etzean yateko ixiten san emen, baye eroan itauren erosite eroatauren, esan bea da, etorten sian konpradoreak, da gastañea eroatauren, baye gastañea da gause bat, ona.

Emen oin esangotzut au, au gitxitaki, emen serean, Gesalen, suk entzutea aukosu, ur gasien e bañutzea egon sala, d'egon san, d'agas uregas egosi esketiño gastañea gosoago, da, apurtu esan iten, da bestera, apurtu iten da, sabaldu iten da esta, d'agas oso osoan oten san eta ixiten san gosoago, d'esauen bear gatzik.

#### ANBOTOKO SEÑOREA (Dominga Iriondo)

Anbotoko serorea, or, Sasolara be kandela berdeakas da urtetan otziela ta, bai, olangoak entzun nindusen. Ba, nos urtetan otzien, ba, olango detallerik estauket akordurik, baye bakisu nok esan osten ori? Orren, Lusiano, suk esaiñun esotuko baye, au, koxea, Ermojenan, orren amen neba batek esan osten, bai, Sasolan urtetan otziela kandela berdeakas da kateape tarras.

#### BAÑUTZEA

Iturrie, ur gasidune, orrexen etzean ortxe ostaien, ortxe, soloak, bealdeti tauken ortu satitxuen. Oin tuberie imini otzien errepara da, ori pixue ifini aurienean or in aurien gero eskusaue, an a iturrie on san lekuen. Nos arte on san bañutzea? Ba, gerrea akabau arte.

Da bañuen jente asko, asko oten sisan, gaur emen aista bape antxe onda, Gesalgoikora yoatesan ba gaueiten, da emen bañue artu goxean da yoatesan ara.

Emeko ure askok eroaten aurien gastañak egosteko, kantinekas da etorten sisan, botillakas da olantxe.

#### LAMIÑAK (Joakintxu Goti)

Lamiñan kontuek, lenago Gostuko etxean kuoba batao es, d'an sartzean siala, d'andi urtetan aiela da errepara uredaten ara bera ikusten aiesala. Da gero ba aintxe, gero orti, estaipa nik, nikeao estakit orixe lenaoko sarrak esanekoa baño.

Bai, orrasie galdute, serean orrastuten kanpora urtetan aiela atxean barruti, da gero orrasi ori estainik, ara errepara datosela be galdu audela ta gero a topetan, orduen ikusten audiesan ondo, aurrean, genteak, orrik lamiñok.

#### ANBOTOKO SEÑOREA

Anbotoko Señorea, estaipa nos pasetasan. Ori otesan urterdi, urrean, iten auen ala urte bete estakit, alde batean, da gero bestera paseta(n) san, urrean, suten.

## GARIA (Teodora Uribarri)

Untxe da semendie, eta gariek ereiteko denporea, eta makinan be asko ganaduekas, baye, layetan, layetan lau lagun yoan da, puntan bat, areri esaten yakon, soparrapi, soparrea, osea ke atetan auen artes barik, onetara, eta gero ba garie eraiten gaindun, atxurregas a dana pikau, a ser gustie, a lur gustie, builtau dune. Gero imini asatzak, da gero garie erain.

Eta gero ganaduek kuyau, bustertu, d'eroan, d'aregas a dana pasa eta baite eskiñetati babatxikerra yateko udabarrien norberak, nai ganaduek.

## ERROTARIA ETA BERE ALABEA (Karmen Larrondo)

Errotari beten alabeak i auken ba montoi andie galtzue edo sertuteko esta, garie, galtzue asko seguru i auken. D'agartu i akon esaten e erregea edo batenbat:

“Niges eskondu gure badau alabeak, orri(k) montoiotanok urre imini beosus”.

—“Baye ori gatxa da sano”, da munduen ori ingo laukenik balego da, negar da negar asi i sen. Gure, erregeagas eskondu te, negar da negar.

Da negar da negar daoela, agartu yakon ba baten bat, estakit nor ixingo san da, esan i otzen.

—“Segaiti negar iten dosu?”

—“Ba erregeagas eskonduteko onik montoyokustiok urre, d'ori isilitikixin”. D'esan i otzen:

—“Onik montoyokustiok urre bolbitea gure bosu naukiminikotzudes urre, baie lelengo semea, matrimonioan daukosune nauri emon beostesu”.

## JENTILAK (Juan Akesolo)

### *140 URTEKO YENTILE*

Yentil bet egon san aun da berrogai urtekoa, da begie sabaldu barik egon san ainbeste denporan.

Begibepakarrik aukitauden bekokien erdien da laguneri esan otzien:

—“Auxe betasal au altzaistesue”.

Da, aun kinteleko palanka bategas sabaldu otzien begie ta esan otzien:

—“Untxe ikusi yoat berrogai urtean ikusi etxoadana”.



## UNTZETABEN YENTILEK

Untzetapikun egoten sirean yentilek, da Untzetapikun kadera bat imini da beste bat Mandoin (batetik bestera 10 kilometro inguru) da, Arkulandako arri-pausutan uredaten auden.

Da Untzetapikun, Untzetabepen daos yentil-bolak. Ekarri aude-san Miraballesera, fabrika barrire bidiru, da besto bat egon san Aldeko Ziprianon kortan, da, oindiño oin bost edo sei urte Arri Anditi Atzabalerako bide aspian egote ixinde bat, alango yentil-bola bat...

Untzetapiku pikuen dao barres atxean lekue ta yarri leku moduko bat. da inguruen dauke yentilen balkoya esatotzien orme bat einde.

## ANBOTOKO SEÑOREA

Anbotoko Señorea esaten audien gure aitek eta ikusi audela Bertzutendi pasetan birriten edo, da saspi urte itausela Anboton da beste saspi urte Supilaurren.

D'Anboton egoten sanean kosetxea ohea ixiten sala Supeliorren oten sana baño.

Da pasetan sala ota karga bat garretan doan moduen da bustena ixingo auela... eskutilla baten antzean ostaien suegas yoaten sala...

## ANBOTOKO SEÑOREAK ERROTEA GERATU

...da gero... errotari betek egun beten esan auela:

—”Mekaguen la señora de Anboto”.

Da, Anbotoko Señoreak errotea parau in otzela. Da, yoan sala konfesetan abade bategana a errotarie da esanotzela:

—”Anbotoko Señoreari bote ixingotzesu suk maldesiñoen bat?”

—Ene, ba, bai; baten esan nendun: “mekaguen la señora de Anboto”.

—”Ba, axek, ,paraute daukosu errotea; da, yoan, da parkeskeeskatiosu, baie lesara sartzean sareanean sartu sate aurrerantza d'ur-taisu ostairantza, espabe agarrau te bera daoen baño barrurago eroangotzu te kondenaute parauko sara”.

Da yoan san da, esanotzen ba, parkeske eskatu otzen aurrean be-launiko paraute da esanotzen errotea andando iminteko berari, de, ba, iminikotzela ta yoateko atzera ta andando ongo dala. Da gixon orrek atzerantza urten auen, baie esanotzen Anbotoko Señoreak:

—”Batenbatek ondo kontzejaute etorri sara, ostaintxean nau baño barrurago parau beako sendun de”.

## ABADE BAT PENITENTZIA BETATUTEN

Erri beten egon sirean misinoyak. Erri (e)sineinke (e)san ala Seberio ixin sen ala besto bat ixin sen.

Da gixon bat on san misioneruegas konfesau gurauena. Da yoate san konfesetan egun gustietan da topetauen filandie, jente asko konfesetako t'esin ixitesan konfesau se aurreti aukitauen asko d'esin ixitesan.

Da, egun beten pentzauen: "Biger ingo nopa orregas se gaur gaubean koruen parauko nok lo iten da.

Koruen egon san lo iten baye gauberdien elixako ateaq sabaldu sirean d'agertu sen abade bat.

Abadea yoan sakristinire da yantzi sen mesemoteko. Da urten auen altaraurrera, da, ostaire beitate, esauenales topau sakristaurik, atzera yoan, da mudau t'eskapaufen.

D'urrungo goxean, goxeti, yoan san ba misioneruegana konfesetan gixon ori d'esan otzen misioneruek:

—Goxeti sabis!

—Bai, bart emen in do(t) lo, baye sustau ines.

—Ser pasau yatzu ba?

—Ba gauberdien elixako ateaq sabaldu dire d'abade bat etorri de, da sakristire yoan, da mesemoteko preparaute, urten, da, ba, mesemonbarik eskapa dau.

—Gaur gaubean parauko saintikes emen lo iten? —preguntau otzen misioneruek—. D'esan otzen besteaq:

—Bakarrik es!

—Ba nau(k) lagundukotzut, da, etorten danean ori abade ori esaistesu. "untxe (e)torri de".

Da parau gaintzesan. Da gauberdien sabaldu sirean ateaq, d'etorri sen abadea, d'esan otzen gizon orrek:

—"Untxe (e)torri de".

Da yoan san misionerue da ostayen parau yakon, sakristau.

Da sakristau paraurduen, mesea emon auen abadea da mesemon orduen esan otzen:

—"Au, ofresiduko mesa bat ixin de, da berraun urtean au ofresiduko mesau atara barik il naintzen da berraun urtean etorri nes ona. D'eskerrikasko lagundustesuleko. Purgatorioan egonas d'oin serure noa ta".

## ABADE-TXAKURRAK

Abade bat ixin sen kasarie seguru, itzela. Da mesemoten egon san, da mesemoten daoela, meserdien, etorri sirean seguru txakurrek erbie aurreti daudela: "Wi, Wau! Wi, Wau!

Bateposa fuerteagoa da besteapa debilagoa auken seguru. Da, etorri, t'abadea meserdien meseari itxi t'eskopete artute erbiilten yoan i sen. Da gero abadea kondenaute parau sen.

Da gero, ibilte sirean abadetakurrek (g)aubetan axea itaue-  
nean en partikular, axea t'aurie t'afruntue sanean.

Da ba, emen Ugetan egon sirean serrari betzuk serretan. Da batek, olan esauen gausandirik siñestuten olango kontuetan. Da besteak siñestutauden da yakitauden andi selan abadetakurre(k) pasetan direan gaubean.

D'orduko gaubean esan otzien areri, siñestutesauenari, gaubi-  
luntzan:

-”Yoai ta iturrukure ekarrik”.

Beste au yoan san iturrukur eske da txakurrek: “Wi, Wau! Wi, Wau! kaderarteti te sereti... D'ur barik, karraka, atzera txabolara yoan san seguru.

Ori, Joaniko Sabaleko defuntue dauket entzunde ixin sala.

#### NAGITURRIKO AKERRA ETA TORREKO ANDREA

Santakrusdi gora yoan da Bertzuten da Larrakotxen ganean dao Torre esaten yakon ausona bat.

Ango andra bat isin sen Erramona da, a...ba...an ain aspitxuen dao bestalderantza iturri bet, nagiturri esaten yakona.

Da gaubean yoan san iturrire iturrukuretan. D'esatauden akar bat sartu yakola atzekos aurrera ba, anka bien erditi, te, an artute Ortuselai esatotzien landa batera eroan auela aidan, D'andi Gastañandire ekarri, te atzera Ortuselaire eroan.

Da irugarren bueltan Nagiturri itxi auela baye berba bari(k) topaudiela.

#### LAMIÑAK

Lenago, erreka txarkoetan oten sirean lamiñak. Da erreka-munara urtetauden orrastuten.

Da neska bat egon san Saldaingo Olarran, krida. Da, etorri sen erromerien da lamiñak on ei sirean erreka-munan orrastuten. D'a ikusi orduen erreka saltu in auden da orrasie itxi auden bertan aistute.

Da gero a kuyaute eroan otzien. Da, areri yoaten yakosan gero, ba, etzera ta, esatotzien:

—”Saldaingo Olarrako neskatxa ekarrisu nire arraska”.

Da lamiñak ote sirean supastarrera etorrite. “txurie gora” “txurie gora” esaten... ba, esnea gustetan yakien da.

Da batek auren burue salduen, ba selan galtzeairen esan auen tripa bete esnegaiti.

Esan otzien San Juan egunean yayoko sekor modeloakas erreka tragestuteko.

D'asi audesan San Juan eguneko sekor modeloak eta erreka-txarkoa tragestuten asi sirean.

Da metxatati dandarras lamiñak eroatausen tragesak a tragesa-ginekas agarraute, da sokorru beten da odoletan txarko gustiek.

Da, orduen akabau sirean lamiñak.

## PERUTXU ETA JENTILA

Perutxu gaistoa anaje bat egon san kridu jentil bategas. D'esin auen gausonik in d'etorri sen etzera.

Da, etorri sanean, Perutxu gaistoak esan otzen bera yoango dala ordes, kridu, yentilegana.

Da yoan san yentilegana d'esan otzen ia selan doan. Da ba, anajeak estauela on gure ta bera doala ordeas.

Da gero ba, afaiten parau sirean. D'afaldu akabaurduen esan otzen ba:

—"Auxe da sure kuartue ta, ementxe ingosu lo".

D'a(k)tx(y)entilek itaunen, yoaten sirean kriduek il de yan.

Da yoan san kuarture lo. Da lelengo, oipean aitu, da gixon bat ilde topauen, D'esan auen e...

—"Ointxe galdue nok, oin ni selan salbauko nok?"

Da, in auen ile artu ta oyan sartu da bera oiapean parau.

Da gauberdien yoan san yentile bera ilten d'an ildegoanari kutxilloa sartzeotzen alderdi gustietati.

D'urrungo goxean yentile yagi sanean, bera be yagi te, yoan da:

—"Egunon daukela jaune, —esan otzen— da, selan pasau dau gaube? ta.

—"Ondo ta suk?"

—"Niri gauberdien ardi betzu(k) pikaustie baye, majo pasau ot!"

Da yentilek in auen: "Oño! au gogorrok eta il in beayoat.

Da kutxilloa sorrostuten asi sen yentile.

Da yentilek, betokien erdien begi bepañño es auden aukiten da kutxilloa sorrostuten asi orduen Perutxu gaistoak burrutzie surten ifini auen da sartu otzen bekokiko begi bakarreti da itzu imini auen.

Da, ixin sen ardi pastorea yentile t'asi sen etze gustiti karraka bayesinsen defendidu d'ardi artean ostandu yakon.

Da gero yentilek, burriñesko ate fuerteak auki ausen da, se in auen? Ate ba(t) sabaldu, anka bie(k) sabali(k) parau atean, d'ardiek

lepoan laneagaiti tentaute pasetausen ankarteti eskapau estayon Perutxuk.

Da Perutxuk, bien bitartean in auen ardi bet il d'arenarruegas yantzi, d'arrandun ardi beteri arrana kendu, bere saman imini, da yoan san yentilen ankarteti te tentautzen lepoan narruen, d'arranagas da...

—”Y besas ba”!

Da pasauen yentilek. Da kanpora urten auenean Perutxuk esan otzen: “emeñaok”!

Ta besteak auki auen anillo bat: “Emeñaok” “Emeñaok” “Emeñaok” esatauen da botauen da Perutxuk atzamarrean sartu t'esin atera.

Da se in auen Perutxuk? atzamarra ondoti arri betegas kendu ta itzesora bota.

Da yentilek saltu in auen ostaien, da yentile itzesoan ito.

Gero, andi yoan san Perutxu beste gixon batenera, kridu, txarri pastore.

Da gero yentil bepegon san txarri-pastore da bie(k) txarriek arkalen ondoan erabil'audesan.

Baye Perutxu lantzean txarri bet il de yan itotzen yentileri. Da yentilek e Perutxu il in gurauen baye bildur ixitotzen.

D'egun beten seinek inder geao in auden. D'arriepotaten. D'arrie lurrera botatauen Perutxuk, gastayagas untaute. Da yentile(k)p(b)otatauen baye... Perutxuk esatotzen:

—”Ixerdiegas aikomen, ba, urdindute arrie, ixerdiegas.

Nire arriek ixerdie atetan yok, ireak etxok atetan da, seinek urrinago in beayuk...”

—”Da, bai gure bok!”

Da paloma bat auki auen Perutxuk. Da botauen yentilek urrin arrie.

Baye Perutxupotauen palomea da... ikusi bes! Da gero esan otzen yentilek e...

—”Biger, palanke seinek urrinago bota in beayuk!”

—”Bai gure bok!”

Da yentile ixin sen Salamankoa. Da yoan sirean urrungo egunean palankeagas seinek urrinago bota. Ta yentilek urrin botatauen. Da Perutxu(k) palankeari agarrau t'asi sen esaten: “Aiba la palanka asta la Salamanka...” (hiru bider).

—Ta, seiteko esatok ori?

—Ba, emeti Salamankaraño bota palanke ta Salamanka gustie apurtuko doat eta...

—Mutil! esaipotara, se naure famili gustie yaok an da, esaipotara...!

Bueno, gero orretan parau sirean egunatan. D'urrungo egun beten esan otzen e...

—Ba pagoak atetan in beayuk pruebea seinek inder geao! ta...

—Aukuroanean ingoyuk! Da...

—Biger in beayuk orduen!

D'orduen Perutxuk eroan ausen karrete batzu(k) firu. Da Perutxu ta yentile yoan sirean pagadire ta yentilek e porrue les atetausentzen artute banan banan.

Da Perutxu asi sen firuegas pagoatanak amarretan, pago baten ganeti bestera, ta besteti(k)p(b) estera ta bestetipestera pagadi gustie amarretan.

D'esan otzen yentilek e...

—"Seiten abil mutil?" de...

—"Seiten ibiliko nopa, ire antzean banan banan atera barik nita-napatera atera beyadas, danak amarraute"

—"Mutil! esaisek atera, se txarrien pastu gustie fastidiaukostek eta".

Gero osterara be, ba, Perutxuk u, lantzean txarri bet iltotzen da, bestea deskontentus.

D'egun beten yakin auen: "Biger edo bayaukoat nik orregas enkuentruen..."

D'eroan auen puxiga ba(t) tripan eskegite, odoles beterik. Da yoan san. Da txarrien bat il otzen da yentile ostaien karraka mogidu yakon. Beraurreti da yentile ostaien. da yoan sirean, da jente moltzo Ba(t) topauenean Perutxu(k) preguntotzien:

—Yentilik ikustosue?" ta...

—Bai, ortxe ostayen dator"

—Ba orduen arinago yoateko kutxilloa tripati sartu beot!

Eta kutxilloa sartu puxigati te, arintxuago yoan san. Da yentilek etorri orduen:

—"Perutxu ikusi osuemen"? da...

—"Bai, emen etorri de, baye sugaiti preguntausku te or satosela esan orduan kutxilloa tripati sartu dau arinago yoateko..."

—"Nauporduen sartu beot!"

Sartu auen da, il.

## TXARRI BATEK ZAZPI GANTZAGI

Lenago Kortabason pasau sen, txarri betek auki ausen saspi gantzagi.

Ixin sirean Felix Artxiki defuntue, da, Akiñao defuntue, da, Santi Sabale defuntue, ixin sirean.

Ba bixi sirean Olatzarren bi eta bestea Akiñaon. Da Joaniko defuntue Kortabasokoa etorri sen egun beten abixetan txarritzen yoateko irurek.

Da yoan sirean irurek, da, bidean doasela arkaleri esanotzien:

—i mutil, txarrie nok ilgo yupa?

—ipadakik ilten?

—da, nikes.

—ipai?

—da nipes

—da ik?

—eta nipes.

Ba , argiekaxak, txarrilten gayoasak eta etxakiu(k) txarrilten iñope da...

—A! ori arreglauko yuk, an yoan da kopa batzuk edaten yuseanean. Danok “naukil beayat txarrie ta nauk il beayat txarrie” asi beayuk.

Da, yoan, da barausi audenean edo kopok edan audiesanean batek esan auen:

—nauk il beayat gero gaur txarrie!

Besteak —ipaño nauk ogeto yakiat, nauk ilgo yoa(t) txarrie!

Da besteak esan otzien e...

—Suopaño obeto nauk ilten yoat eta nauk.

Askenean Santi Sabale defuntuek il auen da txarri ori il., de, erre, ta tripak atetan eroan audenean, gantzagiek osoan ixin atera da saspi satiten aterotziesan eta usandreari preguntautzien e...

—Au bargastan bat ixin de ala?

—Ta es, au makerea ixin de.

—O! Bargastea ixin basan saimbet auko teauen makerea ixinde saspi gantzagi daukes da!

## IKATZ-EGOSTEA

Oin kontaukot iketzegosten selan iten gendun. Semendinguruen asten gaintzesan basora yoaten. Guk, burbux iketza iten gendun enjeneral buebux egurregas da yoaten gaintzesan preparetan. Iten gendun, semendinguruen asite sesaile edo martirarteño da gero egur batzean botoatara.

Botoak iten sirean biesti esi bet iten san, esi fuerte bat, burbuxegurrekas, da gero, goiko lurrek, biera bota da selaitu. Selai bet iten san andie da gero urten auen beste usu edo kostumbre batek, aidan iten san gero botoa urkuluen ganean iminten sirean egur betzuk lurreti, lurretinkaute da iten san salaie askobe fasilago.

Gero ba txondorra kargetan san. Erdien iminten yakon kargerea esaten yakon egur bet, egur lodi bet, d'astesan egurre sutunik iminten. Bere inguruen egurre sutunik imini de gero beste pixu

bet, oseake iru edo lau pisu aukitausen txondorrek aik egurrek sutunik iminite da gero atzean iminten san txondorra apur bet olan e berrogeta bos gradu inguruen edo parauko san selai aldatzean da gero iten yakon asala esaten yakona egur txikerragoagas da finagoagas asala iten yakon.

Da gero soyegonaskero eras, soye atetan san tapetako da soyegonesik eras, ekarten san idea, da ideagas tapetan san lelengo ta gero ganeti botaten yakon iduriesaten yakon autze.

Iduriegoten san len, boto sarra onaskero an topetan san baye ostaintxean olan lur fasil bettopau da galbayagas eralginbear ixiten san ganeti tapetako da tapetan san txondorra da gero kargerea esaten yakona esan lusea ixiten or metroterdi bet edo auken baye selan txondorra kargau gorantza eroaten san ateres ateres. Seinbet eta txondorra luseago in gorago eroan a egurre da gero atzenean a atera iten yakon da gero iduriegas da ideagas tapetan sanean andi suloti biera botaten yakon brasea da egur txikitxuek, bean artu daien sue, da lelengo apurtxubet agoa sabalik aukitesan baye gero agoa tapau iten yakon, barruen bieti artu daien suek. Da gero suek artzeauenean a ganea tapetan yakon da gero ordubetedo beste barru a suloa egurres betetan yakon, egur txikitxue(k) txikertute a bete da gero beste ordu bidiru barru betegarrieskatutauen.

Betegarrie ixiten san egurrek sutunik egosanak arroen bat auki da iketziten asiorduen plegau iten sirean da, aiplegaurduen bitarteak urtetauen, sulok, da suloa betetako ixiten san betegarrie esaten yakona.

Da txondorrek olan e berrogaibe(t) kargainguruko txondorrek, kargea ixiten san sakubiketz, berroga ba(t) katgainguruko txondorrapa, eskatutauen e lau edo bos betegarri arik eta puntan iketza in arteño.

Txondorrek (g)ero puntan iketza inorduen txondorrari betegarriek itxitotzen.

Gaubiluntzan iten yakon sapolagea esaten yakon porra bat egoten san daregas sapoldu da gaubean iduri apurbepota goien goiko puntan da gaube pasetako betegarrien daoen arte es betegarrien daoen arte gauberdien be igual igual eskatuten dau betegarrie da gero etorten da bierantza bierantza iketza iten goiti da gau gustietan iten yako martxea ba sapolagau da suloripadauko tapau deiduri apurbepota da apurbet itota itxi gaubean bake apur bet emoteko.

Da gero magaletara esaten yakona bieko barrenera allegaurduen be bastante prisas ibilten da alde battapetan yakonean beste magaletik urten suek, da aitapetan ia magalean daoenean be bearrandiemoten dau da magaletara allegauskero ba gau bet edo egun bet eta gau bet edo itxiten da ta akabetan da.



Da gero iten da otzitu esaten yakona txondorra. Belekiek oten sirean lenago. oin esta usauko ta oin esta iten iketzipe baye, belekie, olesko arraspa baten antzekoa da daregas goitipera dana arraspau ondo da basoiñarrak imini preparaute ta basoiñarreagas igurdi da gero aikiduriek siku siku oteire taik pareagas bieti gora bota da goiko puntaraño danak ondo dagero aik ike(t)z bitartetati sartu iteire damatau iten daude txondorra, oseake, sano sue galtzean dau suabe pasetan yako ba otzituteko da gero bigarren egunean edo maskalak atetan yakos se maskaletan egoten da ostera be surikaien. Da gero ba urrungo goxean goxetitxu yagite eguskiek urten orduko en jeneral iketzatetan da segun selango tandea igual e amar igual ogai igual ogetamar, segun selan e pentzetan dauen batek. Ba, aterata gero, boto barrenean egoten da sabal da suegaitiño, surik urtetan badau amatau da gero an on beadau sikan e sortzi amar orduen. Da gero surik espadauke gero botaten da larrinesaten yakon lekure txondor batera iketza. Orixe da normala.

#### GAUEKO ARIMAK (Leonor Ayesta)

Uin kontaukotzut ser pasau yakon bateri: Zeberioiko Santa Kurtzen andra bat il sen da itxurea auki auen promesa, seoser promesan bat.

Da gero urtetan otzien etzekoari ba leku askoan, da egun beten yoan san abadeagana pregunte etxeko andrea, ba a ber ser ein leion edo ba, selan urtetan dauen ba, amak edo estait nor ixingo san.

Da, abadeak esanotzen ba: "Esaiosua ia ser deseetan yakon".

Da preguntau otzen da esanotzen: "promesa bat itxi dauela kunplidu barik, urli elexan mesa bat entzuteko..."

Da yoan san androri kunpriduten promesori da mesea akabau sen orduen eskatutzen pañelu bet emoteko, ba agur iteko.

D'an pañeluen amar atzamarrak, ba erreta, erre markea itxi otzen pañeluen.

#### ARIMAK PROMESAK BETATUZ (Dolores Artiñano)

Seberiogango ermitan portikure yoan i sen eskeko bat, lo, gaubean. Da gaubean lo daoela, desoran, etorri i sian (ei ziran) seguru, barrantau i ausen berbalotzak. Da berak, itxartu in sen, d'esan otzien:

—Jesus, Maria eta Jose! Ser dator emen?

Da bestea esan otzien:

—Gu gara Porgatorioko arimak, da gatos gaure penitentie kunplitan, gaur leku betera ta biger beste leku betera, elexarik elexa, ermitarik ermita.

...D'esan otzien:

“Gaube gaubeskoentzat d'egune eguneskoentzat”. D'emen gara mille t'estait seinbet arime gaure serak, promesak betatuten.

#### SORGINDUTA HIL EZINIK

Uriondon egon i sen bat sorgindute. Da sekule es i sen ilten, da sekule esan (ez zan) ilten, d'eroan otzien abadea, elexakoak, il daiten da, elexakoakas yoan san abadea da, a abadea ikusi auenean elexakoakas da... bentanako marko ta gusti suten, garretan urten i auen.

Da gero intierrue be in bearriotzien kajan arrietausela.

#### ITARGIKO MANTXAK

Elexakoak, yoate(n) sireanean, parau bearrixitesan belauneko. Da bat yoan san labasuiteko ota kargeagas. Da ota kargeagas doala esan parau belauneko. Da gero urten auen itargien ota kargeagas kandenaute.

#### JENTILKUMAK UPON (Zeberioko Upon)

Seberioko Upoti pasau sen baten abade bat eta topausen muti-kotxu bi pekorotzak altzau te pekorotzak altzau sesto batera, sestora edo otzarara, da abadeak esan otzien:

—Mtikoak, fin be basabisie!

Da, es otzien yamonipin (jaramonik be egin).

Da, atzera esan otzien:

—Andais finos!

Da, orduen be yamonipes.

D'orduen abadeak, kurtze bat in, d'esan otzien erderas d'auskeras.

—“Kristiñauek serie ala demoniñoak sarie”?

—“Sois cristianos o sois demonios?”

D'asi i sian, txikerrak ixin d'asi i sian jentilelango andiek, da ori esandorduen (abadeak) karran aldendu i sian seguru.

#### KABALLO ZARATEA

Gure autite, nik enindun esotu, baie nire aitekontetan auen, medikuena kobretan ibilte(n) sala. Da presen parean, elexean e

aspian, Seberioiko parrokien parean, ba goxean goxeti yoan i sen, goxeko bostak edo laurek ixingo sian, da kaballoan pausu otzak barruntetan ausen, asko, da, eser esauen ikusten. Da “Aitearen” in i auen seguru Jesus, Maria eta Jose esan d’”Aitearen” in i auen. D’orduen pausu otza, kaballo bat ikusi i auen karran, ganean gixon bat aukela yoan san presara da presako uretzea bera yoan i sen gero.

#### LAMIÑA ETA MUTILA EZKONGAI (Magdalena Bengoetxea)

Egoan a mutil bet, nobie elegantea, mutile be elegantea, biek. Da b’ebisen ba formal eskondutekotzat. Da lagunok esan otzien ba se:

—”I, mutil! Bakik nogas abilan?”

—”Ni nobiegas, nogas ibiliko nopa?”

—”Baie ori nobi ori selangoa doan badakik?”

—”Oño! ba besto batzun modukoa, neskato bat:”

—Bai ori ba dok lamiñea.

—Lamiñea? Saosie ixilik, neskato elegenteok eta.

—Ba begituyok ondo anketara da ikusikok selan yaukoasen patoan antzeko ankak a uger iteko moduko sera, teladunek. Antxe igirrikotzek ensegida.

Se lenago sirean moduen gona luseak, ibiltan sien soruraño, ba esian apenas a ikusten ankarik e badaukie be, da orregaitipa esotzen iños ikusi ankarik. Eta fijausen da fijau senean, d’asi sen pentzetan, eskonduteko laster da gero olan bere burue lamiñeagas a, persona txar bategas dabilela... da, ba, disgustuti il in sen.

\* \* \*

Lamiñok, Saldaingo kueba baten egosan lamiñok, ba nik entzutea dauket e Olarreko etzera yoaten siala Saldainen. Da ba bapaño geao. Da gero mutil ori ba “orrek esan dauen moduen” (1) esekien nobie lamiñea sala da Olarrekoa yoaten sian orrasieske, se aureri kendu itotzien Olarrekoak orrasie.

Ta yoaten sian eske ta:

—”Olarreko neska, ekana orraska” —eskatuten iotzien.

Da gero mutil ori ba ya ikusi auenean sera dala, lamiñea dala ba olan entzuteatati te, ausokoak eta esanda, da konturatu sen da mutil ori disgustuti il in sen.

D’eroan audien entierruen, baies atautan, eskillaran. Da kapea bota gurotzen ak (lamiñeak) baie lenago elespeti kanposanture yoaten sian baie abadean partes sartu sian arin barrure, elespean itxi barik main ganean, sartu situen arin barrure. Da lamiñori parau sen irrirtza baten.

(1) Hori dino aurretik semearen grabaketa entzun gendualako.

Lamiñepota in gurotzen elespean kapea arimea eroateko baie besteak esotzien astirik itxi. Se intierruen yoan san ostaien segun itxurea. se lenago bakisu gonak andiek eroaten situesan enbrak, lamiñape eroango situesan, nik lamiñarik estot ikusi te. Da kaparik esotzen bota esotzien itxi te. Da beitisu, entierruen be yoan e! (lamiñak).

#### ZALDIOTSA HODEIAGAZ

Baten biorretara yoan gure aite, d'odaie ta unisitue. Da kaballoak baie sagatak suatetan daudiela e. Da gure aitek seguru ango usabandreaki agarrau da:

—”Es Pedrotxu, es ikeratu, onik pasaukoire, pasaukoire”:

Da, aunisitue ta odaie da kaballoak ikusi iten i situesan. Orrik kaballoak, parte txarrekoak ixingo sian.

#### UGAOKO ABADIA ETA HODEIA

Da besto baten amari be dauket entzunde, olan e odaie jo bai, da bakisu arrie. D'esaten audie parte txarrekoak, oin estaudiesaten baie lenago...

Da Kalleko (Ugaoko) goiko elexati beko elexara abadia bereinkasiño apotaten, D'atzenean esinauenean gausonik in, sapatea jaurtin iotzen da sapatea nondi yoan dan bes.

Da sakristauek, ba, sera, estoleari agarrau, ta soltasu.

—”Ene! Sertzutire orreik? (sakristauek).

—”Parte txarrekoak, semetxue!” (abadeak).

Abadia kadera baten sapatea ta bestean bape barik, ya odaie lotu sen.

#### HIL ETA GERO AGERTU

Ba begitixu non be daukedan entzunde, Elorribitako subien urtetotzela llobeari Martin Gordo defuntuek, ito insen a. Da nobioagas etorri da nobioak ikusi es da berak ikusi. Da berak ikusirik a, abadeari parte emon beotzien da bereinkasiñoatati; da pañilue, da pañilue bost atzamar markakas itxi te ya bereinkasiñoakas sertute-sala.

#### DEABRUREKIN TRATUA SOLOA LANTZEKO

Ba begitixu, serean pasau sen, Ariltzen, gaure Antonion anajeen etzean Tratu defuntuenean.

Kridu bet aukien orreik, da kridu orrek e ba, estaipa se bear itarrik i deabrueri seoser ofresidutzen Ganbitarteko mokil arloa joteko, solokoa. Da kridueri emonotzen e estakipa jitanuek edo olango serenbat, Txismetxuen bat eskure. D'a txismetxue sabaldu in daiela. da solo gustiori deabrus plantau yakon da mokilekustiek apurtu. Bai, gero, bere arimea emon edo espabere ito. da mutil ori estutu sen da, ainbetenporan Santakurtzeko abade defuntue D. Domingo, estait suk entzuteripadaukasu, ba aregana yoan siala estu te larri. D'ak berinkasiñoakas d'ainbeste denporan Tratu sarra ta kridue konfesetan da komulgetan egun gustietan ebisen Santa Kurtzera, egun gustietan e!

Mokil arloa solo andie san Gabitarteko selaie. Da mokil ori apurtu bear joten porreagas lenago, D'ajoten denporandiepear, D'axe apurtutearrik dana era batera arimea deabrueri emongo leuskiola! Ba laster apurtutzien urrean, baie barrero es egoan kitanueri txismerik artzeko.

#### LAMIÑAK IKATZ-EGOSTORDUAN (Ignazia Sañzedo).

Gure aitek, emekoak esaten yoan, or Atxondoko trokan, suen aite defuntue ta biek txondorra egosten bai... A(k)p(b)enetan kontetauen. Da txondorra asi sianean esatauen agurorrek, sulloan irrintzak urten i auden seguru, irrintzak sulloan da aurek esan iotzien arkaleri:

—"Lamiñatosak, lamiñatosak; gurerrukie gaur".

Da txondorra betegarrieske, txondorra betegarrieske, garrak itzelak garrak itzelak, d'urten in bear txabolati da:

—"Lamiñan irrintzatosak".

Da biepietara, esaten auen, agarrau bearrotziela txondorrari espabere txondorrek erre in bearrotziela ta.

Txondorrari betegarriemon d'alangonbaten txondorrari tapauudenean edo lotuudenean, erresau, ta lamiñok orduen ixildu isian, esatauen gure agureak.

Da guk, tentau iten gendun e: gusurre ixingo dala ori, gusurre!

—Gaur egun santue yaoan modun, Irrintza baten sulloan, Irrintzak eta lamiñak soasen da txondorra apurbetegaiti an erretan yakuk. D'errestan asi gintzoasenean, da betegarriemon, estaldu soasen.

#### KABALLOAK-IRRINTZAK-KATEA ZARATAK

Bestobaten be esatenauen, beste baten be, Ereñoti etorri bera gau beten, d'an Gabeardatz esaten dotzun Olarreko selaiti, andi

bieti gora, gaubilunabarra, ya ilunabarra, da, ilunabartute, gaube ta, kaballo bandea kaballo bandea alboti, segidu iten iotzen, segidu, segidu ta segidu, burriña sagatea, burriña sagatea ta, kaballoak, irrintzarik eta.

Berak arin —esanauen— baye besteak arinago iten iotzen. Berak arin baye besteak arinago.

Da gurea kaderas ajile san, da onan, “iiiiii” iten auden seguru te, burriña sagatea, burriña sagatea...

Murtxoango landara gora eldu senean, bera kuyetako kaballorik es i egoan seguru.

Aldendu i sian kaballoak, ixildu i sian seguru.

—”D’aipeste mundukoak soasen, aipeste mundukoak soasen! — esatauen.

Erresau, erresau! Erresaurduen desaparesidu!

### LAMIÑAK (Juanita Arroita)

Baten Estefana Ugertekoan aite yoan san goxean goxetik solora ganaduekas bearren eta lauterdiek inguru edo ixingo san, Goxaldean. Da alangonbaten lamiña batzuk etorri yakosan beragana Manueldeko txarkoan,. Eta orrik i arri kanpaia yo baño lenago aukiten aurien inder andie. Da gixon orreri guatutzien eta ba bera bildurtu ein sen apur bet, da esan auen ba:

—”Ser ingopa (egingo dot ba) nik, orrik i arri kanpaia(k)tx(y)o artiño se orrik inder andie daukie ta?”.

Da pentzauen ba:

—”Ni(k)kanta ba(t) kantaukotziet oniri, kanta ba(t) kantaukotziet eta kitu”, eta liñoan kantea kantaukotziet”.

D’asi sen liñoan kantea kantetan. D’ori liñoan kante ori bera(k)tx(y)akin auen, da, asi sen akabau iten yakon arin, baie atzera barrian barris astesan da olan ekin otzen ainbe tenporan kantetan; Da, alangonbaten ba orretan daosela ba yo auen arri kanpaiak elexan. Da orduen asi sirean ba lamiñok ba ostanduten baie berak in auen ba(t) kuyau da ekarri auen etzera. D’etzean aukien eta gurotzien berba inaso baia esin in eta orduen egon sirean egun betzutan ba ia berbas etekien edo esetekien baie esin otzieren barbarik inaso. Da egun beten ifini aurien esnea egosten da eure pe olan a entretenidute daosela ba iotzieren esne orrek (g)ora igun eta asi sen yausten. da orduxean lamiñorrek, esnea asko gustetan yakon moduen arpelik (g)aldu es taiten ba asi sen esaten:

—”Txurie gora! Txurie gora!

D’orduxean in aurien:

—”Bueno ba, one(k)p(b)adaki berbas”.

D'ortik asi sirean ba berba ereinasoten, Da gero, orti berba ereinasoten asi sirean da esotzien a ber aurok (lamiñok) selan bixi diresen edo. D'esotzien ba bixi diresela an errekan, errekan bixiten diresela. Da ia ba selan aurok, selan il edo selan galdu se guraurien aurek (g)alduetea, se gaubetan ser andiak emoten otziesan, gerrandiemenoten otzien, d'aber selan galduten diresan. D'esotzien:

—”Bueno ba, ba gu galduteko ba auxe da: Ba San Juan egunean yayo beadaurie ba erri-sekorrak, bi, ixin beadaurie bikotxak eta orrikas sekorrokas in beadana da: intilla bat artu eta idergi betea dan orduen, errekea goitipera pasau, ori txarkori, ta urtengo dau odola”.

D'olan ibili sirean topetan orrik erri-sekorro(k)p(b)iok. D'alangonbaten topau situesan, bikotxak ixin bearraudien D'erri-sekorrak, da topau situesan da efetibamente, orri(k) topau situesan orduen, intilleagas ori txakori, Manualdeko txarkori, gora ta bera pasaurien. Da urten i auen odola, D'intilleak aginetan batu i situesan seguru ulleak eta, lamiñeak.

D'olantxe galdu i situesan lamiñok, da geao bakea aukiniaurien lamiñokas.

## ABADEA ETA HODEIA

Ba baten ixin sen abade bat eta ibili sen udan bere kanpoak eta ikusten. Ain ederrak egon sirean artoak eta gariek eta! Eta bedein-katues ba bere kanpoak ikusten ibili sen.

Eta alangonbaten ba agartu yakon gixon bat, ori ixin sen deabrue gixonan forman esta, D'etorri yakon tentetan, es ekien berak nor san. Eta esan otzen orrek e ba:

—”Selango kanpo ederra(k)t(d)aukasus esta erri onetan? da:

—”Bai, benetan ederrak”.

Da, esan otzen gixon orrek e:

—”Nik(k)p(b)a dodas ba kaballoak onikkanpoa(k)p(b)eingoan apurtuko ditusenak”.

—”da bai?”

—De bai.

D'abadeak erantzun otzen e:

“Ba nipe badodas ba bridak orrik kaballook lotutekoak”.

Da bueno, olan ibili sian berbas da, esanotzen gixon orrek e abadeari:

—”Ba gaur gauberorduko onikkanpoak nitanak apurtu ingodas”.

Eta yoan san a gixon ori eta abadea larri parausen da esauen ba:

—”Se pasauko ete da emen?”

Da, alangonbaten ba egon san egune argia, argie benetan, da, arrastirantza laño batzuk agartu sirean. D'abadea apur bet estutu in sen ser pasauko ete dan, da, esan auen ba:

—”Yagoten egon beopa ia ber ser etorriko dan, ia ber etorten bada arrien bat edo gausa txarren bat”.

Eta etorri sen kargetan-kargetan denporalea txarra. Da ba erriko jentea be dana estutute parau sen eta ser pasau bear ete dauen! Kanpo gustie apurtu ingo dauela ta!

D' abadea asi sen e brebiariori atera eta erresuek iten bere etze aurrean. Da baukan ortu bet abade orrek eta alangonbaten ikusi auen orduen ba yausi beadauela golpe andien batek... esaotzien an a gixon batzuri:

—”Bueno, emen dauke(t)p(b)arrika andi bet auxe barrikau eroaixue neure ortuen erdire”.

eta gixonok in aurien abadean esan ori: D'artu barrikori ta eroan aurien e ortuen erdire eta ba esan auen abade orrek:

—”Bueno ba, yausi bear badau gatxen batek, yausi daitela neure ortuko barrikara barrure”.

Eta asi sen yausten ba, arrie ta gausa ikaragarriskoak eta yausi sen dana bere ortuen barrure, osea ke, barriкеauki auen ortuen barruen d'arexen erdire yausi sen dana.

## KASTREJANAKO ZUBIA

Ori subiena, ixin sala neskato bat, baserri beten bixi sala ta beste errire pasetako ba iluntza bat ixinsen da olan sarri pasetasan esta, baie iluntzan baten asartau yakon pasetea ta oño! andik urre urrean auken da errekatu pasau bearrekoan ba buelt'andie in bearrauen besteti yoaten esta, eta badiño” Oño! esta ongo deabrurik auxe, erreka ontatik subi bet iteko” Bueno, yoan san arantza ta agartu yakon gixon bat, beragas berbetan asi sen da badiñotzo gixonari: “oño! ba nik emeti subi bet itearren emongo neunke, eskatik ser emongo neunken? esaotzen gixon orreri. da ser emongo seunke ba? Seure arimea emongo seunke? Da “bai”, “posik emongo neunke”. Bueno! esaotzen gixon orrek, firmaixu ementxe papelean. eta firmauen da konformau sirean ba subiori iteko. Esanotzen gixon orrek “biger e goxaldean ullarra(k)tx(y)oten dauen ordurako subie inde ongo da” Orregas konprometidu sirean da neskatori ba doa atzera ta larritu insen gero eta badiñotzo, bere erriko abadeagana yoan san da badiñotzo: “oño! larri nao”. Da ser pasetan yatzu ba? ta ba auxe onantxik urten doste gixon batek eta esan dotzét e: “esta ongo deabrurik i emeti subi bet iteko, da ser emongo seunke subie itearren da ba seure erimea emongo seunke, da bai, posik, da firmea inde itxiot. “D'esanotzen abadeak: “bueno ba galdute saos!



Ori deabrue ixinde da galduko satu. D'esanotzen abade orrek: "bueno, estutu sates eta topaixu ba lenbañolen "Martien arrauntza ta Martien txita ixin den ular bat" da onikkantetan daurie, da topaixu orixe d'aber deabruek ori subi ori akabaurduko aber orrek ular orrek, yoten badau.

D'asisen, asi sen topetan da topetan da topetan, da topauen, topauen e martien arrauntza ta martien txita ixin den ular bat. D'ekarri auri en etzera ba ta erri gustie yakitun parau sen ba ser pasetan dan, da bueno larri ba ta, ba deabrue(k)tx(y) oan sirean subi ori iten euren materialak artu t'arri te ba serakustiek artute yoan sirean subi ori iten. Da yoan i sirean ba partidea esta, d'atzeti koxo bat, da, eroan auri en danak euren materiala, eta eroan situesan ba (materialak) danak, da koxoak, atzeti yoan sanak, koxoa salako, bostaun arroa ta erremintak eroan situsen seguru, da besteok, da besteok (g) eao, besteak, beixu ser eroanguri en, da subie aurrera yoan san goxaldea, ta alangonbaten gitxi falta sala ular orrek egoa(k)tx(y) o gora ta gora, gora ta bera, ta iauen: "Kuuukurruku" da "kukurruku" iauen orduen subi ori arri beten faltan auki i auri en seguru eta deabruek auki euen ernegasiñoagas ba, yo iauen seguru subiko arri en da bost atzamarrak grabaute ifini i situsen seguru atzenengo arri en.

#### KASTREJANAKO ZUBIA (Jose Mari Lasa)

Or Kastrejanako subien pasetasan ba errekan bestekalderdien, errekea dao bastante asitxue be ta, bestekalderdien egoan iturrie uretan yoateko da neskato eleganteen bat egoan ba, iturri re yoan bear isitauen egun gustietan da gaube ilundute sarriten, ba, bearrak edo etzean da, ibilite, ba, ixin sen yoan goxeti te ba yoan bear ixiten auen, da ofresidutzen deabrueri: "arimea emongo neuskio deabrueri ementxe subi bet itarrik". Da deabru orrek e, berbas e, sertutzen ba: "ingotzut subie emoten bostesu arimea" ta "emongotzut". D'asisirean gaubeab arimetako kanpaia(k)tx(y) oorduen subi ori iten deabruok eta estaipa seinbet sirean, nire amapadaki ori, akorduen dauko, baie sasp i arroa eroaten i ausen subi konsoan batek, deabru koxoan bat i egoan da sasp i arroa eroaten i ausen ori iteko. Da neskatori geroago ta estuago; geroago ta estuago iten auri en da neskatori geroago téstuago iten yoan sanean ba, ixinauen sertu, t'etzekoepe estutu sirean da yoan sirean abadeagana ser pasetan dan esaten. Da subi ori ya aukien akabetan edo ya bastante abansaute, da ya bastarrok iten edo pasamanosak edo ba serok atzen atzenetan da ba goxaldea, laurek edo estaipa se ordu te, neskatori be estutu sen ba il in bearrauen da arimea emoteko dea-

brueri. D'orduen ba, suk u yakingosu, kukurrukuek ba entzuten badau beste baten kukurrukue goxetixugo ixin arrik, gaberdien be kontestau itotzo, D'orduen e ba inaurien i, kukurrukue en kantatorduko esanotzien ingo dauriela subie da abade orrek e, ensegida akordau sen ba, "emen kukurrukue ifini biu kantaka, sespabere estao seregirik". Da kukurrukuen kantori ba se inauen e: "kuuuukurrukuuu!" abadeak in, da: "eses el gallo negro" D'abadea sala esangurauen da besteok: "siga".

D'abade orrek atzera be: "kuuukurrukuuu!" da; "ese el gallo negro" alantel!

Da,atan, irugarrenes in auenean, kukurrukuek e gorriek, in auen egoan lekuen, kortan: "kiiikirikiii!" kontestautzen da: "eses el gallo rojo, ya emos terminao".

D'orduen enbrori be bertan itxite, neskatorren arimea sertu barik eskapau i aurien deabruok eta arri beten faltan parau isen subie.

#### ANBOTOKO SEÑOREA (Jose Arroita)

Ba kueba bat on san seguru da Anbotoko Señorori be an otesala ba, da beste bape beragas otesan. Da batenbat yoan san a konsulta bat iten ba beragana. Da ba; yoan san orduen emonotzen seguru sagardoa edateko basu bet, basu beten, da, kurtzea in iyotzen seguru ba arturduen ba sorgin edo parte txarrekoan bildurre daukela ta, entzutea ta, kurtzea in iotzen basu orreri ta edan i auen seguru sagardo ori. Da, akabaurduen basu ori, opatu iyotzen seguru te, esan i otzen:

—"Es, uin ori aureok (eurea dok), guk u, kurtzea in dotzek eta guk olangorik ixin geinkek e artu".

Da gero yoan siala ba beste lekuen batera da, an urre gorrie d'esan otzela:

—"Suen aitek iten yok onango iketzik?"

—Es.

—Ba guk onangoxea iten yuk. B'artise(k)p(b)atzuk (amaseiko gorriek eta...).

Artusela batzuk seguru eta ba yoan sala etzera da, etzean ba ikusirik ba onatireala ta sera dala, atzera bota i aurela, atzera, ta, atzera yoan san orduen e:

—Ba geao eroateko esan daustie ta.

Esan otzela ba serorrek, an goan orrek e, kriduek:

—"Uin ator ba mutil? Usabak altzau beaiok eta ba uin ixiinke-roan d'artisepatzuk arin de bidiru atzera artu d'altzau sala seguru ba usabori, Anbotoko Señorea altzau sala, da, mogidu sala ba a serturien orduen galapan etzerantza da bestea be ikusi auen or-

duen an baten batek sertu auen orduen, ba atzeti kuyetan. Da kuyaurduko etzera eskapautzela. Sartu sala barrure, Da, artuuen arrabioagas bototzela maldasiñoa seguru etze orreri:

—”emen etze onetan esta feltauco egundo itzué edo koxoa edo olengoxe desgrasie”.

D’eside faltetan seguru egundo be.

#### ANBOTOKO SEÑOREA (Asensio Beldarrain)

Anbotoko Señorea, daos antesedanteak, sainde gure pastoreak, enbrape, Elorribikoak, biek aistak... saspi urterik saspi urtera pasetan sala, da , Anboton iten situsela saspi urte da Lekandako kueban beste saspi. Da gaubetan askok ikusten situsela iluntzetan da gaugarrak saspi urte pasetan sian ingurumarien pasau iten siresela.

Orritires egiek. gaure familien artean pasaukoak.

#### JENTILEK UNTZETABEN

Untzetaben egosela yentilek, d’andaos arri bolak, yentilek altzaukoak, txabolea, da yentilek sireala bekokien aukiela begie, da kokotean bestea. Da bat egon sala tuertoa.

#### JENTILE ETA PASTOREA

Da Oroskoko pastore bat baten kuxau auen da barrure eroan auen, d’aukesan iru lau ardi an barruen, txabolan. Da txabolan aukesala, auken sue inde,

D’auken burruntzie surten berotuten, se lenago burruntzie okelea sartu baño lenago berotu itesan kontajiorik esetako txarripalego.

Da yentile parau sala lo, da yentile lo parau sen orduen tuertoa sana les besteti, kokoteti sartu otzela Oroskoarrak (burruntzia).

Da barruen ebilen gero a kuxetan, baye, esin yoan. D’ateak aukela berrogeta amar arroako arri piesea barrutik iminite.

Da gero a sertute se in auela, an lantzean bat ardie(k)tx(y)oaten yakosela d’ardiekuxetan situsenak eskuetan aidan botaten situsela urrun auren usen da gusti.

D’ateiko ardi narru beten barruen e gixona be yoan sala da kuxau ta botauela, beragoko pago baten egoala eskegite paraute, ba, an, katigitute egunen bidiruen grillistu beten. D’Oroskoko jente gustiegoala arantza yoateko bildurregas.

## LAMIÑAK

Lamiñak egosan Ametzako errotako serean, eta orreteiko lamiña bateri baten iyotzien, egoan arbolape baten, d'arbolape baten egoala rau-rau rau presentau yakon bat, da estait seosergaiti, seoser kuxau orrasie itxi auela an selaien, orrastuten ibilten siesala, da gero orrastuten ibili orduen orrasie an itxi da Ametzako neskato batek eroan auen a orrasie beran etzera da gaberdiko amabietingurumarien jootzen atea d'esanotzen:

“Ametzako meskatxa, ekasu niri naure orrasi espabe nik il ingot sure bisi”.

Da entregautziela, d'ateiko bateri erasoaso otziela ia selan orreik selan diresan yakiteko aberiguasiño bat, da, ...gustetan yakiela esnea, esnea gustetan yakiela sano, d'esnea emotziela da emotziela konsulta: “San Juan eguneko sekorrak biek pardoak ixin beudela da intillakas arrasketako erreka bastarrak”.

“D'andixe galduko diresela”.

## LAMIÑAK (Damiana Etxebarria)

Selan lamiñak oten sirean or erreka tarrotan kaskatera urtenda orrastuten, da, esin auela iñokendu. D'askenes enterau sireala San Juan egunean yaioko sekorrak, parejea, ein da, estait selango trage-sa esan audien be, ara, enas akordetan ointxe ondo, ein, d'errekakustiek arraspetako esan otziela ba kenduko badire. Da in inbeaudaudiela orixe t'atzenean e danakendu situesala lamiñok:

## JENTILAK

Da ba jentilena barris i jentilek emeti ibilten siala bai labeak errekistetan da, artoripadao labean, labean kuite eroaten da orreik i gausok kontetoskusan.

D'orti Untzetabeti Mandoire itaudiela pelotan da bolan, da bolak, gure Felipek, nebeak, Untzetabeti Miraballesera bajatu situ-sen. Selango bolak! baye ederto inde, seinde pelotakarbi garbi daosemodun. Da kapritxoia usabak e Miraballesgoa, len egoan usaba, surok e estosue akorduripe auko, ori Poberrenak, bajetako. da gixonakas yoan da bajatu situesan Miraballesera. An ixingoire, oin erre kara bota baitues be estaipaie.

Da, ba, olangoxe gausak, besterik ser dakipa nik orrinik... personajeak segun esataudien, andiek, da begi bet. Da nik estait entzunde badauket emeti be (kokotera eskua eroanaz) beste bat aukitaudiela ostaikoa be ikusteko...

Ibili, gaubes, orrikaubes, egunes esisen ikusten e arean olango-  
rrik da gaubes ibili ba sulori-sulo bastarra(k) topetan gosea aukitau-  
dien seguru edo yateko jeneroa topetan da esataudien ibilten siela  
gaubes.

#### JENTIL-UMEA ESKOLARA

Bai, eskolara yoan sala yentilkumea ta danak(ge)añetu yakoa-  
san ba nor dan edo ser dan edo da, asi yakienean bata yo ta bota,  
bestea yo ta bota, da gero mutilok o mantzo eskapau, da berape  
eskapau inauen.

Beste baten, bat, pelotean moduen bota auen ba(t)k(g)ora ta  
bestea estait nora, latikasu betegas danapotausen.

Aun kinteleko bastoia besapean sala, yentilkumea eskolara  
yoaten san eta gero putz einde botaten ausela umeok (g)ustiope,  
beragas sertzean asi eskero, bastoiagas, da gero atzera besapea  
artute etzera egun gustiétan.

#### JENTILAK UNTZETABEN (Zipriano Etxebarria)

Yentilek, Untzetabeti Mandoire pelotan itaudien da gero andi  
sertu sirean yentilok, urtotzien LAÑOAK, da lañoak unten otzie-  
nean:

—”Gureak in dau,akabau de”.

Orduen sertu sirean yentilok, akabau sireala.

.....

Arri-bolak bost edo sei arroakoak, karretillan ekarri gendusen  
kallera (Miraballes; “Kalle” da Zeberiotarrontzat) eroan gendusen,  
kareatxeko arriek sian.

Untzetabepen begoan txabola bat, yentilek inde. Oin be badao  
errastuen bat. An aukien txabolea, an dao atxa ebagite.  
D’orma(k)p(b)egosan bastante sertzuek. Oindo akabau baritaos,  
oindo markataos...

#### ANBOTOKO SEÑOREA

Anbotoko Señorea garrrrretan yoan san orti, ortixe sereti pasau  
sen. Gu, or, iketzegosten on gaintzesan, bai, Aspitarren, Dimeko  
atxera txirpotztztztzean yoan san garrrrretan. Nauk ikusi naindun.  
Aspitarren, or, iketzegosten on ginean, urte asko da, onduntxe  
yoanitzen ni soldadu. Da gaubean yoan san susssssien. Gu, or on  
ginean Felis da Lárrondo d’irurok, irurok ikusi gindun.

## ABADEGAI BAT ETA ANBOTOKO SEÑOREA (Txomin Aretxaga)

Anbotoko Señorea bisi sen Anbotoko kueba baten eta kueba orretan sartu sen abade iteko egoan bat bere estola ta gusti eta sartu sen barrure ta barruen ikusi auen (Anbotoko Señorea) eta barruen ikusirik eskatutzen ure, da urori aterotzen urresko basu beten, urre gorrisko basu beten eta inotzen krutze bat eta esan otzen:

—”Urteisu emeti eskuetan daukosun de gusti...”

Eta urten auen. aurrerantza sartu sen abadegi ori de atzerantza urten auen Olaetako batek, Otxandiotik albora dao Anboton aspian.

## INISITUERI DEIKA (Paula Arroita)

Egun sargori baten gaubiluntzean Seberiotik Larragotirantza yoyala Pantxin Larragotikoa, odaye asi sen.

Orduen pagodi eta gastañagi asko egoan eta ilundu orduen pagoperi(k) pagope gastañaperik (g)astañape Pantxinek es auen eser ikusten. Eta orduen inisitueri esan autzela se:

—”Argi, Argi demoniñotxue”.

Etaasten da inisituotz ikeragarrisiko bat... eta Pantxin bildurtu in sen eta barriro inisitueri esan autzela:

—”Lar barik, lar barik”.

Eta ostas-ostas eta bildur andiegas eldu sen Larragotire.

## ANDRAZKOEN HITANOA ZEBERION (Ignazia-Errosario Salzedo)

Kartori kuxau yostanean esan yostan se: “ba berak e lagundu ba-gauntzena bastante ogeto ongo soala”.

—”Bueno, gau(k) lagunduko yotzune barari” (1).

“Ba mutil, lagundu yata al ixin yunean”.

“Lagundu? Niri nok? (hemen txorigorri bat botaten du eta errespetoz ez dut transkribitzen)...

Da geaokobarik:

“Errementauko al dona atoontan”.

“Auk ingo al dok, esa ñauntzan, d’esas bete dirus?”

Kostauko yata un betetan emeti aurrera, andienak in dosak, esa ñauntzen”.

—”Bai, un betetako tertzio txarrok” (1).

.....

---

(1) Zati hau hiru andrazkori egindako grabaketatik harturik dago. Kontatzailea Ignazia da baina bitartean Errosario ere sar-tzen da.

I, un Karmen ibilikona ondo! (2).

“Karmen, oin be bearren yabine ba”...

Alboko etzeti bearrerako lagun onona. Etzean dona estorbue txarra. Etzean txarrie askarrie ta etze guztie atzitude ta itxiyotzese-na ta, ba niri andi balkoiti esaten e errekogidu beakoyule baten batek eta, bai, errekogidu? esa ñontzan, nor errekogidu bayana gurean gau gausena gu errekogitako moduen!

#### TXIKERRETA KO BARRIAK (Dolores Beldarrain)

Txikerretan, derrigor ixin bear txikerretan, E... Amak a, urte t’erdiges itxi osten da, besterik enaiñun ikusi.

Amandre sasp i urtegas il yatan. Gero etzean parau ginean ba aitegas, gure sorie a ixite san, aparejue(k) kortati gora, iturrukure, orrik, gaure konture gaunkosan, da esoskuen guri: “au ixu, ori ixu” esaten, gauk in bear.

Guk ardurea, ungo umeari esaios... auxe au be altzau bes.

Aitek e, berba ba(t)p(b)atak edo besteak deskuidetan basan txarto esaten e, selaien miñegas inaso sera, gastigue... Oin aspire ganean on nai mai ganean on..., selango diferentzie indau e?

Domeketan Undurrara, pooosik, Undurran olgetan ba klase askotara olgetan gaiñun, Sasolakoape etorten sirean da...

Olgau, arriekordetara da igitren, soka da, txirikelan da, potxolara intxurrekas da, orduen intxurre asko...

#### AIBELABEKO BESTE-MUNDUKOAK (Kaietana Goikoetxea)

Ba etorri sen gaubean amabitinguruen edo d’entzuuen katea sarata bat, da katea sagata ori gero ta urrago ta gero ta urrago ta gero ta urrago iten yakon.

Da sustu andie artuen , baye bidearloan katea(k) tarras direla, kateok, da estakipa ser ixingo san, baye sustu andie artu uen.

Da or mendietan sustue askok artutauen. Andiek ixingo sirean (yentilek), ara, estakinik.

Aibelabe bakisu non daoen, ba, antxe urtetauen atxen ganean, atxen erdi erdien, argi betek, argi asul-asul betek, da, se eteda, se eteda, ba, intzetzoa isingo ete da, da olan gentea ser pentzau estakiela.

---

(2) Galderak, hemen Leonor Ayestak egiten ditu.

Anbotoko Señorea, saspi urte ote san Anboton da saspi urtean gorbayen, esatauden, Gorbayeko Itxinen.

Lamiñapa; iberrondo errekan oten i sirean, da area, estait selangoa, urregorrisko aginekas san juan egunean yayoko sekorrakas itauden errekea areatu, da, olan lamiñok tragetan situesan seguru, bai, urregorrisko area-aginek, da sekorrak, baso edo erri sekorrak biek San Juan egunean yayokoak, aikas areatu itauden errekea laminek (g)altzeako.

#### YENTILEK (Juan Solatxi)

Ori yentilena?

Serean, ba Untzetapikun ifinten auen kadera bat,  
da beste kaderea Uriondo ganean, da uredaten auen an a,  
errotea daoen lekuen, elorribitako errekan uredan. Andiek! O!  
gixontzarrak!

Orrik, aspetan da kuebatan sartute bixi sirean seguru, Etzasora doan bidean, Ametzatik i, andikora.

Serari, Antero Amesolakoari, an a, sarratuko Seberioganeko ondoan, urtetan otzien seguru da:

—”Kendu ai, kendu ai”.

Onan txikitxue ta; —kendu ai ondoti— bai te...

D’atoan bera baño andiagoa. Da bildurtute Amesolara gixajoa.

#### LIÑOIA (Juanita Amorrortu)

Liñoia ereiten gendun ba semendien edo, eta gero a liñoia eite san atera, maietza edo estaipa, gariegas naste antzean edo...

Da gero a liñoia eiten san sabaldu landan, apur bet e bigundu daiten, iñontzean, aurién edo. Sabaldu, seinde, garie iten san moduen eskure ebagite.

Gero an apur bet epelduten sanean eiten san trangea esaten yakon, estakit, onango kadera biges, trangea esaten yakon goiti bera joteko egur bet eukitauen, asta ta gusti, d’gas ite san jo-jo, da ganeko kaskarea aukena, dana kendu.

Da gero, olan sertuten sanean, otesan beste espatea esaten yakon egur bat. Ain ganean imini ta besteagas eitesan yo, d’eitesan bigundu.

Ori in orduen, gero sarrantxatu ein beasen, sarrantxea, bai, olan egur beten aginek eukesan, onan atzamarran tamañuko lodiek, bostosai edo geao... d’an itesan sarrantxatu, ite san yo fin-fin imini.

Da gero itesan irun, otesirean makinatxuek erruda bategas, kaderakas ereiten, d’itesan firue.



Gero firue inde gero in bear ixiten san matasea, lau kuadruko ser bat, an itesan matasea batera ta bestera.

Gero gobadan garbitu, gobada bidiru bai sikan e errandonean ite san gobadea.

D'apur bet bigundu te suritu be ite sirean. Da iten sirean gobadan, igero esaten yakon gobadeari.

Gobadea be errandonean itesan, es oingo moduen lejiagas da olan, errandonea, barrikoa ixite san, puntea kendute, d'an itesan igero, inguruti iminten yakon, barruti e, ixera bigundu batzuk edo, besteak mantxau estaitean, d'aspien egur me batzuk suloti ure pasau dakion.

Ure botaten yakon goitik, da gero ixerak ite sirean misasko ixerak, erriko misea esaten yakon, etzean auleruek telea itekoak.

Da gero andi atera ta itesan arildu, da, arilok in orduen prepa-raute egoan aulerueri eroateko.

Gero, aulerue egoan Dimen, lenago begoan Seberion baye, aulerueri "Txankerre" esatetzien, an eleka barrie daoan biximodu biko etzean bixi sen, da erre in sen a etzea, da gero estaipa nora yoan san...

Gero Dimen egoan, eta Dimeko aulerue etorte san abixaute d'etorte san mando bategas, d'eroaten ausen arilok ak, d'ekarten auen telori iten auenean, telea inde, ixerok eta iteko...

D'orrik ixerok in bear ixiten sisan, ori esan dune, jabonau da errandonean igero, lelengo ur epela bota, gero ereñotzagas irikine eta usain gosoa artutauen.

#### ZEBERIOTIK BEDIARA (Gregoria Goti)

Guk se iten gendun? Ba Elordin bisi te ba gero ba ardieta ta ardiek aukiten gindusen, auntepe bai da ba baserriko serean bixi, baserrien...

Nora yoaten gaintzesan?

Ba gero Elorditik Gorbayera bijaasko, iten gendun, an Orosko mendietan ardiek eta auntek, da beyek, ganaduek, basabayek, da, orrixekas bixi...

Da Elorditik mesara, parrokire. Erromerie ixitean orduen Undurrara ta erromerien...

Da gero, ba, Lemoara etorri, ama il sen, aite be il sen, il yakun, da gero Lemoan aistia, a be il sen baye, gero Lemoara etorri da Lemoan bixi.

Da Lemoati Kolasiñora etorri, krida, krida onintzen. ni ortxe bean, urte bi terdi inendusen.

Da gero ba eskondu, onaxe etorri ta ementxe bixi, eskondu eskero ba ementxe bixi gara.

Eskondu gintzesan orduen Yaurire yoan giñean. Eskondu gintzesan Yaurire. Da gero eskondu sirena osabape ta aitite ementxe bixi sen da –"neure etxera etorri beosue"– iten auden, neure etxera... da gupe, an baño errenta txikerragoa dauku te... yoan in biu...  
...da ba berrogeta urte ementxe...

#### 4.-INGURUKO HERRIETAKO GRABAZIO-TRANSKRIPZIOAK

##### PAULORI JAZOTAKOA (Ageda Zabalandikoetxea) ARRIGORRIAGA-(ARGUYA)

Paulo ba, aspigarriye kargetan, san Roke aspiyen arrebiegas, da yoan yakosan gixon bi, d'esaotzien gixon orrik:

–Gauges etor ber dosu!

–Selan yoango nas ba, emen e, bei paregie ta arrebie ta... selan itxikoas?

–Estarture,dausela orrik or, suk etorri beosu gauges.

Da, Sollora (Zollo), da Sollora yoan sienien...

–Or beste lekuten yo ber dosu atie, d'esangotzue "nor dan", esango daude, ta suk esangosu: Paulo. lagun andiye ixin sen seguru Paulo ori da, Paulori akordau yakone; "da ni(k) se ingotzat, ni(k) ser eingot?"

Suloen ba(t)tx(y)akiñauen, baso-mutille ixin sen da, sulo baten inguruen lotu sien seguru eran audenok désanotzien ba:

–Frakak soltau, frakak soltetako ganie dekot!

–Ba, soltau.

–Aiba, garrikoa an itxi; (beste estaipa seoser be itxi bauen), d'ensegida nator frakak soltaute.

Da beste ori asten da builtaka mendiye bera, da sulori yakiñauen non dauen da ba asartau sen sulorretara yoatie, d'an e iru egun edo iñausela.

Da, topetan mundu gustiye Paulo ori, da ondio bixirik topaude-la.

##### ANBOTOKO SEÑOREA

Anbotoko Señorea da entzutie, sue dariyola yoan sala suloa bateti beste suloa batera yoan san seguru.

##### LAMIÑAK

Lamiñak? Bai, ama defuntiek iños esaten auen lamiñak etorten siela, gilistuke sementeriyondotik, bai, Arguyako sementeriyotik, d'aiketorriskero karra in inbier ostanduten gentik, aikositeroaten otzuela, t'estait nor be, eran audela da botaudela mendien baten,

baye, urrungo egunien aiguskiyek urteñarte a esin sela altzau, a personie er(o)an audela lamiñok.

### SAN JUANAK

San Juan egunien, gastea isitenintzenien, polla batzuk eta onan in kotoyekas da sera, katxarro batzuk alanbra batzukes da solorik solo karraka, da kantau: San Juan gabillien...

Da gero sue, ta metxoyokkoxi, seretan, da, pollakas da solo gus-tiyekkorridu, iten giñun.

### GARIA

Gariye, semendiyen, ba makiñetu te yo makiñetue, gariye bota ta gero naskitu, iten giñun. Da, gariye, madalena inguruen eldu ta yoteko kamaran arri betzuk ifini, ifini lanka batzuk onan, da gero arriyek sartu an, d'arriyok gogortu gero latigo an, eskus...

### ANBOTOKO SEÑOREA (Paula Duñabeitia) GALDAKAO

Orrek istori asko dauko, Ambotoko Señoreak, istori asko dauko ta. Mañaritik(g)ora, aldea, lenago, oin e sertute daos etzea(k)p(b)aie, yausite daos de, or e mendis bastante mendis bisi sian jentea, gure ama be angoa ixin sen da, da, aldea etze baten ba bixi sian matrimo-nio bat d'alaba bat. D'alabea bastante majea, majea sano. Da gixona yoan san basora ganadue bille, aite, gixona, aite, ganadue bille. Da, esin topau iñonbe. Da ixin sen egun bet, beroooo! sano, sano beroa, da ur tragu bet edateko be iñon lekuripes, esin, itoten! D'atzenean e ixin aguantau te: "Ño! aukesea Jaungoikoape estau kasuripeingo untxe, deabruek kasu ingo baleuke: txorro bat amentxe!"

Da gixon bat e elegante yantzite presentau, da:

—Zer pasetan yatzu gixona? ta.

—Ba egarrie! Esines egon egarriegas! da.

—Bueno, nik ure badekot, emongotzut, baie prometidu biostesu alabea neutzat ixiteko, neuges eskonduteko!

—Edosein gause se ilten nao, itoten nao, te seukurosune, edosein gause. Emoistesu atoan, gero gerokoak ukusukus (ikusiko dogus), emoistesu atoan! da.

"TZAK!" in, de txorroa!

—Or txorroti yausten dan anilloa alabeari sartu atzamarrean!

Buena, ta "TZAK" anilloa. Gorde auen D'eroauen; da desapare-sidu yakon gixon ori.

Etorsala etzera ta gero pentzau, an apuruen es auen pentzetan ser pasauko yakon, baie gero pentzeu ta pentzeu... bere andreari asi yakon esaten:

—Ba, atzo “Txitxirri” ikusinauen.

—Jesus! gisona, esaisu esan olakorik!

—Bai, bai, olako gixona estau basoan da gixona elegante yantzite ta sera olango gixonik estao, raro eretxiten dotzet a gixonari, normala esileitike.

Da orduen ba abadeagana yoan da esan in beayako se pasetan dan. Da etorri abadiñora da abadeari kontau se pasetan dan:

—Da, auxe tauxe pasetan yat (gixonak).

—Bueno ba, etorri daitela alabea bedinkasiñoa botateko!

—Ba esangotzet.

—Anilloa es kendu e etzamarreti, se olan igual denporea baño lenau eroango deu.

Gero yoan san abadeagana (alabea) eta esanotzen:

—Es urten etzetik esetako be, es ate bat sabaldu, es bentanea sabaldu. Barruen on saites e barruen, urten barik, barrure estoa ta bendesidute dao etzea d’ara barruen, urten barik; barrure estoa ta bendesidute dao etzea d’ara barrure estoa, da su be bendesidute, — bedinkasiñoa bototzen-d’on saites barruen!

Da, egun beten (alabea) aitean bille yoan san berandu etorsan da.

—Bei naparra falta da etzean d’esin dot topeu iñonbe (alabeak).

—Ba se ingotzesu ba, itxisu, biger topeuku (aitek).

Da orduntxe afaiten dausela ba afarie goxeti lenago, afaiten daosela ba neskatoak bentanara begitu auen da:

—Untxe dator beie, atea sabaltan noa!

Daaitek esan orduko: “geldi, geldi” yoan san da, atea, sabaldu eta “TAK” desaparesidu neskea!

Da gero ba mutil gustiek, bera bille, da iru mutil sartu sien Anbotoko kuebatara, da barrure yoan sian a ber topetan bauden. Da yoan sien da bi(k)p(b)ueltea ieudien bildurre emototzien barrurago yoaten da ba(t)p(b)arrure yoan san da topauen yesarrite, Mari euken ixena, esarrite orrastuten neskea beren orrasie urre gorris-koagas, itzelesko ullea, ulle luse lusea, orrastuten da maja-maja seguru esarrite ta...

Ikusi auenean mutileri esan otzen:

—soas atoan! berandu orduko! Soas kanpora!

Bestea(k)p(b)iskortu sian baie bestea lotu sen barruen. Da gero ba biek urteurienean esaotzien e ba urrinago yoan dala ta ba entzuten ixin dotziela ba: “Urten gurot! amen dao! urten gurot kanpora baie esin dottopeu atea, salidea, da amen dao da barruen dao eta alan da alan dao baie nik esin dot urten kanpora, esin dot salideri(k) topeu! Da esaiosue ba alantxe daoela ta ba erregiñean moduen daoela.

Da gero gaubetan, estait selango geubetan, or kueban ikustau-

dien olan e sue atzeti(k)t(d)a pasetan Anbototik. Da gero ifini otzien ixena “la señora de Anboto”.

#### ANBOTOKO SEÑOREA (Jose Kanales) ARTEA-ARRATIA

Gastea nintzen orduen, bertan kuebaurrean dao bat (txondor bat) eta alangoak asko daos.

T’an egon san Baranbioko bat “Txope” esaten autzien bat iketzegozten.

Gaubeko ordubiek inguruen, esaten auen, Anbotoko Señorea esaten eutzien ori garretan! etorri sala ta sartu sala (Supilaur kueban).

Ta “neure Jesukristo Jaune “ erresetan parau sala gison ori. “Nire atzena ointxe dok” eta.

Ta garretan sartu sala kuebara esaten euren.

Urte asko da ori sala, ni mutikoa nintzela.

#### SUPERLEGOR KOBA

Nire txabolati urren daoena da, ongo dires lau kilometro inguru. Ori da Supileor, orixe da kuebarik inportanteana Gorbeien daoena.

Oroskorantza dao gure txabolatik. Kuebea da andie. Kanbioak, bi arkalen ganean agotzagas kargaute be eleukie yoko goye.

Bokea dauko egoeran da sentroa datorko Urigoitirantza. Atxean barrure datorko.

Kueba orretan, nauenas sartu iños, esaten daure errekea datorrela aspiti, ta. Arraban sartzean dan ure dala andi datorrena.

#### ABADE BAT SUPERLEGORREN

Entzun nauena ixin sen se: Abade batxoan sala kuebea errekorritan kandela bedeinkituegas. D’andik urten auen orduen axeak eroan bear auela. Da gero isin situsela bereak, ba bere lagune(k) topetan dauren kandela negarra altzetako. Pago bateri estu otziela bera.

Da gero an kandela negarren bat edo bi topau basituesan espasituesan, ie axe ori parau in yakola ta yoan sala abade ori bere lekure. Or kueban sala.

#### URREGORRIA SUPERLEGORREN

Yoan ei sirean batzuk, ortxe bertan Supileorren, kuebara. Lelen-gos yoan sireanean ilun edo san, da dana urrea seguru.

Eta yoan sirian atzera urrealtzetan... da danak sube-buruek.

## LAMIÑAK (Maria Artetxe) ARTEA-ARRATIA

Lenago, bariku gaubetan, koxemanean a sorginek Petralandara yoaten i sirian. Da etze baten andrea ta gixona, ba, andra-gixonak kriduegas bisi i sirian da yoaten i sirian barikuetan Petralandara.

Da suteko arri losape baten untire bat eukiten i euden d'an eskuek et'ankok, ba untetan i situesan untire orregas da, "sasi gustien ganeti eta laño gustien aspiti" esanda yoaten i sirian.

Da gero kriedueri be akordau yakon seguru egun beten yoatea, da, ba, bera be. Da akordau yakon orduen ba katea bat artu i auen da bere ankati, katea, estu ankan kate ori, da, atxine aspirea egote(n) san sutian, oin estao aspiraripe, aspirea ta, aspireari ba ankati kate ori estu, d'aspireari estute gelditu i sen.

Da untire ori in de badiño seguru mutil orrek e, estala yoango pentzau i auen, aspireari estotziela aterako ta, badiño seguru mutil orrek e, "sasi gustien aspiti ta laño gustien ganeti", d'aspireorregas tximiniti gora mogidu i sen d'esin urten, tximiniti esin atara aspire ori, baye urten i auen.

Da gero sasipeti yoan bear, da koxamanean allegau orduko dana urrutute allegau i sen da, ia ser pasau yakon? da, ba sasipetati etorri dala ta ba esin yoanda urrutu dala esan i otzien" esanda etorri urrungoan.

Da, oin estakipa yoan basan geao... Emen dao kontau dauena baye ikusi dauena estakipa non egongo dan!

## BALTZOLAKO SUBEA (Patxi Bilbao) DIMA

Aldekotxean bixi sirean anai bi auren gurasoakas, bata san Pedro eta bestea Anton.

Da, egun beten, garagarrille san, da, bero... D'esanotzen anai batapesteari:

—I!

—Ser?

—Gaur u egurdiek e itxure ona yakak; da, yo gainkek Soloandiko gari-meta bat?

—Ederto! —esautzen besteak—. Lelengo in yeguasen ganadu edo gaure lanak eta gero armosaute yoango gosak e metea sabalduten.

Yoan sirean, da, allegau sireanean gari-meteen ondora, batek artuuen besarkada garie, ogei eskute edo, besartean da, bestea geratu sen begire akartute gero berape artuteko, da, esaotzen:

—I, Pedro, SUBEA yaok or! Da, oño! artu garrote bat eta tragaik! —esautzen da...—

—Tragau es, eskoasak tragetan, ori be Jangoikoak ine dok eta bixi daitela!

Baye Anton esin sen aspertu orrikas kontuokas da, Antonek topauen an garrote bat eta yo da bustena kendutzen subeari.

Subea gorde yakien, da segidu aurien anayok, da... urteatxoan urteak etorri, etorri sen gerra bat, Españek e gerrak nasino askogas aukitu, gerra gogor bat etorri sen da...

Da gerran sugertau yakon anai bateri soldadu yoatea eta bestea bere gurasoakas etxean geratu sen.

Da gero ba, gerran segidurien da segidurien da akabau sen gerre ori. Gabon egune san. Gabon egunean mutilek lisensiau situsan etxerako, da, auren gurasoak eta urrin... auren Gabon gaube selan ixingo ete dan... da...

Gixon bat plantau yakon ondoan Aldekotzeko Pedrori, esetan estauen gixon bat eta esautzen:

—Aldekoetxean oxorro (mesmeru) gorriek orrie fresko yaukok!

—Ik serdakipa, Aldekotzeko oxorro gorrien barri?

—Nitxakin! sainbepaño gurago aunke aure gurasoakas gaur gaubean afaldutea? —Nik i, gure, ba, mundu dana baño geao, baie ori ixilitikok ixin.

—Ori aukurebopai!

Berak a, gure badauela...

Buena ba, yarri ai emen nire biskerrean, da, allegaukosak Arraño menditara, d'Arraño menditara allegetan garen orduen, nik ingo yoadas laprastadak eta komediek ingo yoasat nik, baye, estok esango "Jesusik" gero, arre diablo baño!

Allegau sirean Arraño mendietara, asten da deabru ori gora ta bera, gixonori komedietan...

—D'arre diablo, darre diablo ta...

D'enseguida plantau sirean gixon biek Baltzolako kuebako arratean. Desatzen deabru orrek e Pedrori ba se...

—I, barrure yoan beaiuk.

—Ni es barrure.

—Bai, yoan beaiuk barrure.

Bera be pentzetan ba se gixon ixingo ete san edo ta tire ba, yoan sirean.

Da, barruen egon san gixon bat artza baten lo. D'esatzen e Pedrori ba se...:

—I, artik emetik moltzo bat etxerako!

—Es, —se pentzetuen Pedrok iketzak edo ilintiek sireala aik esatotzesan serak eta esetz— se gure aitek e onangoak iten ditu te nik es!

—Artik, etxata damutuko ta!

Artuuen moltzo bat eta urtaurien kanpora ta, begitutzienean:

—Oño! Onik urregorrietire bata!

—Baai!

—Atzera be geao artu beot.

—Es, es, oin es! an ikusi ok artzan gixon bat lo estok?

—Bai.

—A oin itxarritxaok, da yoango bagintzosak egundo geao es-  
keunkek batape urtengo.

ori esautzenezan beste ori be bildurtu sen da, gero esautzen e...:

—Akordetan yata i te ire anaya Aldekotxeko Soloandire gari-  
sabaltan yoan da gari-metan selan topau senduen subea?

—Baai!

—... D'iri esaoan anayak, ori sube ori tragetako, d'ik esautzan,  
tragau esetz, a be Jaungoikoak ine dala ta bixi daitela...! B'aikomen,  
atzamar txikie falta yoat, subean bustena, atzamar txikie falta...

...Da, beitik ser dinoadan, inori onik ingo espotzepe, txarrik  
iteko geniorik esaik auki; esaik auki egundo kristo geniorik euri  
gustetan etxatan gausarik inori iteko, se ire anaya i sugertau asen  
lekuen sugertau balitzok, etxoan egundo geao inok ikusiko...

...Eta ganera, Aldekoetxeko etxaguntzan inosbestok faltako mutue  
edo mankue edo errena, egundo be estuste faltauko...

Da Pedrori emon otzen garriko gorri bet esanes:

—Au emoyok anayari!

Da, Aldekotxeko etxea andik kobati kilometro bat ingure dao  
d'entzegida plantau sen Gabon gaubean familien.

Ateatxo (ateak yo) ta seme galdue ateatan ikusi aurienean e  
adore barikeratu sen familiori te...

—Selan ixin dok ori te? edo selan ixin den da...

—Onixek eta onixek pasau yatas; —eta anayari adikuna bat  
botata—. D'esan yostek ni sugertau nasen lekuen i sugertau baintz,  
ez induala geao inok ikusiko, d'auxemon yostek iri emoteko (garri-  
ko gorrie).

—Nik setako yoat ori ba? —esautzen anayak—; lotuyok portaleko  
oxorroari (mesmerueri)!

Da lotuten dotzo mesmerueru te... susterreti atera ta eroauen e  
infernuetara edo ainbatera.

Da nire amamak esatauen, nire amama il sen oin irurogei urte  
larogeta amalau urtegas, d'ak esatauen auren amamak eta, esatau-  
riela an kueban artuko ilintien urregorrien diruek gastau artean,  
San Pedron, Gabon gaubeko amabietan mesea oten sala, Dimeko  
San Pedron elexa nausien.

## LAMIÑAK

Pastore bat ibilten san, mutil gastea, osabeagas mendien, d'etor-  
ten yakon neska bat, baye neskea galanta seguru, galanta ikeraga-  
rrie, da oño! Alangobaten esan iotzen osabeari ba se:



—Niri etorten yat osabea neska bat, naskatxie galanta egunikeyenetan.

—Ixin beallaukek lamiñen batek, —esan iotzen osaborrek—.

—Estopentzetan!

—Etxakiapa, ixinbigoal gero! Ia iok kargu ankak selangoatxaukosan!

In iotzen kargu te urrungu juntau sireanean beituten dotzo ta... patoak aukiten dauden moduen telea i auken beartzartean da esan iotzen osabeari:

—Ba olangoxe ankataukes.

—Yakin yoat nik olangoxean bat ixingo dala.

Da gero, neska mutilek artzean daurien moduen arkalegas konfiantzea geroago ta geao ta, ak neskeak esan iotzen:

—Ingoitu San Juan egunean bei betek txal nabar bi, sekorrak datosen denporan Mañariko Markamingo errotea intillatuko balis batera ta bestera, gutzako oxire ixingo litike bajasandie, —esan iotzen—, euren inderratxoango leitekesala.

San Juan egune be allegau sen da, badoas, intillatu daurie Mañariko Markamingo errotako andaparea bateti ta bestera eta ene! intillek sapatze soloan ibilten dauren moduen, dana ulea d'odola seguru... da, orduen debildu i sirean laminok.

## KASTREJANAKO ZUBIA

Ori Kastrejanako subien kontu ori, kontratista batek artuuen da egunes itauen bear dana gaubean urek eroatotzen.

Egun beten esan i auen ba se:

—Estao deabrurik auxe subi au ingo dauenik!

Esan bauen se, agartu yakon deabrue ta badiñotzo:

—Ire arimea emoten bostek biger goxerako inde daukok!

—Bai; —posik agindutzo beste orrek arimea—.

Gero asi sen kontuek atetan gixon ori:

—Ori in dot, baye gero se ixingo ete da?

Da, fraile bataoela an komento baten onetiko gausasko ebitetan dituena ta axegana fraideagana yoan da badiñotzo fraide orrek:

—Orriperbok esan dotzesusenean, sesan dotzu, etorriko dala?

—Bai, etorriko dala esan daust.

—Ba, ori esan botzu etorriko da. Topaixu ollasko bat Martien yayo arrautzea ta Martien txitea ixinekoa Martien yayo arrautzea ta Martien txitea ixinekoa da orrik (deabruek) etorten dian orduen, orixe eroaixu kapotapean, ori marti-ollarrori.

Da yoan sirean deabruok o gaubean argi-kanpaya(k)tx(y)o aurienean da, goatu otzin Urkiola ondoko Deabru-atxari, deabruen

burdiek ineko markape atxean antxe daos, da gero saspi mille deabru ibili sirean arriek eta beitusen apañek eiten.

Deabru bet, koxoa uki aurien koadrillen da, goatuten dotzia jaunekobean batapatera da besteapestera, da kontratistek a besapean ollaskoa daukala, larri, Marti, ollar gorri ta gusti.

D'askenengo ekarri aurien kargamentue san, saspimille deabrun erremintak eta amasai arroako arri bet; deabru koxoak ei ekarren kargamentu ori.

Arri beten faltan egoanes subie, beste deabruiek esan i otzien koxoari:

—Atzeneko arrie faltok eta bide bates auk eroaik amasai arroako arri au eta danon erremintak.

Mogidu sirean deabruok subirantza da sano sireanak allegau sirean tersiorako baye orrek e deabru koxoorrek e tardau in i auen da, deabru koxo ori, Nikolas euken ixena be, arrimetan asi sanean e...

—Ia, Marti-ollartxoa, portau sakides, —esan iotzen bildurregas kontratista orrek eta...

—"KUKURRUKU"!

Orduen, askenengo deabru koxoorrek e bota i situen arri t'erremintok d'alantxik lotu sen subi ori arri beten faltan.

**DIRUA BOTA KUEBATARA (Anestasio Larrea) DIMA (gaur Galda-kaon)**

Nik entzunde dauket, gurean aititeri t'amamari t'onan ba gaste-tan, bakisu, umeari kontetotziesan bai, te, lenago be, onan, dirue ta selan botateuren kuebatara setako estakipaye.

**YENTILEK**

Enbrak, batzutan barrizuepe ixiten dire ta, oten i sirean yentilek, yakiten audienean aurekaiti berba txarto nok iten dauen, yoan, da onetiko gantxo bategas miñe arranketan iotzien androri. Dimen, pasaute, ikusite t'aurek esotute eukiela esataurien gure amama defunteak eta...

**PETRALANDAKO BIDEKURTZEA**

Petralandako kurseroa da famaue. Gure denpora gustien entzun du a sala leku bet errespotokoa; da, antxe pago baten kurtze bi oten sian da Patralandako kurtzea esatotzien.

D'apagoa bota audenean, gentea kexas, a esaudieda bota bear da...

#### ARIMEA OFREZIDU DEABRUARI

Baten batek i auken alaba ederren bat da bearren ebilen egurginen seguru beresi txarren baten, da:

—Eaos! au bear au deabruepe ellaukek ingo! D'alangobaten agartu iakon parte txarrekoen bat eta esan iotzen:

—Alaba ederraren arimea ofresitan bostesu, ingo yatzu bearra.

—Bai.

Baie gixon ori estu te larri parte txarrekoa(k)p (b)earra aurreratu audenean...

Da konsultau sen, da, abadean batek edo esan otzela:

—Topaixu Marti-ollar bat; —onak ixiten dire orrik aurrerantzako be —da, badakisu se inbeosun: bearra akabetako daoen serean artu ollarra ta eroixu gordeta berak ikusten estautzule da kantaso iosu.

Da bearrori akabetako daoela seguru, asten da seguru kantetan, kukurrukuotzean, da beste ori: sue! ta...

—Ios! Baten batek ser in ondo esan dotzu, yakin banauen yakin! D'loan salbau i auen seguru alaba ederra.

#### JENTILAK GORBEIAN (Simon Goyoaga)

Zeanurikoa-Zeberiora ezkondu

Supilaurren, Gorbeyen, Anbotoko Señorean kueban aurrian egon sirean andra-gixon bi ardiexagoten.

Etorri yakon yentil be(t)k(g)xionagana d'esan otzen beragas, jentilegas, yoateko. Da kueba barrure eroan auen. Kueba orretan askeneraño iñor esta sartu. Kandela ixituegas sartu eskero, kandlea ematetan danean, arnasean faltan urten in bea dalako. Da erreka bat eta ikeragarrisko maiek eta ei daos an barruen.

Eta kueba barruen yentilek esan otzen: “Ire aitek olango iketzik iten yok?”. Da gero esan otzen: “artik!” D'arturduen kunturatu sen pastorea, amasaiko ta aun erleko gorriek sirela.

Da esan otzen yentilek: “Artu ik auk (g)uroan beste, baye arin, usabak ixartu in biar yok eta...”

Asi sen orduen pastorea kolkoa ta boltzapetetan alik etarinen, da orretan daoela ixartu ein sen usaba d'orduen galapan asi sen da deabrue bere atzean.

D'atxerik atx bidearloak in de gero Oroskorantza, bidean Olarteko kanpaiotza entzun aurien. T'orduen yentile geratu in sen.

Pastorea salbau in sen, se yentilek esin auen pasau aurrera kanpaiotza entzuten san lekure. Da pastorea salbaute ikusi aue-  
nean, yentile(k) maldasiñoa bototzen.

Eta olantxe yaso san. Gero aren pastorean etzean eta bere  
ostaikoan artean egundo esta faltau esbearrik.

#### PENITENTZIA BETATUTEN SUPERLEGORREN

Gison aberas bat Supileurren penitentzie betetan ei egoan. Iyo-  
rrekoea san da garrirañoa biserragas ibilte san.

Santi Motz eta bere lagun bet Supilaur inguruetati ebisen  
mendien, eta atzera etorteko berandu in yakien eta gaub'iten  
supilaurrera yoatea pentzaurien.

Ara eldu sirianean gison bisertzu ori burruntzien urdaye erre-  
tan topaurien d'aik esan utzien se:

—”Berandu in yaku etzera yoateko ta bertan gaube itia pentzau  
ugu”.

Eta beste orrek erantzun utziela se:

—”Emen len be lagunik asko gaos”.

Eta gisonok ori entzutian bildurtu in sirian d'al xixi aurie mo-  
duen etzera yoan sirian.

#### GAUEKO ARGIBILTARIA

Gallartuko (Orozko) Txomingorri burrukarie san, indertzue,  
kompromisorik es emon bear berari... ostantxean!

D'ori yoan san Billarora, ferire. Lenago (Orozkotik) jente asko  
yoate san ortixik, Sintatxeti. Nau be sarriten yoate nintzen, Sintat-  
xetik, Aibelabetik egoan senda bat. D'andik San Martingo sendatik,  
Aibelabetik, argie etorren da berekitan badiño:

—”Oño! Ortxe yatok argia d'ontxe ñaok ni ondo! Orraxe Pagalan-  
dara urten bea yautzak argi orreri!

T'argi ori betorren da urten otzen Pagalandara. D'argi ori etorri  
sen orduen, beste ori aspian, palu andi betegas. D'argie plantau  
yakon serean, arbolean, errama baten ganean.

Ta beste au indertzue ta, gixon bildurbakoa ta... yoten dau argi  
ori... da gero: Oño! a-ger-tu-ya-ko-san ba!!! Asten yakos atzerikara  
segiduten da beste au estu te larri.

Eldu sen aiñeketa baten Adaroko Iñisio Mantxuen etzera. D'eka-  
rren sustuegas, atea yoteko asti barik, bota ate sar ori be ta sartu sen  
ba.

D'orduntxe andrea mesarako yasten:

—”Ene” se Jangoiko! se pasetan da or?

—Ai ene, ai ene! —sutiape artu esinik seguru.

- Se pasetan yatzu ba?
- Urten dustie besteok!!!
- Beti sabis su, Txomingorri edo traste ori!
- Ibili sates formal!
- Ene! Ene!

Ta gero, ango andreak etalabeak urten in bear ba. Baye ak esegaitipe urten gures. D'egune sabaldu auen orduen urten i auen (Txomingorrik).

## SUPERLEGOR YENTILEN BIZI-LEKU

Pastore bi egosan Supilaur inguruen bakotxa bere errebañuegas. T'auxe pasau yakien.

Negue san, da mendien pastore biek, d'akorduripes. Da onetan adurre goitipera, botalean. Da batapesteari badiñotzo:

—”Mutil, esin gaintikosak eldu etzera, Supilaurko kuebara yoan beako yuk”.

Da kuebara yoan sirian. An beukien lekue ardiak sartzeako. Errebañue bertan sartu t'an egosan ardi artean tapabokakas bertan lo eiteko.

Da in sen gaube. Da onetan se: “Tziiiist! t'ardie(k) kanporantza eskapa. T'aurek: Fiiiio! Fiiiio! kuyau te barrure sartzean (ardiok).

Andik (g)erogoan be barriro: Tziiiist! T'ardiok seguru euren ganetik eskapa. Atzera ardiek topetan da sartzean; alan ibili ei sirian gau gustien.

(...) Nik entzutia(k)t(d)aukedas orixin sala aik (pastoreak). Aimaria(k)tx(y)o baño lenago an kueban sartu sirialako. D'an dau-sen serak, yentilek edo, oneik serok, urtetako podererik es.

Se Aimarietan urtetan ei daurie eta gero arrikanpayagas sartu iten i dire.

D'egongo sirian mutilok (pastoreok) euren medallakas edo euren gaubeko orasiñoakas edo, T'axe bendesiñoako seretik esin pasau kueba barruen egosan yentilok. Eta entzuten euriesan saratok, yentilek edo urten gure t'esin urtenean egosalako sireala.

## ANBOTOKO SEÑOREA SUPERLEGORREN

Urigoiti asprien dan Olarten ein aurien olea. Orduen munduen es egoan fraikerik es eser. Eta'ntxe arriegoan burriña edo eiteko, eta fundauen olea. Da olea fundeu auen lekuen ifini euren itzelesko erruda'ndi bet, egurreskoa a olea mogitako.

Asi sirian ba bearren asteko, ta ifini aurien olori t'esin aurien

mogidu esetara ba. Eta baten batek esan otzela: “Ori olori mogidu bear bosue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana yoan beosue konsulte bat artzean ia sela(n) mogidu leyen”.

Da usabak, propiedadedun bet ixingo san, da bera bildur de, errentorea agindu auen. Eta errentadorea yoan san. Supileurko kuebara Anbotoko Señoreagana, da, Anbotoko Señoreak ei auken alboan erri-sekor bat itxunde eta bera goruetan ei egoan seguru.

Eta, “Ementxe nator ba”.

“Ser dakastesu ba? kontestautzela.

“konsulte batera nator”.

T’esan otzen: “Urliak; Olarteko serak, —nausi bet isingo san, lenaokoa—, olea in dau d’esin dau mogidu. Da baton batek konsultetako Anbotoko Señoreagas”.

D’anbotoko Señoreak esan otzen se: “Au olau mogidutia gure bosue, urlie komentoko superiorragana soasiet’axek esangotzue. Se ori olori suotaukosue bendesidu barik. —Se fraikek eta oneik autoak eta barkuek eta oeik bendesidu estire eiten?—.

Eta orrek olorrek esin dau mogidu, deabruetauko detenidute”.

T’emon otzen sagardoa, basukadea. —Lenao usedioa egotesan ullesko subiak fundetan sireala iturrietan da baton batek edan auela ullia ta gusti, sera, ure, ta fundidu yakola barruen subia, aregas ulliagas da gero andik etorri sala “JESUS” esateko usedioa, edan itorduen. A “JESUS” esan eskero estala formetan suberik. Balitike ori egie ixitia esta?... kontetan dire ta, gausek eta...

Eta orrek beste orrek, sagardoa edan auen da esakerea auken “Jesus”, eta esan auen “Jesus” eta itxi autzen basue.

Eta badiñotzo Señoreak: “Au basu au eroaixu, se onegas len badauket penitentziegandik, andiagoak(k)t(d)aukodas; se au basu au suk in dosu bendisidu, “Jesus” esan dosunian.

...

Da yoan sirian komentuko superiorragana d’etorri sen superior ori t’estolea ifini, bere yantzie sertu d’asi sen bere bedeinkasiñoa botaten. Eta tu-rru-mu-tu! ikeragarrisko bategas asi sen orrenbeste egurreko errudia bueltaka. Danak ikeratute, eta superiorrak esaten otzien: “Es bildurtu, es bildurtu, es bildurtu!”

Eta askeneko burrundada bategas yoan san andi deabru ori eta esautzen superiorrak: “Ikustosue? Suek lelengotan bendisidu in basinduen, bearra asi orduko, au mogidu ingo san ondo. Baye, tire, oin segidu olonegas, segon da deabrue(k)t(d)etenidute”. Su, balitike orreik egiek ixitea esta? Ara, siñestu gurestituenape, an daukies ondiokarren an Olarten aldibeteko olaren antigualeko serak, arriek, sinifikasiñoa antxe aukingo daurie.

## GAUEKO ARIMAK

Orrik, kondan auek, agartu eskero ba bai, or Gallartun (Orozko) ortik Sintatxetik agartan sian argiek esta, ta orduen itesan medallea edo eskapularioa aukieskero, ra! agertu da: “Angelus domine nunciabit Marie...” eta iru agur mariak errestan sirian da gero “por las almas de purgatorio, un Padre nuestro” eta ya desaparecidu eiten sirian.

Da orrik yentilok palukadea emoneskero ba etzealangoa(k) yayoten sirian; “brujoak” be esatotzien, andiek, baie estaukia deretxorik presentetako noberak atentziñoa geitu eskero, da “Aitearen da Semearen—” egin eskero be estaukie deretxorik.

Da, agartuten segitan daurienak defuntuek badire, gero esan beayakie: “saspi estatus onantza es saites arrimau!”

Da estaukie deretxorikarrimetako, da esan beayakie:  
—“Se opfresimintu dakastesu”!

Eta ak esaten dautzu ba auxe pekatu au dauket edo serau dauket edo dauket abitu betx antzite edo sertute... da esin dauriela a soltau ta ba abadeak soltaukotzela, sertute gero, arri kanpaiak a, yota gero, ta pañelue markaute itxiten auriela.

## DEABRU GEDARREZ AHUNTZAK PILATUTEKO

Ori sen Gregorio, onango betullekas, antigualeko gisona. Eurie goien bean seguru da auntzo(k)p(b)ateti atera ta besteti sartu ba serean, Legorpen Legorpen aspean, da, ei! ei!: “estok infernuko deabrurik agartuko, onik kaballeriok, onik auntzok atateko”.

Da batos kaballeriok, da odola eskatu iotzion seguru, odol tanta-kadatxoen bat seguru, emoten botzien eurek aterakotziesala.

Da beste ori aik ikusurik, bildurtute, itxi auntzok, da burukulleak danape altzaute seguru etorri isen etzera. D’etzean be isin soportau d’amauki auen aurrean da:

—Aikor! aikor! Beti saos orriri gaies da oin etorri yatzuselako kexas saos?

Da beste ori kortati te sereti te, ta ene! ta, estaipa ama edo alaba edo seme yoan sirean ori nire usaban arrabea, a san ba, bost seme mesa emonak isin situenak, ori da, erresantea ta sera san a seguru, d’alibruen bategas etorri d’ak sertu gixon ori.

## TXIKOA (zaldikumea) ETA PEPETXIN (Kabo Billarokoan aite)

Ori Irumugarrietati bera, ba, ardiek larratu da etorri sen ori etzera, da ostaien txikokuman bat. Baie sana letxe bera fuertea ta indertzue ta barru onagas, da seguru te, ba, Elorribitako kurseroan:

—”Ba etorten bas orti ona, neuk sertukotzat bai, laster aterakotzat”.

Da txikoak ostaien segidu. Da kuxau palue ta yooooten dau txikori da “nekasuen”, etorten yakos seguru beste mundukook... yo auelako edo, norberari es iotzie eser iten yo esik, norbera(k) persegidu eskero orduen persegitidaurie, fundidu iten i dire seinde seietan moduen, txikoan be fundidu. D’artes Pagalandati bera etorri sen seguru sarataka ta usabandre, ori Manuel Tranpan andrea, bastante beatantza san ori be bai, aista bape eukien moja ta erresante antza san a, da agana, d’ak errosarion bat erresau te ak aplakau.

#### YENTILEK ANDRAK EROAN

Yentilek, ortxe Aibelabeti doa sinta bat mendie, d’aren aspian ibili sirean seguru artayorran andra ta gixonak. Da yentilok andi kuebati urten da androk altzau i auriesan ara gora seguru, andrak eroan i auriesan, bai, YENTILSULOan, antxe i egosan yentilek.

#### ABEMARIAK YO TA BESTE MUTILOK EROAN

Nire usaban errentoreen anai bet isin sen, da, ardietara yoan da ardiek sertu orduen Abemariatxo ta, trankilo a, Da “beste mutilok” altzetan daurie egoan lekuti, dau gau gustie ibili aurien andando seguru, eta ba berak es ekiena letxe eser, gero Upo menditi biera etorren seguru otatzea bera, da sereko, Upoko ollarrak “kukurruku” egin. Da orduntxe memorire etorri te Upos berako mendiesotu, da yoan san etzera.

#### LAMIÑAK LANPREABEKO ERROTAN

Lamiñak bajetan i sirean orra d’esne saleak itzelak, da se akordau yakien seguru ango errotako serari: “lamiña bat kuiau deidan”.

